

Natura izpiritualaren aurkikundea ilustrazio ingelesean; Shaftesburyren naturaren kontzeptua izadian, estetikan eta etikan

Egilea: **XABIER ARREGI GORDOA**

Urtea: 1999

Zuzendaria: JOXE AZURMENDI OTAEGI

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-663-6

NATURA IZPIRITUALAREN AURKIKUNDEA ILUSTRAZIO INGELESEAN

Xabier Arregi Gordoa

XVII. mendean Galileo edo Newtonen aurkikuntzek balio izan zuten mundu naturala, bere osotasunean, batasun modura ulertzeko, lege fisiko bakar eta unibertsal batzuen arabera. Galileok erakutsi zion, ikusi nahi zuenari, mundu fisiko bakarra zegoela, zeru eta lurrian, eta Newtonek aurkitu zituen unibertso bakar hori arautuko luketen lege unibertsalak. Horrela gaindituta geratu zen ordura arte nagusi izan zen lurraren eta zeruko esfera perfektuen arteko haustura, eta, horrekin batera, arrazoiaren eta hautemaketaren arteko arrakala. Hala ere, munduari buruzko errozko aldaketa horiek ez zuten ekarri naturaren eta giza espeziearen arteko batasuna. Arrazoia ez zen gai eraldaketa horietatik etor zitezkeen ekarpenak baliatzeko, eta bizitza praktikoarekin zerikusia duten gorabeherak (etika, politika, estetika) azaltzeko. Arazoa da ea alderdi hori geratu behar den irrazionalaren eremura baztertuta ala badagoen modurik haustura hori gainditu eta batasun arrazional bakarrean biltzeko errealitatearen osotasuna.

Descartesek bere zalantza prozesutik albora utzi zituen moral eta fede kontuak, eta bere hausnarketa zientziaren oinarriak finkatzera jo zuen. Arrazoia arrazoi matematiko hutsa izango litzateke, formala, eduki praktikorik gabea. Moral kontuen bazterketa hori azaltzeko esaten da beldurrak eraginda hartu zuela bide hori; izan ere, ezagutzen baitzuen Galileok jasandako jazarpena. Edozein modutan, berak beharrezkoa ikusi zuen bere jarduera norabidetuko zuten arau moral batzuk zehaztea, bizitzan aurrera egiten laguntzeko. Edozein modutan, arazo praktikoak bere hausnarketatik kanpo uztean, era batera edo bestera, naturatik kanpoko eremu batean geratzen dira.

Hobbes saiatu zen jatorrizko giza izaera definituko zuten lege naturalak zehazten. Berak eskaintzen digun ikuspegia etsipengarria da. Gizakia berez oso izaera kaskarrekoa agertzen da. Hobbesen arabera, egoera naturalean ez da lekurik izango lankidetzarako, helburu berdinen bila diharduten gizakien artean sortuko dena lehia eta etsaigoa eta gerra besterik ez da izango. Hobbesen ikuspegia ez da baikorragoa izango gizakia gizarteratzen denean. Gizarteratze hori bizitza miserable horretatik irteteko modu bakarra izango da, baina irteera horretan ez ditu bere izaera doilorrari berezkoak zaizkion ezaugarriak alde batera utziko, haatik, ezaugarri negatiboak indartuko dira eta bere gizarteraketan eta gizarte eraikuntzan gauzatuko dira euren mailarik gorenean. Hartara, irtenbidea izango da edozein harreman moral baztertzea, eta botere egitura indartsu bat sortzea, beldurtuko gaituena, eta ordena bat sortuko duena elkarbizitza ahalezkoa egiteko.

Morala, estetika, lekurik gabe geratu ziren, arrazoitik kanpo edo ezabatuta erabat. Horri erantzuteko ahalegintzat jo daiteke Shaftesburyren pentsamendua. Bere helburua da etika oinarri arrazionaletan finkatzea, baina hori ez ezik, bere filosofia, eta munduari buruzko ikuskeraren oinarria, etika eta estetikan ezartzea. Huts egiteko

beldurrik izan gabe, esan dezakegu Shaftesburyk jakintza estetiko-moralaren arrazionaltasuna aldarrikatuz, lehen filosofiaren mailara jasotzen duela, eta, beraz, ezinezkoa irudituko zaiola benetako ezagutzara heltzea ez bada onaren eta ederraren hautesketatik abiatuta.

Natura

Shaftesburyk horri guztiari errozko monismo batekin erantzuten dio. Ez du onartuko errealitatearen zatiketa eta uko egingo dio naturarekiko arrotza litzatekeen edozein hastapeni. Munduaren batasuna, beraz, naturan finkatuko du. Lurrera begira aurkituko dugu batasun unibertsal hori, landare eta izaki bizidun banakoen perfekzioaz eta ordenaz jabetuz. Horrela helduko gara unibertsoaren ordenaz eta adimenaz jabetzera. Burura ezina izango da, beraz, ordenarik gabeko natura, eta ordenaren hastapen bat egongo da derrigorrean. Ordena natural bakarra izango da, bakarra eta arrazionala. Naturak, errealitatearen osotasunak, beraz, osotasun harmoniko bat osatuko du, eta bertan jokatu dute elkarrekin harremanean dauden izaki ezberdinek.

Bai natura eta baita natura horretan jokatzeko duten izaki bakoitza era dinamikoan ulertuko dira, eta ez zerbait estatiko bezala. Gauza guztien arteko elkarrekiko harreman horretatik sortuko da naturaren batasun harmonikoa. Osotasun harmoniko horretan ez da ezer soberan egongo, natura ez baita betea izango piezaren baten faltan badago. Hontara, naturan dagoen guztia osotasun horren zatia da, eta ez da inoiz txarra izango, osotasuna ona delako, eta izaki horrek osotasunaren onaren, harmoniaren, helburu hori betetzen laguntzen duelako. Hemen Shaftesburyren pentsamendua ezaugarritzen duen baikortasun unibertsalaren adierazpen garbi baten aurrean gaude, gaitza naturatik baztertzera eramango duena; dena da ona, bai berez, bai ona ekoizten laguntzen duelako, eta harmonia unibertsalaren zatia delako.

Morala

Moral kristaua negatiboa, ukakorra eta heteronomoa zen. Norbanakoarengandik eta naturatik kanpoko epaile bat zen irizpide moralen iturria. Epaileak zigor eta sariaren arabera jokatzeko zuen, eta natura bekatuaren antzezlekua zen. Dena dela, moralari arrazionaltasun estatua ukatzen zaiotzanean, ikuskera heteronomo hori sendotu egiten da. Shaftesburyk gaitzitu nahi du dualismo hori, eta moral autonomoa eraiki, moralaren jatorria naturan eta norbanakoaren baitan jarri. Horretarako kontzientzia edo sen moralaren ("moral sense") kontzeptua sortzen du. Berarekin gure barruko ahalmen bat adierazi nahiko du, giza naturari ezinbestez eta unibertsaletan lotuta dagoena. Sen moral hori adimenezko sen modura ulertzen du, edo, gehiago zehaztuz, zabalagoa den beste ahalmen baten erabilpen berezi modura, unibertsoaren harmonia atzemateko bideratzen digun intuizioarena alegia. Beraren bidez aurkituko dugu gure baitan gidaritza gure ekintzetarako, eta bertan aurkituko dugu gaitzarekiko arbuioa. Sen moral hori jaiotzetik sen bezala kontsideratuko du Shaftesburyk, sentimenezko aurrekoa, eta, beraz, gure arazoimenezko errota.

Sen moral horretan oinarrituta Shaftesburyk buelta emango dio moral kristauari, baina baita Hobbesek eta Lockek eskaintzen diguten giza izaerari buruzko ikuspegi ezkerreari. Descartesek "cogito, ergo sum" delakoa "sentio, ergo sum" bihurtuta, andre-gizonen unibertso emozionala jarriko du bere pentsamenduaren muinean, alderdi emozional hori gizakiaren izaeraren ezaugarri naturala den neurrian. Moralitatea eraikitzean, beraz, zirrarekin, sentimenduekin, lotzen du bete betean, eta zirrara horiek, oso neurri handi batean behintzat, oso ez bada, gizakiaren gizarte izaerarekin batzen dira, eta askotan bereziki banakoak berak ezagutzen duen ala bizi izan duen gizarte konkretuarekin. Gizarte konkretu hori izango da gizadi osoaren ona bilatzeko abiapuntua. Taldearekiko atxikimendu hori izango da, testuan iradokitzen denez,

unibertsoaren osotasunarekiko atxikimendua elikatzeko bidea. Gizabanakoak talde hurbilari begira garatuko du bere sen morala, eta ikasiko du baztertzen berekoitasuna, edo bere plazer hutsa. Bestea, hurkoa, onetsiko du, eta onespen horrekin beste hori naturaren osotasunean ikusten ikasiko du, naturako izaki guztiengan. Taldea, erkidegoa, onestea eta auzolana balioztatzea izango dira gizadi osoa onartzeko aurrebaldintza.

Estetika

Cassireren aburuz Shaftesbury Ingalaterrako lehen esteta izan zen. Arte munduan ere sentsibiltate berria, artearen gaiaren eta lanaren tratamendu berria, sortzen doan garai batean, berak, bai naturaren, bai giza sormenaren ikusmolde bat eskainiko du, sendotasuna emango diona jaiotzen ari den sentsibiltate estetiko berri horri. Aurreko garaietan ederra, nola egia, errebelazioaren tresna modura erabiliak izan ziren, hitz sakratua bere bidez azal zedin. Natura bekatuaren indarren antzezleku bezala ulertzen zen, eta bertatik ezin zen atera inolaz ere edertasunaren eredurako baliagarria izango zen ezer. Shaftesburyk artearen esparrua zabaldu eta natura edergai bihurtu zuen. Berarentzat natura bera, bere osotasunean, izango da artegairik gorenena, musika, arkitektura edo poesia baino areago, eta edergai bihurtuko da, gainera, natura bere partikularitasunean ere. Horrela, izaki partikularren baitan aurkitu ahal izango da lehenago izaki abstraktu eta perfektuari -Jainkoari nahiz naturari- atxikita zegoen edertasuna.

Bestalde, eskulana, nekazarien lana, ikuspegi erromantiko batetik berrerosten da eta horrekin batera ordura arte lan horrek jasan duen erdeinua gutxiesten du Shaftesburyk. Lurra landuz atera daitezkeen ondasunak nabarmentzen ditu, giza bizitzaren eta lanaren alderdi horiek errebindicatuz. Nekazal lana handikien harrokeriaren eta egonezinaren gainetik jartzen da horrela, besteak beste lan hori naturarekiko harremanaren eredu baketsua bihurtu nahi duelako. Harreman horretan harrokeriaren eredu naturari erasotzea, menperatzea, izango litzatekeen artean, nekazariaren eredu zainketa eta maitasunarena izango litzateke, azken hori naturaren osotasunarekin lotzen baita eta bere elementu xumeenei ere garrantzia ematen baitie.

Artistak, bada, modu zabal horretan ulertuta, naturari era berri batean so egin beharko dio, harmonia berri bat bilatuz, aurkituko ez dena jainkoaren hitzetan, ezta eredu matematiko huts batean ere, eta ezta menperaketa egitasmo batean. Errealitate transzendentalaren ezaugarriak zirenak orain naturarenak bihurtzen dira. Harmonia hori naturaren arau-gabetasunean nabarmenduko da. Natura izango da emana, natura izango da hastapena; natura bere materialtasunean izango da irauten duena; bera izango da mugagabea. Horregatik Shaftesburyk ordena matematikoaren lekuan, harmonia estetikoaren errebindicatzen du. Urruntzen da Shaftesbury, beraz, ikuspegi platonikotik, iraupena errealitate transzendental batera baztertzen zuena, eta naturan bertan kokatuko ditu bai aldaketaren, bai iraupenaren indarrak.

Baina begirada artistiko berri hori ez da bakarrik gauzatuko objektuaren hedapen berri horretan. Naturak berak, aitzitik, bere osotasunean, beste tratamendu bat jasoko du, eta ez da jadanik zerbait pairakorra izango. Natura zerbait dinamiko bezala ulertzen da, bere dimentsio txikienean sortzailea edo sortzeko gaitasunaz hornitua; bera izango da artelan nagusia eta artistaren lana bera antzeratzea izango da, baina antzeratu beharko duena ez da izango natura era egonkorrean, edo autoritate batek definitutako natura. Arteak natura bera artelan baten gisa ulertuta antzeratu beharko du; berak sortzeko duen ahalmena bereganatu, eta beraren izpiritu askatzaileaz jabetuko da. Horrela arteak naturan nagusi den arrazoiarekin, lege unibertsalarekin, bat egingo du.

Honekin guztiarekin, natura osotasun bezala ulertzen da, eta osotasun horretan biltzen den guztiak, zatirik xumeenak ere, bere duintasun osoa izango du. Lege bat badago naturan, lege hori aurkituko dugu bere elementu guztietan, ederra bada natura, ederrak izango dira bere baitan gertatzen diren prozesu guztiak, are gehiago kontuan hartzen badugu naturaren edertasunera heltzeko bide bakarra txikitasunaren hautemaketatik abiatu behar dela ezinbestez. Era horretara harri edo mineral puska ximple batek beste edozein izaki konplexu edo bizidun batek adinako edertasun ahalmena gorde ahal izango du bere baitan. Bizitzaren garrantziari uko egiten ez bazaio ere, naturaren osotasunean prozesu bakar bat egongo da, eta ez-biziduntzat jo daitezkeen izakiak ere naturaren bilakaeraren prozesu horretan daude murgilduta. Horregatik, bizitzaren lehentasunaren ukazioa baino, errealitatearen osotasuna prozesu dinamiko eta bakar baten partaide bihurtzen da.

Azken oharrak

Ikusi dugu Descartesek bere hausnarketa arrazionaletik kanpo utzi zituela moral kontuak, arrazoiaren adiera formal hutsari helduz. Hobbesek, Lockek, bizitza naturalaren eta jendarteko bizitzaren artean bereizketa egin zuten, suposatuz bazegoela modua desberdintzeko norbanako hutsaren eta jendarte bizitzaren artean. Bi kasuetan modu ezberdinean, baina norbanakoa jartzen zuten abiapuntuan. Gizartearen jatorria Hobbesentzat subirano menperatzaile batean letzake. Subirano horrek anabasa eta gerra nagusi den tokian ordena jarriko luke, beldurraz baliatuz. Lockek, aldiz, bizitza naturala gainditzeko ustezko gizarte hitzarmen bat jarriko luke bizitza politikoaren jatorrian. Egia esan eragin handia izan duten ideiak dira, eta, besteak beste, Kant eta Marxen moduko pentsamolde politikoa baldintzatu dute. Shaftesburyk arbuiatzen, eta kritikatzin ditu ideia horiek eta jendarte bizitzaren jatorria atxikimenduan, afektibitatean, erkidegoan, jartzen du. Ikuspegi aristotelikoa berea eginaz, gizakiok izango gara gizaki bakarrik jendarteko bizitzan murgilduta. Bestalde, ez da zaila Shaftesburyren pentsamenduan aurkitzea gerora erromantizismoaren mamia izango diren ideien ernamuina.

Donostian, 2018 urrian

N A T U R A
IZPIRITUALAREN
AURKIKUNDEA
ILUSTRAZIO
INGELESEAN

*SHAFTESBURYREN NATURAREN KONTZEPTUA
IZADIAN, ESTETIKAN ETA ETIKAN*

Egilea: Xabier Arregi Gordoa

AURKBIDEA

Orrialdeak

SARRERA	III
GAIAREN KOKAPENA	1
I ATALA: NATURA ORDEN RAZIONAL OROREN OINARRI	
Naturaren elkartasun unibertsala	11
Naturaren batasunaren aldeko argudioak	19
Materialista ala idealista	27
Naturazko egoera vs gizarte egoera	40
Gaiaren kokapenaren eta lehen atalaren oharrak	63
II ATALA: ESTETIKA EGIAREN OINARRI	
Natura artegai bezala begiratzeko moduz	70
Sentigarritasunaren kritika	77
1) Sentigarritasunaren mugak osotasuna atzemateko ...	78
2) Jabegoa gozamen estetikoaren ukazio bezala	82
3) Kontenplazioa	86
Artzain pentsakorren kontenplazio aktiboa ihardute estetikoaren eredu	89
Arrazoi kartesiarraren mugak	92
Zalantzaren metodo kartesiarrari kritika	106
Edertasuna egi-irizpide bezala	111
Unibertsuaren harmonia naturaren lege nagusi	116
Edertasunaren mailaketa	124
Bigarren atalaren oharrak	139

III ATALA: NATURA, SORTZEKO AHALMENA ETA BEHARIZAN ETIKOA

Ikasketa moralen gainbehera	146
Erlijio kristauaren kritika	162
Naturan errotutako erlijioa	170
Ateismoaren kritika	174
Gaitza	186
Ontasuna, plazerra eta askatasuna	199
Maitasun razional desinteresatua	205
Hirugarren atalaren oharrak	212

IV ATALA: ENTUSIASMOA, ARRAZOIA ETA ERREBELAZIOA

Maitasun morroia eta entusiasmoa	217
Errebelazioaren eta naturaren arteko etena	221
Errebelazioaren determinismoaren eta naturaren determinismoaren gaindiketa	227
Arrazoia, boterea eta malenkonia	234
Umorearen baliabidea	240
Leibniz zurrunaren kezkak	244
Innatismoa	246
Laugarren atalaren oharrak	252

ONDORIOAK	255
-----------------	-----

BIBLIOGRAFIA	274
--------------------	-----

SARRERA

Geroak ahanztzia izan badu ere, Anthony Ashley Cooper, Shaftesburyko 3. kondeak izen handia lortu zuen XVIII. Mendean, bere lanak bai alemanierara eta bai frantsesera itzuliak izan zirelarik, zabalpen eta arreta handia jasoz lurralde bi horietako ilustrazioko filosofo garrantzitsuenen artean. Ez da gehiegikeria esatea bera izan zela ilustrazioan eragin handienetakoa izan zuen pentsalaria eta bera izan zela bai frantziako bai Alemaniako ilustrazioko filosofia testuetan gehientsuen aipatzen zirenen artekoa. Zertan datza bere garrantzia eta zer dela eta geroak, neurri batean, ahaztua izatea?

Kartesianismoa nagusi den garai batean -bai bere berezko agerpenean, bai, neurri batean behintzat, Britainia Handian honi erantzuten ahalegindu zen enpirismoaren forman- Shaftesburyren pentsamendua zerbait berezi bezala agertuko zaigu, bai bere edukietan eta bere forman, iradokizun izango dena Leibnizen gisako pentsalari razionalista batentzat, nola zirrararen berezko garrantzia goraipatuko duten joera irrazionalista, erromantiko eta sentimentalisten artean (Rousseau, Herder...). Gainera, sentimenduen goraipaketan oinarritzen den bere ikuspegi platonikoa zentrala izango zen Kanten kritikarako, bereziki Arrazoimen Praktikoaren Kritikaren garapenean, non filosofo alemaniarra gure egilearen zenbait planteamenduri erantzuten eta aurre egiten ahaleginduko den.

Honen guztiaren erakusgarri bezala nabarmengarria izan daiteke leibnizek egingo zuen aitorpena bere mirespena erakutsi

zuenean Shaftesburyren lanen aurrean, aitortuko baitzuen bertan aurkitu zituela makina bat pentsamendu eder, eta bere *Teodizearen* ia osotasuna aurkitu zuela lan horietan. Britainia Handitik zetorrela jakinda Lockeren antzeko filosofia bat eta idazkera bat aurkitzea espero zuen, baina, bere esanetan, Platon eta Descartes baino areago doan pentsamendu batekin egingo du topo.

Ahaztua izateko arrazoietatik komeni da gogoratzea harrapatua geratu zela Locke eta Humeren artean, Britainia Handiko filosofiaren gailurtzat jo daitezkeenak, eta harrapatua geratu ez ezik, aurre egin ziola erreparurik gabe hain oihartzun handia izan zuen Lockeren pentsamenduari. Barka zitekeen Hobbesi egingo zion kritika zuzen eta sendoa, baina nekezago bazterrera zitekeen Lockeren pentsamenduari zuzendutako erasoa. Honela berea beste bi horien izen ozenen gerizpean ostendua geratuko zen.

Dena dela, aurki daitezke arrazoi intrinsekoagoak argitu dezaketinak, justifikatu ez arren, ahazketa hori, eta horien artean azpimarratu behar da erabiliko duen idazkera, alde batetik, eta uko egin ziola sistema metafisiko itxi eta borobil bat eskaintzeari -are gehiago, era horretako sistema bat eraikitzeari bide antzu eta dogmatiko iritzi zion- eta, bestetik, gehiago ahalegindu zela bere pentsamenduarekin koherenteagoa izango zen bideak iradokitzeke eginbeharrarekin.

Honela, esan dezakegu idazkeran igarriko diogula, hasteko, garaiko filosofian nagusi ziren joera nagusienetatik bere lehen urrunketa, errozkua eta esanguratsua berez eta bere pentsamenduaren mamiarekin izan dezakeen loturagatik. Britainia Handiko pentsamendu enpirista eta kontinenteko razionalista zientziaren hizkuntzaren (fisikoa dela matematikoa dela) morroi

zirenez, euren ihardunean ezin ziren atera eredu zientifikoen zenbait eskakizunek ezartzen zuten bide estutik, zehaztasunari, hitzen ekonomiari eta baliabide literarioei uko egitera makurtu behar zaion bide idorretik, alegia. Bera, berriz, urrundu egingo da eredu horretatik eta, zientzien emaitzei garrantzia kendu barik eta eurei behar zen arreta jarritz, morroitzza hau alboratuko du, bi kasu horietan dualismo batera eraman duelako errealitatea bere osotasunean azaltzeari uko egingez. Hontara, era arin, apal eta atseginean hitz egiteari ekingo dio, hizkuntza poetiko bikainaz baliatuz bere garaiko eta aurreko eskola filosofiko nagusienei aurre egiteko. Honela, berak, bere lan nagusitzat jotzen dena, eta lan honetan bereziki aztertuko duguna, rapsodia erara aurkeztuko digu -*Natura eta moral gaiei buruzko elkarrizketa batzuen kontakizuna den rapsodia filosofiko bezala*-.

Baina, zergatik, hain zuzen, aukeratu bere ideiak modurik borobilenean aurkeztuko balioko duen lanerako rapsodia bat idaztea eta ez saiakera bat, "Essay" bat, bere lanean aztertu behar baditu gero Leibnizek Teodizean sartuko dituen gai berak, kontuan izanda idazkera horrek, neurri batean behintzat, bere ihardunari zehazgabetasun eta ezabatu kutsua eskainiko diola.

Lan osoan zehar ikusiko dugu formari, eta bereziki hizkuntza poetikoari, garrantzi handia emango diola, eta ez halabeharrez. Onartu daitekeen arren berak erabiltzen dituen zenbait baliabidetan badagoela mundu klasikoarekiko lotura erakusteko irrika bat -bereziki Platonen erosaren dotrina berreskuratzeke, baina bere hautaketa ez da formal hutsa izango- ez da hori aukera horretarako arrazoi nagusia izango; mamizko, sakoneko, arrazoiak egongo dira eredu estilistiko hori besarka dezan, izan

ere, idazkera hori, eta ez saikaera erako testu bat, izango baita berak adierazi nahi dituen ideiak agertzeko bide aproposena.

Izan ere, zientzia hutsetik abiatuz gero, saiakera batean zertuko zen sistema bat eraikitzea tresna egokia izan zitekeen mendeetan zehar gailendu den kristautasunak ezarritako ikuskerari -nagusigo argudioetan oinarritutakoa- aurre egiteko eta arrazoian eta ez dogman sustraitutako mundu-ikuskerara bat mamitzeko, baina Shaftesburyk kontsideratuko du matxinada horrek huts egin duela, hain zuzen, ezagutza praktikoari ez diolako behar zuen lekua eskaini eta morala eta estetika naturazgaindikoaren esku laga duelako, erlijioaren menpe, edo bere sistema metafisikoaren eraikuntza horretan naturan etena ezarri duelako, moral eta estetika arazoak era bateko edo besteko nagusigo baten menpe utziz edo konbentzio soilera murriztuz eta, azken batean, oinarri metafisikoetan eraiki den sistema hori nagusigo berri baten modura onartuz.

Honegatik Shaftesburyk bere aurrean izango duen erronka izango da ezagutza praktikoa berrerrostea -bera errealitatearen osotasunarekin bat eginik bururatuz- eta determinismoaren forma ezberdinak gainditzea, ekintza eta sormen askea naturaren eta, jakina, gizakiaren zeregin guztien muinean ipiniz. Eta helburu honetarako etorri poetikoa ahaltsuagoa agertuko da zientzia eta arrazoi hutsean oinarritutako sistema filosofiko bat baino.

Dena dela, bere idazkeraren gozotasunaz hitz egin badugu ere, ezinbestekoa zaigu onartzea badagoela zailtasun bat bere lanak irakurtzeko garaian, aipaturiko bere estilo rapsodikotik eratortzen dena. Izan ere, berak kontzeptualizatzen ez duen hizkuntza bat erabiltzen duen neurrian beti emango du antz

iheskorra, heldu ezina. Alabaina, lana soseguz begiratzen badugu ezingo dugu esan, rapsodia baten era loturagabea eta irregularra mantentzen duenik.

Hemen aurkezten den lan honen helburua izan da Shaftesburyren pentsamenduaren irakurketa eta azalpen ordenatu bat egitea, ahal den neurriraino kontzeptualizazio lan hori burutuz. Eman dut pentsamendu horren muina izango zela edozein eratako determinismo, bai naturala bai morala, gainditzea eta honek eraman zuela gure egilea alde batetik Hobbesek berea egin zuen determinismoaren aurrean tinko jazartzera, baina bestetik erakustera Descartesen eta Lockeren bideek huts egin zutela fedearen determinismoa alde batera uzteko orduan, ahalegin horretan alderdi estetiko moralari behar zuen lehentasuna eman ez ziotelako. Azken batean, Shaftesburyren eginkizuna zuzenduko da morala era autonomo batean eta naturarekin bat eginik bururatzera, bakarrik horrela lortu ahal izango delako aipaturiko xede horretara heltzea.

Ez da bilatu behar lan honetan, beraz, bere ondokoen pentsamenduan izan zuen eraginari buruzko azterketa zabal eta sakona. Apuntatuko dudan arren ondokoekiko eraginaren norabide nagusia, hori beste lan baten gaia izango litzateke. Hemen gehiago bilatu dut Shaftesburyren pentsamenduaren ikuspegi orokorra eskaintzea, bere sorrerari begiratuz, eta bere aurreko eta bere garaikoekin eztabaidan murgiltzea bere proposamenen ekarpena azaltzeko asmoz. Alde honetatik lan honetan zehar erabaki beharko dena izango da ea Shaftesburyren lanak benetan suposatzen duen Lockeren enpirismotik eta Descartesen razionalismotik urruntzen den lehen aipatutako hirugarren bide

hori, zer aspektutan azalduko den kritiko horiekin, zer hutsune aurkituko dien eta zer neurritan eskainiko dituen bide berri eta orijinalak, haien hutsuneen gainditzailleak.

Honela bere garaiko eta aurreko filosofia ingelesa izango dut kontuan (bereziki Hobbesen eta Lockeren lanak) eta baita Descartesen pentsamendua ere, zuzenketa sakonak egingo baitzizkion honi naturari buruzko ikuspegiari dagokionean, moral kontuan, metodoari dagokionean, eta Descartesek burutu gabe utzi zuen nagusigoaren aurkako matxinadan, gure egileak honetan guztian urrats erabakior eta zoragarriak eskaini zizkigularik. Izan ere, argi eta garbi geratuko da biziera bat eta munduaren ikuskera bat ezarri nahi duen edozein botereren aurkako jarrera agertuko duela eta, bai ezagupenari dagokionean, bai erlijioari dagokionean edo naturari buruzko ikuspegian, nagusigo hastapenean oinarritutako edozein argudiori aurre egingo diola sendo.

Lan hau lau atal nagusitan banatu dut, gure egilearen naturari buruzko ikuspegiak, etikari buruzkoak, etikari buruzkoak eta entusiasmoari buruzkoan ihardun dudalarik bakoitzean, eta arlo bakoitzean Shaftesburyk garatu zituen adigai nagusien azalpenak eta euren inguruko argudioak taxutzen ahalegindu naiz, pentsamenduaren historiako bere ekarpen nagusienak nabarmenduz. Ondoren azaleratzen joango zaizkigu, beraz, bere funtsezko ideia nagusienak. Bere errozko monismo naturalista, errealitate fisikoaren eta moralaren arteko haustura gainditu nahiko duena naturaren espontaneitatea goraipatuz eta naturan diren izaki guztien duintasuna aldarrikatuz. Ikusiko dugu substantzialismoaren arazoak saihesteko naturaren funtsapen ontologikoa ekintzan jarriko duela eta ez izaki aldaezin eta

betierekoen baitan. Giza ekintza aske eta razionalaren oinarria sentimenduetan eta sormenean kokatuko du honek eramango duelarik egia ederrarekin eta onarekin batasunean bururatzera. Egiaren atzemaketa ez da, orduan, etorriko arrazoimen hutsaren garapenetik, baizik eta ihardute moral eta estetikoarekin ere zerikusia izango du.

Eta zume hauekin guztiekin eratuko du estetikaren lehen urrastzat jo daitekeen oihala, plazer interesatu eta norberekoia ahaztu eta gozamen desinteresatuan izango duena bere iturria, eta baita erlijiotik edo beste edozein nagusitasunezko argudiotik aldenduko den moraltasuna, onari benetako existentzia objektiboa ezagutuko diona, erlijiotasunari uko egin gabe, baizik eta erlijiotasunaren dimentsio natural bat aldarrikatuz.

Ez da eskainiko hemen Shaftesburyren lanen osotasunaren ikuspegi panoramikoa edo bere pentsaeraren garapenaren azterketa, esparrua mugatu delako aipatu dudan *Moralistak* lanera, bere lan nagusitzat jo daitekeena, bertan agertzen baita modurik borobilenean eta helduenean bere pentsamendua, *Entusiasmoari buruzko Eskutitza* ere erabili dudalarik han hemenka osagarri bezala.

Ezin utzi aipatu gabe lan honi ekin aurretik *Moralistak*-en euskaraketa burutu nuela, eta honetarako -Shaftesburyren lana atzera ere balioztatzen ari dela dirudien garai honetan- Alemanian, Wolfran Benda, Gerd Hemmerich eta Ulrich schödlbaueren ardurapean burutu den Shaftesburyren lan guztien berrargitaraketa erabili dut.

Bai itzulpenean bai lan honetan guztian ahalegindu naiz Shaftesburyren pentsamenduaren adierazle leiala izaten.

Itzulpenean saiatu naiz bere ideiak euren sakontasun osoan euskaratzen, baina beti ere testuaren aberastasun estilistikoa, bere edertasun osoa, ahal den neurrian, gordez; eta ondoan aurkeztuko den lanean nire helburua izan da erakustea zein diren bere pentsamenduaren ardatz nagusienak, bere ideia eta argudio nagusienetan geldituz eta bere mugak erakutsiz -kritika sakonetan sartu gabe, ez baitzen hori nire helburua- eta garaiko pentsalarien ideiekin zuten harremanean hausnartuz, hau lortua izana nahikoa izango litzateke nire burua ase sentitzeko.

GAIAREN KOKAPENA

Shaftesbury filosofo ingelesaren pentsamendua izango da lan honen muina. Bere filosofia eta bizitza kokatzerakoan, garaiari dagokionez, ez da zaila izango, bere jaiotza eta heriotza datak kontuan izanik (1671-1713) ilustrazioak errepresentatzen duen fenomeno kulturalarekin lotzea. Eman lezake, hala ere, gaur egun bigarren mailakotzat joko litzatekeen pentsalari ingeles bat ez dela egon behar nabarmentasun handiko lekua betetzeko izendatua, ez duela mereziko pentsalari berriztatzaileei dagokien ohorezko lekua betetzea. Izan ere, iraultza frantsesak izan zuen traszendentzia historikoa zela eta, frantziak bereganatu zuen ilustrazioaren sorrerari zegozkion zenbait ohore, eta, egia esan, Ilustrazioa Europa osotik zabaltzearen ardura ere, besteen merituak, frantziarrek jaso duten distira horren ostean itzalpetuta geratuko zirelarik. Alabaina onartzen da, neurri handi batean behintzat, zenbait ikuspegietatik Britainia Handian izan zuela ilustrazioak bere sorgunea eta bere harrobirik emankorrenetakoa. Hau guztia era zehatzean laburbiltzen duen esaldian gogorarazten digu P. Gayk: berarentzat ilustrazioaren propagandistak frantsesak izango ziren aitzindariak britainiarrak izango ziren artean¹.

Garai horretako Britainia Handia kontinentetik etorri diren ideiak eztabaidatzen diren irakindegia bihurtu zen, eta ez halabeharrez. Izan ere, Descartesen ideiek eta beste zenbaitenek bertako -baita Holandakoan ere- giro anitzetan aurkituko dute gune aproposa eurretatik etekin zabalena ateratzeko eta, halaber, kritika zorrotzenaren aurrean ezartzeko. Giro aske horietan

burutuko diren eztabaida eta birplanteaketa horietatik, hain zuzen, sortuko dira zenbait kontzeptu berri eta proposapen orijinal ugari, sekulako projekzioa izango dutenak geroagoko kontinenteko pentsamenduan.

Ingurune horretan kokatu behar dugu, beraz, Shaftesburyren eginkizuna eta ekarpena. Zuzenean biziko du giro hori eta iturri horietatik edango du, bera ere iturri fresko eta emankor bihurtuz, eta horrela jabetzen da bera bere hitzen hildotik soma dezakegun bezala aitortzen duenean Ingalaterra eta Holanda nazio askeetatik hedatzen dela argi indartsu bat mundu osoan zehar².

Bi zutarri historiko dira garai horren aurrekoak markatuko dutenak gora behera sozio-historikoen aldaketarekin lotua bata, arlo zientifikoarekin bestea, bi eragile horien bateraketak pentsaera berriaren atarira eramango duelarik.

Lehen mugatzaile historikoak Ameriketako aurkikuntzan, edo, hobe esanda, menperaketan, izango luke abiapuntua. Espainiar konkistatzaileak gizaki eta lur berri haiek aurkitzean, aztorapena jasan behar izan zuten eureenganako bizimodu eta sinismen ezberdinak nola sinismen ezberdinen arteko elkarbizitza aurkitzean (gatazkatsuagoa batzuetan baketsuagoa besteetan, baina elkarbizitza azkenik) eurak, berriz, Europatik, kristatutasunak homogeneizatua, erlijio bakarrekoa eta homogeneizazioa grinatzen zuen mundu batetik zihoazen bitartean.

Argigarria da honi guztiari dagokionez T. Todoroven *La conquête de l'Amerique*, *la question de l'autre* lana, bertan aletzen joango baita Ameriketara heldu zirenen pentsamendua xehetasunez. Colonen eta gainerako konkistatzaileen jarrera jaingo bakarraren argiak gidatua doanarena da, naturaren gainetik

daudenena, euren asmoa egiaren asmo unibertsalarekin bat egiten duenarena³. Horregatik, aipaturiko dualismo horretaz blai, egia unibertsalaren jabe sentituko dute euren burua, eta euren asmo eta nahien traban (asmo eta nahi izpiritual eta ez hain izpiritualen aurrean, jakina) jartzen den guztia naturaren esparrura jaurtikia izango da erdeinuz, eta gaitzaren esparru horretan morroitzara ala heriotzara kondenatua. Hau gordinki isladatuko da konkistatzaileek Ameriketako biztanleekin ezartzen duten harremanean.

Colonek nahiz Cortesek, geroago Descartesek berak oraindik egingo zuen eran, natura gutxietsiko dute, eta aurkitu berria zen kontinenteko biztanleek ere natura horren zati izango dira eta ez zaie gizaki izatearen duintasuna aitortuko. Onenean jakinmin eta harridura iratzarriko dute⁴, ez, ordea, berdinen aurrean egotearen sentipena, ez unibertsaltasun horren partaidearen aurrean egotean sortu beharreko berdintasun eta errespetu jarrera; ekumenismo bitxia benetan espainiarrek esportatzera doazena!

Colonentzat amerikar indioek ez dute kulturarik, naturaren parte dira eta beti eurei buruzko aipamenak naturari buruzko oharretan agertuko dira, txori eta zuhaitzen artean⁵; ez dute hizkuntzarik eta indioak eraman nahi ditu espainiara hitz egiten ikas dezaten⁶ (hitz egiten ikasteko gaitasunarekin gizatasun maila bat edo aitortzen die behintzat, txikia bada ere). Hizkuntza norberarena baita, latina, hizkuntza erromantzeak, baina ez besterik.

Jarrera horrekin joan ziren konkistatzaileak Ameriketara. Iraultza kopernikarrak psikean ekarri beharko zukeen iraultza

oraindik heldu gabe, bere burua munduaren erdipuntu eta jabe sentitzen duenaren irudipenaz, ezberdintasuna onartzen ez duenaren jarreraz. Baina ez da hori iraungo duen nagusitasun harremanaren ezaugarri bakarra izango. Izan ere, eurekiko erakusten zuten jarrera ez bazen gauza handirik bereizten bertan aurkitu zituzten produktuekiko erakusten zutenaz, bestalde jarrera hori berehala bihurtuko zen ideologikoa eta konkistatzaileek onartu ezin zutenez ezberdintasuna, euren jatorrizko biztanleen sinesmenei eraso eta euren ezartzen saiatu ziren, haien artean "zibilizazioa" eta erlijio kristau gorena sartzearen aitzakiz⁷.

Baina esan behar da, bestalde, jende berri ezberdinarekin topo egite hori -onartzen ez den aniztasunaren aurkikuntza alegia- izan zela, halaber, naturaren ikuskera berria erneko zuen hazia, eta bereziki gizakiari buruzko ikuskera berria. Izan ere, arima ote zuten ala ez auziaren gerizpean gizakiaren lehen edo naturazko egoerari buruzko eztabaida sortu zen, zenbait pentsalarik gizaki haien egoera jatorrizko egoera horren berdintzat joko zutelarik. Bartolome de las Casas berak emango digun indiarren deskribapenean aurki dezakegu geroago aurkituko ditugun zenbait plateamenduen aitzindaria: hala nola Rousseauren basati onaren figurazioa⁸.

Aldaketa hauen bigarren mugatzailea Copernicok eta Galileok eskaini zuten mundu fisikoaren ikuskera berria izan zen, ikara handia sortu zuena, ordura arteko munduikuskera osoaren zimenduak astinduz.

Izan ere, ordura arte, tradizio judutar-kristaua nagusi zen lurraldeetan, greziar pentsaeraren zenbait alderdi bereganatu

zituena, natura erabat gutxietsia zen. Ikuspegi ontologikotik bere izatea erabateko errealtate baten menpeko sendotasunik gabeko bazterreko ekoizpena zen, sinbolo hutsa, jainkoaren eginkizun sortzailearen metafora edota Jainkoarengana daraman irudia. Zer esanik ez honek Platonek ezarri zuen irudia eta benetako errealtatearen arteko bereizketan aurkituko duela bere erreferente filosofikorik gorenena. Berak irudia ideien menpeko eta akzidente bihurtzean esperientziaren esparrua ezagutza eta pentsamendutik kanpo utzi zuen, eta higidura eta aldeketara oro irrazionalitatera kondenatu zuen.

Baina dualismoari legozkiokeen jarreraok ez ziren bakarrik fisikaren arlora murriztu eta moralitateari buruzko ikuspegia ere zipristinatu zuten. Giza jokaera zuzena zein litzatekeen erabakitzeak irizpidea ez zen eratorriko eguneroko bizitzak, eguneroko esperientziak, irakatsiko zuenetik, horri buruzko azken hitza aldezturik idatzia egongo zen eta hemen ere errealtate traszedentala izango zen azken epailea.

Honela, ikuspegi moraletik, natura gaitzaren indarrak nagusitzen diren kokagunea litzateke. Ona eta gaitzaren arteko bereizketa ezarriarik bertan erruaren indarra nagusituko litzateke, eta honek alderdi fisiko hutsa ere kutsatuko luke, natura akatsduna litzatekeelarik, ezperfektua, eta gaitzaren jatorria ere.

Dotrina dualistaren bi dimentsiook oso sustraituak egon dira europar zibilizazioan, batik bat aipaturiko tradizio judutar-kristauak eta pentsamendu razional greziarrak oso asko indartu zituelako, eta euren eragina hain zabala izan zen mendeetan zehar ezen modernitatea bera ere ez zen erraz bere zama eta keria

guztiek libre geratu.

Descartesen pentsamendua bera izan daiteke honen adibide. Bai fisikaren arloa, bai moralarena, errealitate traszendentalaren itzalpean ostenduta geratzen baitira. Egia da natura substantziaren mailara igo duela eta era horretara nola edo halako autonomia eskaini diola, baina ezagupenaren aldetik bakarrik niaren eta jainkoaren ezagupenaren ondorioz heldu daiteke bere existentziaren frogapenera, eta bere existentzia bera ere jainkoaren sorketa ekintza baten ondorio litzateke. Era honetara natura izaki traszendente baten menpe geratu zen, berezko nortasunik gabe eta, esan bezala, menpeko maila ontologiko batera baztertua.

Moralitate kontuetatik, berriz, jaramon handiegirik egin gabe pasako da Descartes, sahieska bezala, Metodoari buruzko Diskurtsoan. Pragmatismoa dela edo ez dela, baina eliz-agintariek arlo horretan erabakiko dutenei eragozpenik ez die jarriko⁹ eta honekin, azken batean, arlo hau ere gizakiaz gaundiko instantzia baten arabera geratuko da. Ez da honekin ukatu nahi Descartesek eman zuen urratsaren garrantzia gizabanakoaren burujabeketarako, eta bere izaera fisikoaren berrerospenerako, baina urrats horren muga batzuk nabarmenarazi nahi dira, hala nola burujabetasun hori finkatu arren gizabanako horrengan eman daitekeen esperientzia moral eta estetikoaren gutxiespena, esperientziaren gutxiespenaren beharrezko korolariora litzatekeena.

Fisika berriak ezagupenaren arloan esperientzia razionalaren lehentasuna aldarrikatuz eta unibertsuaren osotasuna esperientziaren gai bihurtuz eskainiko du naturazgaundikoaren nagusigotik askatzeko eta naturari duintasun ontologikoa

eskaintzeko bidea. Natura irudi edo itzaltzat jotzetik berezko errealtatetzat jotzera iragaitea baimenduko du honek, honela naturaren filosofia berria, agian benetako naturaren filosofia, sortzeko aukera bihurtuko dena, mundu honetako gauzekiko nolabaiteko etsaigoa baztertuz.

Eginkizun honetan Shaftesburyk eragin handia izan zuen bere irakurleen artean¹⁰, eta bere ekarpena, hain zuzen, Descartesengan kamutsena geratu zen aipatutako arlotik etorriko da, moralitatea eta estetikarenetik alegia, ez baita benetako aurrerapausurik egongo ez bada dimentsio hori gizakiaren funtsezko egituraren muinean sartzen, jarrera moral-estetikoa izango da eta benetan niaren barnekotasunaren, izpiritualtasunaren, definitzailea. Ez legoke, beraz, benetako razionaltasunik gizatasunaren dimentsio moral-estetikoa razionaltasunaren esparrura bildu gabe.

Naturarekiko gutxiespen hori, dena dela, ez da ordurako ere kontu berria izango. Ez da zaila pentsaera grekoan horren zenbait adibide aurkitzea. Parmenides bera edo, zer esanik ez, Platon jo daitezke jarrera horien aintzindarietakotzat. Naturaren jokaera aldakorra, iraungaiztasuna, nahikoa arrazoi izango da hauentzat bera ezagupenaren, benetako ezagupenaren, arlotik jaurtitzen ahalegiteko. Ez da ez hori tradizio grekoan aurki daitekeen ikuspegi bakarra, haatik aitortu behar da greziar pentsamendu filosofikoaren sustraian bertan aurkitzen direla naturarekiko ikuskera malguagoak eta, are gehiago, mundu klasikoko pentsaeraren jatorrian naturarekiko kezka sakon bat dagoela oso hein handian Shaftesburyk berreskuratuko duena.

Hala ere, joera hori, neurri batean behintzat Parmenidesek

eta Platonek ordezkatu zutena, izango da modurik aproposenean lotuko dena tradizio kristauak eskatuko dituen baldintzekin, eta honek eskaini zien beste ikuspegiei gailentzeko aukera. Alabaina tradizio intelektual kristauaren naturarekiko gutxiespena beste esparru batera ere zuzenduko da, eta agian indar handiagoarekin, moralarenera, alegia. Egiatasuna edo faltsutasunari begiratu ordez ona eta gaitzari begiratzean kristautasunak naturan aurkituko du erruaren eta gaitzaren iturria.

Naturaren ikuspegi ezkor honek pitzadura galanta ezarriko du natura eta ikuskera estetiko-moralaren artean eta, era batera, arrazoiaren baitan bertan ere. Arrazoiaren perfekzio matematikoa hartuko da eredu gisa, eta akatsa norabait jaurtiki behar dela eta, naturara botako da bera irrazionala bihurtuz. Hildo horretatik etengabeko argudioak garatu ziren gizatasunetik kanpo legokeen naturari buruz ez ezik giza izaerari buruz ere, eta hortik aterako ziren, esaterako, naturazko egoerari buruzko eztabaidak. Naturazgaindiko arima alde batera utzirik giza izaeraren ezaugarriketa naturan bertan bilatzera jo zuten garaiko pentsalariak baina honek ez zuen ekarri berarekin naturazko izaera horren berrerospena. Hobbesek, adibidez, egoera horren burutazioan gaitza baino ez baitzuen aurkitzen, kristautasunak egiten zuen bezala. Alabaina bada urrats horretan aurrerapausurik. Giza izaera, bere osotasunean, naturaren esparrura murriztuz naturazgaindiko errealitate batekiko menpekotasuna deusesten da, honek moralitatea arrazoiara murriztera behartuko duelarik.

Naturaren eta arrazoiaren berrerospena, beraz, giza izaera moralaren berrerospenarekin etorriko da. Testuinguru horretan

botatzen du Shaftesburyk bere erantzuna eta arazoari aurre egiteko abiapuntua ez fisikan moralitatean baino hartuko du. Shaftesburyk natura ikuspegi estetiko-moral batetik behatuko du eta bere helburu hutsa naturaren ikuspegi razionala bateratua eskaintzea izango da, gizakiaren dimentsio etikoa eta natura bilduko dituen.

Moralitatearen esparruan gaudenez eta bera naturarekin parekatzen denez gogora ekarriko digu Shaftesburyk errua eta gaitza naturarekin lotuta agertu izan direla eta lotura hori frogatzea izan dela zenbait pentsalariren xedea:

*"Arrazoi ugari eman da argitzeko zergatik erratzen duen naturak eta zergatik sortzen den hain ezindua errurik gabeko esku batetik badator"*¹¹.

Hemen jainkotasunaren eta naturaren arteko harremanari dagokion paradoxa formulatzen du argi eta garbi. Tradizio zabal baten arabera, Descartesenganaino heltzen dena, funtsezko hastapen bezala onartuko da ezingo dela ezperfektuagotik perfektuagoa sortu, edo beste hitz batzuetan sortua dena ezin dela sortzailea baino gehiago izan. Honek Descartesengan Jainkoaren existentziaren frogapenaren forma hartuko du¹². Erraz ikus daiteke honek guztiak geroago nagusituko den eboluzioaren teoriaren guztiz kontrako mugimendua deskribitzen duela. Azken honek izakien garapenaren bilakaera positiboa defendituko du, beraren arabera ingurunearekin okerren moldatzen den izakiak desagertzera joko lukeelarik. Honela aldaketaren mugimendua ezperfektutik perfekturantzakoa izango litzateke eta honek ukatu

egingo luke tradizio luze batek defendatu duena, alegia natura aldez aurretiko izaki perfektu baten ekoizpena izan dela.

Azken ideia izango litzateke orduan paradoxaren jatorria, naturaren deusestaketaren teoria ezkorrraren eta naturaren garapenaren teoria baikorrraren uren artean igeri egiten duena. Paradoxa aletuz esan dezakegu ezen onartuz gero izaki perfektu batek sortu duela natura onartu beharko litzatekeela, halaber, berak sortu duena bera bezain perfektua dela, bestela bere ekoizpena inperfektua balitz honek bera ere inperfekzioz zipriztinatuko bailuke neurri batean.

Shaftesburyk arazo horiek gainditzeko eboluzionismoaren teoria besarkatuko du, bera termino moraletan zehaztuz.

*"Hemen dago, ba, eskatu duzun irtenbidea eta hemendik datoz naturaren gainean eragiten duten akatsantzekoak. Beraz ez dago berezkoa eta ona dena baino. Ontasuna da nagusi, eta ustelkorra eta hilkorra den izaera orok, hilkortasun eta ustelketa horretatik, hobea den beste zerbait ekoitziko du. Eta natura hoberen eta goren horrekin (ustelezina eta hilezkorra) batzen duen guztia ere"*¹³.

Hemen dugu Shaftesburyk paradoxa horrentzat emango duen irtenbidearen gakoa bi puntutan oinarrituz, alde batetik ukatuko du errealitatearen bikoiztasuna; errealitatea bakarra izango da, ez da naturazgaindiko jainkorik egongo, naturak batasun harmoniko eta perfektua osatuko duelarik, eta, bestetik, ukatuko du naturak huts egingo duenik, besteak beste honek berriro bikoiztasuna sartzea lekarkeelako, ona eta gaitzaren artekoa.

I ATALA

NATURA ORDEN RAZIONAL OROREN OINARRI

Naturaren elkartasun unibertsala

Naturari buruz azalpen orokor bat bilatu nahi badugu Shaftesburyren Moralistak laneko III. zatiazen Igo atalera jo beharko dugu, bertan Teoklesen Naturaren ereserkiaren hasierarekin egingo baitugu topo, hau izango delarik Shaftesburyren testuen artetik oihartzun handiena lortuko duena, XVIII. mendearen bigarren erdiko literatura alemanean eragin handia izango duelarik, bai Herderek, bai Kantek, bai Goethek berak ere iradokizun iturri bezala hartuko baitute¹⁴.

Hemen Teoklesekin aurretik naturari buruz azaldu zaizkion galdera guztiei aurre egingo die bere azken erantzunak emanaz edo jadanik emandakoen aldeko argudioak indartuz. Hizketa poetiko bikainaz baliatuz Shaftesburyren pentsaeraren muina izango den naturaren filosofia eskainiko digu. Horretarako ordura arteko pentsalariek eraikitako sistema metafisikoen oinarritzko kontzeptuak, nola jakintza erlijiosoaren iturri guztiak naturan lekua hartzera gonbidatuko ditu, azken batean bertan deusestarazteko.

"Oi natura aintzagarria!, zuzentasun gorena eta ontasun bikaina!, guztiaren maitalea eta guztiz maitatua, guztiz Jainkoa!, zein egokiak eta grazia amaigabekoak diren bere begiradak!, zer jakituria dakarren beregandik

ikasteak!, zer gozamen berari behatzeak!, Bere lan bakoitza ikusmira zabalagora heltzen da eta arteak inoiz erakutsi duen guztia baino ikuskizun nobleagoa da. Oi natura ahaltsua! probidentziaren ordezkoko jakintsua!, indarrez beteriko eme emankorral!, Edo zu Jainko indarremailea, kreatzaile gorena!, Zuri egiten dizut dei, zu bakarrik gurtzen zaitut"¹⁵.

Bai probidentzia, bai errebelazioa eta baita sistema metafisikoak ordezkatzeko dituzte naturak, orduan, eta bertan funtsatuz errealitatea ikuspegi filosofiko razional hutsetik aztertuko du. Honela probidentzia eta naturaren arteko lehian azkena aterako da garaile, baina, halaber, zenbait argudiapen metafisikorako oinarritzeko kontzeptuak izan diren perfekzioa eta amaigabea naturara murriztu beharko dira, bera izango baita perfekzio guztien iturri, bera izango da hilezkorra, bere baitan datzalako perfekzioa eta hilezkortasuna eta ez Jainko arrotz batengan. Naturak, ba, bereganatzeko dituzte orain arte naturazgaindikoarenak, jainkoarenak, izan diren ezaugarriak eta ahalmenak. Bera izango da ezagupen gorenaren subjektu, berarengan ahituko da esperientziaren osotasuna, berarenak izango dira, azken baten, bere baitango gauzarenak liratekeen ezaugarriak.

Une honetan Shaftesbury bilatutako bideari lotzeko gertu egongo da. Aipaturiko tradizio dualistak ezartzen zuen munduaren ulerpenerako hastapen bikoiztasuna baztertu ahal izango da, beharrezko bezala agertuko delarik errealitate osoa hastapen bakarrera bihurtzea. Honela deritza ikuspegi dualistari:

*"Baina hori ezinezkoa da. Zeren egongo balira naturan bi hastapen, bat etorriko lirateke ala ez. Bat etorriko ez balira dena nahasketa izango litzateke bata nagusitu arte. Bat etorriko balira arrazoi natural bat egongo litzateke adostasun horretarako: eta arrazoi natural hau ez litzateke halabeharretik etorriko, baizik eta asmo, lanabes edo pentsamendu batetik, zeinak berriro hastapen batera itzultzen gaituen, eta beste biak menpeko bihurtzen dituen. Eta, horrela, hiru iritziak konparatu ahal ditugunean: hau da, ez dagoela hastapen eraginkor asmatzailerik; bat baino gehiago dagoela; edo bat bakarra dela, jabetu behar dugu iritzi mamitsu bakarra azkena dela. Eta iritzi hauetatik batek egia izan behar badu azkena dela erabakiko dugu, besterik ez, eta horrela izan beharko du froga daitekeelako. Frogatzen bada hiru iritzietatik batek egia izan behar duela, eta hiruetatik bi zentzugabeak direla, hirugarrenak izan behar du egia"*¹⁶.

Hortara, hastapen bikoiztasunak ez du ordena eta harmonia bermatuko, are gehiago ukatu egingo du, ordena bakarra bilatzen badugu, zentzugabea izango delako bera bi hastapenetan oinarritzea. Ordenaren bikoiztasun horrek, azken batean, derrigorrezkoa izango du hastapen bat bestearen gainetik ezartzea eta horrek errealitatearen alderdi bat izatearen bigarren mailara jaurtitzen baitu, desordenera, beraz.

Hemen, azken batean, ideien munduaren eta mundu sentigarriaren arteko harremanaren arazoaz dihardu. Begiratzen baditugu dualismoaren onarpenetik arazo honi eman zaizkion bi

irtenbiderik garrantzitsuenatakoak ikusiko dugu ez dituela oso erantzun asegarriak jaso. Platonek bere mitoen eta alegien artean ezin izan zuen aurkitu ezta berarentzat ere nahikoa izango litzatekeen soluziorik. Gauza jakina da azken elkarrizketetan oraindik arazo horri bueltaka dabilkiola, eta bi mundu horien arteko lotura finkatu nahian partehartzearen edo antzeratzearen proposatuko zituen irtenbideak ere balizpen bezala eskainiko zituela.

Baina oraindik eztabaidagarriagoa izango da, ikuspegi filosofikotik, kristautasunak arazoari eman zion konponbidea, bi mundu horien arteko lotura harreman mistiko eta mirarizko batera murriztu zuelarik. Azken batean naturarekiko arrotza litzatekeen jaingo baten borondatearen ekintzen menpe geratuko litzateke munduaren ordena, eta honela natura ez litzateke beraren buruaren jabe izango, ez luke inolako autonomiarik izango edozein gertaera natural borondate arrotz traszendental horren menpeko izango litzatekeelarik.

Bi kasuetan beharrezkoa izango da desordena nagusi den mundu bat onartu beharra, sentigarritasunaren mundua, hain zuzen, eta bi mundu ezberdinen arteko mailaketa, honek fenomeno natural guztiak "benetakotasunaren" ordenetik urrunduta utziko lukeelarik. Shaftesburyk honi guztiari errozko monismo batekin ihardetsiko dio. Ez du onartuko errealitatearen zatiketa hori eta uko egingo dio naturarekiko arrotza litzatekeen edozein hastapeni, dela modu logiko batean munduaren zatiketa ezartzen duena, dela bide telogikoetatik abiatuz "deus ex machina" baten premia onartzen duena. Lehenengo kasuan berez ilogikoa litzatekeelako hastapen bikoiztasuna eta bigarreanean izatearen

baitan mailaketa eta nagusitasun bat ezartzen duelako. Horrela uko boborobila egingo dio jainko traszendentalari, ezingo delako bera ordenaren hastapen izan.

Honela Jainkoa bazen ezagupen moralaren aurrebaldintza, baita Descartsentzat ere, Shaftesburyk beraren lehentasuna ezinezkoa dela finkatu du moral kontuei zegokienean:

*"Mutur okerretik abiatuko ginateke, seguruena, meritua graziaren bidez eta ordena Jainkoaren bidez frogatuko bagenitu"*¹⁷.

Zehaztasun osoz ez bada, hemen soma dezakegu gero hastapen bihurtuko dena, hau da, izaera morala berez datorkiola gizakiari eta bere izaeran, izaera gizartekoian, aurkitu behar dela, hau da, moralitasuna izateko aurrebaldintza ez da jainkotasun batean aurkituko gizartekoitasunean baino. Baina orden moralari ez ezik orden fisikoari ere datxekio hastapen hori, eta jainkotasun traszendentalaren hipotesiak, beraz, ez du balioko naturaren ordena azaltzeko, haatik, naturaren baitan adimen bat nagusi izatea, izango da lehena, eta hau izango da, izatez gerotan, jainkoaren existentziaren frogagarri eta ez alderantziz. Ez da aurreuposatu behar jainkoa gero naturaren ezagupenera heltzeko, haatik, naturaren bizipena izango da jainkoarengana zuzenduko gaituena.

Baina jainkotasun traszendentaletik naturarako urratsa hutsaren gainean egindako jauzia izango litzatekeen bezala, gauza berdina litzateke alderantzizkoa egin nahi izango bagenu, hau da, naturan oinarrituta, naturazgaindiko jainkoaren existentzia

frogatu nahiko bagenu. Jainkotasun hori naturaren baitan bururatu beharko litzateke eta izatearen osotasunarekin bateginik, naturaren baitan aurkitu beharko baita osotasunaren azalpenenerako hastapena.

"Horregatik gauza guztiak lurlean kontenplatzen baditugu, ezinbestez dena batean ikusi behar dugu, multzo orokor batean bildua bezala. Eta berdin gertatzen da mundu zabalagoaren sisteman. Begira gauzen arteko elkarrekiko menpekotasuna, bata bestearekiko harremana..."¹⁸.

Teoklesek munduaren batasuna, orduan, naturan ezarriko du, lurrera begira aurkituko dugu batasun unibertsal hori, landare eta izaki bizidun banakoen perfekzioaz eta ordenaz jabetuz bakarrik helduko gara unibertsuaren ordenaz eta adimenaz jabetzera. Bururaezina izango da, beraz, ordenik gabeko natura eta ordenaren hastapen bat egongo da derrigorrean, baina bururaezina izango da, halaber, orden hori naturari kanpotik etortzea. Orden razionala bakarra izango da, bakarra eta naturala, eta bururaezina, irrazionala, izango da berarengandik kanpoko ezer.

Naturak berak gordetzen du munduko gertaera guztien egoitza izatearen burupea, beraren baitan hartuko dute zentzua eta eman ahal izango zaie azalpena, bera izango da, hartara, munduko gertaera eta ekintza guztien helburua. Xede bakarra dago Shaftesburyrentzat, ez dago naturaz gaindiko xederik. Eta honek balio du dualismo kartesiarrari erantzuna emateko ere, ezin da eta onartu, Descartesek dagien bezala, munduaren ulerkuntzarako

bi hastapen (gehi munduaren sortzailea litzatekeen jainkoa). Adimena dago (eta lehena izango da agian) baina ez da bereizten izaki fisikoaz bere izatean, izan ere zentzugabea izango litzateke gizakia arrazoiduna eta naturan arrazoimenik ez izatea Pisellik gogoratzen digun legez¹⁹.

Ez da zaila ideia hauen sustrai estoikoa igartzea. Marko Aureliok, esaterako, adieraziko digu denok lan egiten dugula xede bakarra betetzeko, batzuk jakinaren gainean daudela eta beste batzuk jabetu gabe²⁰. Xedea bakarra izango da, eta denok gaude modu berdinean xede hori betetzeko ahaleginari lotuta. *Mundu honetako gauza guztiak batuta daude*²¹ esango digu Shaftesburyk.

Hau guztia kontuan izanik matizatu beharko genuke, orduan, S. Greanen baieztapena zera dioenean: "Shaftesbury's conception of nature rests on the principle that god had created nature; and has endowed her with creative powers so that she might carry on the work of providence"²². Ezin onartuko dugu naturari buruzko burueraren hastapen bezala jainko baten sormen ekintza bat, hemen iradokitzen den legez, ezta naturaren aurretiko probidentzia baten poderioa, horrek guztiak eskatuko lukeelako izaki arrotz horren aurrexistentzia. Sormen ekintzarik onartzen badu natura beraren burusorketa ekintza bezala ulertua izan beharko da, sormen hori delako, aurrerago garatuko dugun bezala, natura bera.

Shaftesburyren testuak ez du zalantzarako lekurik uzten honetan guztian, eta garbi ikusten da hau probidentziari buruzko ikuspegia azaltzen digunean. Bisitan etorri diren bi lagunek naturazgaindiko probidentzia goraipatzeko eta bere indarra erakusteko beharrezko dakusate naturaren alderdi itsusienak nabarmentzea, uste dutelako horrela errazago izango zaiela natura

hori gutxiestea eta naturazgaindiko jainko baten premia sendotzea, dualismoa finkatzea alegia.

*"Bazirudien probidentzia eta naturaren arteko lehian azken andereño hau ahal zen itsusiena agertzen zela; bere itsusikeriagatik probidentziaren edertasunak hobetsi eta nabariraraziko zirelarik"*²³.

Baina Teoklesen erantzunean ez da tolesik izango, eta naturari buruzko azken hitza ematean argi eta garbi utziko du natura eta probidentziaren arteko ezinbesteko batasuna:

*"Oi natura ahaltsua! probidentziaren ordezeko jakintsua!, indarrez beteriko eme emankorra!, Edo zu Jainko indarremailea, kreatzaile gorena!, Zuri egiten dizut dei, zu bakarrik gurtzen zaitut"*²⁴.

Shaftesburyk ez du ukatuko probidentzia hori, baina bai ukatuko du bere autonomia naturarekiko, Greanen aipamenak eta bisitarien jarrerak, iradoki dezakeen bezala. Shaftesburyren konpromiso monista errozkoa da eta ez dago puntu honetan inolako pitzadurarik bere pentsamenduaren osotasunean. Shaftesburyren naturaren filosofiaren hastapena, beraz, naturaren batasunean, batasun sortzaile eta ordenatuan etzango da.

Naturaren batasunaren aldeko argudioak

Naturaren batasuna eta ordena baieztatzen badu, zergatik dirau naturak batua ez badago berarengandik kanpoko borondaterik batasun hori bermatuko duena? Egia esan orden hori bermatzeko sistema metafisiko gehienek beti jo behar izan dute kanpoko zergatietara, baina ikuspegi horien mugak kritikatzeari ez da nahikoa izango eta eskaini beharko ditu ondoren bere ikuspegia defenditzeko izan ditzakeen argudioak.

Jainko kreatzailearen hipotesia bazterturik, filosofia tradizionalaren euskarri izan den hastapena ukatuta, Shaftesburyri eratuko zaion iturria bere garaiko zientzia izango da, fisika newtoniarra alegia, bertatik hartu ahal izango baititu bere pentsamenduaren oinak, erakutsiko duelarik bere estetikak ez duela zertan fisikaren sistema zientifikoekin kontrajarria egon, haatik, oso neurri handi batean, bere gainean eraikitako birsorketa lirikoa dela.

Honen erakusgarri hastapen metodologiko batean aurki genezake, oso garrantzitsua izango dena bere arrazonamenduaren bilakaeran eta Newtonengan duena aurrekoa. Shaftesburyk, Newtonek bezala, kontsideratuko du unibertsuaren zati batean lege denak unibertsu osorako balio duela, grabitazio legeak unibertsuaren zati batean balio duenez, unibertsu osorako balioko duen bezala. Newtonek baieztatuko du esperimentuaren bidez gorputzen ezaugarri dela egiaztatzen duguna unibertsaltzat jo behar dugula, hala nola espazioa eta gorputzen gogortasuna²⁵. Hain zuzen, hau baieztatzen duen arauaren korolarrio bezala aurkezten digu Newtonen grabitazio unibertsalaren legea: "arau honen ondorio gisa unibertsalki

onartu behar dugu gorputz guztiak, salbuespenik gabe, elkarrekiko grabitazio hastapen batez hornituak daudela"²⁶ Ba, Newtonek gorputz guztiak, salbuespenik gabe, grabitazio indarraz hornituta daudela dioen legez, Shaftesbury saiatuko da ideia hori filosofiaren arlora aplikatzen eta bilatuko du hastapen bat, zientzia baino areago, errealitatearen azalpena terminu filosofikoetan emango duena. Horrela *mundu honetako gauza guztiak batuta daudela*²⁷ baieztaturik, orden unibertsalaren hastepenetan zatien arteko erakarmen unibertsala, sinpatia, eta zati horiek guztiak helburu bati begiratzea ezarriko du eta banakotasunaren izaera suntsiarazi gabe, haatik bera indartuz, unibertsuaren ordena eta lotura justifikatzen saiatuko da.

"Sinetsi ala pentsatu ahal duzu osotasunak ez duela ez batasunik ez barneloturarik izango, zatiak hain era askotara lotuak daudenean eta elkarren artean egokiturik lehiatzen direnenan?; eta izaera menpeko eta banakoak perfektutzat hartzen badira, orokorrak perfekzioa faltan izango al du, eta pentsa daitekeen gauza denez, besterik ez, izugarri, zakar eta inperfektua izango al da?"²⁸.

Banakoaren baitan ordena, batasuna eta perfekzio badago, honek eraman behar gaitu orden bera, barne lotura bera eta perfekzio eta edertasun bera onartzera unibertsuaren osotasunean. Esan dezakegu, eta agerian geratuko da lan honetan guztian, hastapen honek gidatzen duela Shaftesburyren arrazonaketa osoa, baina baita, oso neurri handi batean bere pentsamenduaren muina islatzen duela, azken baten, banakotasun horretan ordena eta

harmonia bilatzen eta aurkitzen baitu, unibertsu osoaren harmoniaren isla, alegia.

Hastapen metodologiko horri eutsiz Shaftesburyk banakoa egingo du bere gogoeten abiapuntu:

*"Ez izan beldur, nire lagun -ihardetsi zuen berak-. Jakin ezazu izaera partikular bakoitzak berarentzako ona dena ekoizten duela etengabe, kanpotik zerbaitek aztoratu edo eragozten ez dion artean (bai bere barne indarrez menperatu eta ustelarazten duela, bai kanpotik erasotzen diola). Horregatik baita gure inguruan dakuskigun landare hauetan ere izaera partikular bakoitza hazten da, eta bere perfekziora heltzen da kanpoko ezerk traba egiten ez dion artean edo arrotza zaion ezerk indargetzen edo zauritzen ez duen artean"*²⁹.

Partikulartasunaren onespén horrek, beraz ez du ekarriko, perfekzioaren eta ordenaren ukazioa, haatik, berreskuratuko ditu baina ez naturatik kanpoko errealitate baten determinazio bezala, natura beraren ekimen guztien arau nagusi bezala baino. Hiru elementu agertuko dira muinezkoak hastapen horietatik Shaftesburyk eskaintzen duen garapen filosofikoan: lehenik banakotasunaren lehentasun ontologikoa, bigarrenik ekimena izango dela banakotasun horren bereizgarri, ihes egingo diolarik pairakortasunari edo ezer azalduko ez duen edozein esentzialismo estatiko antzuri, eta hirugarrenik perfekzioaren lorpena banakotasun horren eginkizunaren gida eta ondorio bezala agertuko dela.

Honetan guztian, berriro, mundu sentigarria erdeinatzen duen dualismoei eraso irmoa igartzen da. Onartezina irudituko zaio Shaftesburyri platonek mundu sentigarriarekiko erakusten duen gutxiespena, baina baita Descartesek proposatzen duen pentsamenduaren eta hedaduraren arteko etena. Ideialtasuna bururatzeko alferrikako ahalegina izango litzateke naturatik kanpoko ideien mundu perfektu eta egonkorra irudikatzea. Ideia, banakotasunari erabat uztartuta agertzen da, "in re" bat izango litzateke, hala non ez litzatekeen ezer izango banakotasunarekiko bereizirik bururatu nahiko balitz. Ideialtasunaren ezaugarriak izan litezkeen perfekzioa eta iraunkortasuna hemen banakotasunari, higikortasunari eta ekintzari, aldaketari beraz, hestuki lotuta agertzen dira, natura bera baita perfekzioaren nahikoa erakusgarri. Eta honen frogagarri gogora ekar dezakegu lehenago ere behatu duena:

"Harrigarria naturatik sortzen diren izakiak hain perfektuak izatea, non euren erakuntzan inperfekzioa aurkitzen duten eta eurak sortu dituen jakituria zuzentzeko gauza diren!"³⁰

Akatsak izatea ez da arazo izango, naturak hornitu baikaitu eurak zuzentzeko gaitasunaz. Perfekzioa, beraz, ekiteko gaitasun horretan eta ez beste inon datza, ez datza substantzialtasun batean, eta ekoizpena ez da izango norberaren, eta, ondorioz naturaren, ona ekoizteko gaitasuna baino. Perfekzioa, ba, izaera partikular bakoitzaren ekimenerako indarrean etzango da eta banako bakoitzak bere izaera, bere ekintzaren bidez, betetzen

duen neurrian izango du perfekzioa.

Hau guztia ideien mundu banandu baten suposapenaren ukazio borobila bezala ulertu behar dela ez da oso zalantzagarrria, baina aplikapen hurbilago eta konkretuago bat bilatuz uler daiteke, halaber, argudiapen ontologikoaren indarra erabat deusesteko ahalegin setati bat bezala. Azken batean zerbait frogatu ahal izango balitz beraren bidez naturaren perfekzioa eta ez jaingo baten existentzia izango litzateke, eta argudio honetan aurreuposapen garrantzitsua da, testuan agertzen den legea, perfekzioa ez dela adimenean agertzen naturatik banandua dagoen neurrian, Descartesengan bezala, esaterako, naturaren, natura beraren, mugapen bezala baino. Esan dezakegu Pisellirekin batera perfekzioaren ideia guregan ematen bada naturan bilduta gaudelako dela³¹, eta ez beste mundu baten partaide garelako edo izan garelako ezta gu geu naturatik kanpoko ezer izan gaitezkeelako ere.

Alabaina kritika honek ez darama Teokles enpirismo inozo batean jaustera. Ezagupena eman dadin derrigorrezkoa izango da banakotasunetik eta partikularitasunetik abiatzea, baina ezagutza prozesua ez da etzango izaki partikular askoren ezagutza metatuan, banakoa moldatzen duen ordenaren atzemaketan baino:

"nola liteke halako zuhurtasuna eta jujamendu zorrotza izanda naturaren izaki eta ekintza banakoez, ez juzgatzea hobeto gauzen egitura orokorraz eta naturaren inguruaz? Erakutsiko al du inork zuk baino hobeto landare eta animalia guztien egitura, hala nola euren zati eta organo guztien erabilpena, xedea eta abantailak?"³²

Pasartetxo hau aipaturiko arau metodologiko newtoniarraren beste formulaketa bat izango da, baina hori baino nabarmengarriagoa da ezkututzen ez duen ironia horren ostetik enpirismoari kritika modura ere irakur daitekeela. Exijentzia gisa eskatzen dio Teokleseki Filoklesi onar dezala banakotasunean ordena aurkituz gero, beharrezkoa dela orden berori orokortasunean aurkitzea ere. Bai filokles eszeptikoarentzat, bai Teoklesentzat nabarmena izango da banakoan, gauza partikularrean, orden hori ematen dela, egitura bat badagoela, eta Teokleseki exijitzen duena da orden partikular horrek beste orden zabalago baten zati eta islada izan behar duela derrigorrean, benetan existitzen den orden razional batena hain zuzen.

Kontuan eduki behar da Shaftesburyren bide platonikoaren aldeko apostua garbia dela eta partikulartasunetik abiatzeak ez duela berarentzat esan nahi ezagupena partikulartasun horri makurtu behar zaionik, haatik, esan bezala, banakotasun hau ideiaren nagusitasunaren frogagarri bezala agertuko zaio. Ideiala gauzatzen da banakotasun horretan eta ideial horren atzemaketa izango litzateke guk gure intuizioaren bidez gureganatuko genukeena banakotasunaren esperientzian. Beraz, Teoklesentzat banakotik orokorrerako higidura autoebidentea izango da, ez du indukzio prozesu baten emaitza bezala ikusten, banakotasunaren esperientzian oso batean berehala agertzen den egia nabaria bezala baino.

Izan ere, Ordenaren eta perfekzioaren lehen esperientzia gutariko bakoitzak gure nian aurkituko dugu, banakoaren barne esperientzia bezala. Ni hori izango da hautemango dugun lehen gauza, unibertsuaren osotasunaren esperientziaren aurretik, eta

berarengan lehena eta nahikoa izango den ordenaren, perfekzioaren eta batasunaren esperientzia aurkituko dugu. Baina esperientzia horretatik aterako da perfekzioa eta ordena banakoarena ez ezik naturaren osotasunaren ezaugarri dela, are gehiago, bankoaren baitan ematen dela banakoa naturaren osotasunaren zati den neurrian.

"Harrigarria naturan perfekzioaren eta ordenaren ideia egotea eta natura bera horien faltan izatea!...

*Ez dago ezer, seguruenik, gure adimenari atxikiago, edo gure arimarekin hestukiago gurutzatua ordenaren eta neurriaren ideia edo zentzua baino"*³³.

Teoklesek onartuko du, beraz, Descartesek egingo zuen bezala, ordena eta perfekzioa gure arrazoimenaren ideiak izango direla, baina horrexegatik harrigarria irudituko zaio bururatzea perfekzio hori eta orden hori naturatik banandutako zerbait bailitzan. Ordena eta perfekzioa ez datxekio Jainkotasunari -Descartesek garatuko duen argudio ontologikoan aterako den bezala- naturari baino. Horregatik, hemen ideia bat naturan dagoela dioenean banakoaren adimenean, Nian, dagoela esan nahi du argi eta garbi, baina Ni hori naturaren zati bailitzan bururatuz beti ere, horrela arrazoimena naturan bilduz, bereizketa edo pitzadura ezarri gabe adimena eta naturaren artean. Objektibotasunaren bermea, orduan, barne munduaren eta kanpoko munduaren bat etortzean aurkituko da³⁴, baina barnetasunaren pertzepzio razionala izango da razionaltasun eta orden hori atzematea utziko diguna.

Organismo bizi bakoitzak barne orden bat erakusten duen bezala, organismo bizi baten zati edo elementu bakoitzak organismo beraren batasuna iraunaraztea baldin badu helburu, bizidun banako hori sistema zabalago batean sartu beharko da, eta sistema horren barruan hartuko dute zentzua beraren ekintzek eta lortuko du perfekzioa izaki banakoak. Izan ere, gizabanakoak osotasunaren ordena bereganatzen duen arren bere buruaz duen kontzientziatik, bizidun banako horren izatea izate orokorragoaren menpeko izango da eta ez alderantziz; hau da, kontzientzia edo arrazoimenarentzat lehena izango dena, Nia alegia, menpeko izango da errealitatean, Descartesengan ez bezala. Horrela, eginkizun sortzailearen lehen protagonista adimen unibertsalean aurkituko dugu, hau izango da banakoen sortzaile, eta adimen unibertsal hori izango da atzeman beharko duena gizabanakoak bere barne munduaren azterketan.

*"Zeren harremanaturiko gauza amaigabe batean, adimen batek ez badu amaigabeki ikusten, ezin baitu ikusi ezer osorik; eta banako bakoitza denarekin harremanatzen denez oro har, adimen horrek ezingo du ez perfekziorik ez ezeren benetako harremanik ezagutu, ez badu mundua perfektuki eta osorik ezagutzen"*³⁵.

Perfekzioaren eta betetasunaren ideiak perfektua eta osoa den natura razionala ezagutzeko aurrebaldintza izango dira. Eta horrela, banakoaren baitan dakusagun ordena beste orden zabalago baten isla bezala agertuko zaigu, orden unibertsalarena, alegia, izaki bakoitzaren xedea, eginbeharra eta zentzua zehaztuko duena.

Materialista ala idealista?

Baina enpirismoaren eta razionalismoaren edota platonismoaren arteko eztabaida honetaz gain, eta Shaftesburyren apostu monista behin ondo finkatuta, oraindik eztabaidari jarraitzeko arazoaren beste saihests bat aztertu beharra geratzen zaigu, Shaftesburyren pentsameduak materialismorantz ala idealismorantz okertzen duen ebaztera eramango gaituena.

Begiratzen baditugu planteatutako arazoari buruzko interpretapen ezberdinak ikusiko dugu ez dutela zalantzarik egiten Shaftesbury estoikoen artean sailkatzean eta honekin batera materialistatzat jotzean bere pentsamendua. S. Greanek gogorarazten du, honela, estoikoen ikuspegitik natura bizitzeko indarra duen ekaiatz osatua dagoela eta natura jainkotasunarekin parekatzen dela³⁶, eta ideiaok Shaftesburyren pentsamenduaren oinarria direla. R. Voitleren lana hartzen badugu, berriz, ikusiko dugu berak indar gehiagoz oraindik nabarmentzen duela estoizismoak materialismoaren alde egiten duen apostua. Kosmologia estoikoa bere materialismoagatik bereiziko litzateke eta Shaftesburyk, gogoz kontra agian, onartuko luke ikuspegi hori. Hau oinarritzeko Voitlek gogorarazten digu Shaftesburyk dualismoa baztertzen duela, ez dela aurkitzen honen testuetan beste bizitza batenganako sinismenaren arrastorik, eta ezta izpiriturik ere³⁷. Hau guztia, eta defendatzen duen Jainkoari buruzko ikuspegia, ulertezinak izango lirateke nolabaiteko materialismorik gabe.

Defendatu al dira, hala ere, Moralistak lanean agertzen diren hitzetan oinarrituz ikuspegi horiek? Badirudi gutxienez

eztabaidagarria gerta daitekeela hori. Izan ere, badago, hasteko behintzat, materialismoaren ikuspegi pare bat uko borobila eskaintzen diena, berak berria deritzon hipotesi materialista bata eta antzinagoko hipotesia bestea, Hobbes eta, dirudienez, Epikuro izendatzen dituelarik. Lehen hipotesiaren arabera mundua mugitzen den betiereko ekaizko egitura izango litzateke, eta bertan *adimen desegingarriaren zatiska barreiatuak*^{3a} aurkituko genituzke bakarrik edo, beste era batera esanda, pentsamendua han hemenka. Antzinagoko hipotesiaren arabera, berriz, hasiera batean ez zen ezagutuko pentsamendurik munduan, ez han, ez hemen, inon ere ez, halabeharrez agertuz harmonia bitxi bat sortuko zuelarik.

Burutazio miresgarria deritzo honi guztiari Shaftesburyk, baina berak adimenari emango dio lehentasuna, bera izango delarik natura osoaren hastapen gorena. Bere baitan aurkituko duen adimen horrek balioko dio bere izatearen alderdi bai fisikoak bai izpirituzkoak justifikatzeko eta eurei ordena ezartzeko. Baina ba al darama honek materialismo oro arbuiatzera? Ukatzen al da honekin munduaren egitura ekaizko hutsa izan daitekeenik erabat? Biltzen al du pentsamenduaren lehentasun horrek ekaia bere ondoko izango denik? Horrela balitz derrigorrezkoa litzateke baita aipatu dugun materialismoaren beste ikuspegia ere errefusatzera, horrela gure egilea estoikoengandik urrunduko litzatekeelarik.

Alabaina, badirudi aipaturiko Shaftesburyren materialismoaren hipotesia indartzeko modua ere aurki genezakeela Moralistak laneko elkarrizketetan. Natura definitzen duen ondoko hitzotan fija gaitezke horretarako:

"Nik deritzot masa orokor bat dela, osotasunaren

gorputz bat; gorputz honi orden bat dagokiola eta orden honi adimen bat; adimen orokor horrekin harremanatu behar dela batasun partikular bakoitza - substantzia berdinekoa izanik berdinki eragin behar duela gorputz batean -; bera bezala mugimenduaren eta ordenaren jatorria dela; bera bezala bakuna, konposatugabea eta banakoa; ondorio eta eragindura berekoa;"³⁹.

Badirudi masa orokorra ("one general mass") eta osotasunaren gorputza ("body of the whole") moduko esapideak erabiltzean naturaren lehen adierazle bezala iradoki nahi duela gehiago materialismoarekiko atxikimendua edozein idealismoarekikoa baino, alabaina kontuan izan behar da masaren kontzeptua kontzeptu dinamikoa dela, ez dela berarekin adierazten materia inerteia, bizigabea, zeinaren mugimendua bakarrik leku aldatzetik etorriko litzatekeen modu mekaniko batean; kontzeptu horrekin naturaren oinarria adierazten badu bera modu dinamiko batean ulertua izango da. Horregatik pasarte honetan bertan ikusten dugu masa hori, osotasunaren gorputza, ezaugarritzeko zera nabarmenenak adimenarekiko lotura eta higidura eta ordenaren jatorria izatea direla. Gorputz hori ezin da, bere osotasunean, naturari ezinbestez lotuta dagokion higidura eta adimenetik banandu.

*"Dena da iraultza gure baitan. Ez dugu irauten ekai bera edo ekai sistema bera egun batetik bestera. Ez dakigu nola jarraitu ahal izango dugun aurrerantzean, zeren are orain ere, bilakaeran murgilduta bizi baikara, eta suntsitzen eta birregiten ari gara"*⁴⁰.

Berak kritikatzan dituen ikuspegi materialisten akatsa izango da, orduan, naturan higidurarik gabeko zati bat badagoela onartzen dutela, eta hau ez da onargarria izango, Shaftesburyrentzat naturaren osotasunaren ezaugarri gorena higidura izango delako, eta ez delako inon emango higidurarik gabeko naturarik, ez emango eta ezta bururagarria izango ere modu razional batean behintzat.

Egia esan Shaftesburyren ikuspegitik ez litzateke onargarria izango ezta Descartesek errealitatean ezartzen duen zatiketa ere; honek bi alderdi bereiziz, substantzia pentsalaria eta substantzia hedatua, bigarrena autonomia gabeko mugimendu mekaniko batera kondenatu baitzuen. Hobbesez ez zuen bikoizketa hori egin eta mundua, bere osotasunean, lege mekaniko horien araberrako bihurtu zuen. Naturaren zati guztiak gorputz dira eta gorputzak, gainera, pentsamenduaz bereizirik existituko lirateke, "gorputzagabeko substantzia" berez esapide kontraesankorra izango litzatekeelarik.

Mekanizismoa besarkatuz gero, onartu beharko da unibertsozko aldaketa oro espazioan emango den gorputzen mugimendua izango dela, eta bakarrik beste gorputz batekiko kontaktuak sorraraz dezakeela mugimendua. Baina oharrarazi behar da aldaketa eta mugimenduaz diharduenean Hobbesez giza adimenezko ekintza oro biltzen duela, zentzutik hasita hizkuntza berarenganaino⁴¹. Honela dena murrizten du, adimena barne, bere materialismo zorrotzera Hobbesez, eta horrekin zergati-ondorio harremanera, edozein gorputzen baitan, bizidun nahiz bizigabe, eman daitekeen edozein aldaketa kanpotik datorkion indar batetik sortuko litzatekeelarik.

Aski al dira, orduan, Voitle eta S. Greanen arrazoiak Shaftesburyren pentsaera estoizismoaren eskolakotzat eta materialistatzat jotzeko?

Saia gaitezen galderaok biok erantzuten eta horretarako Shaftesburyk aurrean agertzen zaizkion hiru koskari ematen dien erantzuna aztertu beharko dugu. Aurre egin beharko dien hiru koska horiek, eta, ahal izanik, hirurak uztartuz gainditu beharko dituenak honakook izango dira: munduaren batasunarena, errealitatearen etengabeko aldaketarena eta aldaketa horretan ematen den gai banakoen iraupenarena, bere postura aurreratzen ditugun ondoko hiru hastapenotan erabakiko delarik:

- 1) Mugimendua berezko zaio materiari, eta naturaren osotasunari, ez litzaioke kanpotik etorriko, eta ez litzateke gainera inolako gorputz geldirik egongo; are gehiago esan genezake mugimendu gabe ez dela naturarik bururatzerik.
- 2) Orden bat bakarra dago osotasunean eta aldaketa orok orden hori mantentzea du helburu.
- 3) Materiatic ezin da pentsamendua sortu.

Egia da, dena dela, Shaftesburyk dirudienez onartzen duela garapenaren abiapuntuan materia dagoela, edo horrela uler dezakegu behintzat ondoko pasarte honetan:

"Naturak ustekabez, aldaketa eta halabehar askotik pasata, sorkari bat sortu du. Hasieran ekaizko hazietatik loratuz aurrera egin du gaur egun dena bihurtu arte, eta horrela

heldu da belaunaldi luzez iraun duen era honetara"⁴².

Hasieran ekaizko hazia jartzean, saiheska-edo besterik ez bada ere, Shaftesburyk hastapen materiala onartzen duela dirudi. Baina, bestalde, onartu arren materia berarentzat ez dela zerbait estatikoa eta pairakorra izango Newtonekin bateginik hemen ere materiaren iraupenaren hastapena bereganatuko du:

"Ez dago galtzen den denborarik edo perfekzionatzen ez den substantziarik. Era berriak sortzen dira, eta zaharra deusezten denean bera osatzen zuen ekaia ez da baztertzen, baizik eta kontu eta trebetasun berdinarekin lantzen da, are ustelketan ere, naturak higuigarria eta xahutzailea dirudien arren"⁴³.

Iraupena ideien ezaugarri, aldaketa ekaiarena edo gaisentigarriena, hori izango litzateke tradizionalki, Platonengandik etorruta, proposatu den dikotomia. Dikotomia hori gainditzeak iraupena ez ideien bereizgarri naturaren osotasunarena baino bihurtzea eskatzen du, baina hori ez ezik aldaketa ideien, edo substantzien, ezaugarritzat ere jo beharra inposatzen du. Materia ez da desagertzen, hortaz, irauten du, baina iraupen hori bere higiduran eta etengabeko aldaketan datza. Era batera, aldaketa horrek substantzia oro ere inplikatzeko du, ez bakarrik materia, substantzia eta forma beraren kontzeptuak ere aldaketa unibertsal horretan egongo baitira nahastuta.

Dena dela, testu zati honetatik nabarmendu behar den ideia zera da: prozesu sortzaile baten ikuspegitik ulertu behar dela

aldaketa eta aldaketa prozesu horretan guztian ez dela gainbeherarik egongo, ez da endekaketa edo ustelketa biderik izango, ustelena iruditzen zaigun horretan ere naturaren ekoizpen bat egongo baita. Amaigabeko sorketa horretan ez dago alferrikako lanik, hortik sortzen den guztia, naturaren ekoizpen denez, zuzena izango da, naturak ez baitu hutsik egiten, ez baitu ustelketan huts egiten, guztiak zentzua duelako.

Aldaketa guztiak, orduan, helburu bati begira emango dira, xede bati, eta helburu horretan beti hobekuntzarako, perfekziorantzako bide bezala ulertu beharko dira:

*"Alabaina, zera baieztatu beharko nuke: nahiz eta gure benetako zuhaitzean, hemen zatien artean ikusten dugun adinako sinpatia egon; nahiz eta adostasuna egon xede bateratu batean, hala nola era egoki hori oinarritzeko, elikatzeko eta zabaltzeko, ezin gara oker egon esatean izaera berezi bat dagoela era horri dagokiona eta bere mota berdinekoekin amankomunean duena"*⁴⁴.

Sorketa ez da, orduan, sorketa lardaskatua izango, taxuzkoa baino, helburu batek arautua izango baita; xede bateratu bati begira emango da aldaketa naturan, ez aurreko zergati batek bultzatuta. Baina, gainera, naturak sortzen duen guztia (aldaketa oro beraz) zentzuzkoa bada, ez bada sortutako ezer gutxietsi behar, dena azken batean forma batez hornitua egongo delako izango da, eta honek esan nahi du orokortasun batean bilduko dela sorketa guztia. Materia, esan dudan moduan, aldaketen antzezleku bezala konfiguratzen da honela, naturaren asmoa betetzeko

beharrezkoa den bitarteko modura, baina ez du berak ordena bermatzen, horretarako forma bat beharrezkoa baita, horrela aldaketaz baino eraldaketaz hitz egin ahal izango dugularik.

Hemen, bai banakotasunaren, bai formaren edo substantziaren absolututasuna ukatuta geratzen dira, lehena beti forma bati menperatu beharko zaiolako eta bigarrena beti aldaketa eta hobekuntza prozesu batean ulertuko delako. Baina finalismo horrek badu beste ondoriorik ere, mekanizismoa gainditzen duela alegia, aldaketa oro adimenezko prozesu baten ekoizpen izango delako, eta unibertsuaren egitura, hortara, ez da ekaizkoa izango razionala baino.

Aipatu dugun bigarren hastapena orden bakarra dagoela da. Hau, jakina, aurreretik esandakoaren korolario bezala uler daiteke, ekaia eta forma bat egitean eta ekintza sortzailearen helburua formak sortzean izatean.

*"Hona hemen, bada, berriro esanda, gure gairik nagusiena: gizakia nahiz beste edozein animalia, bakoitza bere baitan, zatiz osatutako sistema osoa kontsideratu ahal bada ere, ezin da alde horretatik osotzat hartu bere kanpoarekiko; honetarako bere motakoen sistemarekin harremanean hartu behar da. Era berean bere motakoen sistema hori animali sistemarekin harremanatuko da, azken hau munduaren sistemarekin (gure lurrarekin), eta hau ere mundu handiagoarekin, unibertsuarekin"*⁴⁵.

Erraz entzuten dira hemen hastapen estoiko baten oihartzunak, sinpatia unibertsalarena, alegia. "Dena dago denaren

baitan" esango du Senecak⁴⁶, eta era beretsuan mintzatuko da Marko Aurelio esatean gauza guztiak lotzen zaizkiola guztiei, berarentzat gauza guztien arnasa bakarra, substantziaren batasuna, izango baita dena bat egiten duena⁴⁷.

Dena dela, azkeneko pasarte biotan xehetasun bat sartzen da gai honetan eta zera da: batasun horrek forma ezberdinetan funtsatua egon behar duela. Espezie ezberdinak egongo dira, kontrajarriak eta era hierarkiko batean antolatuak, azpikoak gorenenei menperatuak, eta kontrajartze hauetatik etorriko da edertasuna, orden unibertsala. Harremanatzen direnak formak, espezieak, izango dira, eta eurak izango dira orden horren sortzaileak.

Baina adimenaren ezinbestekotasun horri eta baita materialtasunari uko egiten ez diola kontuan izanik erabaki beharko da ea badagoen bataren edo bestearen lehentasunik edo biak ezinbestez bat diren.

Filoklesek, dena dela, ondo ulertzen du Teoklesen aukera zera dioenean:

*"Baina zuri dagokizunez -jarraitu nuen nik-, galdera planteatu duzun eragatik, arazoa ez da zer izan zen lehena edo aurrenekoa, baizik eta zer den izatea orain eta gure aurrean... Hona hemen zure argudioa: egiteetara zoaz (horrela esan badezaket) eta frogatuko zenuke gauzak egoera eta baldintzape batean daudela ... "*⁴⁸.

Garrantzitsua ez da zein sortu zen lehena, une honetan Teoklesen gogoetaren abiapuntua egiteak dira, banakoak ezagut

dezakeen errealtatea eta berari dagokion baldintzapea. Zer izan den lehena eta zer ez, azken baten, baldintzatugabeari buruzko galdera izango litzateke eta hori esperientzia guztitik kanpo geratzen da. Berari, berriz, esperientzia horrek erakutsiko dio errealtatea, natura, badagoela eta ezin dela ukatu, eta ezerezetik ezin denez ezer sortu izate horrek eta bere batasunak erakusten du betikotasunean existitu dela natura hori.

Ez da orduan existentziaren lehentasuna kezkatzen duena, azken baten emandako zerbait baita, banakotasunaren batasuna baino, eta, gehiago oraindik, banakotasunaren izpiritualtasuna eta pentsamendua. Hala ere, Shaftesburyk materia eta izpirituaren artean bereizketa egiteko saioa egiten du. Horrela, betikotasun horretan izpiritua eta materiaren arteko bereizketa egiten badugu, eta ezagutzaren eta errealtatearen oinarria orain eta gure aurrean dagoenean ezartzen badugu, banakotasun horren oinarriez galdegin beharko dugu eta azkar atera ahal izango dugu banakotasuna ezin aterako dela materiatik, ez delako bakuna eta etengabe aldatzen delako eta ez duelako bermatzen ezinbesteko egonkortasuna.

*"Gogoia jarriko du gorputza gobernatzen jatorriz, eta ez alderantziz. Zeren gorputza balitz lehena anabasa betiraunkorra izango genuke, eta gauza guztiak anabasa egoera batean mantenduko lituzke gaur egunera arte, eta betirako"*⁴⁹.

Honela baieztatuko digu Toklesek dagoeneko lehenagotik somatzen genuena Filoklesek horrela iradoki digulako, esan

duenean materia ezingo dela sekula pentsamendu bakar batera heldu.

*"(...) ekaia (mila azal desberdinetik kontuan harturik, elkarlotua eta banandua, betikotasuneraino aldatua eta desberdindua) ezingo da berez sekula pentsamendu bakar batera heldu, ezingo du ez zentzurik, ez ezagupenik, ekoitzi"*⁵⁰.

Ezingo da materia hutsetik pentsamendua atera, hau da, materia ezingo da izan pentsamenduaren eta izpirituaren sortzaile, Hobbesek onartuko lukeen moduan. Ezin da ordenaren hastapen izan, ordena pentsamenduari dagokiolako, naturaren osotasunean aurkituko dena, baina ez materiaren ekoizpen bezala. Pentsamendua izango da lehena, beraz, baina, esan dugun bezala, lehentasun hori ez da existentziari dagokionez, ez da denborazko eta kausalitatezko lehentasuna izango, lehentasun horrekin, osteraz, ordena eta batasunaren lehentasuna adierazten du.

Eta honek balioko du, halaber, gizabanakoari eta bere batasunari dagokionean ere. Edozein identitate aniztasunaren batasuna bezala ulertu behar bada, ezingo da batasun hori materialian oinarritu:

*"... ekai hori, berez, ez baita bakuntasun horretarako gai"*⁵¹.

Eta ez banakotasuna ez pentsamendua atera ezin denez materiatic ezingo da, ezta ere, Nia edo Zua hortik atera, ez da gizabanakoaren izaera materialtasunean oinarrituko.

*"Izan ere, ausartzen naiz esaten onartuko duzula 'zu' edo 'ni' hauek ekai hutsezko ezer baino bakunago edo banakoago direla; ez baduzu, behintzat, zu zeu baino gauza ulergarriago eta seguruagotzat hartzen atomoaren nozioa"*⁵².

Ez da, beraz, materialtasuna nahikoa finkatzeko ez batasun hastapena ez gauza guztiek elkarrekiko duen lotura. Funtsezko hautemaketa ez da atomo materialarena izango Niarena baino, Ni adimentsuarena hain zuzen eta hor aurkitu beharko da, eta ez energia fisiko edo mekaniko batean, naturaren osotasunaren ordena. Adimena dut eta honek, arrazoimenezko hastapen bezala, ordena ezarriko du nire eraspen, grina, gurari eta irudipenetan, eta adimena aurkitu dut niregan adimena dagoelako naturan, adimen horrek Nia taxutzen duen bezala naturaren osotasuna taxutzen duelarik.

Ez materialismo inozorik ez idealismo hutsalik ezta dualismorik ere, beraz, egongo da Shaftesburyren filosofian. Onarturik bere errozko monismoa, nekeza egingo da murriztea materialismoaren ala idealismoaren esparrura. Materialista bezala ulertuko bada bere pentsamendua, argi utzi beharko da materia ezingo dela bururatu zerbait inerte legez edo nahimenik, xederik edo adimenik gabeko higitzen den zerbaiten gisara. Shaftesburyk, gero Leibnizek egingo duen erara, naturaren osotasuna izpiritualduko du materia bera izpiritualtasunaren eta adimenaren zati bihurtuz. Honela arrazoa eta materia batasun batean murgiltzen ditu, eta hemen, gainera, moralitatea ere bilduko da, gaitza nola ona osotasunean berdinki barreiatua egongo delarik batasun horretan.

Natura, beraz, ez da ideia bat izango, ezta errealitate fisiko hutsa duen esparrua ere. Osotasun betea izango den arren ez du bizitza razional banandua izango, Platonen ideien gisara -hau da, ez zaio ezarriko materiari zerbait kanpoko bailitzan- eta, bestalde, ez da mundu sentigarrian aurkitzen diren izakien osotasuna izango⁵³ ezta giza a prioriek mugatutako esperientziaren osotasuna. Natura ideia eta objektuaren arteko batasuna izango da, nahia eta errealitatearen artekoa, formaren eta materiaren artekoa, formaren aniztasun amaigabea ekaian gauzatuko delarik. Eta naturaren batasun hori ongien definituko duena ahalmen sortzailea izango da unibertsuaren formaren eta ordenaren jatorria dena. Azken baten, ikuspegi dualistek Jainkoari edo errealitate traszendentalari atxiki diote ahalmen hori, eta bera izango da, higiduren artean, adimenari dagokion lehena. Horregatik Shaftesburyk ezibestekoa deritzo sormena naturarenganatzeari eta ez uztea ahalmen hori natura honengandik kanpo egongo den izaki baten esku, bestela naturaren izateko baldintzak ezinezkoak bihurtuko bailirateke. Izan ere, naturan nola edo halako higidura dagoela -eta hori horrela dela guztiek onartuko dute- ezingo da onartu higidura hori neurri batean natura honengandik kanpo dagoela, kanpotik datorkiola. Natura zerbait ekilea eta ez pairakorra bezala ulertu du Shaftesburyk eta ekiteko gaitasun hori ezingo baita oinarritu naturari arrotza zaion eta, hortara, bera ukatuko duen izaki batean.

Sortzeko ahalmen horrek zerbait pairakorra eta berari menperaturikoa egotea beharko du berak izaki ezberdinak sortzeko balioko diona:

*"Alabaina, espero dut zuretzako nahikoa izango dela azken tankera honetako batasuna, zure adimena alegia, existi dadila. Eta adimen honetaz aski da zera esatea: gorputz baten gainean ekiten duela eta bere azpian zerbait pairakorra eta berari menperaturikoa duela ... "*⁵⁴.

Eta honela beharrezko izango du izpirituak materia, honela ekingo du bere gainean, baina ez Descartesen dualismo elkarrekintzailearen ereduari jarraiki -zeinak beharrezkoa duen errealitate izpiritual bat errealitate fisikotik bereizia eta honekin leku zehatz batean elkartzen dena, glandula pinealean esaterako- baizik eta berarekin ezinbestean bateginik, adimena ekaiaren azken muturreraino hedatuz. Ahalmen horretan, beraz, datza natura, eta bere mugimenduan etengabeko sormen ihardun batean naturazkoa den guztia kutsatuko du, ideiall razionala betez.

Naturazko egoera vs gizarte egoera

Fisikaren munduan Galileorekin eman den aurrerapausuarekin fisika zientzia bezala sendotzera heldu da natura hastapen finko eta gutxi batzuetan ezarritik. Baina lan hori osagabea geratuko da ez bazaie irizpide bera giza eta gizarte kontuei aplikatzen, horregatik giza izaera ere naturara murriztuko diren arrazoimenezko hastapenen bidez eta ez jainkozko orden batean oinarriturik azaldu beharko da.

Asmo honen aurrekoak aurkitzeko estoikoenganaino jo beharko dugu, hauek defendatzen baitzuten bazegoela arau multzo bat

gizarte bizitzaren aurrebaldintza izango zirenak eta ez zirenak izango ohituren edo lege zehatzen menpeko; baieztatuko lukete, beraz, lege natural etiko bat egongo litzatekeela, eta horretatik eratorriko liratekeela arau juridiko eta gizarte erakunde guztiak.

Arrazoiaren eta naturaren lehentasun honek giza nortasunaren ikuspegi berria ekarri beharko du, beraz, eta honela pentsaera eskolastikoaren antropologiaren muina izan den arima traszendentala baztertu beharra izango da. Bera ordezkatzeko naturazko egoeraren kontzeptua (ilustrazio garaian fortuna handikoa izan zena) proposatuko du Hobbesek, berak giza izaera naturara murrizteko eta areagoko mundutik urruntzeko ahalegin garbia biltzen duelarik.

Jatorrizko giza izaera honen bilakuntza gidatuko duen funtsezko galdera zera izango da: ba ote dagoen arau multzo murriz bat gizarte bizitzaren aurrebaldintza izango dena, lekuzko edo gorabehera kulturalen menpeko izango ez diren arauz osatua alegia. Ustezko egoera horretan gizakia hezigabea izango litzateke eta ez litzateke inolako gobernuaren edo legeren menpean egongo edozein gizarte antolakuntzaren aurreko izango litzatekeelako. Begira ditzagun, ba, galdera honi emandako erantzunak, Shaftesburyren aurrekoa izan zen Hobbesena, noski, bera izan baitzen, seguruenik, kontzeptu horren sortzailea eta bera baita oso neurri handi batean Shaftesburyren kritikaren jasotzeilea, eta beraren ondokoa izan zen Rousseauarena, denboraz gairik elkarriketa unibertsala den eginkizun filosofikoan balegokeelako berari erantzunik Shaftesburyren ideietatik abiatuta.

Hobbeseek jatorrizko giza izaera horretaz eskaintzen digun ikuspegia etsipengarria izango da, gizakia bakardadean eta hezigabea denean oso izaera kaskarrekoa agertuko baita: "Eta gizakumearen bizitza bakartia, pobrea, nazkagarria, abereen modukoa eta laburra da"⁵⁵. Bakardade egoera horretan orduan gizalegearen funtsa mesfidantzan etzango da, ez da lekurik izango lankidetzarako, helburu berdinen bila badihardute gizakien artean sortuko dena lehia eta etsaigoa besterik ez da izango: "gizakume bik biek gozatu ezin duten gauza bera nahi badute, elkarren etsai bihurtzen dira"⁵⁶. Adiskidantzarako edo elkarlanerako aukerarik ez, beraz. Eta etsaigo honek definituko du bakardade egoera horretan gizakumeek beste gizakumeengana hurbiltzean hartuko duen aurrejarrera bera ere; "aurrezaintza" eta "ahalik eta gizakumerik gehien kontrolperatzea"⁵⁷ izango dira jarrera hori markatuko duten bi zantzuak.

Baina bere ikuspegia ez da baikorrago izango gizakia gizarteratzen duenean. Gizarteratze hori ez zaio berezko izango gizakiari, baizik eta bere bakarkako egoera kaskarretik irteteko modu bakarra, denok denon aurkako gerran egoteko egoera batetik irtenbidea, nagusitzen zaion gaitzerdia alegia. Eta irteera horretan ez ditu, gainera, bere izaera doilorrari berezko zaizkion ezaugarriak alde batera utziko, haatik, ezaugarri negatiboak indartuko dira eta bere gizarteraketan eta gizarte eraikuntzan gauzatuko dira euren mailarik gorenean.

Gizartea boteretsuaren indarrean funtsatuko da, nagusi izan ala morroi izan izango dira aukera bakarrak, eta jende gehien menperatzea lortzen duena hura izango da nagusi, besteak berari makurtu beharko zaizkiolarik, berak babestuko ditu hauek eta

hauek berari sorretan egongo zaizkio. Boterea beregantu duen honek gerorantzean Estatuaren funtsezkotzat jo den ezaugarria bereganatuko baitu, hau da, biolentziaren monopolioa. Eta gizartearen eginkizuna gizakiari berezko zaion indarkeria horretan ordena ezartzea denez, indarrean errotzen den ordena hain zuzen, bertan ere gatazka-iturri bezala bakardade egoeran ere giza nortasuna zedarritzen duten balio-irizpide ber-berak aurkituko ditugu: norgehiagoka, mesfidantza eta gloria⁵⁸, alegia, izango dira giza jokaera gidatuko duten helburuak, bai bakardadean, bai gizartean.

Baina Hobbesek gizakiaren jatorrizko bekatua gizabanakoaren izaeran jartzen badu, gerorantzean, XVIII. Mendea aurrera doala Rousseauk gizabanakoa zama horretaz libratuko du eta bekatu hori gizartekoitasunean ezarriko du. Gizakia jatorriz, naturazko egoeran eta bakardadean, ona izango da, naturarekin batasunean biziko da eta ez du kexarako motiborik aurkituko askatasun egoera horrek bere senen arabera jokatzen utziko diolako: "Galdegiten diot nire buruari ea entzun al duen inork noizbait basati aske bati bururatu zaiola bere bizitzaz kexatzea edo bere buruaz beste egitea"⁵⁹. Naturarekin integrazio horrek egoera aurrerrazionala eta bereziki aurremoralak mugatuko du, eta horrek esan nahiko du egiaren eta gezurraren ezagupen razionala baino lehenago, ona eta gaitzaren ezagutza praktikoaren aurretik, naturarekin bateginik bizi izaterik badagoela. Adierazpen okerra izango da, beraz, naturazko egoeran gizakia zintzoa (edo gaiztoa) denik, ontasunaren eta gaiztotasunaren artean marrazten den esparrua ezezaguna zaiolako, gizarte egoerarik ez badago ez baitago moralitaterik (ezta arrazoimenik ere): "Ematen du gizakiak egoera

horretan inongo harreman moralik, ezta inongo eginbeharrik, ez zutenez ezin zirela izan ez gaiztoak ez onak ..."⁶⁰. Arrazoimena nahiz moralitatea, esan bezala, gizakia gizarteratzen denean garatuko dira eta gizakumea beste inoren menpeko bihurtzen dute. Askatasuna galtzen du, baina galtzen du, halaber, bere buruaren gaineko nagusitasuna. Askatasunean bere helburu eta premia guztiak lortzeko gai bazen, naturarekiko elkarloturan eta harmonian bizi bazen, orain "menpekotasun unibertsal batera makurtua geratzen da"⁶¹ dena nagusiarengandik jasotzera behartua, nahiz eta hau ez den ezer ematera derrigortua izango.

Hobbesengan, lehenago, nahiz Rousseaugen, geroago, gizartekoitasuna zantzu negatiboz tintatua geratuko da, bataren kasuan indar hutsean oinarrituko da eta jatorrizko egoeraren derrigorrezko ondorio da, gutxieneko salbapena, eta funtsean ez litzateke gizakiarengan alde handirik emango egoera batetik bestera, Rousseaugen kasuan, berriz, jatorrizko egoera hori bertan behera uztetik ateratzen den emaitza da. Edozein kasutan bientzat gizarteak ierarkizazioa eta askatasun galera onartzera behartzen du, lehenari dagokionez beste inoren indarkeriak norberaren indarkeria erabiltzeko askatasuna eragoztean, azken finean askatasuna indartsuenen burupe bihurtuz, bigarrenarentzat, aldiz, askatasuna moralitasunari eta gizarte egoera orori kontrajarritz.

Edonola arimari buruzko gogoeta tradizionala, berari buruzko eztabaida, baztertu eta giza izaera naturan errotua behatzen saiatzen diren arren bien ikuspegia ez da neurri batean urrunduko kristautasunak ezarritako zamatik, ez dute lortuko gizakiari buruzko ikuspegia erabat "naturaltzea". Izan ere, naturazko

egoeraren kontzeptuak berak tradizio kristauari hain emankor izan zaion dualismoa biltzen baitu, gizarte egoerari kontrajarritz, ona eta gaitza bananduz, [giza] munduaren erroetan bikoiztasun ia elkarrezina jarritz, hau dena markatuago izango delarik, gainera, Rousseuren kasuan. Baina honetaz gain bada kristautasunaren beste bi ikuspegiekin lotura. Izan ere, bere ekarpen filosofikorik nabarmengarrienetakotzat, mendebaldeko kulturaren ezaugarriarik behinenak bihurtu direnak, modu bateko unibertsalismoa eta modu bateko indibidualismoa jotzen dira.

Hasiera batean kultura ezberdinak aurkitzetik ateratzen den irakaspena dirudien arren, gehiago bihurtzen da aurretik errotuta dauden zenbait sinismen egoera berrira egokitzekeo tresna. Kontzeptu honek ikuspegi kristau hori heredatzen baitu eta baheztatzen du bera mendebaldeko mundua jantziberritua uzteko. Eta mendebaldeko "zibilizazioa", jantzidura berri horrekin, "mundu berrian" bere funtsezko antolakuntza eta sinismenak ezartzeko gertu egongo da horrela.

Izan ere, naturazko egoera horri buruzko galdera giza espeziari buruzko galdera izango litzateke, eta berak gizabanako abstraktuaren ideiaraz zuzentzen gaitu, bera bizi den benetako bizibaldintzetatik erabat banantzen duena, eta, jakina, honela ez gara larregi urruntzen kristautasunaren kezka den gizaki hutsa eta lerdaren bilakuntzatik. Baina honela, paradoxikoki, gizabanako hori naturarekin bat eginik aurkeztu nahi denean, batasun horretarako aurrebaldintza modura gizartekoitasunarekin hausketa proposatzen da. Gizartea, gizarte antolakuntza, naturaz kanpoko zerbait bailitzan agertzen zaigu, naturari gizakiak ezartzen dion bortxakeria, naturaz kontrako gaitza.

Shaftesburyren filosofia ulertzeko ez da ahaztu behar oso neurri handi batean Hobbesi erantzun baten gisara eraikitzen dela, berarekin eztabaida eta polemika luze eta sakon bat bailitzan⁶². Hontara, polemika honen funtsapena arazo etikoan baino kosmobisio orokorrean bilatu beharko dugu. Shaftesburyren helburua, noski, gizakiaren ontasuna erakustea izango da, baina ezingo du bete bere asmoa gizakia eta giza izaera ezagutzen duen errealitate naturaletik bananduta bururatzen badu; etika naturaren ikuspegi oso batean errotu beharko da, gizakia eta bere eginkizun guztia bilduko duena. Ona gizakiarentzat "naturala" izango da baina giza naturaltasun hori ez da bilatu beharko espezie abstraktuan edo esentzia batean, bere izaera naturalean baino, hau da bere gizartekoitasunean.

Shaftesburyk ez dio eztabaida horri ekingo "jatorrizko egoera" delako horren bertsio berri bat eskaintzeko asmoarekin, ez da asmatzen hasiko ustezko egoera berri bat, Hobbesen giza izaeraren deskripzioa baino zehatzagoa edo fidagarriagoa izango dena. Haatik naturazko egoeraren kontzeptua bera jarriko du auzitan, bere ahuleziak azaleraziz, eta erakutsiz bere atzean irudimenaren eraikin hutsala besterik ez dagoela. Horrela adierazten du berari buruz mintzo denean "ustezko naturazko egoera"⁶³ edo "irudimenezko naturazko egoera"tzat⁶⁴ jotzean.

Berarentzat, beraz, kontzeptu horrek ez du errealitaterik islatuko, hain zuzen, frogatzen ahaleginduko den legez, natura bera ukatzen duen kontzeptua delako; izan ere, berarekin naturaren ukazio, osoa edo zatikakoa, dakarren edozein argudio hutsala izango baita berez. Ideia hau Shaftesburyren zenbait argudioren azpian aurkituko da, hala nola "Gizakia gizakiarentzat

otso" Hobbesen esaera ospetsuari aurre egiten dionean:

*"Zeren ezingo baita proposizio gaizto hau baieztu natura gezurtatu gabe, eta natur historiaren, egiteen eta gauzen ihardueraren aldetik nabarmena dena kontraesan gabe, nahiz eta saiatu garen berari zentzu jasangarria ematen"*⁶⁵.

Kontzeptuaren azterketari ekiten dionean, ba, bere helburua bere hutsaltasuna frogatzea izango da, kontzeptua bera deusestea, era batera Hobbes eta bere jarraitzaileen ikuspegiak kritikatzeko ez ezik gutxiespen antzarekin baztertzeko:

*"...ausarki adierazitako ikurritz posointsua erraz onartzen da benetako filosofia bailitzan, nahiz eta pentsamendu okerrekoa izan"*⁶⁶.

Baina har dezagun argudioa hasieratik eta ez bukaeratik eta abiapuntuan nabarmenduko duen lehen gauza zera izango da:

*"Ikusten duzu (...) zer baliabide erabili dituen filoklesek zuk onar dezazun naturazko egoera eta gizarte egoera erabat ezberdinak direla. Baina, galde diezaiogun berari, oster, eta begira dezagun ea froga diezagukeen egon daitekeela jatorrizko egoerarik gizartekoia ez dena"*⁶⁷.

Honen arabera, beraz, ahalezkoa izango litzateke gizakia gizartetik urrun bizitzea, eta, hori ez ezik, horrela izango litzateke bere lehen egoera. Bakarrik eta beste gizaki guztien

aurkako gerra batean, hori izango litzateke Hobbes eta bere jarraitzaileek gizabanakoaren berezkotasuna bururatzeko zuten era, azken baten, Shaftesburyren arabera, nekeza izango litzatekeelarik bereiztea naturazko egoeraren eta gudu egoeraren artean. Hau, jakina, larregi izango zen gure pentsalariaren izpiritu baikor eta gizartezalearentzat.

Orduan, bere eginkizuna, aipatu bezala, kontzeptuaren duestaketari zuzenduko zaio eta horretarako gakoa halako egoera baten ahalezkotasunari buruzko galderan aurkituko du.

Honi dagokionez gogoratu behar da, lehenik, Shaftesburyk errealitatea era dinamikoan bururatzen duela, eta egoera hitzak, -nola substantzia hitzak eskuharki ulertua izan den legez-aldatzen ez dena adierazi nahi duela eta, beraz, naturaren ideiari kontrajartzen zaiola. Honegatik Ez da gizakirik ezagutuko halako bakarde egoera batean giza izaera ukatzen duelako bere aldaketa guztien artean egoera perfektu eta burutu bat bilatuz.

*"Giza-sorkariak aldaketa ugari jasan zituen, eta, hazten zihoan artean, aldaketa bakoitza beste edozein adina naturala zen. Hori dela eta ehundaka egoera desberdin onartu behar dira naturazko bezala, bestela, bat hartu behar bada, perfektua dena izango da, natura bere osotasunean hazi denekoa"*⁶⁸.

Honela kontzeptuaren ahalezkotasuna ukatzen da hutsala delako. Hobbesek -nola Rousseauk geroago Shaftesburyren esanei kasu handirik egin gabe eta kezkatuago Hobesena errefusatzear-aldaketa koalitatibo bat emango dela deritzote bakardade

egoeratik gizarte egoerara pasatzean. Shaftesburyk, berriz, gizakia, natura bezala, progresio batean bururatuko du, baina uarrerakuntza horretan aldaketa ez da emango izaera batetik aurrekoa ukatuko duen beste izaera ezberdin batera pasatuz. Shaftesburyk ez du beraz aldaketa egongo denik ukatzen, baina baieztatzen du aldaketa oro dela naturala eta, beraz, egoera guztiak direla aurrekoak eta ondokoak bezain naturalak. Honegatik gizakiaren garapena, naturaren garapenaren paralelo emango denez, aldatzen joango da, baina aldaketa hori bere nortasuna betetzeko bidean emango da, naturak izendatu dion xedea betez⁶⁹.

Baina, bestalde, higidurari buruzko ikuspegia honetaz gain Shaftesburyk beste hutsune bat aurkituko du kontzeptu horretan, bakardade hutseko egoera baten ahalezkotasunari dagokiona. Eta bere erantzunak ez du zalantzarako baztertxorik ere utziko.

*"...noizbait eman bada [naturazko egoera] bat ere iraupenik gabe izan da, edo ez da jasangarri gertatu, eta ez da izan giza arraza oinarritzeko ballokoa. Giza maila honi ezin zaio berez "egoera" deitu"*⁷⁰.

Honi dagokionez, kontzeptuaren azterketa logiko bat eskainiko digu eta oinarria gizarte egoeraren eta naturazko egoeraren arteko elkarrezin kontzeptuarean aurkituko du. Izan ere, onartua da gizakia naturazko egoera horretatik gizarte egoerara iragaiten den unean bertan naturazko egoera hori galtzen duela, ez duela ezta unerik txikiena ere irauten:

"Ez, zeren gizakia lehenengo aldiz gizarteratu zenean

naturazko egoeratik adostasunean oinarritutako egoera berrira iragan zen eta.

"Jasangarria al zen lehen egoera hura?"

"Jasanezina izango balitz ez zen inoiz halakorik emango, eta ezingo genuke 'egoera' deitu, ezta une batez ere, gauzatu edo iraun ezin duena"⁷¹.

Gizartekoitasuna izango da, hortara, ez-gizakia eta gizakiaren artean muga marrazten duen bereizgarria: "gizarteratu zenean naturazko egoeratik adostasunean oinarritutako egoera berrira iragan zen". Bakarrik gizartekoitasunean ezagutzen da legea eta bakarrik bertan ezagut dezakegu egoera dei daitekeen ezer⁷². Eta bakardade "egoera" (jar dezagun oraingoan komatxo artean, Shaftesburyrekin batera) horretatik gizarte egoerara pasatzeak -azken baten hori baita, bai Hobbesek, bai Rousseauk, Shaftesburyk bezala, kritikoa deritzoten urratsa- bakarkako egoera horren iraunezintasuna lekarke, bere ezintasuna.

Legerik ez dagoen "egoera" batetik lege ordenean eraikitzen den egoera batera iragaiten da gizakia urrats hori ematen duenean. Era horretara, naturazko egoera horren bila dabiltzanek lege bihurtu nahiko lukete legea ukatzen duen fikzioa, kotraesan guztien muina azken batean, legerik ez dagoenetik legea atera nahi dute, ezerezetik osotasuna, ordena, benetako ordena gainera, bera orden oro ukatzen duen hastapenean ezarri nahi dutelarik.

Bere argudioarekin jarraituz ustezko jatorrizko egoera hori umekiarekin, giza sorkariarekin berdinkatuko du. Ez dugu ahaztu behar Shaftesburyk metafisikarekiko erakusten duen jarrera ukakorra. Egia esan, eta bere argudioan ezkutatua dagoen elementu

garrantzitsua aterarazi behar dugu, onartuko du bera kezkatzen duena emana zaion mundua dela, errealitate enpirikoan agertzen zaion mundua, eta ez irudimen hutsaren ekoizpena den kontzeptua. Eta ustezko jatorrizko egoera hori errealitate enpirikoarekin egiaztagarria bihurtzeko, naturan zertzeko, aurkitzen duen modu bakarra bera eta haurraren edo umekiaren artean analogia ezartzea da. Naturazko egoeratik hurbilen beha dezakeen gauza bakarra oraindik benetako gizaki, gizaki garatua, bihurtu gabe dagoen haurra izango bailitzateke, eta bera agertzen baitzaio Hobbesen argudioetara arrimatzeko aurkitzen duen ahalezko parekabide bakar bezala.

Argudioa honekin bat etorriko da ia bete-betean Tzvetan Todorovek *La vie commune* lanean garatzen duena. Todorovek galdegingo du zergatik aldatu ote dugun gizabanakoaren sorreraren kontaketa (gutariko edonork beha dezakeena) espeziaren jatorriaren kontaketa truke, berez mitikoa eta ideologiaren ekoizpen izan behar duena derrigorrez? Zergatik bururatu gizabanako bakartia, sekula ezagutu ez duguna eta ezagutuko ez duguna?⁷³

Naturazko egoerari buruzko galdera, orduan, aipatu dugu lehenago ere, espeziaren jatorriari buruzko galdera izango litzateke, behaketa orotik kanpo dagoen gauza.⁷⁴

"Bada, horrelakoa izango zen gizakiaren egoera gizarteratu eta benetako giza-sorkari bihurtu aurretik. Gizakiaren zirriborro kazkarra, naturaren lehen saio edo ahalegina, espeziearen jaiotza, mota eragabea; ez zen bere naturazko egoera izango, indarkeriazkoa baino; egonezinean perfekzio

naturala lortu arte"⁷⁵.

Bakarrik benetako giza bizi-baldintzen ahazketak ekarriko luke gizakiaren muina indarkeria hutsean errotzea Shaftesburyren arabera; benetako gizakiaren behaketak, bere giza harremanetan kontuan izanda, eta ez dago bestelako gizakirik, erakutsiko luke gizakiak adostasunean gauzatzen duela bere izaera, beti ere gizartekoia izango dena. Bere ikuspegitik zalantzaezinez adiskidantza eta adostasuna indarkeriari nagusituko zaizkio giza izaeran, gizartearen oinarria horretan baitetzake, akordioan, hitzarmenean, eta ez izuan.

Dena dela, gehiegikeria ematen du Hobbesen pentsamendua erabat baliagabetzea esperientzia kontuan hartzen ez duelako, azken baten indarra lege izatea, estatua Leviathan bat bezala irudikatzea, lehiari ematen dion garrantzia, ez dira ez ezerezaren gainean eraikitako asmazioak. Jasanezina egingo zaio Shaftesburyren bezalako izpiritu baikorrari (eta zortetsuari?) giza ordenean lehen balio horiek behatzea, baina, zer esanik ez gaur egun Leviathanak inoiz baino jeloskorrago eta indartsuago direnean, lehia eta aberastasuna balio nagusi bihurtu direnean, ez da erokeria esatea Hobbesen gizartearen argazkia dela gaurko gizarte antolakuntzari ondoen egokitzen zaiona.

Alabaina, Hobbesen errua behaketatik ez abiatzea baino beste hauxe litzateke: gizakiaren izateko ahalmenezko baldintzapena den gizartean bizitzeko joera hori ukatzea. Hau da, beraren arabera esan beharko genuke gaur egun ere lehia eta nagusigoa gizartearen ondorio direla eta ez gizartea lehia horren ondorio. Izan ere, badago indarkeriarik gabeko harremanik behatzerik -eta horren

ezean logikoki bururatzerik behintzat-; Hobbesek bururatzen duen naturazko egoeran, berriz, lehia edo nagusigoa baldin badira arau, honek ezinbestez beste inorenganako harremana eskatzen du derrigorrez bakardadea ezinezko bihurtuz, ez baita lehiarik bakardadean, hau ezin da ez behatu, ez logikoki bururatu.

Dena dela, arazoa naturazko egoerari buruzko eztabaida honetan zera litzateke: giza izaeraren esentzia unibertsalaren bilakuntzara abiatzea, eta, egia esan, egotz dakioke Shaftesburyri ere horrelako zerbait egiten duela berak ere gizarteratzeko joera proposatuz gizatasunaren ezaugarri unibertsal bezala, ukatuz honekin batera indarkeriarako edo nagusikeriarako joera berezkoa zaionik gizakiari.

Baina ez da nahikoa zehatza izango esatea gizakiaren berezko ezaugarria gizartekoitasuna dela, hain zuzen, hau onartuz gero argitu beharko genukeelako ea joera hori animalien ematen den taldean jarduteko joeraren berdina den edo, bestela, horrela ez bada, zer neurritan bereizten den ezaugarri horretatik. Uste dut puntu honetan argitasuna sartzeko lagungarria izango litzatekeela bi joera horien artean bereiztea gizartekoitasunaren eta taldekoitasunaren kontzeptuen bidez.

Bereizketa hau kontuan izanik jabetuko gara taldean bizi diren beste zenbait animaliarengan ere aurki litezkeela indarkeriarako eta nagusikeriarako joera horiek, baina honek ez ditu, horregatik, animalia horiek gizaki bihurtzen. Animaliek euren kideekin harreman sendoa izateko joera baldin badute, honen helburua eta zentzua biziraupena eta espeziaren ugalketan aurkitu behar da, baina gizakiarengan ez da hori nahikoa izango. Onartuta ere lehiarako, indarkeriarako edo nagusikeriarako joera horiek

gizakiarengan ematen direla, onartu beharko genuke ez direla joera gizartekoiaren ondorio zuzena izango, edo ez behintzat lehena eta definitzailea. Egia esan, naturak argi eta garbi utzi du ez dela indar fisikoa gizakiari eskaini dion dohain berezia bere biziraupena bermatuko duena, eta ez dela, ezta ere, hori bera definitzen duen hazpegia. Horretan zenbait animaliak gaingaitzen dute, eta askotik gaingaitu gainera.

*"Gazte direnean gizakiok baino ahaltsuago, zahartzaroan indartsuago, zentzuak arinago eta jatorrizko bizkortasuna handiagoa: horrela euren interesa, atsegina eta jolasa bilatzen dute eta merke eskuratzen dute janaria eta mantenua; naturak berak jantzi eta hornitzen ditu, etzauntza nahiz babeslekua ematen dizkielarik. Horrela erabaki du naturak beste sorkari guztiei dagokienez"*⁷⁶.

Gizakiak, beraz, beste ahalmen batzuk, beste sen bat, garatu beharko du balioko diona naturak berari izendatu dion helburua betetzeko. Eta honela Shaftesburyk gizakiaren gizartekoitasunetik zuzenkiago, ia tautologikoki, aterako duena gizakiaren ahalmen sinbolizatzailea esango genukeena izango da; bera eta ez indar fisikoa izango baita gizakia bereiziko duena beste bizidunetatik, bere nortasuna garatzea baimenduko diona; lehen aipatu dugun naturaren ahalmen sortzailea horrela ipiniko da agerian gizakiarengan eta horrela errotuko da gizakia naturan. Izan ere, gogoratu behar da Rousseauk geroago ukatu egingo duela gizakiak naturazko egoeran, bakardadean, hitz egiteko edo arte lanerako gaitasuna izango zuenik eta ezta bere burua garatzeko ere, hau

dena gehiago izango zelarik halabeharraren emaitza gizakiaren berezko nortasunaren ekoizpena baino⁷⁷.

*"Eta horrela izango zen derrigor -esan zuen Teoklese, bereziki jaun edadetuari zuzenduz-, nahiz eta suposatu noizbait eman dela gizakia maila edo egoera gizartegabetu eta ezjakinean, eta, beraz, hizkuntza eta arterik gabe; hala ere, ezingo da zentzuz onartu sekula bere naturazko egoera bakarka bizitzea izan zenik. Zeren lehenago utziko baituzu giza-sorkaria beste edozein sentipen edo eraspenik gabe, gizarteratzeko (eta horren antzeko) joerarik gabe baino"*⁷⁸.

Giza nortasuna definituko duena, beraz, hizkuntza eta artea, izango da, hau da, aipatu dugun gaitasun sinboliko hori, eta gaitasun hori ez litzateke garatuko bakardadean bizi den gizakian, hizkuntza eta arrazoimena -Rousseauk berak aitortuko duenaren arabera- gizartearekin eta besteak konbentzitzeko premiarekin sortzen delako⁷⁹, eta bestalde lehian eta nagusikerian oinarritutako gizarteak gaitasun sinbolikoaren deusestaketa ekarriko lukeelako.

Gizartekoitasuna berezkoa izango zaio, orduan, gizakiari. Animaliangen bitarteko dena -ugalketarako, elikaketa bermatzeko edo babeserako, eta zenbaitetan, gainera, bakarrik helburu horietarako balio duen artean irauten duena- helburu izango da gizakiarentzat, bera definituko duena sentimenduak, balio etikoak eta estetikoak dituen biziduna bezala:

*"Nola hautsiko du gizarte honekin behin hasi eta gero? Zeren garbi dago sortzapenarekin batera hasi zela, eta etxea eta ekonomia sortu arte garatu zela. Ez zen hortik laster tribua aterako? Eta tributik nazioa? Edota tribu iraun arren, ez al zen hau elkarren defentsarako eta denen onerako gizarte bat? Laburbilduz, sortzapena naturala bada, geurezko eraspena eta umeen zaintza eta elikatzea naturalak badira, gauzak horrela badaude ipinita gizakiarentzat, eta sorkariak orain duen itxura eta erakuntza bera badu, ondorioztatu behar da gizartea ere naturala zaiola, eta gizartetik eta erkidegotik kanpo ez dela inoiz bizi izan eta ezingo duela inoiz bizi"*⁸⁰.

Gizartea, hortara, ez da sortuko, Hobbesek defendatuko duen bezala, lehian edo besteak menperatzean oinarrituta, banako indartsuenen indarra nagusituz ahulenen gainean eta indartsuenaren legean oinarrituta, eta ezta Rousseauk defendatuko duen bezala ere; honentzat gizartea sortuko da hitzarmen batean oinarritua, eratorriko dena "naturalezako egoeran atxikitzeko dituzten eragozpenek sorrarazten duten nekeagatik"⁸¹. Ez da bakarrik, beraz, Rousseauarentzat naturazko egoera bat egongo dela gizarte egoeraren ezberdina izango dena, baizik eta, gizakia egoera horretan naturarekiko tentsio batean aurkituko da, egoera horri eutsi ezinik, eta horrek behartuko du "Elkartzeko era bat" aurkitzera, gizarte antolakuntza premia horretan funtsatuko delarik, non "kide bakoitzaren pertsona eta ondasunak, ororen indar osoaz, zainduak eta babestuak izanen baitira"⁸².

Alabaina, Hobbesen argudioari erantzunez Shaftesburyk

onartuko du haren arrazonaketaren koherentzia (baina hasiera batean bakarrik berehala ikusiko dugulako, argudio berari buelta emango diola) eta onartuko du, halaber, haren hastapenetatik abiatuz gero bere ondorioak onartu beharko liratekeela, baina berarentzat arazo nagusia hastapenean egongo da, hots, gizakia bakarreratu bururatzen ahalegintzean.

*"hauek izaera hori abstraktuki eta estatutik eta gizartetik bananduta kontsideratzen dute, eta birraurkezen dute Herensuge eta Leviatanen aurpegi izugarriekin edo ez dakit zein beste pizti irensleen bidez. Dena dela hobe zuten ikurritz nagusi egokiagoa aukeratu balute"*⁸³.

Anarkiaren beldurra, beraz, izan daiteke, bai, ordenaren hastapen, baina ezin da onartu hori jatorriz horrela denik, gehiago izango da Hobbesen asmazioa, egoera eznatural baten deskripzioa, eta honi errefusatzeko nahikoa izango da animalia erresumara jo eta Hobbesek berak eskaintzen duen adibideari buelta ematea. "Gizakia gizakiarentzat otso" da Hobbesen esaldi ospetsua, baina kontraesalea Shaftesburyrentzat otsoa otsoentzat maitakorra izango delako beti. Hobbesen baieztapenaren zentzua baldin bada gizakia dela gizakientzat otsoa otsoentzat dena, orduan onartu beharko da gizakia gizakientzat maitakorra dela.

Eta honela izango da, hain zuzen, Hobbesen aurrean eta geroago Rousseauk esango duenari kontrajarriz Shaftesburyk gizarte antolakuntza naturalizatu egingo du, "tribua" edo "nazioa"ren jatorria giza izaera naturalaren ezinbesteko ekoizpentzat joz eta ez inolako zapalketaren ondorio. Honela

Shaftesburyk bururatuko du unibertetsua sistema hierarkia bat bailitzan, hedatzen dena gizabankoaren sistematik, herriko sistemara, nazio sistemara, eta unibertetsura. Gizakiaren berezko ezaugarri den gaitasun sinbolizatzailea, orduan, berez eta ezinbestez komunitarioa dena, gizakiak aurrera egin ahala osatzen dituen gizarte forma ezberdinetan garatuko da, eta aurreratze honek derrigorrean gizarte forma konplexuagoak ekarriko ditu naturalak eta lejitimoak izango direnak euren forma ezberdinetan.

Gauzak horrela planteaturik, gizartea naturaren gauzaketa izango litzatekeenez, eman dezake gizakia determinismo naturalista baten menpe gera daitekeela, baina ez da hori horrela izango. Shaftesburyrentzat unibertetsua bere osotasunean harturik errealitate betegin bat izango da, baina honek ez du esan nahi, badagoela naturazgaindiko jainkozko borondate bat natura horren gertaera guztiak mugatzen dituen, eta ezta ere arau mugatu unibertetsal batzuk badaudela ezarri behar direnak giza izaeran bere portaera mugatzeko bera menpeko eginaz. Naturan ordena egongo da, baina orden horren baitan, Moralistak-en hasieran dioskun bezala, elkarren kontra ekiten duten indarrek jokatuco dute:

"Izan ere, gizakiak ez dira kexatzen munduaren ordenaz, eta ez dute gaitzesten gauzen itxura ikusten dutenean interes desberdinak nahasten direla eta elkar oztopatzen dutela, edo elkarren menpeko izaerak (mota desberdinekoak) kontrajartzen direla, edo euren eginkizun desberdinetan nagusienak apalena menperatzen duela. Haatik, munduaren edertasuna miresten badugu gauza nagusi eta menpekoen

arteko ordenagatik izango da, mundua aurkakotasunean funtsatzen delarik eta oposatuetatik harmonia unibertsala ezarriko delarik"⁸⁴.

Natura, beraz, osotasun harmoniko batek osatuko du, eta bertan jokatuiko dute elkarrekin harremanean eta elkarrekiko menpekotasunean dauden izaki ezberdinek, bai natura eta baita natura horretan jokatzen duten izaki bakoitza era dinamikoan ulertuko direlarik eta ez zerbait estatiko bezala. Gauza guztien arteko elkarrekiko harreman horretatik sortuko da naturaren batasun harmoniko hori. Honek errealitatea modu anitzean eta malguan bururatzera darama Shaftesbury, natura -Cassireren hitzak hartuz⁸⁵- indar plastiko bat bezala ulertuko duelarik.

Osotaun harmoniko horretan ez da ezer soberan egongo, natura ez baita betea izango piezaren baten faltan badago. Hontara, naturan dagoen guztia osotasun horren zati da eta ez da inoiz txarra izango, osotasuna ona delako eta izaki horrek osotasunaren ontasunaren helburu hori betetzen laguntzen duelako. Hemen Shaftesburyren pentsamendua ezaugaritzen duen baikortasun unibertsalaren adierazpen garbi baten aurrean gaude, gaitza naturatik baztertzeraz eramango duena; dena da ona, bai berez, bai ona ekoizten laguntzen duelako, eta honegatik naturak ez du errurik egingo.

*"Baina nik ukatzen dut erratzen duenik, eta, nire iritziz, zenbat eta ezjakinago eta maltzurrago ematen duen bere egintzetan orduan eta jakintsuago eta begiratuago da"*⁸⁶.

Natura, beraz, ordura arte izan bada bekatuaren eta gaitzaren seaska, gaitzik gabeko izaki traszendental batek sortua, eta gero berarengandik urrundua, orain zama horretatik askatu beharko da arrazoi filosofikoaren bidez. Izan ere, ez litzateke benetako askatasunik egongo naturan, egongo balitz berarengandik kanpoko zergati bat bera sortu duena eta, azkenean, bertan dauden izaki razionalen ekintzak epaituko dituen, euren jokaera zuzena edo okerra izan den baloratuz. Puntu honetan Shaftesburyren erantzuna garbia izango da: ez da errurik egongo naturan ez delako egongo berarengandik kanpoko izaki bat, bera sortuko duena. Azken batean, bere helburua izango da naturara murriztea dena, baita gizakiaren edozein ekintza ere, eta horretarako arrazoimena, adimena, ezinbestez, naturara murriztu beharko da, naturazgaindiko edozein izakiren existentziaren ahalbidea ukatuz eta natura bekatariaren eta Jainko razionalaren arteko etena hautsiz. Natura izango da errealitatearen egitura razionala eta ez Jainkoa.

Gizakia horrela naturazgaindiko jainko baten borondatearen menpekotasunetik eta morroitzatik askatu ahal izango da eta naturaren parte izango den izakia bihurtuko da. Gizabanakoa naturan eragiten duen izaki horietako bat izango da eta bere ekintza naturaren osotasunarekin eta aniztasunarekin elkarreraginean garatu beharko da. Horrela batasun eta aniztasun horren barruan jokatzeko aukera izango du eta moldatu ahal izango du natura nola naturak moldatuko duen bera.

Eginkizun honetan naturak eredu ideial baten forma hartuko du, gizabanakoak begiratu beharko diona bere zereginean, baina honek ez du esan nahi berari makurtu beharko zaionik. Ingurune

natural hori anitza izango denez gizakiaren zereginak bere bideak hartuko ditu. Naturak ez du, beraz, gizakia morroitzen, ez zaio agertuko zama bat bezala bere eginkizunari gaindiezineko mugak ezarriko dizkiona, haatik onartuko du orden natural hori, azken batean bera izango zaiolako bere askatasunaren bermea, natura hori izango baita aniztasunaren bermatzaile bezala berari askatasunez hautatzeko aukera eskainiko diona, naturazgaindiko Jainkoaz askatuz eta ezarri gabe izaera jakin eta burutu bat bere zereginean mugatuko duena. Honela natura razionala, izpiritualdua, izango da askatasunaren bermea, determinismo oro saihesten lagunduko duena.

Orain esandako hau kontuan izanik baieztatu daiteke S. Greanek asmatzen duela esatean Shaftesbury indeterminista dela⁸⁷, baina huts egiten duela, ordea, handik piska batera gizakiaren papera bizitzan jainkoak mugatzen duela adieraztean⁸⁸. Jainkoaren mugapen baino gizabanakoaren aukera librea izango da zer egin erabakitzea une bakoitzean. Xede bat egongo da, unibertsuaren harmonia, naturan ezinbestez emango dena, eta naturaren osotasun horretan egongo da perfekzioa, baina naturan jokatzen duten izaki banakoak ezingo dira inoiz perfektuak, bukatuak, izan; xede horri begira jokatuko dute eta, zer esanik ez, berak mugatuko du euren jokaera, baina ez ditu bide mugatuak eskainiko eta xede hori gehiago agertuko da eurengan entelekia bat bezala, inoiz beteko ez duena izaki horrek banako bezala. Horrela diosku gizabanako berari dagokionean:

"Eta hemen giza izaera den bezalaxe agertzen da, ez perfektua, eta inola ere ez erabat arrakastatsua, joera

zuzenekin eta hastapen berezi eta zuzenek eraginda baino"⁸⁹.

Giza jokaeraren helburua, beraz, ez da izango azken egoera estatiko ideal bat lortzea, egoera oro izango delako ideala -naturaren osotasunaren gauzaketa den neurrian- edo ideal hori betetzen lagunduko duelako. Horregatik pentsatuko du garai eta leku ezberdinetan aurkitu ahal izango direla gizakiaren jardunerako ereduak, eta bere naturazko egoera ez dela lehena edo garai jakin batean emango dena, izan ere, amaigaberako bide horretan ezberdintasun guztiak izango dira naturalak eta guztiek lagunduko dute xedea betetzen. Horrela gizabanakoa naturarekin bateginik bururatuko du Shaftesburyk, non ez den egongo gizakiaren izaera bakar unibertsala, eta natura eta banakoa era dinamikoan ulertzen dituen ez gizabanakoaren berezko egoera bere xedea ondoen betetzen duena izango da, hau da, naturaren harmoniari ondoen laguntzen dion egoera eta bera ondoen islatzen duena.

KOKAPENAREN ETA LEHEN ATALAREN OHARRAK

1. "The propagandists of the enlightenment were French, but its patrons saints and pioneers were British: Bacon, Newton and Locke had such splendid reputations on the continent that they quite overshadowed the revolutionary ideas of a Descartes...". Gay, P., *The Rise of Modern Paganism*, New York, 1977, 11. or.a.
2. "As early as 1706, lord Shaftesbury wrote to Jean Le Clerc: "There is a Mighty light which spreads itself over the world, especially in those two free nations of England and Holland, on whom the affairs of all Europe now turn". Gay, P., loc. cit.
3. T. Todorovék zibilizazioen kontra jotze horretan bi jarrerak jartzen ditu aurrez aurre erlijioaren berezitasunaren aldetik. Colonenak unibertsalismo totalitarioa ordezkatzeko du eta honek esan nahi du ez duela onartuko erlijiotasunaren berea ez beste agerpenik. "Esta religión quiere ser universal, y por eso mismo es intolerante" dio Todorovék (op. cit. 114. or.a). Ez da hori izango ordeza Moctezumaren jarrera, Andres de Tapiaren hitzak aipatuz jarraian Todorovék gogorarazten digun moduan: "[Moctezuma] le dicie que pusiésemos a nuestras imágenes a una parte e dejásemos sus dioses a otra. El marqués [Cortés] no quiso". Todorov. T., *La conquista de America, la cuestión del otro*, Mexiko, 1991, 114. or.a (Espainierarako itzulpena aipatzeko da beti).
4. "Para Cortés se trata de un fenómeno natural singular, de una maravilla de la naturaleza; su curiosidad es intransitiva". Todorov, T., loc. cit.
5. "Sus menciones de los habitantes de las islas siempre aparecen entre anotaciones sobre la naturaleza, en algún lugar entre los pájaros y los árboles". Todorov, T., op. cit., 41. or.a.
6. Todorov, T., op. cit., 38. or.a.
7. Izan ere, espainiarrentzat euren konkistaren bidez kotasuna Aita Santuak eta eleiza katolikoak emandako onespenean zetzan. Honela esango du A. Pagdenek: "El compromiso en torno a un programa de evangelización adquirido por los españoles, (...), era, en cierta medida ineludible. Éste quedó, además, reforzado por el hecho de que las reivindicaciones de la corona castellana sobre las posesiones americanas se apoyaran desde un principio en la concesión papal". Pagden, A., *Señores de todo el mundo: ideologías del imperio en España, Inglaterra y Francia*, Barcelona, 1997, 48. or.a. (Espainierarako itzulpena aipatzeko da).
8. "Todas estas universas e infinitas gentes a toto genere crió Dios las más simples, sin maldades ni dobleces, obedientísimas y fidelísimas a sus señores naturales e a los cristianos a quien sirven". Bartolomé de las Casas, *Brevísima relación de la destrucción de las Indias*, Madrid, 1992, 14. or.a.

9."Lehena nire herriko legeak eta ohiturak betetzea zen, Jainkoari esker haurtzarotik irakatsi didaten erlijioa gordez beti, eta, gainerako gauza guztietan, nire burua gidatuz aburu neurtuenei eta gehiegikeriatik urrunduenegi begira (hau da, nirekin bizi zirenen artetik zentzudunenek euren eginkizunetarako onartuko zituzten iritziei begira)". Descartes, R., *Metodoari buruzko diskurtsoa*, Bilbo, 1997, 55. or.a. (Euskararako itzulpena aipatuko da beti).

10.Eta hauek ez ziren nolanahikoak izan P. gayk gogorarazten digun bezala: "Shaftesbury himself, with his optimistic, worldly, aesthetic, almost feminine Platonisme, exercised immense power over his readers: over the young Diderot; over Moses Mendelssohn, Wieland, and Kant; over Thomas Jefferson; all in search of a philosophy of nature less hostile to the things of this world than traditional christian doctrine". P. Gay, op. cit., 11. or.a.

11.Shaftesbury, A., *Moralistak*, Bilbo, 1994, 82. or.a. Beti euskarazko itzulpena aipatuko da eta *Mor.* laburdura erabiliko da hemendik aurrera bera izendatzeko.

12."Baina ez zitekeen gauza bera gerta nirea baino izate perfektuago baten ideiaz, nabarmenki ezinezkoa zelako bera ezerezetik etortzea. Eta ezin zen, ezta ere, ideia hau niregandik sortua izan, perfektuagoa perfekzio txikiagokoaren ondorio eta menpekoa izatea onartezina delako, zerbait ezerezetik etor dadila onartezina den hainbat". Descartes, R., op. cit., 65. Or.a.

13.*Mor.*, 84. or.a.

14.Horrela gogoratzen digu J. P. Larthomasek. Herder Shaftesburyren testua poema bihurtzen saiatu zen Naturhymnus von Shaftesbury izenarekin, Goethek ere jaso zuen testu honen eragin zuzena Tierfurter Journalen 1783an agertu zen Naturaren erregutzean adierazten zen bezala eta kante berak ere irakurrita izango zuen Spaldingen alemanierarako itzulpenean eta hainbat tokitan aipatuko zuen bera kritikatzeko. Larthomas, J. P., *De Shaftesbury á Kant*, Lille, 1985, 120. or.a.

15.*Mor.*, 171. or.a.

16.*Mor.*, 185. or.a.

17.*Mor.*, 120. or.a.

18.*Mor.*, 133. or.a.

19."...se gli uomini hanno ragione, non vi è motivo per cui la Nature debba esserne priva". Piselli, F., "Shaftesbury: estetica e cosmologia". *Rivista filosofia neo-scolastica*, 61, (1969), 425-460. or.ak, 432. or.a.

20."Todos colaboramos en el cumplimiento de un solo fin, unos consciente y conscientemente, otros sin saberlo; como Heráclito, creo, dice, que, incluso los que duermen, son operarios y colaboradores de lo que acontece en el mundo". Marco Aurelio,

Meditaciones, Madril, 1990, 123. or.a.

21.*Mor.*, 133. or.a.

22.S. Grean, *Shaftesbury's Philosophy of Religion and Morals: a Study in Enthusiasm*, Columbia University Press, 1961, 51. or.a.

23.*Mor.*, 156. or.a.

24.*Mor.*, 171. or.a.

25.Newton, I., *Philosophiae Naturalis Principia Mathematica*, Madrid, 1982, 658. or.a. Honela dió: "Sólo conocemos la extensión de los cuerpos por nuestros sentido, y no todos ellos. Pero como percibimos extensión en todos los captados por los sentidos atribuimos esa cualidad universalmente a todos los otros también. Por experiencia sabemos que muchos cuerpos son duros; y como la dureza del todo surge de la dureza de las partes, con justicia inferimos la dureza de las partículas indivisas no sólo de los cuerpos que palpamos, sino de todos los otros".

26.Newton, I., op. cit. 659. or.a. "debemos como consecuencia de esta regla admitir universalmente que todos los cuerpos sin excepción están dotados de un principio de gravitación mutua".

27.*Mor.*, 133. or.a.

28.*Mor.*, 131. or.a.

29.*Mor.*, 181. or.a.

30.*Mor.*, 131. or.a.

31."Noi abbiamo quest'idea, ma poiché siamo implicati nella natura -...- l'idea si trova anch'essa in Natura". Piselli, F., op. cit., 430. or.a.

32.*Mor.*, 130. or.a.

33.*Mor.*, 131. or.a.

34. "se cioè si offre fra mondo esterno e interno un felice accordo fondato sull'intera razionalità dell'essere. A tale razionalità vien dato, nel versante cosmologico il nome di nature". Piselli, F., op. cit., 430. or.a.

35.*Mor.*, 135. or.a.

36.Grean, S., op. cit., 91. or.a. "The Stoic conception of nature, or phusis, implies a soul or life-force pervading matter as well as living things. It is the law governing natural causation, not an arbitrary or personal principle ... Phusis is 'like' a god. ... Shaftesbury developed his own philosophy on the basis of these ideas".

37.Voitle, R., *The Third Earl of Shaftesbury, 1671-1713*, London, 1984, 140. or.a. "The stoic cosmology was chiefly distinguished by its materialism ... As is the case with many stoics, it is impossible to understand Shaftesbury's concept of deity without positing some sort of materialism".

38.Mor., 180. or.a.

39.Mor., 180. or.a.

40.Mor., 99. or.a.

41."Zentzuaren kausa, kanpoko gorputza edo objektua da, zeinak zentzu bakoitzari dagokion organoa kilikatzen duen ...". Hobbes, T., *Leviathan*, Bilbo 1994, 37. or.a (euskarako itzulpenetik aipatzen da beti).

42.Mor., 152. or.a.

43.Mor., 186. or.a.

44.Mor., 174. or.a.

45.Mor., 132. or.a.

46.Seneka, *Quaestiones Naturales*, III, *Les Stoïciens, Textes Choisis*, Paris, 1990, 48. or.a.

47.Marco Aurelio, op. cit., 122. or.a.

48.Mor., 139. or.a.

49.Mor., 170. or.a.

50.Mor., 139. or.a.

51.Mor., 176. or.a.

52.Loc. cit.

53. Horrela gogoratuko digu E. Cassirerek: "For nature itself in its deeper sense is not the sum of total created things... ". Cassirer, E., *The Philosophy of Enlightenment*, Princeton, 1979, 326. or.a.

54.Mor., 177. or.a.

55.Hobbes, T., op. cit., 117. or.a.

56.Op. cit., 115. or.

57.Op. cit., 116. or.a.

58.Op. cit., 116. or.a.

59."Je demande si jamais on a ouï dire qu'un sauvage en liberté ait seulement songé à se plaindre de la vie et à se donner la mort". Rousseau, J. J., *Discours sur l'origine et les fondements de l'inégalité parmi les hommes*, Paris 1992, 209. or.a.

60.Op. cit., 99. or.a.

61.Op. cit., 100. or.a.

62. Stolnitzek horrela gogorarazten digu: "Much of Shaftesbury's writings is a polemic against hobbesian ethics. He wishes to show that men can and do perform unselfish actions and that it is, indeed, "natural" for them to do so". Stolnitz, J., "Lord Shaftesbury and modern aesthetic theory", *The Philosophical Quarterly*, april 1961, 97-113 or.ak.

63.Mor., 151. or.a.

64.Mor., 154. or.a.

65.Mor., 155. or.a.

66.Mor., 155. or.a.

67.Mor., 149. or.a

68.Mor., 152. or.a.

69.Greanek gogorarazten digu ez dela egoera primitiboa izango gizakiaren berezko egoera, egoera ezberdinak egongo dira gizakiarengan bere xedea modu ezberdinean betetzea utziko diotenak. "He writes, for example, that in the "natural state" man is "unprejudiced by vicious education", or by the taint of evil modes and manners. But as basil Willy notes, Shaftesbury is no primitivist. The natural state of a thing is not necesarilly its original state but rather the state in which it best realizes its essential pupose, or expresses the inner ideal pattern of reality". Grean, S., Op. cit., 55. or.a.

70.Mor., 150. or.a.

71.Mor., 148. or.a.

72.Gizartekoitasuna giza izaeraren azken mamia izango da, gizakia berez definitzen duena eta murriztu ezingo dena beste ezertara. "Everything in his writings favors the view, never stated in so many words, that sociality is an irreducible datum of man's essential nature. It is not a contingent trait based upon man's weakness so much as a positive force". Bernstein, J. A. *Shaftesbury, Rousseau and Kant*, Toronto, 1980, 34. or.a.

73."¿Por qué haber reemplazado el relato del origen del individuo, que puede ser observado por cualquiera de nosotros (el desarrollo del niño), por el relato del origen de la especie, necesariamente mítico, producto de la ideología?. ¿Por qué imaginar un ser solitario al cual nunca se tuvo y nunca se

tendrá acceso?" Todorov, T., *La vida en comun*, Madril, 1995, 71. or.a. (Hemen espainierako edizioa hartu dut oinarri.)

74. "El relato relacionado con la especie -jarraitzen du aurreraxeago Todorovek- es una pura especulación, aquel sobre el individuo depende de la observación". Todorov, T., Op. cit., 71. or.a.

75. Mor., 150. or.a

76. Mor., 142. or.a.

77. "Si par hasard il faisait quelque découverte, il pouvait d'autant moins la communiquer qu'il ne reconnaissait pas même ses enfants. L'art périssait avec l'inventeur; il n'y avait ni éducation ni progrès ...", Rousseau, J. J., *Discours sur l'origine et les fondements de l'inégalité parmi les hommes*, op. cit., 218 or.a.

78. Mor., 150. or.a.

79. Rousseauentzat premia, eta bereziki besteak konbentzitzeko premia izango da hizkuntzaren jatorria. Badirudi honetan bere argudioa zirkularra dela; izan ere, lehenxeago aurre egin dio Condillacen ikuspegiari, zeinak defendatzen duen gizartea hizkuntzaren aurreko dela eta gizartearen ekoizpen beraz. "Mais la manière dont ce philosophe résout les difficultés qu'il se fait à lui-même sur l'origine des signes institués, montrant qu'il a suppose ce que je mets en question, savoir une sorte de société déjà établie entre les inventeurs du langage... ". Ez du ematen erraza onartzea besteak konbentzitzeko premia gizarterik ez dagoenean sor daitekeenik. Rousseau, J. J., *Discours sur l'origine et les fondements de l'inégalité parmi les hommes*, op. cit., 205. or.a.

80. Mor., 153. or.a.

81. "Demadan gizonak halako pundura helduak izan direla, non, beren buruen naturalezako egoeran atxikitzeiko dituzten eragozpenek sorrarazten duten nekeagatik, gaina hartzen baitiete bat-bederak egoera horretan egoteko enplega ditzakeen indarrei. Orduan hatsarreko egoera horrek ezin dirauke, eta bere bizitzeko moldeak alda ez baleza, hil liteke giza generoa". Rousseau, J. J., *Gizarte Hitzarmena*, Bilbo, 1993, 43. or.a (euskarazko itzulpena aipatuko da beti).

82. Rousseau, J. J., op. cit., *Gizarte Hitzarmena*, 44. or.a.

83. Mor., 154. or.a.

84. Mor., 82. or.a.

85. "Shaftesbury, like the Cambridge thinkers, looks upon nature as essentially a plastic unity and a plastic power". E. Cassirer, *The Platonic Renaissance in England*, New York, 1970, 193. or.a.

86.*Mor.*, 82. or.a

87.Grean, S., op. cit., 130. or.a., "Though Shaftesbury must be classified as an indeterminist, he gives few arguments to support his position, ...".

88.Grean, S. op. cit., 131 or.a. "The proper role that man is to play in this world is determined by god, ...".

89.*Mor.*, 154. or.a.

II ATALA

ESTETIKA EGIAREN OINARRI

Natura artegai bezala begiratzeko moduz

Cassireren aburuz shaftesbury Ingalaterrako lehen esteta izango da¹, baina bere pentsamenduaren garrantzia ez da mugatuko lehen esteta ingelesa izatera, haatik, bere emariak baliotsuak izango dira, halaber, bere garaian oraindik gorpuztu gabe dagoen estetikaz arduratuko den diziplinarako. Ezin da pentsatu, jakina, bere lana garaiko gorabeheretatik bananduta dagoenik, baina sentsibilitate berria, artearen gaiaren eta lanaren tratamendu berria, sortzen doan garai batean, berak, bai naturaren, bai giza sormenaren ikusmolde bat eskainiko du jaiotzen ari den sentsibilitate berri horri sendotasuna emango diona.

Alde batera utzita arteak mendeetan zehar erlijioarekiko erakutsi duen morroitzia, eta zientziaren eraginez naturari buruzko ikuspegi berria, unibertsu berria, sortzen doalarik, edergintza ere, poliki poliki, bere askatasun bidea hartzera behartua izango da, eta helburu hori betetzeko naturarekiko harremana era berri batean zehazteari ekin beharko zaio. Izan ere, aurreko garaietan ederra, nola egia, errebelazioaren menpeko eta tresna erara erabiliak izan dira hitz sakratua bere bidez azal zedin eta ez berezko xede bezala. Natura bekatuaren indarren antzezleku bezala ulertzen zenez, bertatik ezin zen atera inolaz ere edertasunaren eredurako baliagarria izango zen ezer, onenera jota natura -giza bizitza mundutarra gara zedin jainkoak sorturiko mundua izanik- jainkotasun horretara heltzeko sinbolo

edo bide alegorikoa bihur zitekeen, liburu sakratuekin gerta zitekeen gisara. Natura ere irakurri eta interpretatu beharreko liburu sakratua izango zen, jainkotasunerako bide, baina ez berezko ezer, ez egiaren adierazpen.

Perfekzioa -eredu finkoa (eta ideiala) errepikatzen duten formak alegia- argitasuna eta distira izango dira erdi aroak, edertasunari eskatzen dizkion balioak, beti ere naturak bere bapatekotasunean behintzat eskaini ezingo dituenak eta munduaren ikuskera berriarekin baliagabetzen joango direnak.

Badirudi arteak zientziak berak baino bilakaera geldoagoa izan dezakeela, indar atzerakoiek euren gotorlekua defendatzeko aukera hobeagoa dutela edertasunari dagokion esparruetan egiari dagozkionetan baino, eta autoritatearen indarra zailagoa dela hausteko subjektibotasunari irekiagoa den arlo honetan. Horrela oraindik XVI. mendean autoritatea izango da artelana sortzeko irizpidearen iturri, eta baita, azken finean, bere balioaz irizteko ere, eta horretarako hor egongo dira Aristotelesen agindua, nahiz beste idazle klasikoren batek eskainitako beste eredu bat (edo Greziako kanonak). Baina hona ere helduko da mugimendua eta aro berriekin naturarekiko harremana, eta horrekin batera edertasunaren ikuspegia oro har, birplanteatu beharra etorriko da.

Razionalismo cartesiarraren eragina nabarmenduko da arlo honetan ere eta arau berriak finkatu ahal izateko eta naturaren eta arrazoiaren artean hurbilketa estetiko berrirako bere eredua eskainiko du; artea, eredu horren arabera, berez-nabarmena izan beharko den axioma batean finkatuko da, zeinak definituko duen artea naturaren antzeraketa bezala. Honela naturaren kontzeptu

unibertsalista finkatuko da eta honek esan nahiko du naturak lehenago autoritateak jasotzen zuen zantzu totalitario hura bereganatuko duela eta natura ideial bat izango dela artetileak antzeratu beharko duena. Planteamendu hauen ondorioz arteak natura abstraktua ordezkatu beharko du (ez izaki naturala bere banakotasunean) eta eredu matematikoari jarraiki forma erregularrak izango ditu kontuan, artetilearen helburua natura orokor hori adieraztea izango delarik.

Ikuspegi totalitario honi erantzunez Shaftesburyk artearen esparrua zabaldu eta natura bere osotasunean edergai bihurtuko du, baina planteamendu abstraktuetatik urrunduz eta natura bere konkretzioan erreibindikatuz. Izan ere, natura bera izango baita artetile gorenena, musika, arkitektura edo poesia baino areago, eta edergai bihurtuko da, gainera, natura bere partikularitasunean ere. Honela, izaki partikularren baitan, existitzen den izakian, aurkitu ahal izango da lehenago izaki abstraktu eta perfektuari -Jankuari nahiz naturari- atxikita zegoen edertasuna. Hau da beraren ereserkian garbiro azaleratzen den ideia, ondo nabarmentzea merezi duena, zenbait pasartetan gauza bakunen eta xeheen duintasuna erreibindikatzen duelarik, handinahikeriari iseka eginaz bide batez:

"Has gaitezen beraz -esan zuen berak- lurrarekin, handakusagu bera beheko lautadan dauden laborari goiztiarrek landuta kontu handiarekin. Zorigabeko eta egonezineko gizakiok, lan baketsuok lehenik erdeinatu zenituztenok; halako atseginarekin burutzen ziren eginkizun eztiak! Zer handinahi edo harrokeriak elikatu zuen mesprezu hau? Hortik

*datoz zure arrazaren zoritxarreko gaitz guztiak. ...
Lurraren azalera ongarria osorik goldatzen eta simaurtzen
duten arren, ez dira asetzen eta industen dute ustezko
aberastasunak bilatuz bere errailetan.*

*"Hemen, jakinminak eramanda, mota desberdinetako
mineralak aurkitzen ditugu, eta bakunak diren arren,
naturaren lanik konposatuena adina erakusten dute
jainkoen antzez"².*

Hemen eskulana, nekazarien lana, ikuspegi erromantiko batetik berrerrosten da eta horrekin batera ordura arte lan horrek jasan duen erdeinua gutxiesten du Shaftesburyk. Lurra landuz atera daitezkeen ondasunak nabarmentzen ditu, giza bizitzaren eta lanaren alderdi horiek erreibindikatu. Nekazal lana handikien harrokeriaren eta egonezinaren gainetik jartzen da horrela, besteak beste lan hori naturarekiko harremanaren eredu baketsu bihurtu nahi duelako. Harreman honetan harrokeriaren eredua erasoarena izango litzatekeen artean nekazariarena zainketa eta maitasunarena izango litzatekeelarik, azken hau naturaren osotasunarekin lotzen baita eta bere elementu xumeenei ere garrantzia ematen baitie.

Era honetara harri edo mineral puska ximple batek beste edozein izaki konplexu edo bizidun batek adinako edertasun ahalmena gorde ahal izango du bere baitan. Honela, ba, existentziaren esparruan bertan sartuko du naturaren ikuspegi antropozentristari jaurtiki nahi dion eraso, organismo biziari atxikitzen zitzaion nagusitasun bera ere deskalifikatuko duelarik. Bizitzaren garrantziari uko egiten ez bazaio ere

existentizaren osotasuna prozesu bakar bat egingo da, ez-biziduntzat jo zitezkeen izaki eurak naturaren bilakaeraren prozesu horretan daude eta murgildurik. Honegatik, bizitzaren lehentasunaren ukazioa baino bizidunen eta ez-bizidunen arteko bereizketaren gaingiditze proposapen bat daukagu, errealitatearen osotasuna prozesu dinamiko eta bakar baten partaide bihurtzen delarik.

Horrela eredu cartesiarren arabera era matematikoetara edo eredu finkoetara murriztu behar zen edertasunak bere espazioa zabalduko du eta askatasunaren eremua asaltatuko du arrakastaz. Mugagabearen esperientzia, bere perfekzioa, materialtasunarekin bateginik garatzen duen formarena (ez forma mugatuarena) izango da edergileari behar duen askatasuna ekarriko diona. Eta hau gertatuko da ez bakarrik naturaren fenomeno handioso batzuen atzemaketarekin, J. P. Larthomasek dioen eran³, baizik eta baita txikitasunean, era ximpleetan, datzan edertasunaren jabetketarekin ere.

*"Ez dago galtzen den denborarik edo perfekzionatzen ez den substantziarik. Era berriak sortzen dira, eta zaharra deusezten denean bera osatzen zuen ekaia ez da baztertzen, baizik eta kontu eta trebetasun berdinarekin lantzen da, are ustelketan ere, naturak higuingarria eta xahutzailea dirudien arren"*⁴.

Artistak, ba, naturari era berri batean so egin beharko dio, harmonia berri bat bilatuz, aurkituko ez dena eredu matematiko huts batean, baizik eta naturaren araugabetasunean nabarmendu

dena. Natura izango da emana, natura izango da hastapena, naturak bere materialtasunean jasoko du iraupenaren atxikipena, eta baita errozko mugagabetasunarena ere, errealitate traszendentalaren ezaugarriak zirenak orain naturarenak bihurtuz. Horregatik Shaftesburyk orden matematikoaren lekuan harmonia estetikoa erreibindikatu du. Urruntzen da Shaftesbury, beraz, ikuspegi platonikotik, iraupena errealitate traszendental batera baztertzen zuena eta natura bertan kokatuko ditu bai aldaketaren, bai iraupenaren indarrak.

Baina begirada artistiko berri hori ez da bakarrik gauzatuko objektuaren hedapen berri horretan, naturak berak, aitzitik, bere osotasunean, beste tratamendu bat jasoko du eta ez da jadanik zerbait emana edo pairakorra izango:

"... arteak inoiz erakutsi duen guztia baino ikuskizun nobleagoa da. Oi natura ahaltsua! probidentziaren ordezkotza jakintsua! indarrez beteriko eme emankorra! edo zu Jainko indarremailea, kreatzaile gorena!"⁵

Natura, hontara, zerbait dinamiko bezala ulertuko da, bere dimentsio txikienean sortzailea edo sortzeko gaitasunaz hornitua; bera izango da artelan nagusia eta artistaren lana bera antzeratzea izango da, baina antzeratu beharko duena ez da izango natura era egonkor batean, edo autoritate batek definitutako natura, natura bera artelan baten gisa ulerturik⁶ baino; beraren izpiritu askatzaileaz jabetuko da, duen sortzeko ahalmen hori bereganatu eta antzeratu beharko duelarik, horrela naturan nagusi den arrazoiarekin, lege unibertsalarekin, bat eginaz.

Honekin guztiarekin natura osotasun bat bezala ulertuko da eta osotasun horretan biltzen den guztiak, zatirik xumeenak ere, bere duintasun osoa jasoko du. Lege bat badago naturan lege hori aurkituko dugu bere elementu guztietan, ederra bada natura, ederrak izango dira bere baitan gertatzen diren prozesu guztiak, are gehiago kontuan hartzen badugu izadiaren edertasunera heltzeko bide bakarra txikitasunaren hautemaketatik abiatu behar dela ezinbestez.

Hemen, ba, banakoa, bere txikitasunaren baitan naturaren amaigabea aurkitzen duelarik, jarrera paradoxiko batean aurkituko da: alde batetik amaiezin horren jabe egin da, eta bestetik amaigabe hori, natura, atzemateko dituen tresnen mugaketaz jabetu da. Honen ondorioz sentsibilitatearen ikuspegi berri bat eskaini beharko du, sublimetasunaren estetika baten bidean jarriko gaituelarik. Sublimearen estetika honetan naturazko gauza guztiak artagaiak bihurtuko dira euren eragabetasunean eta mugaezintasunean eta sentigarritasunaren mugak gainditu beharko dira mugagabetasun hori atzemateko.

Honegatik, naturaren eta partikulartasunaren erreibindikapen honek ez du ekarriko ezagupena edo esperientzia estetikoa sentigarritasunari makurtu eta murriztu beharko zaionik, haatik sentigarritasunaren kritikatik abiatu berari buruzko ikuspegi berria sortuko da, arrazoimena bere hustasun behartsutik atera eta edukiz betetzeko.

Sentigarritasunaren kritika

Estetika, edertasunaz arduratzen den diziplina izendatzeko darabilgun hitza etimologikoki grekerako *áisthêsis*-etik dator eta sentimemenen bidez hautemateko ahalmenaren adiera zabala du jatorriz. Alabaina estetikaren gaurko gure ulerkuntza ezin da zentzu etimologiko horretara murriztu, edo, bestela esanda, estetikatik sentsibilitatea modu berri batean definitu beharra dugu, edertasunaren esperientzia sentimenen morroitzatik askatzea zilegiko diguna hain zuzen. Estetikaren helburua ez da, ba, izango esperientzia bere osotasunean erdeinatzea, baizik eta edertasunaren gaia erdiestea baimenduko dion esperientzia bereiztea eta era berri batean definitzea, horrekin razionaltasunaren esparru bera ere mugatuz.

Pentsamendu eskolastikoan bazegoen ikurritz nagusi bat baieztatzen zuena ez dagoela ezer giza ezagupenean aurretik sentimenean egon ez dena. Ikuspegi honen funtsean bai Aristotelesen, bai Platonen, bai iturri biblikoen eraginak aurki ditzakegu nahastuta, eta azken batean nahasketa horren fruitu ustela besterik ez da kausituko: Aristotelesen enpirismoa, Platonen sentigarritasunaren erdeinua eta, azkenean, salbatzaile, liburu saildua, izango dira planteamendu horren osagarriak.

Oinarri aristotelikodun hastapen hau Descartesek hankaz gora jarriko zuen bere proposapen razionalistaz, izan ere, funtsapen egokia baitzen ikurritz hura giza ezaguera gaitzetsi eta benetako ezagupena fedezko egian kokatu nahi bazen. Shaftesburyk sentigarritasunaren kritikari ekiten dionean, bera edertasunaren somaketan funtsatzeko asmotan, ez da geratuko hastapen

eskolastiko horren deusestaketa hutsean, eta gehiago begiratuko dio ondo ezagutzen duen beraren garaiko enpirismoari, beraren irakaslea izan zen Lockerengan izango zuena ordezkari nagusienetakoa, baina, halaber, sentigarritasunaren kritika burutu ez ezik sentsibilitate era berri hori zain razionaletan errotu nahi duen arren, razionalismo kartesiarraren kritikari ere ekin beharko dio. Izan ere, arrazoiaren nagusitasuna nabarmendu nahi badu ere, bide kartesiarra ez zaio inondik ere bide egokia irudituko bere egitasmoa betetzeko. Horrela, ba, giza sentigarritasunaren eta arrazoimenaren artean zubia altxatu beharko du bere pentsamendua beste horien ondoan hirugarren indar bat bailitzan agerraraziz. Zubi hori altxatzeko, orduan, Shaftesburyk sentigarritasunaren kritikari ekingo dio bere naturari buruzko ereserkian, bi unetan zertuko duena. Hasteko enpirismotik eskainiko litzatekeen ezagupenaren kritika bati ekinaz, horretarako kontuan izango dituelarik ikuspegi horrek aurki ditzakeen oztopoak naturaren amaigabearen atzemaketa oinarri dezan, eta bigarrenik esperientziaren materialtasunari menperaturiko harremana auzitan jarriko du, kontenplazio interesgabearen lehentasuna aldarrikatuko duelarik.

1) Sentigarritasunaren mugak osotasuna atzemateko

"Ekaiaren masa eskerga", "mugimenduaren legeak", "denboraren mamua", "espazioaren leizea", helburu ohoretsuak ezagupena lortu nahi duenarentzat, baina hauteman ezinak egingo zaizkigunak geroago horietara hurbildu nahian sentimen hutsetatik abiatzen bagara. Azken batean Shaftesbury jabetu da banakoarentzat

esperientziaren osotasuna heldu ezina dela, bere gorputzaz gaindi dagoela, eta ezin dituela muga horiek gainditu sentipen horietan oinarrituz. Honela dio puntu hauen azterketa egiten duenean:

"Baina alferrikakoa da guretzako ekaiaren masa eskerga aztertzea: bere izaera, bere handiera edo bere zatien txikitasuna bilatzea.

Mugimenduaren lege bakar batzuk ezagututa, beste guztiak gureganatu nahi ditugu, baina alferrik da gorputz guztiak bilatzea. Gure hautemaketa geldoak huts egiten du, ezin duelako bere gorputza gainditu. ...

Alferrik ere jarraitzen diogu denboraren mamuari, txikiegia baina ahaltsuegia baita guk heltzeko;...

*Alferrik ahalegintzen gara espazioaren leizea (...) aztertzen... "*⁸

Jarrera honekin, noski, zientzia beraren posibilitatea auzitan jarriko da, azken batean espazioa, denbora, materia, mugimendu bera..., banakoarekin bat egiten diren arren, honek ezin ditu errealitatearen osotasunaz banandu, ezin ditu tresna egin kanpoko litzaiokeen errealitatea ezagutzeko, ez dira eurak esperientziaren muga izango, amaigabearen kokagunea baino, eta banakoa amaigabe horretan puntu bat izango da, beste puntu guztietatik materialki urrundua.

Banakoak osotasun horren kontzientzia hartuko du, bai, baina ez du horretarako zertan osotasunaren ezagupen sentigarria izan behar. sentimenen bidez bere gorputzarekin harremanean dagoen

arloa izango du eskuragarri, baina amaigabeak izango dira unibertsuak materialki helezinak zaizkion errealitate sentigarriak, eta ezingo du, beraz, amaigabe horren baitan dagoen puntu bakoitzaren ezagupen sentigarria izan; ezta beharrik ere, honek ez baitakar, errealitate sentigarri beraren ezagutezintasuna edo bi ezagupideren arteko bereizketa, Platonek planteatzen zuen erara, (gogoratu Platonek bere aukera dualistarekin bi ezagutza horien artean bereizten zuela, ezagupen sentigarria erdeinatuz, jakina). Shaftesburyrengan bai ezagupen sentigarriaren, bai pentsamenduaren hastapena bat izango dira, errealitatearen batasunak horrela eskatzen du eta, sentimenaren aurrean pentsamenduaren lehentasuna egongo den arren:

"Baina sentipen hutsa geratzen da, arrazoimenak irauten du, eta pentsamenduak gordetzen du bere izatearen lehentasuna. Horrela jabetzen gara, nolabait, jatorrizko eta betiereko pentsamendu existente honetaz, eta geurea horretatik ondorioztatzen dugu. Hortik sentigarritasunaren gainetik dauden izakien existentziaz dugun segurtasuna, eta baita ere zureaz (lan guztien eredu) eta zuregandik datorrenaz; egia osoa eta perfektua azaldu diguzu gure ariman biziz. Zu jatorrizko arima hori, hedakorra, gauza guztietan bizi zarena, guztiaren iradokitzaile"°.

Sentigarritasunak, hortaz, pentsamenduan oinarritua geratu beharko du, eta honen bidez bakarrik gaingitu ahal izango genituzke sentimenen muga haiek. Pentsamenduaren bidez hautemango dugu unibertsuak osotasun bezala, eta gure burua osotasun horretan

murgilduta. Unibertsaltasunaren ezagupena izateko ez dago zertan ahalezko esperientzia guztien kateaketa osatu beharra -jardun kantianoan esanda-; gainera hortik gehienera jota ezagupen fragmentarioa aterako genuke, eta ezingo genuke hauteman gai horrek unibertsaltasunetik jasotzen duena, bere baitan biltzen den unibertsuaren osotasunaren harmonia alegia. Geroxeago intuizio bezala mugatuko dugun gure barne esperientziari so eginaz ordea, osotasun horren hautemaketa izango dugu, eta horrela esperientziaz gaingiriko izakien osotasunaren, nola esperientzia beraren, ahalbidea segurtatuko dugu.

Ez da ausarta izango baieztatzea Shaftesburyk garatzen duen kritika honetan aurrea hartu diela bere ondotik eta berehala, bai Humek eta bai Kantek, kontzeptu metafisikoei buruz egingo duten jorraketa kritikoei. Humek nia, jainkoa, espazioa, zergatikotasuna, edo, Shaftesburyren hitzetan, "ekaiaren masa eskerga", "mugimenduaren legeak", "denboraren mamua", "espazioaren leizea" eta tankerako kontzeptu guztiak zientzia eta ezagupena justifikatzeko baliagabetzat joko ditu ez dagoelako inongo hautemaketarik ideia horiei dagokiena; kontzientzia egoeren segizioa besterik ez litzateke egongo ideia horien atzean eta badakigu honek azken finean jarrera eszeptikora bultzatu zuela. Shaftesburyren kritika ezin da eszeptizismo horretan geratu eta gehiago hurbiltzen zaio Kanten planteamenduari. Hau da, ez da geldituko sentigarritasunaren kritika horretan, baizik eta arrazoimenera joko du ezagupenari irtenbide bat emateko. Hemen, beraz, Humeren kritikaren aurrerapena ez ezik Kanten sentipenaren kritikarena ere aurki dezakegu. Hain zuzen amaigabea esperientziara murrizteko ezintasuna aldarrikatzean kontzeptu

metafisikoak esperientzia horretatik kanpo jartzen ditu Shaftesburyk ere, baina Kantek espazioa, denbora eta mugimendua bera banakoaren *a priori* bezala ulertuko ditu, hau da, benetako errealitateaz, bere baitango gauzaz aske egingo ditu, eta horietaz baliatuz gizakiak esperientzia esparru mugatu bat definituko du, honela izpiritu dualista berreskuratuz.

2) Jabegoa gozamen estetikoaren ukazio bezala

Orain arteko kritika honekin sentimenak esperientzia estetikotik kanpo geratu dira, eta erakutsi da ezgai direla naturaren osotasunaren harmoniaz jabetzen laguntzeko, baina hau ez da argudio bakarra izango sentimendu estetiko berri hori sentimenetatik urrun eta razionaltasunaren era berri batean finkatzeko, oraindik ere edertasunaren hautemaketaren arazoa argitu gabe geratu baita. Zehazteke dago subjektuak edergaiarekin duen harremana, edo, beste hitz batzuetan, hautemaketa estetikoaren ekintza gauzatzen den forma, eta ez hori bakarrik, baizik eta edergaiaren egitura bera ere. Hau guztia duela helburu, gogoeta egingo du eta proposatu nahi duen sentimendu era berri hori gaiaren materialtasunaz eta sujetuaren premietatik banantzen ahaleginduko da, bakarrik horrela emango da eta sublimetasunaren gozamen estetikoa erdiesteko behar den askatasun eguratsa.

Horretarako lehena Shaftesburyk botere grinaren kritikari ekingo dio, batik bat materialtasunaren menpeko joera zitala deritzolako. Baina boterea ikuspegi zabal batetik aztertuko du, eta honekin esan nahi da boterea ez dela ulertuko bakarrik

gizakien arteko harremana nagusitasunaren arabera arau dezakeen tresna bezala, gizakia eta naturaren arteko harremanari ere aplikatuko zaiola baino; izan ere, azken harreman hau izango baita funtsezkoagoa eta gizakien artekoak honetatik aterako du eredua.

Nabarmena da Shaftesburyk boterearekiko erakusten duen erdeinu disimulugabea, ezin ezarriko baita berarentzat inongo harremanik nagusitasun-menpekotasun ardatzean berdintasuna nagusi izan behar duenean, unibertsuak lehentasunik ezagutzen ez duenean (honek ukatuko ez duen arren ordena eta hierarkia). Eta horrela adieraziko du garbiro bere ikuspegi hau gogora ekar ditzakegun lan honetako beste leku batean aipaturiko hitzetan, non boterearekiko sentitzen duen gutxiespen hori argi eta garbi adierazten duen:

*"boterea ezin da sekula izan ontasunaren froga, eta ontasuna da egiaren bermatzaile bakarra"*¹⁰.

Gizakia egia bila hurbiltzen bazaio naturari ezingo da joan bere gainean beraren burua harrokeriaz ezartzeko asmoz edo unibertsua beraren indarren kontrolpean ipini nahian, horrela natura eta gure artean eten bat sortuz. Haatik kideen arteko kidetasun harremana bilatu beharko du, natura ez baita gizakiaren probetxu hutserako egina, ez da gizakiarengandik banandutako errealitatea. Horregatik gizabanakoak materialtasunetik aterako duen etekinari baino naturaren izpiritualtasunari behatu beharko dio, izpiritualtasun horretan egingo dira eta bat giza izaera eta natura. Naturan aurki ditzakegun izakien artean badira

ezberdintasun materialak, baina bereizgarri horiek ez dira nabarmengarriak izango eta baliotsuagoa izango da, ostera, osotasun hori batzen duen izpiritualtasuna, materialtasun bera ere kutsatzen duena.

Hemen, bada, kritika bikoitz baten oinarriak ditugu, Hobbesen giza izaerarena, botere grinan oinarrituko litzatekeena, alde batetik, baina baita Descartesek Metodoari buruzko Diskurtsoan erakusten duen naturarekiko harremanarena ere, honek bere dualismoan arrazoimenari ematen dion nagusitasunarekin bat etorririk natura menperatu beharra jartzen baitu gizakiaren helburu nagusi bezala: "Izan ere, nozio horien bidez ikusi baitut bizitzarako oso onuragarriak izango diren ezagupenetara hel daitekeela eta baita eskoletan irakasten den filosofia espekulatiboaren ordezkari praktikoa aurki daitekeela ere; eta honen bidez su, ur, haize, astro eta inguratzen gaituzten gainerako gorputz guztien indar eta ekintzak ezagutuz gero (gure artisauen lanbideak ezagutzen dituguna bezain bereizturik), eurentaz balia gintezke egokitzen diren erabilpen guztietan, eta horrela naturaren jaun eta jabe bihurtzeko" ¹¹.

Bi bide ditugu, beraz, irekiak naturarekiko harremanari dagokionean: natura gizakiaren menpeko gai bezala kontsideratzen duena bata, honen arabera natura Jainkoarengandik jasotako opari gisakoa izango delarik eta gizakia munduaren erdipuntutzat joko delarik, bai izpiritualki, bai fisikoki. Izan ere Descartesek pentsamendu eskolastikoaren zenbait punturen kritika sakona egin duen arren, ez da gai izan kristautasunaren zenbait dogma uxatzeko oraindik. Horregatik errealitatea gizakiak egiten duen adierazpenera murrizten badu ere, bai ezagupen hori, bai

errealitate bera jainkoari menperatuko zaizkio, eta gizakia gutxitasun horretatik ateratzeko jainkoarekin parekatzen duen agindu biblikoaren menpe jarriko du Descartesek (ez da ahaztu behar, halaber, Descartesen planteamendua nahikoa antropozentrikoa ere badela, nia baita bere arrazoimenaren erdipuntua: ontologikoki eta epistemikoki). Beste bideak, oster, gizakia eta bere razionaltasuna naturaren osotasunarekin berdinkatzen du, nagusitasunaren kontzeptu utilitaristari harmoniaren kontzeptu estetikoa kontrajarritz, agian gutxiespen zitalez ikuspegi erromantikotzat joko dena. Honen arabera jainko bera ere harmonia horren barruan kokatu edo harmonia horren osotasun bezala ulertu beharko da. Ez da zaila gaur egun bietatik zein ikuspegi nagusitu den esatea, eta zein bihurtu den gaurko gizartearen kezka iturririk nagusiena.

Bada, halaber, naturaren izpiritualtasunari buruzko gogoeta horretan azaltzen hasi garen sentimenaren kritikarekin zerikusia izango duen ondorioz. Izan ere, gozamen estetikoa ezingo da definitu gizakiaren premia materialak asetzen dituzten gaietan oinarrituta. Hau da, ederra era unibertsal batean definitu nahi badugu ezin diogu begiratu asetasuna edo gozamen materiala ematen digunari. Eta botere grina banakoaren gozamen material bat bezala ulertu beharko dugunez -azken batean banakotasunaren interesetara murrizten baita eta hor finkatzen da banakoaren eta naturaren arteko haustura-, ezingo gara heldu bila gabiltzan unibertsaltasun horretara materialtasunak definitzen duen banakotasun horretatik, bakoizkeriaren bidetik alegia.

Banakoak, jakina, *"berarentzat ona dena ekoizten du eten gabe"*¹², eta Shaftesburyk ez du ukatuko hastapen hau oinarritzkoa

izango dela giza borondatea gidatzeko, baina ekoizte horrek ez du zertan berekoitasuna, indarraren nagusitasuna, edo gizakiaren funtsezko bakartasuna ekarri beharrik derrigorrean. Izan ere, gizakia naturan eta gizartean definitzen denez, hastapen horren aplikapena berehalako premiei begiratu gabe burutu beharko da, hau da, bere adimena sentipenezko gozamenara zuzendu gabe, eta, gainera, berarentzat ona dena ekoizte horretan izadiaren ontasuna dakarrena sortu beharko du, bera izango baita, azken batean, norberaren ontasun bera. Hontara ontasun eta edertasun unibertsala atzeman nahi badu, berarentzat ona den hori beti unibertsaltasunean murgilduta gogartu beharko du eta hau adimenaren, ez sentipenen, bidez adimena bilatuz lortuko du. S. Greanen hitzetan "For Shaftesbury, beauty is an expression of mind, and the appreciation of beauty is the discovery of mind by mind"¹³.

Horrela beraz, Shaftesburyk uko egingo dio baita gizaki menperatzailearen ideiarri ere: bai Baconek ezarri nahi duen naturaren gaineko nagusitasuna, bai Hobbesen filosofiaren beste gizakiak menperatzeko joera gaitzesgarriak egingo zaizkio¹⁴. Helburua ez da izango boterea -ez naturaren ez gizakien gaineko nagusitasuna- baizik eta natura nahiz gizartea ariketa intelektual baten bidez atzematea; hor izango da gure askatasuna, hori gure sormena erabiltzeko modu librea.

3) Kontenplazioa

Planteamendu honen garapena, dena dela, III. ataleko zenbait pasartetan aurkituko dugu, edertasunaren arazoaz ebatzi nahi duen

tartean alegia; bertan honela dio Teoklese maiz aipatua izan den pasartean:

"Gauza oraindik misteriotsua da, aitortu behar dut. Irudika ezazu, on Filokle, urrutitik ikusten duzun Ozeanoaren edertasunaz txundituta, bururatzen zaizula bere gainean agindu behar duzula, eta almirante ahaltsu baten gisa itsasoko nagusi izan nahi duzula; ez al zaizu iruditzen zentzugabe samarra?"¹⁵

Gozamen estetikoan gaiarekiko harremana, beraz, ezin da izan nagusitasun-menpekotasunekoa, ez da maitalea gai maitatuaren jabe egin behar, ez du ezer menperatu behar, ez baitira bi mutur kontrajarriak. Jabegoak, nagusitasunak, bi izaeraren arteko bereizketa sortzen duenez, ustez bata bestea baino baliotsuagoa gainera, naturaren batasuna hausten du. Horren aurrean behaketa errespetotsu bat ezarriko da alternatiba modura, eta bakarrik beraren bidez lortuko dugu gaiarekiko maitasun harremana sendotzea, eta are gehiago edertasun bera sortzea. Gozamen estetikoa, ba, plazer eta gozamen hutsetik urrun geratuko da eta antz handiagoa hartuko du artzainaren behaketa bare eta interesgabearekin, hau izango baita gozamen ez berekoiaren eredu egokiagoa eta, gainera, naturaz jabetzeko jarrera proposagoa.

"Itsasoaren jabeago da bere edertasuna harkaitz batetik, edo lurmutur garai bateko leku batetik, miresten duen artzaina, lasaitasun osoz etzanda, bazkan diharduen artaldeaz ahaztuz, bere Buzentauro bikainaren gainean bere

Thetisaren altzoan flotatzen duen Duce-ezkongaia baino"¹⁶.

Horrela nagusikeriaren aurrean naturaren kontenplazioa proposatuko du Shaftesburyk, eta hori izango da bidea esandako kidesetasun harreman adimentsua gauzatzeko eta bilatzen diharduen sentsibilitate razional berria mamitzeko.

Kontenplazio honek, zer esanik ez, gaiaren materialtasunari lotuta legokiokeen sentipen hutsa hautemaketa estetikotik kanpo uzten du. Nolabait esateagatik artzainaren baitan bi nortasun bereizten ditu, ardiak zaintzen dituen bata, horietatik bere bizibidea ateratzeko, eta ardiei ez ezik naturaren osotasunari begiratzen diona, baina gozamen hutsagatik, plazer izpiritualari begira, bestea.

Sentimenak mundua zatikatzen du etekin partikularra ateratzeko, hau da, sentimena beti interesatua izango da, ezin du interesgabeziaren baldintza bete, hautemaketa estetikoak, ostera, munduaren osotasuna du kontuan eta behatzaileak osotasun horri begiratuko dio bere buruaz ahaztuz, edo bere burua osotasun horren barruan gogartuz. Sentipenei lotuta egoteak, beraz, bakoizkeria lekarke eta hori sahiesteko gaiaren materialtasunetik urruntzea ezinbestekoa izango da.

Sentigarritasunari menperaturiko kontenplazioa baztertuko du, beraz, Shaftesburyk, baina, hala ere, ez du kontenplazio deusestuko, baizik eta bera jokaera estatikoaren oinarri bihurtzen saiatuko da, horretarako berari bi ezaugarri atxikiko dizkiolarik: ekintza eta interesgabezia.

Artzain pentsakorraren kontenplazio aktiboa ihardute
estetikoaren eredu

Izan ere, esandako guztiak ez du esan nahi Shaftesburyren pentsaera pairakortasunaren apologian erortzen denik; bere sentimenen kritikan sentimen hutsei menperaturiko ekintza kritikatzan du, baina ez ekintza era absolutuan, bere pentsamendua, azken batean, ekintzaren berreskuraketan oinarrituko baita. Ia hasieraz gero Teoklesekin, Filoklesekin hizketan, ezarri du ekintza eta edertasunaren arteko parekotasuna:

"ba al da zerbait adiskidetasuna bezain ederra miresten dituzun gauza guztietatik? Edo ekintza eskuzabala bezain liluragarria den zerbait? Zer gertatuko litzateke, bada, bizitza, bere osotasunean, etengabeko adiskidetasuna besterik izango ez balitz, eta ekintza eskuzabal oso bat bihurtu ahal izango balitz? Hemen bilatuko genuke, seguruena, zu bila zabiltzan ontasun finko eta iraunkor hori. Ala bilatuko al zenuke beste inon?"¹⁷.

Ekintza eskuzabala hedatzean aurkituko genuke, hemen dioenaren arabera, benetako ontasuna, ontasun finko eta iraunkorra. Baina hemen galdera bezala planteatuta dagoena laster frogatutzat joko den baieztapena bihurtuko da.

"Begira egiozu benetan gogokoa, ederra eta ona denari, edo tankera horretako denari: metal masa bat, lurzati bat,

esklabu talde bat, harri pila bat, itxura eta neurri jakin batzuetako giza gorputz bat: hau guztia al da edertasunik gorenena? Gorputzean bakarrik aurkitzen al da edertasuna, eta ez ekintzan, bizitzan, edo lanean?"¹⁸.

Ikusi dugu Shaftesburyk gai horiek guztiak, esklabu taldea barne, duindu eta edergaien mailara ekarri zituela, baina euren edertasunaren unibertsaltasuna naturaren ekoizpen diren neurrian ulertu behar da. Jarrera kontenplari huts eta pairakor batek edertasunerantzako hurbilketa eta gozamen maila eskaintzen duen arren, ezin gaitu edertasun unibertsalaren aurrean jarri; edertasuna, esan dugu, ez da materialtasunaren ezaugarri, razionaltasunarena baino, eta gai horietan aurkitu ahal bada razionaltasunaz partehartzen duten neurrian izango da, eta partehartze hau naturaren ekimenean gauzatuko da. Hemen dugu, ba, Shaftesburyren estetikan nabarmendu behar den zantzu bereizgarrietako bat, hain zuzen, edertasuna (nola arrazoia) ekimenean datzala eta ez egonkortasunean edo iraunkortasunean, ez da esentzien edo gauza gardenen estetika izango beraz berak eraiki nahiko duena, naturaren prozesu eraldatzaileetan nahastuta dagoen estetika baizik.

Estetikaren eginbeharra ez da izango, orduan, artelanaren definizio logikoa ematea eta bere genero ezberdinak bereiztea, ezta deskribatzea artearen sujetu gozatzailearen barne egoera ere; estetika eginbeharra munduaren barne ordena arautzen duen prozesu kreatzailea bere osotasunean aztertzea izango da¹⁹, bai gaiari dagokionean, bai edergaia behatzera doanak daraman jarrerari dagokionean ere, ez baitu honek postura pairakor batean

hurbildu beharko, arrazoimenaz aztertuz baino; horrela kontenplazioa bera ekimen partehartzaile bihurtzen delarik, artzaina edertasunaren subjektu eta objektu izango da era batera.

Honela, ba, kontenplazioak naturan errotua egon beharko du eta natura ekintza denez bera ere ekintza izango da. Planteamendu honekin Shaftesburyk moralak eta natur zientzien arteko hezia gainditu nahi du; gero Kantek erabiliko dituen hitzetan ezagupen teorikoa eta ezagupen praktikoaren hutsunearen gainetik jauzi egin nahi du, horretarako ordura arte izatean kokatuta dagoen egia egiteari lotuz. Ezagupen zientifikoak izatearen egia edo faltsutasunaren jabeketa erdiestea izango luke helburu, berdin izango litzatekeelarik bera ona edo txarra izan; ezagupen moralak, aldiz, gizakiak egiten duenaren ontasuna edo gaiztotasuna baloratu nahiko du: nik egiten dudana ona edo txarra izango da eta ez egia edo faltsua, hori, izatez gerotan, Jainkoaren lana izango baita. Shaftesburyk eten hori hautsi nahiko du errealtate fisikoaren adiera bera ere ikuspegi moral batetik bururatu ahal izateko, helburua ez da moralitate berri bat sortzea bakarrik, munduaren ikuskera orokor bat eskaintzea baino, sustrai estetiko-moralak izango dituenak. Horretarako edertasuna eta harmonia hartuko du ardatz bezala dikotomia hori gainditu nahian. Unibertsuan edertasuna izango da nagusi baina nagusitasun hori ekimen eratzailearen sorkuntza izango da, adimen unibertsalaren ekimena alegia. Horrela unibertsua harmonian murgilduta sortzen den errealtatea izango da eta gizakia adimen horren partehartzaile denez bere sorkuntza ere unibertsu horren harmoniaren zati da. Horrela errealtate oro sortua da eta sorkuntza oro ederraren arabera sortzen denez azken batean

errealitate guztiaren ardatza edertasuna izango da.

Arrazoi kartesiarraren mugak

Dena dela, sentigarritasunaren kritika hau ez da aski izango edertasunaren hautemaketaren subjektua definitzeko. Kritika hori kanpoko munduaren hautemaketara mugatuko da baina beharrezkoa izango da, bestalde, barne munduko hautemaketaren kritika bati ekitea ere. Izan ere, artzainak kanpoko mundua hauteman dezan beharrezko aurrebaldintza izango du bere buruaz jabetze maila bat izatea, Ni baten hautemaketa izatea alegia. Dena dela, Ni delako hori zer den argitzen hasiz gero ahalegina erabat problematikoa bihurtuko da.

Arazoaren muina Niaren hautemaketatik datorren bizipen kontraesankorrean datza: alde batetik subjektu iraunkor baten bizipena nabarmen bezala agertzen zaio gizakiaren senari, artzainak bat sentituko luke bere burua denboran zehar, baina, bestalde, sujetu horri dagozkion pentsamendu, sentimendu eta irudien etengabeko aldaketak nekeza, ezina ez bada, egiten du sujetu horri legokiokeen erreferentzia zehatzik ematea: zaila bada terminu razionaletan arima bezala definitzea, ez da errazago bizipen adierazgarri baten bidez egitea.

Descartesek honi eman zion erantzuna Ni pentsatzaile, banandu eta betierekoaren lehentasun ontologikoaren baieztaketan zetzan. Izatez eta pentsamenduz Nia izango litzateke lehena eta betirakoa, hau da, naturaz gaindikoa, eta bera pentsamendu abstraktu eta unibertsal baten bidez definituko litzateke,

errealitatearen azterketa razional oro axioma horren onarpenetik abiatu beharko litzatekeelarik.

Lockek, jaiotzetiko ideiak existitzen zirela ukaturik, eta, beraz, ideia argi eta bereizien argudioa errefusatzuz, izaki ezberdinen identitatea espezie bakoitzarentzat era bereizian definitu behar dela defendatuko zuen; zuhaitz batek bat iraungo luke bere zabalera handitu arren aldaketa hori zuhaitzen ezaugarri litzatekeelako. Gizakiari dagokionez Nia edo norbere identitatea kontzientzia identitatean kokatuko du, substantzia bat dagoenik ukatuz²⁰, horrela Sokratesen eta Quinborough Majorearen kontzientziak bat etorriko balira, pertsona berdina izango liratekeelarik. Edozein kasutan substantziaren kontzeptua ukatuko du, jaiotzetiko ideiak daudenik ukatu duen bezala, funtsezko ideiak haek biak Descartsengan.

Baina, non sartuko da Shaftesburyren ikuspegia eztabaida jario honetan? Aurkituko ote du artzain behatzaileak bere baretasunerako leku egokirik hain ezegonkorra den esparruan? Nola sartuko du esperientzia horretan bere behaketari datxekion kezka estetiko-morala? Honetarako euskarri berria beharko du, Descartesen Nia ixten duten mugak gaindituko dituen Nia, hain zuzen, oinarri berriez funtsatuko duena eta batik bat erakuntza berria erakutsiko duena. Shaftesburyk onartuko du gizabanakoa, bere barne esperientzia eta guzti, naturaren osotasuna bezala, aldaketaren legera menperatuta dagoela eta lege horrek errealitatearen etengabeko aldaketa bere gain hartzen duen legez gizakiarengan ere jario amaiezin horrek bere nortasunaren funtsezko legea finkatuko duela:

*"Zorionekoa baita egun batez edo bi egunez bat eta berbera irauten duen gizakia. Urte batean konta daitezkeenak baino iraulketa gehiago ematen baitira"*²¹.

Baina etengabeko aldaketa prozesu horiek onartzeak ez darama iraupena ukatzearen zentzugabekeriara, edo taxugabeko aldaketa onartzera, ordena egon beharko du, ordena eta iraupena, naturak ezarritakoa, razionala eta helburu bati begiratuko diona.

*"Naturak ustekabez, aldaketa eta halabehar askotik pasata, sorkari bat sortu du. Hasieran materialazko hazietatik loratuz aurrera egin du gaur egun dena bihurtu arte, eta horrela heldu da belaunaldi luzez iraun duen era honetara. (...) Giza-sorkariak aldaketa ugari jasan zituen, eta, hazten zihoan artean, aldaketa bakoitza beste edozein adina naturala zen"*²².

Ez da beraz iraupenaren hastapena kanpotik etorriko, ez da errealtate traszendental baten beharra izango etengabeko aldaketa horren zorabioan fretoa jartzeko. Aldaketa oro naturaren ekoizpen den legez eta bere baitan ematen den legez naturan beharrezkoa den ordena eta iraupena ere naturaren baitatik sortuko da. Prozesu horretan naturak sortuko duen guztia berak ezartzen duen ordenean bilduko da, ez da ezer jaurtikiko kanpora, bere arauzkotasunaren emaitza izango da dena, eta banakoa ere arauzkotasun horretan sortuko da. Aldaketa orok, orduan, naturak ezartzen duen helburu bat betetzean izango du zentzua eta helburu hori ez da bakarrik aurkituko naturan eta naturarekiko loturan,

baizik eta baita banakoaren betetasunean ere.

Horregatik iraupen horretaz jabetzeko gizakiak duen baliabidea bere Niaz jabetzea izango da. Niaren azterketa izango delako banakoak naturararen eta pentsamendu beraren kontzientzia hartzeko bidea, Ni horretan naturaren legeak gauzatuko direlako, hau da, ezingo delako burururatu naturatik bereizitako norbanakorik. Horregatik derrigorrezkoa agertuko zaio Shaftesburyri banakoaren ezagumena eta nortasun osoa arautuko duen burujabeketa bat edo ni baten bizipena onartzea, ezagupenaren lehen baldintza Nia bihurtuko delarik²³.

Baina non aurkituko dugu orduan Ni horren existentziaren suposapenari legokiokkeen batasun eta bakuntasun hori? Baieztatu badugu errealtate bakarra dagoela, eta, beraz, ez dagoela Nirik errealtate fisikotik (naturatik) banandua eta, gainera, osotasunaren jarioaren hastapen heraklitoarra onartzen badugu, materiala ala izpirituan kokatuko ote dugu izaki bakun hori?

"Badakusazu, beraz, "zu" eta "ni" hauetan bakuntasun bitxi bat dagoela, alegia benetan bat eta berbera izan beharra; nahiz eta ez egon ez gorputzaren atomorik, ez grinarik, ez pentsamendurik berbera dirauena. Eta erabat baztertu behar da izatearen identitate edo berberatasuna materiako partikula batetik ondorioztatzeko ahalegina, materia horrek guregan irauten duela eta gainerako guztia aldatzen dela suposatuz; materia hori, berez, ez baita bakuntasun horretarako gai. Izan ere, ausartzen naiz esaten onartuko duzula 'zu' edo 'ni' hauek materia hutsezko ezer baino bakunago edo banakoago direla; ez baduzu, behintzat, zu zeu

baino gauza ulergarriago eta seguruagotzat hartzen atomoaren nozioa"²⁴.

Nian aurkituko du Shaftesburyk iraupenaren jabeketaren bermea; Niaren irudipena, barne hautemaketa, beste edozein barne hautemaketaren aurrebaldintza izango da eta berarengan aurkituko dugu soma dezakegun lehen egia segurua, nahiz eta ez dugun bertan aurkituko errealitatearen hastapena edo funtsa, ez baita Nia izango errealitate goren eta absolutu bat, errealitate honetara heltzeko bidea baino.

Hau horrela izanik zehaztu beharra izango da ez ni horren esentzia zein den, bera sortu duen errealitatearena baino. Alderdi horretatik garbi utziko du Nia ez dela gorputza izango. Aldaketa prozesuaren azpian datzana eta bere gainetik irauten duena ezingo da materialian edo materia partikula jakin batzuetan, atomoetan esaterako, aurkitu. Ez materialak bere osotasunean, ez partikula jakin batek, ez ditu betetzen beharrezko iraupenaren eta bakuntasunaren baldintzak.

Materia, oro har etengabeko eraketa eta suntsiketa prozesu batean murgilduta dagoenez, ezingo da, inondik ere, behar dugun baita hori bezala identifikatu, eta ezingo da bera izatearen inolako identitaterekin jatorri izan. Onartuko bagenu materialaren lehentasun hori, suposatu beharko genuke adimena materia horretatik sortuko litzatekeela, lehena anabasa izango litzatekeela, anabasa horretatik ordena eratorriko litzatekeelarik, baina hau ezinezkoa da materia aniztasunaren iturria izateaz gain zerbait pairakorra delako, eta ezin delako sortu iraupena aniztasun horretatik. Are gutxiago onartu ahal

izango dugu gizakiaren baita materialazko zatien osaketaz zertzen dela, osotasuna eta zatia gauza ezberdinak izango lirateke eta. Ikuspegi materialista hutsak, hortaz, ezingo du azaldu Niaren edo baita horren identitatean adimen eta materialazko aldekatu guztien gainetik ematen den iraupena.

*"Orain, zuk (oi gogo gorena) naizen erakoa egin nauzunez, adimentsua eta razionala, nire izaeraren duintasun berezia zu ezagutzean eta behatzean datzanez, zilegi nazazu hornitu nauzun ahalmen hauek behar den askatasunez erabiltzen. Jasan ezazu nire jarrera ausart eta oldarkoia. Zureganako maitasunak iradokitzen dizkit pentsamendu hauek, eta ez alferrikako jakinminak, ez harrokeria inozoak, ez beste edozeinen maitasunek; izan zaitez zu nire laguntzailea, gida nazazu nire bide honetan; natura zabalaren labirintora sartzen ausartu eta zu zure lanen aztarnetan bilatzen ahalegiten naizen artean"*²⁵.

Guk behatuko dugun Ni hori, beraz, naturak, jeinu unibertsalak, sorturiko izakia izango da eta naturan sorturiko beste edozein izakiren garrantzia izango du, ez da naturaren erdigunea izango, ez da naturari zentzua emango dion subjektua izango. Izatekotan natura egongo da gizabanakoaren gainetik eta ez alderantziz, baina azken batean hori ere ez zeren naturak sortu dituen izaki guztiak beharrezkoak baitira, eta, azken batean, natura euren baitan gauzatzen da; natura den batasun horretan naturak sorturiko izaki guztiak izango dira lehenak. Ez da akzidenterik izango, denak zentzua duelako, helburu bat.

Honela banakoa ezingo da bere materialtasunaren zati batez jabetu, bere beso batez edo atomo batez; naturak osotasun izpiritual zatiezin bat osatzen duenez, banakoa bere izpiritualtasunaren osotasunaz jabetuko da eta honekin naturaren osotasunaz. Izan ere, banakoak bere barruan, barne munduan, pentsamenduaz jabetzen denean kanpoko natura bera aurkituko du.

Banakoak ariketa honen bidez (barne azterketa honen bidez) mundua oinarri razionaletan eraikiko du, baina beti ere ikuspegi formalista hutsetik urrundu beharko da. Descartesentzat ni pentsatzailearen bizipena mundu fisikotik banandua zen; errealitate matematiko formalean aurkituko zuen lehen egia, baina ahalegin honetan giza munduaren zenbait alderdi, agian gizakoiak (moralak, politika, jainkoari buruzko kezka...), oinarri eskasarekin geratuko ziren. Shaftesburyk, esan bezala, Nia naturan integratuko du, naturatik banandu ezin den zerbait izango da, eta horregatik bere barne esperientzia bide egokia izango zaio natura ezagutzeko. Baina natura ez ezik giza portaera moralari legozkiokeen hastapen zehatzak aurkitzeko bidea ere barnekotasunari begirada izango da. Giza izpiritua behatu beharko du filosofoak, giza jokaerei so eginez, bai, baina bereziki begirada barnekotasun horri zuzenduz. Banakoak bere baitari begiratuta aurkituko du, esaterako, ontasunaren lehen adibidea, berau izango delarik norberaren ezaugarriarik irmoen eta iraunkorrena.

Shaftesburyren barnekotasunari begiradak errealitatea antropozentrismo inozo batera murriztea saihestu nahi du eta arlo moralean egozentrismo indibidualista gainditu alde batetik, eta bestetik, espekulazioa alde batera utzi eta behaketaren premia

ezarri; moralista espekulatiboen zentzugabeko ondorioak baztertzeko eta moralitatea zehazteko mundua zer den izan behar baitugu kontuan.

Proposamen cartesiarren hutsunearen gaindiketa, bereziki Descartesek ezagutza praktiko razionala alde batera uzten duen aldetik, Niaren bilakuntzaren helmuga sentimenduetan jarritz burutuko da.

"Nola lagunduko dizut? - ihardetsi zuen berak -. Nahi al duzu ni jabetzea zeure buruaz, eta bakarrik zeure baitan dagoenaz eta zeure baitatik sortzen denaz?"

"Nire sentimenduak esan nahi duzu," - esan nuen nik -.

"Bai, eta zure sentimenduetaz gain, zure erabakiak, hastapenak, zehaztapenak, ekintzak; mota horretan galanta eta noblea den guztia; zure ulermen, zentzu, ezagupen eta nahi onetik isurtzen den guztia; zure bihotzetik sortzen den guztia, on Filoklei, eta zure adimena gurasotzat duena, sekula ahitzen edo indargabetzen ez den gurasoa, ekoitziz indarra eta kemena irabazten duena" ²⁶.

Barne sentimenduek, beraz, ezarriko dituzte barnekotasunaren mugak, eta eurak, eta ez arrazoimen hutsa, izango dira Niaren bereizgarri gainera, funtzio bikoitza eta itxuran paradoxikoa betez. Niaren barnekotasuna zerbait propioa eta besteentzat helezina izango da, banakoaren esparru pribatua marraztuta eratuko baita sentimendu horien bizipenean, baina, halaber, sentimenduen ezagupena izango da Niarentzat mundua; azken batean naturaren mundua, nola gizartearena, eta, beraz, kanpokotasunaren

atea, banakoak ezingo baitu bere burua sekula izaera isolatu batean gogartu. Horrela bere sentimendu horietan aurkituko du bere lehen segurtasuna eta arrazoiaren oinarria, eta segurtasun honen edukian bere burua eta sentimenduen bidez atzematen duen naturaren osotasuna bildu beharko dira era batera.

Honela oinarria sentimenduan jarritz, eta Descartesen argudioari buelta eman eta "Sentio ergo sum" delako bat bihurtuz²⁷, Shaftesburyk aipaturiko zirkulartasuna haustea bideratuko digu, sentimendua zerbait partikularra bezala bururatzen duelako, baina, era berean, natura atzemateko bide izan eta naturaren atzemaketarekin sortzen delako. Nik sentitzen dut, beraz naturan naiz" erara ulertu beharko genuke, horrela barne orden huts bat adieraziz baino barnekotasuna kanpokotasunarekin elkarjokoan agerraraziko digularik eta ez barnekotasuna eta kanpokotasuna bi errealitate substantzial banandu bezala agerraraziz.

Azpimarratu beharra dago sentimenduen erreibindikapen horren azken helburua sentimendu morala, eta bizitza praktikoarekin zerikusia duen guztia, razionalitatearen esparruan sartzea izango dela. Eman lezake Niaz jabetzean sentimenduarekin loturik (edo horien menpe?) agertzen diren elementuek ez dutela izango zerikusi zuzenik ez arrazonaketa matematikoarekin ez errealitate fisikoarekin, eta bete-betean gizakiaren dimentsio moralarekin daudela loturik: *erabakiak, hastapenak, zehaztapenak, ekintzak; mota horretan galanta eta noblea den guztia; zure ulermen, zentzu, ezagupen eta nahi onetik isurtzen den guztia; zure bihotzetik sortzen den guztia*, hau guztia izango da Nia definituko duena, eta horrela agertuko da behin eta berriro

Niaren edukiak zehaztu nahi dituenean. Baina garbi egongo da berarentzat portaera morala osatzen duten alderdi guztiok ez dutela biltzen naturarekiko hausturarik, baizik eta giza natura beraren adierazle behinenak direla.

Azken batean Shaftesburyk aitortu digu autokontzientzia hori naturaren "autokontzientzia" bera dela, edo, agian hobe esanda, naturaren "autokontzientzia" Niaren autokontzientziaren aurreko dela.

*"Hortik sentigarritasunaren gainetik dauden izakien existentziaz dugun segurtasuna, eta baita zureaz (lan guztien eredu) eta zuregandik datorrenaz ere; egia osoa eta perfektua azaldu diguzu gure ariman biziz. Zu jatorrizko arima hori, hedakorra, gauza guztietan bizi zarena, guztiaren iradokitzaile"*²⁸.

Ahalmen honekin, beraz, senarekin, sentigarritasunaren gaia nola gai matematikoa gainditu beharko du baina objektibotasunaren esparru berri bat zabalduz, eta hau osotasunaren harmonia estetikoaren baieztapenean datza. Lege matematikoen harmoniaz gain munduaren ikuskera moral-estetikoa definituko duen harmonia aurkituko dugu, objektiboa bera ere. Izan ere, lege matematikoetan edertasunik eta harmoniarik aurki badaiteke ere eurak naturarekin haustura bat biltzen duten neurrian ezingo digu bila dihardugun edertasun objektibora hurbildu.

"Baina seguru nago zeraz: bizitza, eta bizitzari laguntzen dioten sentipenak, noiznahi sortzen diren, natura

hutsetik datozela, eta beste inondik ere ez. Beraz, ez bazaizu gustatzen "sortzetiko" hitza, alda dezagun, eta jar dezagun bere orde, hala nahi baduzu, "sena"; eta deitu sena naturak irakasten duenari arte, kultura eta heziketari buruz"²⁹.

Sen hau izango da, hortaz, arrazoi berriaren oinarria, izatearen osotasuna bere aniztasunean atzemateko bidea, bertan oinarrituko da moralitatearekin eta bizitza praktikoarekin zerukisia duen razionaltasuna. Razionaltasun hau ez da murriztuko errealitate matematikoaren menpeko razionalitate batera, ez da razionalitate matematikoaren menpeko izango, haatik, razionalitate ororen oinarri bihurtuko da, honela ekimenaren lehentasuna formaren lehetasunaren aurrean jarriko delarik.

Ezagupenaren funtsezko baldintza modura uler daitekeen sen hau, hortaz, ez da egituratuko konexio logiko formalez lotzen diren ideien sistema bezala. Hain zuzen, ez da sistema deduktiboa izango Shaftesburyk bilatzen duena, ez dio balio; era horretako sistema batek ez dio erantzuten behar den moduan berak azaldu nahi duen adimenezko edertasunari eta naturaren harmoniari, arrazonaketa deduktiboaz erdietsi ahal dena baino zabalagoa baita funtsezko errealitateak zedarritzen duen naturaren edertasuna. Horrela ikusten du Cassirerek³⁰ ere: "Shaftesbury considers the beautiful neither as an "innate idea" in Descartes' sense nor as a concept derived and abstracted from experience in Locke's sense. The beautiful is independent and original, and innate and necessary, in the sense that it is no mere accident but belongs to the substance of the spirit and expresses this substance in

an entirely original way. (...) it is rather a specific basic direction, a pure energy, and an original function of the spirit." Baina ezingo da, era berean, esperientziaren lockear ikuspegiarekin parekatu, bere baitan ez duelako bilduko esperientzia sentigarritik orokorketaren bidez sorturiko kontzepturik. Hain zuzen, kontzeptu horiek sortzeko prozesuan kontuan izan den esperientzien kopurua mugatua da eta ezin du bildu, inola ere ez, esperientzia ahalezkoen amaiezintasuna.

Shaftesburyrentzat, ordea, esperientziaren amaigabetasun gureganaezin hori ez da eragozpen bezala agertuko. Berarentzat Harmonia unibertsal horren ezagupena bakarrik ezagupen intuitibo batetik etorriko litzaiguke, ez dena abiatzen zatietatik osotasunerantz, baizik eta osotasunetik zatietarantz³¹.

Ezagupen intuitiboarekin une bakoitzaren betetasuna harrapatu ahal izango dugu, bere amaigabetasun oso hori eta ez da zertan esperientzia partikular bakoitza somatu beharra izango unibertsuaren osotasunaren esperientzia izateko; ez da zertan orokorketarik egin beharra izango unibertsaltasunaren ezagupena erdiesteko. Izan ere, intuizioarekin une bakoitzeko esperientzian esperientziaren osotasunaren ezagupenak ekar liezagukeen atzemaketa eskaintzen digu. Guk geure bizipen partikularrean aurkituko dugu, ba, unibertsaltasunerako bidea.

Orain arte garatu dugun sentimenen eta arrazoimenaren kritika honekin zehaztuta geratu zaigu, era negatiboan besterik ez bada, sentimentalismo izenarekin ezaguna den pentsaera, Shaftesburyrengandik Schillerenganainoko ardatzetik abiatuko dena XVIII. mendean zehar. Ez da zaila honetan guztian ilustrazioko zenbait pentsalarik berea egingo duten ideiaren aitzinapena

aurkitzea argi eta garbi formulatua. Izan ere, planteamendu traszendentalak alde batera utzi beharrak eta naturarako hurbilketa prozesuak gizakiari buruzko ikuspegi beraren eraldaketa ekarriko du. Erdi aroko pentsamendu eskolastikoak, eta Descartesenak berak ere, barnekotasunari begiratzen zion, bai, baina barneazterketa horren gaia naturaz gaundiko balizko errealitate batean kausitu nahi zuten, esperientziatik kanpo geratzen zena, eta azken finean, arrazoimen hutsaren gai litzatekeena.

Baina behin errealitatea naturara murriztu dugula, bernekotasunaren eta kanpokotasunaren arteko bereizketa naturaren lege unibertsalei murriztu zaiolarik, lekuz kanpo egongo da arakatuko den barnekotasun horretan naturaz gaundiko ezer aurkitzeko nahia, ez da existentzia traszendentalik izango, ez da ezer izango bere helburua beste mundu bati begira izango duenik; izan ere, gizakia, bere kanpokotasunean bezala bere barnekotasunean naturalizat jo beharko da.

Oharrarazi behar da gizakiaren barne izaerari garrantzia emate honek zenbait kasutan razionaltasuna gutxiestea ere ekarri duela pentsalari ilustratuen artean, honen erakusgarria Rousseauengan aurkituko dugularik. Berak gizakiaren naturazko egoera definitzean gizarte egoera, nola zientzia eta artea, ez naturalizat joko ditu, eta, arrazoiaren garrantzia guztiz baztertu gabe, barne indar natural horretan kokatuko du giza izpiritualtasunaren piztailea. Alabaina hau egoera astun baten zamatik askatzeko ahalegin bortitzetik ateratzen den erreakzioa bezala ulertu behar da. Mendeetan zehar eman diren ordura arteko eztabaida filosofikoetan izaki traszendentalak izan duen

pisuarekin hausteak badirudi razionaltasunari uko egitea ekarri behar duela. Arrazoiaren ihardunak, gehienetan, naturaz gaingaitzakia baieztatzen ari zela, honekin batera naturaren ukazioa zetozeelarik, eta ihardun hori, behin eta berriro, transzendentzia hori lotuta agertzen zela eta, ez da harritzekoa gertatuko naturaren errebindikazioaren errozkoak jarri irrazionalistaren krisia izio zezan. Hortik erraz uler daiteke naturaren goraipaketak arrazoiaren gutxiespena ekarri izana.

Shaftesbury ere, ilustrazioaren ordezkari tipiko hau, transzendentalismo hori ihes egiten ahaleginduko da eta bere aukera, aipatu dugu, sentsualitatearen berreskuraketaren hildotik etorriko da. Baina hemen berrezarazkuntza hau, barnekoitasunari deia, ez da arrazoiaren kaltetan egingo. Ez dira grina arrazoigabeak nagusituko mundua ezagutzeko ahaleginean, hauek plazerra jasotzen garamatzaten bultzadei erantzuten baitiete, azken finean gure animali irrikak asetzen dituztelarik, baina ez dute balio edertasun ulergarriaren atzemaketa azaltzeko, interes bati, gurekoitasunari, begira jokazen baitute, eta horregatik errura ari zela gaitzakete, matematiketan ezezik moral eta estetika-juizioetan ere.

Horrela ezinbestekotzat joko du barnekoitasuna grinen agindupean baino hastapen razional ahierga baten pean egon dadila, jaiotzetik ezagupenaren hastapen razionala egon dadila alegia. Baina arrazoimen horrek ezagutza formalaren nola praktikokoaren garapena zilegi beharko digu, ezingo du moralitatearen esparrua autoritate moralaren izaki harrotz transzendental baten edo inguruko ohituren esku utzi kritika gabe (Descartesen erara. Kontuan izan honek moralitatearen esparrua

eztabaidatik kanpo utzi duela, badirudi akordio inplizito bat ezarri duela moralitatea elizaren agindupean utziz eta haren monopolioa bihurtuz, moralaren arauak hain zuzen bere metodoaren aplikapenetik kanpo geratzen direlarik, eta eurek duten kutsu guztiz kontserbatzailea eta guzti, eta horrela zientzia sartzen dela razionalitatearen agindupean) moralitatea ere bildu behar da razionalitate horretan. Izan ere, orainagoko formulazioari jarraiki, moralitatearen arazoak izango baitira lehenak giza bizitzan. Honetarako hutsa izango ez den arrazoa irudikatu beharko da, ideia eta kontzeptuen mugak gaindituko dituen, greziar tradizioetik datorren forma eta eduki materialaren arteko eten antzua, descartesek muturreraino eramana, baliagabetzat jotzeko bidea eskainiko duena.

Zalantzaren metodo kartesiarrari krititika

Badakigu Descartesek egiarako bidea lau arauen metodoa eskuetan zeukala zeharkatu nahi zuela, eurak beti betetzeko erabaki sendo eta setatsua hartua zuelarik, eta arau hauen artean funtsezkoena eta lehena ideia argi eta bereiziena izango zela³². Lehen arau honetaz baliatuz Descartes bere lehen egia frogatutzat joko du, hots Niaren existentziaren ziurtasunarena³³

Baina metodo hau ez da egokia izango Shaftesbryrentat bi arrazoiengatik, lehenik Shaftesburyren helburua ez delako izango ez Niaren, ez beste edozein substantziaren existentzia frogatzea. Berak onartuko du, ikusi dugun bezala, autokontzientzia bat badela, eta autokontzientzia horretatik egia maila batera hel

gaitezkeela, baina autokontzientzia hori ezingo dugu autokontzientzia berorren frogapenaren oinarritzat hartu nola edo hala Descartesengan gertatzen zen legez. Izan ere, Shaftesburyrentzat Descartesentzat aski den ebidentzia hori ez da izango ni bereizi eta razionalaren existentziaren errefusaezineko froga. Autokontzientziatik ateratzen den egiazkotasuna ez da zalantzagarrria izango baina ez du Descartesengan duen zentzu bera izango, inondik inora. Orduan, substantziaren edo niaren existentzia edo izaera frogatu nahi ez baina modu negatibo batean azalduko digu.

Bestalde, Shaftesburyren arrazoimena osotasunetik zatietara abaituko da eta, beraz, Descartesenez ezberdina izango den bidea hartu beharko du egiara heltzeko, Descartesenez ezberdina izango den hastapen metodologiko batean oinarritu beharko da. Izan ere, Descartesek konposaketa oro menpekotzat jotzen duen artean, eta, beraz, akastuntzat, eta errealitatearen maila bakunenak eta bananduak gogotan hartzen dituenek bakarrik, Shaftesburyk errealitatearen osotasuna eta integrazioa hartuko du gai bezala eta ezagutzaren abiapuntu eta helmuga. Honela errealitatea banantzen duen ebidentziaren hastapenaren aurrean beste hastapen bati helduko dio, eta beraren arabera partikularitasuna osotasunaren partaide bezala izan beharko da kontuan. Jabeketa ez da gure banakotasunaren jabeketa izango, beraz, guregan ematen den osotasunaren jabeketa baino, eta horrela ebidente agertzen zaiguna ez da izango izaki banandu bat, bere baitan berezko izatea bilduko duena, errealitate zabalagoaren zati izanik zentzua eta izatea errealitate oso horretatik hartzen duen izakia baino.

Hastapen honen abiapuntua organismo biziekiko analogia batean letzake. Zuhaitz baten banakotasunari begiratzuz gero zatiz osatua aurkituko dugu, eta ezingo dugu adar bat edo hosto bat zuhaitzetik banandu eta ezta alderantziz ere zuhaitza bere zatiez banandu. Era berean ezingo genuke giza banakoan bere zati bat beste guztietatik banandu, naturatik banandu, eta ezingo genuke, ezta ere, bere pentsamendu bat beste guztietatik edo pentsamenduaren osotasunetik banandu.

"Ez al da natura hau oraindik baita bat. Edo esaidazu, arren, zer dela eta zara zu bat? Zer ezaugarriengatik? Zeren poderioz? Zati batzuei datxekien hastapen batengatik, zeinak zati horien erabilpen eta helbururako pentsatu eta ekiten duen. Esan, beraz, zure sistema oso hori, zeren zati da? Ala ez al da zati bat, baizik eta berez osoa, erabatekoa, independentea eta beste ezerekin harremanatu gabea al da? Esan faborez, benetan zati bat eta zerbaitekin harremanatua baldin bada, zerekin harremanatuko da ez bada naturaren osotasunarekin? Ba al da naturan halako hastapen bateratzailerik? Horrela izanik, zelan izango zara zu norbait eta natura berriz ez?"³⁴

Bururaezina egingo zaio osotasunetik banandutako zatia, arrazoiaren aurkako burutapena, errealtatearen ukazioa bailitzateke. Honelako zerbait dago Descartesen operazioaren atzean, honek errealtate sustantzialaren bila Nia, pentsamendua, naturatik bananduko du, naturatik letorkeen guztia akastzat edo beste zerbaiten menpekotzat joko duelarik³⁵. Shaftesburyrentzat

ez da era horretako sustantziarik egongo, sustantzialtasuna azken batean naturari dagokio, naturaren osotasunari, hutsala izango delarik bizitzatik eta naturatik banandutako substantzialtasun bereizia bilatzeko ahalegina.

Idea hau estoikoen funtsezko dotrina dugu eta horrela agertzen da isladatua horien zenbait testuetan, besteak beste Porfirio eta Marko Aureliorenetan. Porfiriok bere *Plotinoren bizitzan*, esaterako, gogorarazten digu hau hiltzear zegoela, honako aholkua eman ziola Eustokio bere jarraitzaile eta bere heriotzearen lekuko bakarrari: ahalegin zedila guregan jainkozkoa dena unibertsum jainkozkoa denera hurbiltzen³⁶. Baina unibertsumaren osotasunarekiko konpromiso hau nabarmenago ikus dezakegu oraindik Marko Aurelioren lanetan. Honen arabera unibertsumaren naturak ez du onartzen bere baitatik kanpoko kausalitaterik, ez Ni banandurik ezta Jainkorik ere, banakoa osotasun unibertsal baten atal izango da eta horren arabera jokatu beharko du beti³⁷.

Banakoa unibertsumaren mugapen, zatia osotasunaren ekoizpen, ideia horretan aurkituko da definituta estoizismoaren oinarritzko dotrina hau. Arrazoimenaren indarra, beraz, banakoak eta izaki partikularrak sortzeko eta moldatzeko ahalmenean datza eta indar hori, gauza bakoitzaren baitan ageri da bertan aurkituko delarik gauza bakoitzaren indar hozitzailea, beraren bizitze hastapena. Heraklitoren logosaren legeaz hemen ere arrazoimen unibertsal bat dago, errealitatearen osotasuna kutsatuko duena, eta partikulartasunean bertan isladatuko dena.

Hastapen honek Shaftesburyren testuaren osotasunean luzatuko du itzala naturaren ikuspegiari itxura emateko ez ezik, ikuskera

etiko estetikoa zedarritzeko ere.

*"Horregatik gauza guztiak lurrean kontenplatzen baditugu, ezinbestez dena batean ikusi behar dugu, multzo orokor batean bildua bezala. Eta berdin gertatzen da mundu zabalagoaren sisteman. Begira gauzen arteko elkarrekiko menpekotasuna, bata bestearekiko harremana... "*³⁸

Banakotik orokorrerako iragaite honetan, ba, zatien eta osotasunaren arteko harremana finkatzen duen hastapenak jokatuko du, Shaftesburyrentzat ez dago banakorik, zatirik, osotasun zabalago baten elementu ez dena eta banakoan aurkitzen ditugun ezaugarriak, hortaz, orokor horren gauzaketa partikularra besterik ez dira. Ezin zaio, beraz, ezeri begiratu zerbait banandua bailitzan, bere zergatia eta xedea naturaz bananduriko berezko zerbaiten baitan izango balu bezala, xedea osotasunaren xedean bilatu behar da.

Shaftesburyk honela, banakoa unibertsuaren osotasunarekin lotua bururatzean, unibertsalista deritzen teorien ikuspegi propioa eskainiko digu, bereiziko dena unibertsaltasun hori indibidualismoan oinarritzen duena. Bigarren eskola honek, nola edo hala, kristautasunaren arimari buruzko dotrina hartuko du oinarri bezala eta banakoari erabateko subiranotasuna aitortuko dio, bere inguruaren gainetiko balioa suposatuko diolarik. Izan ere, kristautasunarentzat banakoak, edo hobe esanda bere arimak, errealitate absolutua taxutuko du, bere ingurunearekiko derrigorrezko loturarik beharko ez duena. Descartesen "Ni pentsatzaile" absolutuaren teoriekin lotzen den ikuspegi honen

aurrean Shaftesburyk, banakoaz ahaztu gabe, eta bere unibertsaltasuna aldarrikatuz, defendatuko du era horretara bururatutako banakoa abstrakzio bat dela, ia jainko arrotz baten mailan jartzen dena, eta bai banakoa, bai bere unibertsaltasun hori beti bururatu behar dela bere ingurunearekin loturik, honen bidez bat egingo duelako naturarekin eta unibertsuaren osotasunarekin.

Dena dela, onartu beharra dago ez dagoela hastapen hau modu logiko zehatz bezala formulatua aurkitzerik Shaftesburyren testuan, berak ez baitigu eskainiko inon onarpen unibertsaleko abiapuntu izango den hastapen logikorik, identitate hastapenaren gisara, edo arrazonaketa prozesuaren une bakoitzean ezinbesteko hurrengo urratsa aurreratuko digun araurik. Dena dela honen arrazoia bilatu behar da testuaren izaeran bertan, testua rapsodia bat da eta bere osotasunean aurkitu behar da ideia hori eta ez han edo hemen, pasarte batean, modu berezian formulatua.

Edertasuna egi-irizpide bezala

Dena dela, Shaftesburyren egiaren aldeko konpremesuak ez du zalantzarako izpirik eskainiko eta hori, besteak beste, entusiasmoari buruzko eskutitzetik hartuta ondoan itzuli dugun pasartetxoan argi eta garbi geratu da:

"... egia munduko gauzarik boteretsuena da, fikzio beraren gainean agintzen baitu eta fikzioa gustukoa izango bada bakarrik egiarekiko antzagatik izango da. Errealitate

itxura beharrezkoa da grina bat modu atseginean adierazi nahi bada"³⁹.

Garbi dago, hala ere, ez zaiola asegaria irudituko ez Lockeren⁴⁰ enpirismotik eskaintzen zaion fisikan oinarritutako eredua ezta Descartesek eskaintzen dion matematikarena ere. Berak naturaz baina baita giza jokaeraz kontu emango duen egia bilatuko du, partikularitasun hutsean geratu barik era unibertsalak atzemango dituen, baina era horiek edukiz beteta aurkeztuko dituen.

Erasoko dituen egiaren bi ikuspegiok zenbait alderdietatik elkarren kontrako diruditen arren, greziar tradizioaren eragina erakusten dute, eta tradizio horren funtsezko hastapenen sordunak dira. Hau argi eta garbi ikusten da kanpoko munduaren eta barne munduaren arteko bereizketaren onarpenean eta ezagupenaren, pentsamenduaren eta hizkuntzaren ikuspegi erreferentzialistaren onarpenean, zuzenki loturik dauden hastapenak biak.

Barne munduaren eta kanpoko munduaren arteko bereizketa mundu fisikoaren eta izpiritualaren arteko bereizketa bera da, eta neurri handi batean Platonek eskaintzen duen mundu sentigarriaren eta ideien munduaren artekoarekin bat datorrena. Errealitatearen zatiketa honek beste ondorio batzuen artean egia bi alderdi horien elkar egokitze batean kokatzea dakar. Platonen kasuan Sofista elkarrizketan ikusiko dugu ikuspegi hau formulatua, bertan pentsamendua hizketarekin parekatzen delarik (parekatu baina ez bat egin), biak, beraz, zatiz artikulatuz eta euren egitasuna edo faltsutasuna errealitatea eta euren adierazten dutenaren arteko elkar egokitasunean letzakeelarik.

Baina ideien teoriaren baitan ere ikus dezakegu funtsezko aurreuposapen berdina dagoela bilduta, hain zuzen, hitzak existitzen den zerbait adierazi behar duela⁴¹. Honegatik ezin ditu bururatu Platonek ideiak existentziarik gabe, horregatik arrastatzen du mundu sentigarriko ezaugarria litzatekeen existentzia ideien mundura, ezin du bereizi pentsatzeko ahalmenetik zerbait konkretua adierazteko premia. Aristotelek bere Kategoriak⁴² lanean jasoko du Platonek sofistan lehen urratsa eman duen teoria, pentsamendua eta hizketa taxutzen duten hitzen azken sailkapena eskainiz, errealitatea eta pentsamenduaren arteko egokitze hori funtsatu asmoz.

Ideia berdinen itzala aurkitzen dugu argumentu ontologikoan eta bere garapen ezberdinetan, eta baita Descartesen ideia argi eta bereizien arau metodologikoan ere, egia analitikoaren oinarria izango dena.

Shaftesburyk ez du egiaren ikuspegi hau erabat arbuilatuko, aipaturiko testutik atera daitekeen legez, eta nolabaiteko errealitatearen antza eskatuko dio egiari, baina, hala ere, bere mugak nabarmenaraziko ditu, azken batean ontasuna eta edertasuna diren balio nagusienak egia horretatik, eta, beraz, naturatik at geratzen direlako edota sentimenei makurtzen zaielako.

Shaftesburyk erakutsi nahiko du, dagoeneko esan dugun bezala, orden morala eta estetikoaren orden naturalaren barruan bilduta daudela, ez dutela errealitatearen beste dimentsio bat osatzen:

"Baina gu gehiago izango bagina (ikerketa honek lagunduko digun bezala) edertasuna eta txukuntasuna ikusiko genuke

*hemen -naturan beste edozein lekutan bezala- eta mundu moralaren ordena naturazkoaren parekoa izango litzateke. Bertutearen edertasuna azalduko litzateke, eta horrekin batera (erakutsi den legez) edertasun gorena eta nagusiena, guztien jatorria, ona eta maitagarria"*⁴³.

Ontasuna, eta berarekin edertasuna, maila ontologiko berdinean jarriko ditu, beraz, baina ez da hori aski izango eta egia ere edertasuna eta ontasunarekin parekatu beharko ditu. Alde horretatik Shaftesburyk berdinketa hirukoitza defendatuko du egia, ontasuna eta edertasunaren artean; egia den oro ona da, baina ona den guztia ederra izango da, eta hau bere lan osoan inplizitoa igartzen den egia bada, esplizitoa ere egiten da leku bat baino gehiagotan. *Ontasuna da egiaren bermatzaile bakarra*⁴⁴ esango du lehenago aipatu dugun pasartean; ez da izango, beraz, elkarregokitzea edo irudi izatea, ona izatea baino, egia egi bihurtuko duena.

Baina aski ez bada goraxeagoko aipamena edertasuna eta ontasunaren berdintasuna ezartzeko honela hitz egingo digu geroago ere:

*"Baina guretzat, Filokle!, garbiago dago; jadanik ebatzia dugu ederra eta ona gauza bera direla"*⁴⁵.

Faltsua, beraz, itsusia izango da eta, alderantziz, itsusia ezingo da egia izan, eta errealtatearen antzeraketa egia eta ederra eta ona⁴⁶. Horrek esan nahi du egiak, errealtatea antzeratzean, ez duela alde batera utzi behar naturaren osagarri

ezinbesteko eta unibertsalak diren ontasuna eta edertasuna, naturaren antzeraketa horretan benetan atzeman beharko dena ontasun hori eta edertasun hori izango dira eta⁴⁷. Egia, beraz, ederraren eta onaren gurutzaketa horretan aurkituko dugu, bertan agertuko zaigularik naturaren jatorrizko ordena eta proportzioa.

Egia ez da ulertuko, orduan, giza barne munduaren eta kanpoko munduaren arteko egokitze hutsa bezala -hau, azken batean, arrazoimen kontzeptualaren eta arrazoimen enpirikoaren premia baita, ez arrazoimen estetikoarena-, baizik eta bereizketa horren deusestapena bezala. Aipatu dugu Shaftesburyk onartuko duela egia, errealitatearen nolabaiteko antzeraketan datzala, baina antzeraketa hori era ezberdin batean ikusi beharko da. Ez du eskatuko parekotasunik, antzeraketa horretan ez da naturako gai partikular bakoitza birsortuko, naturaren osotasunari dagozkion harmoniaren eta proportzioaren arauak baino⁴⁸:

*"Pentsamendu harmoniatsuak iradokitzen nau, eta hitzetara murriztu gabe, eta erritmo laxotan, izaki sortuetan kantatzen diot naturaren ordenari, eta zuregan zertzen diren edertasunak ospatzen eta jauresten ditut; zu edertasun eta perfekzio ororen iturri eta hastapena"*⁴⁹.

Harmonia ordenaren pareko kontzeptua izango da, baina berarekin ordenaren ikuspegi tradizionalari datxezkion hutsuneak gainditu nahiko ditu, batik bat bera zientziari loturik dagokion neurrian. Harmonia horrek, beraz, unibertsuaren osotasuna bildu beharko du, eta honek eskatzen du orden matematikotik edo zientzia fisikotik kanpo geratzen zena ere jaso beharko dela

bertan. Naturaren araugabeko formak, nola giza portaeran horietara murriztu ezin dena, unibertsu horren barruan sartu beharko dira eta azalpen orokor batean bildu.

Matematikak eskatzen duen zehaztasunak edo enpirismoaren prozesu orokortzaileak ezartzen duen izakien arteko diskriminazioak bide mugatu bezala agertuko dira osotasun harmoniko hori bereganatzeko, eta banakoaren eta unibertsaltasunaren arteko benetako elkarketa agertzeko. Alde batetik errealitatea zatikatzen dutelako, eta, bestetik, ez dutelako agortzen errealitatearen osotasuna. Metafora literario batek, esaterako, (gauza berdina esan daiteke musikaz, nola pinturaz...) ez ditu zehaztasun matematikoak eskatzen dituen baldintzak betetzen, ezabatua baita, eta ez zaio, ezta ere, sentimenek ezartzen duten izakien arteko bananketari makurtzen, bereizketa horren mugak gainditzen baititu, eta ustekabeko bide berriak irekitzen ditu bereizketak ezartze horretan, errealitate partikular bakoitzari egokituko zaizkionak. Gauza bera esan daiteke ekintza zuzen edo on bati buruz, ezingo da murriztu formula matematiko batera eta ezingo da banakotasunetik abiatuta, ekintza moral bakoitza ezberdina izango delako eta indukzio prozesu orokortzaile batean ezin bilduko delako.

Unibertsuaren harmonia naturaren lege nagusia

Unibertsuaren arauak eta elkar loturak biltzen dituen harmonia, beraz, ez da kontzeptu estetiko hutsala izango, subjektibotasunari menperaturikoa, ez da norberaren nahikeriaren

araberakoa izango, haatik, errealitate objektiboaren isla izango da, eta harmonia horren oinarri izango diren proportzioa eta simetria naturan errotuta egongo da⁵⁰:

*"Ez dago adimenaren lan perfekturik ez badu eskuaren gogortasun eta adone hau, gorputza eta proportzioa ematen diona. Koadro on batek, pintoreek diotenez, giharreri ona nola kolorea eta apainketa egokiak izan behar ditu"*⁵¹.

Proportzioa aurkitu beharko da koadro batean haurrak irudi geometrikoan proportzioa ikusiko duen bezala, baina ez dira matematikak eta fisika izango proportzio hori atzemateko bidea sentimendu estetiko-morala baino. Honek ez du esanahi Shaftesburyk zientzia gutxietsiko duenik, baizik eta bere mugak erakutsiko dizkigu harmonia horretaz jabetzeko eta, azken batean, egia bereganatzeko⁵².

Proportzio hau atzemateko, esan bezala, banangarritasunaren eskakizun metodologikoa alde batera utzi beharko da. Gure izatearen osotasuna atzeman nahi badugu, gure eginkizunaren osotasuna zuhurra eta burutsua izan dadila bada gure jomuga, naturaren osotasuna arautzen duen harmonia unibertsalarekin bat egin beharko dugu, eta horretarako ezin gara abiatu bakarrik partikularitasunaren atzemaketa eta naturaren aldebateko soslaiaren ezagupenerako bidea irekiko diguten hastapenetatik.

Honek ez du esan nahi neurria eta zenbakia gutxiesten dituenik:

*"Ez dago ezer, seguruenik, gure adimenari atxikiago, edo gure arimarekin hestukiago gurutzatua ordenaren eta neurriaren ideia edo zentzua baino. Hortik zenbakien, eta euren usu eta erabilpenean oinarritutako langintza ahaltsuen, indarra"*⁵³.

Ordenaren ideia edo, agian hobe esanda, barneko bizipen hori orden cartesiarren parean azaltzen zaigu, hemen, ordea, naturaren harmoniaren forma hartuz, ia "a priori" bat bezala agertzen zaigularik. Bera izango da gure adimenean atxikita dagoen ideiarik sendoena, orden unibertsalaren agerpen behinena, eta nolabait esateagatik lehen ideia nabarmena, *"Ez dago ezer gure adimenari atxikiago"*. Baina banangarritasunaren hastapen hartatik bereiziz beste hau ez da naturatik kanpoko entelekia abstraktua bezala agertuko. Haren desarroiloa naturatik banandutako Nira, eta Jainko burujabeetara heltzen zen, baina finkatu behar den osotasunaren ordenak ez du ametitzen jainko arrotz batek kanpotik, bere gogora, ezarri eta ken dezakeenaren menpe egotea, ordenaren ideia eta errealitatea izadian inmanentea da. Izan ere ez da *Deus ex machina* batentzat lekurik egongo, besteak beste makinarik ere ez delako egongo.

Baina ordenaren kontzeptuaren ondoan zenbakiarena ere agertuko zaigu testu zati honetan orden matematikoarekiko aipamena garbia izango delarik:

*"Hortik zenbakien, eta euren usu eta erabilpenean oinarritutako langintza ahaltsuen, indarra"*⁵⁴.

Orden unibertsalaren matematikotasunaren defentsa aldarrikatu zuten lehenak pitagorazaleak ditugu. Haien arabera eurek aurkitu zuten harmoniaren kontzeptua unibertsu osoari aplika zekiokkeen. Harmonia horren aurkikuntza zenbakizko proportzio batzuez jabetzetik etorri zen, honek hizkuntza matematikoaren gailenketa ekarri zuelarik, baina beti ere kontsideratuz harmonia horren onarria matematikoa zela eta era matematikoan adierazi behar zela. Harmoniaren unibertsaltasuna eta matematikotasuna izango dira, ba, pitagoratarrek ordenari atxekitzen dizkoten ezagurriak.

Harmonia horren unibertsaltasunaren zantzuak tarteka onarpen handiagoa edo txikiagoa izan bazuen ere (kontuan izan, esaterako, Platonek berak harmonia hori onartu arren mundu sentigarritik, edo arima beretik uxatu zuela), bere izaera matematikoaren onarpena zabala izan da pentsamenduaren historian. Shaftesburyk, ordea, bigarren puntu hau jarriko du auzitan. Zenbakien indarra ordena adieraztean datza, hori halaxe da, baina ez da ordenaren osotasuna zenbakietara murrizten, ezingo da esan zenbakitik kanpo anabasa dagoenik, haatik zenbakia bera murriztu beharko da orden zabalago batera, harmonia unibertsalera. Izan ere, harmonia horrek osotasunaren ideia ere bildu behar baitu, eta osotasun hori ez da bakarrik aurkituko zenbagarria denean, naturaren era araugabe eta zenbaezinetan ere harmonia aurki daiteke eta. Honegatik harmonia honen funtsean ez da orden matematiko hutsa aurkituko, naturazkoa baino, matematiketan ere isladatuko dena, jakina, baina adierazpide ezberdin batez baliatuko da.

Izan ere, harmonia hori adierazteko moduaz diharduenean Shaftesburyk beti naturaren ordena hartuko du mintzagaitzat, eta

berari buruzko jarduna hizkera estetikoarekin lotua etorriko da, azken finean, sentimenduen eta zirrararen bidez bakarrik, senaren bidez azken batean, atzeman ahal izango dugulako unibertsuaren osotasuna. Horrela ulertzen da testuaren zenbait pasartetan pentsamenduaren adierazpena poetaren eskuetan gera dadila:

*"Baina entzun behar dugu gure poeta hitz egiten erdijainko edo heroi ez hordi baten ahotik. Orduan gauzen oinarri desberdin bat aurkeztuko digu, eta aurrekotasun orden aproposago batekin pentsamenduari emango dio lehentasuna"*⁵⁵.

Poetaren hitzak erakutsiko digu gauzen oinarria eta ordena; bere neurtitzaren harmonia eta erritmoa izango da unibertsuaren benetan aurki daitezkeen proportzioak adierazteko mathesia. Filosofiak, ba, metafisika bazterturik giza naturaren eta giza nortasunaren ezaugarriak adieraziko ditu egiatasun poetikoaren bidez "in verita poetica" F. Pisellik dioen bezala.⁵⁶

Baina zehaztasun txiki bat ematen du: poeta hori ez hordia izango da. Zalantzarik gabe berehala egitera behartuta dagoen zehaztasuna izango da hau, izan ere, tradizio Platonikoan bereziki, harrapaketa ero bati menperatua baitagokio poeta, eta atxiki zaion gutxiespen estigmatik berrerosi nahi duelarik, bere onean, naturari atxikita, oinak lurrean ipinita, dagoen poetaz diharduela argi eta garbi utzi nahiko du. Honela gizakiaren lehen izanbeharra moralitatean aurkituko da, matematikan, fisikan edo metafisikan baino lehenago. Kontraesanerako lekua, naturaren lehen ekoizpena, edertasuna delako, edertasun morala.

Munduan, ba, ordena eta jerarkizazioa ezinbestekoak izango dira, eta ez da anabasarako lekurik egongo. Orden hau kontraesankortasunaren onarketan oinarrituko da, baina onartu beharko da kontraesankortasun honek lehenik, pentsamenduarentzat behintzat, arlo moralean izango duela gauzaketa, eta errealitatearen hastapena moralitatearekin lotzeak, hastapen horretan kontraesana jarritz, moralitate dogmatiko ororekin hausketa dakar, izan ere, funtsezko aurkakotasun hori onarturik helburua ez delako izango bera deusestea, edo kontrajarritako elementuen artetik bat desegitea, baizik eta unibertsuak erakusten duen aniztasun fisikoaren gisara agertzen den aniztasun moralean aurkakoen arteko ezinbesteko adiskideraketa bilatzea. Harmonia hori, ba, aniztasunaren eta batasunaren bermatzailea izango da aldi berean.

Lehen begirada batean ez dirudi Shaftesburyren planteamendua zehaztasun handikoa denik, intuizioari dei horrek ez du eskaintzen subjektibismoa gainditzeko aukera handirik itxuran behintzat. Izan ere, garbi utzi dugu Shaftesburyk ez digula eskainiko hastapen logiko bat, identitate hastapenaren mailakoa, onarpen unibertsaleko abiapuntu izango dena, arrazonaketa prozesuaren une guztietan balioko duena eta ideien elkarlotzea arautuko duena⁵⁷. Baina agian ezin zaio horrelakorik ere eskatu; bere ikuspegi estetizistarekin bat, ematen digun zehaztasunik handiena harmoniaren irizpidea da. Gure eginkizunaren osotasuna zuhurra eta burutsua izan dadila nahi badugu, naturaren osotasuna arautzen duen harmonia unibertsalarekin bat egin behar dugu, eta horretarako ezin gara abiatu bakarrik partikularitasunaren atzemaketa eta naturaren aldebateko soslaiaren ezagupenerako

bidea irekitzen digun hastapenetik.

Baina, dena dela, zehazgabetasun honek ez du eramango Shaftesbury subjektibismo horretan erortzera, edertasun eta harmonia horren atzemaketa ez da jausiko gustu hutsaren esparruan. Bide honetatik aurpegi gozo baten liluran edo gorputz harmoniatsu baten proportzioan geratuko ginateke, baina ezin izango genuke benetako edertasuna atzeman, bera ezin delako eratorri indukzio prozesu batetik, aurpegi horren edo gorputz horren partikulartasunean geratuko litzatekeelako. Baina, era berean, irizpen estetikoaren arrazonagarritasuna ez da etzango arrazonaketa logikoaren helburua den unibertsaltasunean. Izan ere, arrazonaketa logiko-matematikoak egia unibertsala definitu nahiko du, denongan berdina izango den egia, baina irizpen estetikoan ez dugu bilatuko gure gustua unibertsala egiteko modua, gure gustua guztien gustua bihur dadila, bilatuko duguna arrazoimen unibertsala izango da, errealitate objektiboaren adierazgarri izango dena. Baina, Platonek arrazoiaren eginkizuna ideien eta moten elkarlotzean jartzen zuen artean, Shaftesburyren arrazoiak "edertasun ugariak" nola konbina daitezkeen argitzea du helburu⁵⁸.

*"Halako arimak edertasun ugariak nola konbina daitezkeen ikertuko du eta baita ere elkarketa horretatik nola sortu gizarte eder bat. Erkidetasunak, adiskidetasunak, harremanak eta eginbeharrak behatuko ditu eta aztertuko du nola osatuko den harmonia orokorra adimen banakoen harmonian oinarrituz eta nola ezarriko den denon ontasuna"*⁵⁹.

Nabarmentzekoa da, edozein modutan, helburu razional hori zuzenki eta ia automatikoki lotzen dela helburu praktiko batekin, gizarte eder bat, zuzena Platonen hitzetan, sortzearenarekin alegia. Hau da, hastapen honek ez gaitu eramango naturarekiko fusiora edo naturaren ezagupen hutsera baizik eta, gizaki garenez, gure jokaera arautzen irakatsiko digun arrazoi batera. Naturarekin batasuna eta harmonia bilatu beharko dugu, eta eman ere emango da, baina gizakiaren berezko izaera gizartean aurkitzen denez harmonia hori banakoak gizartearen baitan eraikitzen duen harmonian beteko da. Izan ere, ez da ahaztu behar giza nortasuna moraltasunean oinarritu behar dela eta moraltasun horrek bere legitimotasuna gizarte bizitzan, eta ez jainkotasun traszendental batean, aurkitzen duela.

Gogoratu behar da sena izena emango diola "naturak irakasten duenari arte, kultura eta heziketari buruz"⁶⁰. Arrazoiaren oinarrian, beraz, gizakiaren gizarteraketa prozesuan funtsezko diren elementuak sartuko ditu, arrazoa moldatuko delarik gizartearen baitan eta ez da izango banakotasunari berez eta oso-osorik dagokion ezagutza. Baliteke sen hori ahalmen bat izatea baina garatu beharko dena gizartearen barruan.

Honek ez dakar berarekin banakotasunaren deusestapena, haatik, banakoaren eginkizunaren zentzu etikoa bilatu nahiko du, eta banakoa jokaera etikoa errotzeko oinarri egokia izango ez den neurrian gizartekotasunean ezarriko du. Izan ere, Nia izaki razionala den neurrian bere gizartetik sortuko da baina, hala ere, gizartearen harmonia ezingo da banandu banakotasunaren harmoniatik. Harmonia emango da gizartean baina banakotasunean harmonia bat sortzen den neurrian, osotasunaren harmoniak zatien

harmonia ezinbestekoa duelako.

*"Nire aldetik, probidentziari esker, badut adimen bat balio duena harmoniatsu eta ordenean mantentzeko nire gorputza, nire eraspenak, nire grinak, nire irudimenak, ameskeriak eta gainerako guztiak"*⁶¹.

Ez Jainkoa ez banakoa izango dira moraltasunaren oinarri, baina, moraltasun razional horrek banakoa izango du gogotan eta bizitza harmoniatsu bat izateko bidea emango dio. Osotasunean harmonia badago harmonia egongo baita banakoan, Nian alegia, harmonia hori giza jokaera ororen xedea bihurtuko delarik, eraspenen, grinaren, irudimenaren, ameskerien bategilea, alegia; eta berak emango dio banakoari batasuna.

Edertasunaren mailaketa

Edertasuna Shaftesburyrentzat gauzen baitan aurkituko da, gauza guztien baitan alegia; gai orok bere izatea barne simetria batean errotua izango du, bere barne proportzioetan oinarrituko dena, eta edertasun horretan aurkituko da edozein izakiren existentziaren bermea. Giza banakoarekiko kanpoko mundu ederrak, beraz, benetako existentzia du, ez da subjektibitatearen ekoizpena izango, eta edertasun horrek errealtatearen osotasuna kutsatzen du, osotasunari batasuna ematen diolarik.

"Dirudienez hau guztia azaletik behatu dut eta azaleko

*edertasunaz gozatu dut, eta ez naiz sekula ibili bere baitango edertasunaren bila, nik edertasun bezala bururatzen nuenaren bila baino. Pentsatzen ez duen beste jende guztiak bezala segurutzat jo dut niri gustatzen zitzaidana zela ederra, eta nik gogoko nuena zela ona. Ez ninduen kezkatzen bururatzen nuen guztia maitatzeak. Eta nire helburu bakarra maite nuenaz gozatzea izanik, sekula ez nintzan arduratu nire maitasunaren gaiak zer ziren aztertzeaz"*⁶².

Edertasuna nola ona ez da izango, beraz, norberak bururatzen duena, edo norberak gogoko duena; "azaleko" edertasunaren ondoan "sakoneko" edertasuna egongo baita, bere baitango edertasuna alegia, errealitate maila objektibo batean bilatu beharko dena. Honek jakina edertasunari maila ontologiko eztabaida ezina eta erabakiorra eskainiko dio, edertasunaren azterketa eta mailaketa errealitate beraren azterketa eta mailaketa bihurtzeraino gainera. Baina errealitate horren azterketan Shaftesburyk izate iraunkorra bilatuko duen arren, errealitateari edertasuna berezko ezaugarri bezala atxikitzeak munduaren funtsezko ezaugarri berri batzuk kontuan hartzera behartuko du lan horri ekitean, errealitatearen ikuspegi substantzial estatikoa baztertuz, eta forma eta ekintza kontuan hartuz errealitatea konfiguratzen duten bi zutarriak bezala. Berarentzat garrantzitsua ez baita izatea izango, ekitea baino, eta bereziki ekitea formak sortzeko gaitasun bezala ulertua.

Errealitatearen sailkapenen artean Platonen Politeiaren 6. liburuaren bukaerakoa dugu lehenetakoa, bertan, lerro zatituaren

alegoriaren bidez, sailkapen hori egiten saiatu zen platon oinarrian irudia-errealitatea bikoizketa ezartzen zuelarik, irudiari funtsapen ontologikoa kenduz eta benetako errealitaterik gabeko itzal bihurtuz. Shaftesburyk ere horrelako sailkapen bati ekingo dio, eta onartu behar den arren Platonen sailkapenean billatu behar direla berarenaren erroak, hala ere, Platonen lau mailen lekuan hiru bereizteaz gain, aldeak ezarriko ditu ikuspegi horren aurrean. Alde batetik urruntzen da, zertxobait -nahiz eta ez oso-osorik- sailkapen horretako irudi-errealitate binomiotik, mundua, bere osotasunean, materiaz eta formaz osatua bururatuko duelarik, ukatuz horrela egon daitekeela razionaltasunetik banandutako izakirik. Kutsu aristoteliko garbia darion jarrera bati helduko dio horrela Shaftesburyk formatik bereizitako materia existituko dela ukatuz. Baina badira beste bi funtsezko puntu non bereizten sailkapenok, bata Shaftesburyk errealitatearen ikuspegi dinamikoari begiratzen dionez lehentasunez ekintzak eta ez substantziak izango dituela kontuan bere ontologian, eta bestea Platonek gauza guztien azken zergatia ontasunean jartzen duen artean Shaftesburyrentzat azken zergati hori edertasuna izango dela.

Honela ba, edertasunaren azterketari ekingo dio adoretzu Shaftesburyk, argiro dakusalarik eginbehar honek errealitatearekin topo egitera eramango duela.

*"Hasi orduan -esan zuen berak- eta aukeratu. Begiratu gauzak zer diren; eta zein aukeratuko zenukeen, zure mirespenarekin, maitasunarekin eta estimarekin ohoretzeko"*⁶³.

Hemen garbi adierazten digu Shaftesburyk maitasunaren eta gozamenaren gaia ez dela etorriko errealitatearen ezagutzatik baino, ezagutzaren xedea, zalantzarik gabe, moral-estetikoa izango delarik. Gauzak (subjects) zer diren jakiteak, ba, lagunduko digu gure maitasunaren gaia aurkitzen, nahiz eta gauza guztietan aurkituko dugun maitasuna maila batean edo bestean. Eta honela garbi ikusiko dugu errealitateaz eskaintzen digun mailaketa edertasunaren mailaketa bera izango dela, bertan materiatic (formadun materiatic) hasita forma abstraktuetara abiatuko garelarik.

Bere ikerketa ekin eta lehen mailan Shaftesburyk forma hilak aurkituko ditu.

*"Ez al duzu ikusten -ihardetsi zuen Teoklese-
edertasunaren hiru mota edo maila ezarri duzula?"*

"Nola?"

"Lehenik era hilak, zuk hain egokiro deitu dituzun bezala, euren itxura eta era gizakiak nahiz naturak eman dizkietelarik; hauek ez dute ez indar eratzailerik, ez ekimenik, ez adimenik"⁶⁴.

Horrela ba, edertasunaren lehen maila honetan ez da aurkituko materia hutsa, ez legokeelako edertasunik materia huts horretan, baizik eta materia eta formaren arteko konposaketaren mailarik ximpleena, bizitzarik gabeko forma inerteak alegia. Izan ere, Shaftesburyk edertasunean jartzen duenez errealitatearen oinarria, eta edertasuna osotasunari dagokionez ezingo du

bururatu forma bariko materia huts eta bereizia; materia hutsa ezin baita izan berez ederra, eta ezta benetako maitasunaren gaia ere adimenezkoa ez den neurrian. Ezingo da inolaz ere eduki izan, ez da adierazgarria, ez da aipagarria liburuaren bukaera aldera esango duen bezala:

*"Onartuko duzu, zalantzarik gabe, gorputzei dagokienez, edertasunaren adierazezintasuna, ulertezintasuna; 'nik ez dakit zer' delakoa esatean ez dihardugula ezer misteriotsuaz, baizik eta irudiaz, koloreaz, higiduraz edo hotsaz"*⁶⁵.

Ulergarria izango da bakarrik razionaltasunaren esparrura biltzen denean, eta horregatik bakarrik forma jasotzen duen neurrian izan ahal izango da ederra -bere edertasuna naturala izango delarik- eta, are gehiago, azken batean, neurri horretan bakarrik existitu ahal izango da.

Dena dela, gorputzak, materia eta formaren arteko konposatu horrek, ez du bere baitan ekintza edo bizitza biltzen, ez du ahalmen sortzailerik, eta horregatik ezin da bera bere edertasunaren kausa izan; horregatik gorputzean edertasuna badatza, ez da bilatu behar materian, forman baizik, kanpotik datorkiona. Baina lehen mailako edertasun honek ez du berezko barne forma bat, harmonia emango diona, ez du barneko kausalitate eraginkorrik; gai hauen edertasuna menpeko da, gorputz horretan edertasuna ezarri duen adimenezko formaren menpeko, bai natura izan dela bai banakoa izan dela horren arduradun. Izan ere, gai honek faltan izango duena ez da forma izango (Shaftesburyk ezin

du bururatu formarik gabeko materia hutsa) baizik eta formak sortzeko indar kreatzailea.

Edertasunaren bigarren mota forma ematen duten formak izango dira, adimena, ekimena eta eragimena dutenak alegia. Kasu honetan adimenezko forma bat jasoa dute, lehen motakoek bezala, baina eurek ere adimena dute euren baitan. Edertasun honek barne harmonia bat eskatuko du.

"Gero, bigarren mota, eratzen duten erak; hau da, adimena, ekimena eta eragimena duten erak."

"Zuzen orain ere."

"Hemen bi bider dugu edertasuna; zeren era (adimenaren ondorioa) eta adimen bera baititugu: lehen motakoa apala eta erdeinagarria da bestearen ondoan, zeinarengandik era hilek edertasunaren distira eta indarra jasotzen duten. Zeren, zer izango da gorputz hutsa, nahiz eta gizakiarena eta zehazki moldatua izan, faltan baldin badu barne era, eta bere adimena izugarria eta inperfektua bada, ergelarena edo basatiarena den bezala?"⁶⁶.

Atal honetan barne formaz dihardu bigarren motako edertasunaren ezinbesteko baldintza bezala. Sortuko litzatekeena, hortaz, barne era hori, harmonia edo antolakuntza hori litzateke, azken finean arte lana deituko genukeena.

Edertasunaren bigarren mota honen ulerkuntza maitasuna zer den ulertzeko giltzarria izango da eta batik bat barne harmonia horren ideia. Maitaleak adimendun izan behar du, barne harmonia baten eramaile, eta bere bilakuntzan harmoniatsua den beste

zerbait aurkitu beharko du, nola edertasun hori sortu.

Baina edertasun bigarren mota honetako gaien adimena, ez da gauza izango beste izaki sortzaile batzuk sortzeko; Brettek⁶⁷ dioen moduan, arrazoimenezko ideien adierazpen sentigarria izango genuke hemen: arkitektura lanak, eskulturak, musika, e.a. Baina gai horien adimena euren baitan ahitzen da, edertasun bigarren maila honetatik ezin da izaki bizirik sortu, ez du biltzen ugaltzeko ahalmena, hori oraindik eurengandik kanpoko zergati baten ekoizpen izango da:

*"Erraz gainera nezakeen -esan nuen nik- gure era hauek beste era bizidun batzuk ekoizteko ahalmena zutela. Baina, nire ustez, ahalmen hori euren gainetik dagoen beste era batetik datorkie; eta beharko balitz arte gorenago bat edo artista antzeko zerbait, bere eskua zuzenduko lukeena eta lan honen tresna bihurtuko lituzkeena, ezingo litzateke esan zuzenki era bizidun horiek euren bertute edo arte direnik"*⁶⁸.

Honela ba, beharrezkoa izango da edertasunaren hirugarren maila bat zehaztea, gutxienez ugaltzeko gaitasuna ekarriko duena, eta, ez bakarrik ugalketa zentzu biologikoan, baizik eta, ikusiko dugun bezala, izpiritualean ere, azken hau izango delarik, gainera, ugalketaren modurik funtsezkoena eta lehena. Alabaina edertasunaren hirugarren mota honen azalpenak nahasketa sorraraz lezake irakurlearengan, izan ere, bigarrena defintzerakoan era eratzaileak izatearen ezaugarria atxiki badie, badirudi gauza bera egiten duela hirugarren mailan; hauen ezaugarria era

eratzaileak izatea izango bailitzateke bere hitzetan.

*"honek eratzen ditu ez bakarrik era hutsak deitzen ditugun horiek, baizik eta era eratzaileak ere"*⁶⁹.

Idea hitzez hitz jasota geratzen da Greanen⁷⁰ lanean baina ez da argitasunik ematen nahasketa horri dagokionez, besteak beste ez dirudielako sailkapen honi garrantzi handiegirik ematen dionik⁷¹. Nire ustez, hau argitzeko zehaztu beharko litzateke erak eratzeko gaitasunaren eta sortzeko gaitasunaren arteko ezberdintasuna⁷². Edertasunaren bigarren mailak forma emango luke, baina forma horien jatorria eta kausa ez litzateke euren baitan egongo, edertasunaren hirugarren mailan baizik, bere lana horiek erreproduzitzea besterik ez litzateke izango, hizkuntza platonikora hurbilduz, ideien munduaren eta mundu materialaren arteko tartekaritza beteko zuelarik; honela, hastapenak, lehen zergatiak, edertasunaren bigarren maila horretatik kanpo geratuko lirateke

*"Zeren geu ere ekaiaren arkitekto bikainak gara eta bizirik gabeko gorputzei era eta itxura eman diezaiekegu gure eskuekin; baina adimen hauek moldatzen dituenak, bere baitan ditu adimenok molda ditzaketen edertasun guztiak; eta, beraz, edertasun guztien hastapen, jatorri eta iturria da"*⁷³.

Lehen mailan era hilak deritzenak sartu ditu Shaftesburyk (irudiak, koloreak, higidurak, hotsak) hau da, xede material bat

betetzera lagunduko luketen naturaren edo giza bizitzaren elementuak lirateke, ez lukete berez helburu estetikorik izango nahiz eta edertasun maila bat izango luketen forma bat izango zuten neurrian; naturaren forma bakunenak aurki genitzake hemen.

Bigarren mailan aipatu dugun barne harmonia aurkituko genuke, proportzioak ia zentzu matematikoan ulertuta, eta hemen ekintza maila bat aurkituko genuke dagoeneko, baina ekintza honen helburua ez da izango jokaera morala, sentipenei makurturiko edertasuna baino. Horretan oinarriturik sortuko lirateke arkitektura, musika edo beste artelanen gaiak, neurri batean inerteak ere izango direnak, hemen ekintza ederraren xedea jokabide moraletik banandua joango delarik; zerbait ederra sortzea bilatuko da baina, edertasun horrek ez du kontuan izango ekintza horren balore morala eta horregatik ez du edertasun betea erakutsiko.

Hontara beharrezkoa izango du edertasunaren hirugarren maila bat bereiztea, sentigarritasuna kontuan ez duen ekintza ororen oinarri izango dena eta beste bi mailak bilduko dituen. Esan dugu lehenago sentimenezko gozamenak biltzen duen gaiaren jabe egiteko premia benetako gozamen estetikoari kontra-jartzen zaiola, eta honegatik benetako maitasunaren gaia bilatzekotan beste nonbaitera jo beharko dugu. Honela gozamenak bide izpiritualetik etorri beharko du, natura izpirituala delako; hau dela eta gizabanakoak bere barnekotasunuean bilatu beharko du naturaren izpiritualtasuna⁷⁴ eta horretara bultzatuko du Teoklesekin bere solaskidea den Filokles.

"Nola lagunduko dizut? -ihardetsi zuen berak-. Nahi al duzu

ni jabetzea zeure buruaz, eta bakarrik zeure baitan dagoenaz eta zeure baitatik sortzen denaz?"

"Nire sentimenduak esan nahi duzu," -esan nuen nik-.

"Bai, eta zure sentimenduez gain, zure erabakiak, hastapenak, zehaztapenak, ekintzak; mota horretan galanta eta noblea den guztia; zure ulermen, zentzu, ezagupen eta nahi onetik isurtzen den guztia; zure bihotzetik sortzen den guztia, on Filokles!, eta zure adimena gurasotzat duena, sekula ahitzen edo indargabetzen ez den gurasoa, ekoitziz indarra eta kemena irabazten duena"⁷⁵.

Giza jokaera moral ororen jatorria finkatzea izango du, orduan, helburu, eta modu objektibo batean finkatzea gainera, erlatibismo eta konbentzionalismo orotik urrunduz, eta jatorri hori sentimenduetan, ekintzetan ..., aurkituko du. Hauek gizakiaren erantzun apetatsutzat joak izan dira; fisikara edo matematikara murriztu ezinak zirenez eta Jainkoaren borondatearen aurkako bezala aurkezten zirenez, ez ziren inolaz ere objektibagarriak kontsideratzen, baizik eta gizakiak bere barnekotasun adiezinean hartzen zituen erabakiak, gaiztakeria edo ontasuna, nonbait egotekotan gizabanakoaren baitan aurkituko zelarik. Honen aurrean Shaftesburyren helburua izango da moralitatea eta estetika giza nortasunaren alderdi subjektibotzat jotzeari utzi eta arrazoimenera murrizgarri bihurtu, moralitatea giza izaera naturalaren adierazpena bihurtuz. Shaftesburyk honela, gero Kantek jasoko duen urratsa emanaz⁷⁶, giza portaera moral oro naturalduko du eta era honetara taxutuko du *naturalismoa* deritzon eskola filosofikoaren enbrioia⁷⁷, naturan

emango baita adimen unibertsalarekin lotura eta hemendik aterako baitugu gure jokaera estetiko moralaren indar guztia.

Ekintzen edertasun naturalaren, objektiboaren, frogapenari irudi geometrikoen existentziaren egiaztapenarekin ekingo dio. Izan ere, berezko erreakzioa iruditzen zaio, baita haurraren ere, esfera, globoa eta zilindroa hobestea forma irregularren ondoan, nolabait esateagatik, giza izaeran ezarrita legokeen "a priori" gizako bat -naturak ezarritakoa- izango bailitzateke, horrela, objektibotasuna mugatuko lukeena. Honela ba, onartzen den legez, eta honela egingo zuen Kantek ere, errealtate matematikoaren, nahiz fisikoaren, objektibotasuna gure baitan ezarrita dauden "a priori" horietan finkatuta dagoela, eurak atzematea zilegitzen digutenak, zer esanik esan, nabarmena irudituko zaio Shaftesburyri, giza ekintzei dagokienean ere egon behar duela gizakiaren naturak ezarritako sen bat ontasun eta edertasun objektiboa atzemateko bidea emango duena.

"Ba al da, orduan -esan zuen berak-, irudien edertasun naturalik? eta, ez al da ekintzena ere horiena adina naturala? Begia irudiari irekitzen zaionean, edota belarria hotsari, berehala agertzen da edertasuna, eta grazia eta harmonia ezagutu eta bereizten dira. Ekintzak ikusi ahala, giza eraspenak eta pairamenak atzeman ahala (eta gehienak sentitu bezain laster atzematen dira) barneko begi batek bereizi eta ikusten du ederra eta itxura onekoa, maitagarria eta miresgarria, eta bereizten du eragabetik, itsusitik, gorrotagarritik edo arbuiagarritik. Nola liteke, orduan, ez onartzea bereizteko ahalmena naturazkoa dela,

bereizketa hauek euren oinarria naturan badute?"⁷⁸.

Hemen ba aurkitzen dugu formulatuta Shaftesburyren beste ekarpentzat jo den kontzeptua, arrakastatsua izan dena, sen moralarena (*moral sense*) alegia, giza jokaeraren edozein manifestapenen azpian etzango dena, eta hizketa moralaren jardun ororen aurrebaldintza izango dena; eta azken batean aipaturiko sentimendu eta hastapen horiek guztiak hemen bilduko dira. Ekintzen eta sentimenduen errealitate objektiboaren bigarren urratsa emateko Shaftesbury sen honetan oinarrituko da. Izan ere, bere lehen argudioa errefusatu nahi bada ere, auresuposatu beharko da sen moral hori irizpen moral ororen aurreko ezbaldintzatua dela, eta ez hori bakarrik, baizik eta, maltzurkeriaz jokatu duenak ere -mendeku bila jokutzen duenak bere helburu bakar bezala barne- auresuposatu behar duela sen moral hori:

*"hitz egin dezala nire iritzi honen aurka argudiatu nahi duenak; era batera edo bestera aurkituko dut berak auresuposatzen duela bere argudioan, nirean erasotzen ahalegiten dena"*⁷⁹.

Argudioak sustrai aristoteliko garbiak ditu. Estagirarrak jarrera irrazionalistei aurre eginaz bere argudioen hastapen bezala baieztatu zuen arrazoiaren aurkako edozein argudio beti arrazoiaren bidez garatu behar zela, hau da ezinbestekoa zela arrazoiaren aurka argudiatu arrazoimenaz baliatu gabe⁸⁰. Eta bide bera hartuko du Shaftesburyk hizketa moralari dagokionean, hain

zuzen esango du ezin dela moraltasuna ukatu arrazoimen moralean oinarrituta ez bada.

Nabarmentzekoa da edertasunari eta, azken batean, errealtateari buruzko sailkapenak ezinbestez bultzatuko duela azkenean Shaftesbury biak moraltasunarekin batzera -ez baitago ontasunik ederra ez dena, ezta edertasunik ona ez dena ere, erakutsi dugun bezala-; izan ere, gizakiak bere barne ikerketan azken finean bere ekintzekin eta bere moraltasunarekin egingo du topo eta, honek azalduko lukeelarik zer dela eta ez den aintzakotzat hartzen, beharbesteraino behintzat, Shaftesburyren ekarpena apartekoa bezala estetikaren arloan. Badirudi edertasuna eta ontasuna bategite horrek lehena bigarren arlo batera baztertzen duela, edertasunaren objektibotasuna bermatuz moraltasunaren objektibotasuna ere bermatuko lukeelako, Hobbesekek eta Lockekek euren eszeptizismoarekin ahuldu zutena lehenago agerian geratu den legez⁸¹.

Bestalde, edertasuna ekintza bezala ezaugarrituz eta bera unibertsuaren oinarri eginaz ikuspegi substantzialisten estatizismoari mundu dinamikoa kontrajarriko dio, eta higidura Descartesekek baztertu zuen mekanizismotik atera eta unibertsu osoaren muin bihurtuz -fisiko nahiz izpiritualarena-, azken batean mundu osoa izpiritual bihurtuko du. Ibon Uribarriek Kantengan ezarriko du substantziaren ikuspegi estatizistaren gaidiketaren gunea: "Garbi esan behar da Kantek substantziaren ulermenean aldaketa izugarria sartzen duela. Bere zentzu estatikoa desagertzen da denboraren iraunkortasunarekin harremanean jartzean eta erlazio huts baten zentzua hartzen du. Substantzia adimenaren ekintza gisa aurkeztean substantziaren

filosofiatik ekintzaren filosofiara igarobidea zehazten du Kantek." Baina ez da ahaztu behar dagoneko Shaftesburyrengan ere aurkituko dugula gaindiketa horren aurrekoa gero Kantek berea egingo duena⁸².

Honetan Shaftesbury Descartesezikiko aurrez-aurre jarriko da, neurri handi batean honen eta honen jarraitzaileen kritika bezala ulertu ahal izango delarik Shaftesburyren proposapena. Honela filosofiaren lana ez litzateke izango funtsapen (substantzia) aldaezin, betiereko, bat eta bakarra bilatzea (dela Jainkoa, dela arima); haatik, edertasunaren ideia honen bidez osotasuna eta aniztasuna bere mugimenduan eta elkarrekintzan azaldu nahiko du, eta substantziarik balego ere bere baitan aldakortasuna bildu beharko luke. Hau erakusteko gogora ekar daiteke nola Descartesek banantzen dituen substantzia pentsalaria eta hedatua, aldaketa natural oro leku-aldaketa huts bihurtuz eta substantzia pentsalaria iraunkor eta aldaezin. Honela esango du Descartesek: "Honegatik ematen du biak bat datozela substantzia izate horretan, nahiz eta bi kontzeptuon arteko ezberdintasuna handia den; izan ere, nik nire burua zerbait pentsalaria eta ez hedatua bezala bururatzen dut, eta harria, alderantziz, zerbait hedatua eta ez pentsalaria bezala. Era berean, ni orain banaizela pentsatzen dudanean eta beste garai batean izan naizela gogoratzen dudanean, eta bururatzen dudanean zenbait pentsamendu, euren kopurua ezaguna zaidalarik, orduan iraupenaren eta zenbakiaren ideiak nireganatzen ditut, eta ondoren ideaok beste edozein gauzari atxiki diezazkieket."⁸³

Alabaina bereizketa honetara Descartes bide razional hutsa erabiliz helduko da euren benetako existentzia kontuan izan gabe

eta, beti ere, Jainkoaren menpeko bihurtuz. Izan ere, existentzia zerbaitek badu berez, hori Jainkoa izango da eta, nahitanahiez, beste substantzien existentzia honen menpeko eta ondoko izango da (beraren ezagupenera Nia ezagutu ondoren helduko den arren):

*"Baina, hala ere, arreta gehiago jartzen dudanean jabetzen naiz existentzia ezin dela banandu Jainkoaren zerizanetik, hirukiaren zerizanetik bereizi ezin den bezala bere hiru angeluen batuketak bi zuzenen balioa duela, edo mendiaren ideiatik haranarena bereizi ezin den bezala"*⁸⁴.

Shaftesburyk, berriz, bikoiztasun hori deusestuko du, deusestuko duen bezala euren Jainkoarekiko menpekotasun existentziala. Berarentzat arrazoimena barnekotasunaren azterketa batetik ezagutuko da, baina aztertuko dugun ni hori ezingo da bururatu inguruko naturatik bananduta, naturarekin bateginik baino. Honela alde batera geratuko da bikoiztasuna, ezinezkoa izango baita bururatzea hedadura eta izpiritua bi errealtate ezberdin bezala bananduko dituen zatiketarik; eta egia den arren hierarkizazio bat ezarriko duela errealtatearen baitan, bera beti continuum ontologiko bat hautsi gabe emango da, baina, gainera, ezingo du bururatu naturatik banandutako existentzia (edo Jainkoa); existentzia zerbaiten berezko ezaugarri izatekotan naturarena izango da eta ez beste ezerena.

1."the first for whom the problem of Aesthetic form becomes an all-embracing and fundamental problem, as he is also the first in whose writings the concept of artistic genius attains universal significance". Cassirer, E., *Platonic Renaissance in England*, op. cit., 166. or.a.

2.*Mor.*, 192. or.a.

3."Certaines phénomènes grandioses de la nature sont propres à nous faire sentir l'expérience, non pas de la forme, mais plutôt de l'informe, non pas de la limite mais plutôt de l'illimité". Jean-Paul Larthomas, J. P., op. cit., 305. or.a.

4.*Mor.*, 186. or.a.

5.*Mor.*, 171. or.a.

6.Cassireren hitzetan: "Shaftesbury looks upon the world as a work of art, and he wants to go back from the artist who formed it and who is immediately present in all its manifestations of form". Cassirer, E., *The Philosophy of Enlightenment*, op. cit., 84. or.a.

7.Hastapen eskolastiko horretaz ihardunean P. Gayk esango du: "Then came the great liberator, Descartes, who discarded, along with all the scholastic nonsense, this truth aswell". Baina gogorazaraziko digu segidan Descartes berari ere etorria zaiola baztertua izateko unea: "And now the time had come to discard Descartes's nonsense in turn". P. Gay, *The Enlightenment, the Rise of Modern Paganism*, op. cit., 178. or.a.

8.*Mor.*, 187. or.a.

9.*Mor.*, 188. or.a.

10.*Mor.*, 164. or.a.

11.Descartes, R., op. cit., 88. or.a.

12.*Mor.*, 181. or.a.

13.Grean, S., op. cit., 286. or.a.

14.Honela mintzatuko da Cassirer gai honetaz: "For Shaftesbury, here also, it is not a question of the conquest of the human world, but of the contemplation of this world, of the intuitive knowledge of that bond which holds it together". Cassirer, E., *Platonic Renaissance in England*, op. cit., 194. or.a.

15.*Mor.*, 205. or.a.

16.Mor., 205. or.a.

17.Mor., 100. or.a.

18.Mor., 210. or.a.

19."In the contemplation of the beautiful, man turns from the world of created things to the world of the creative process, from the universe as a receptacle of the objectively real to the operative forces which have shaped this universe and constitute its inner coherence". Cassirer, E., *The Philosophy of Enlightenment*, op. cit., 316. or.a.

20."This may shew us wherein personal identity consists, not in the identity of substance, but, as I have said, in the identity of consciousness". Locke, J., *An Essay Concerning Human Understanding*, Oxford, 1982, 342. or.a.

21.Mor., 175. or.a

22.Mor., 152. or.a.

23. "Shaftesbury è persuaso che ogni conoscenza dipenda dal previo autosapersi del soggetto...", Pisselli, F., op. cit., 61, 1969, 427. or.a.

24.Mor., 176. or.a.

25.Mor., 172. or.a.

26.Mor., 215. or.a.

27.I. *Sentio ergo sum* "We cannot doubt of what passes within ourselves. Our passions and affections are known to us. They are certain, whatever the objects may be on which they are employed".

This is the cartesian principle of certainty of our inner experience, applied to passions and affections, and as we shall see, in the first place to the latter. The primacy of affections is Shaftesbury's starting point. They are assumed to be neither chaotic nor blind. F. H. Heinemann, "The philosopher of enthusiasm. With material hitherto unpublished". *Revue Internationale de Philosophie*, VI, 1952, 294-322, 300. or.a.

28.Mor., 188. or.a.

29.Mor., 217. or.a.

30.Cassirer, E. *The Philosophy of Enlightenment*, op. cit., 322. or.a.

31.Cassirerentzat Shaftesburyk mundu estetikoaren sakontasuna jakitera emango liguke "It [the aesthetic world] is accesible only to an intuitive understanding which does not proceed from the parts to the whole, but from the whole to the parts". Cassirer, E., *ibid.*, 317.or.a.

32."Lehena zen ez nuela ezer hartuko egiaztat, ez banuen ebidenteki ezagutzen horrela zela: hau da, arretaz sahiestu behar nituela urdurikeria eta errezelua eta nire irizpenetan bildu behar nuela bakarrik nire adimenari argiro eta bereizirik agertuko litzaiokeena, beti ere zalantza egiteko aukerarik emango ez lukeen neurriraino.

Bigarrena zen aztertuko nuen zailtasun bakoitza zatituko nuela ahal hainbat zatitan, arazoa konpontzeko beharrezko litzatekeen hainbatetan hain zuzen.

Hirugarrena zen nire pentsamenduak ordenaturik zuzenduko nituela, gai bakunenetatik eta ezagutzeko errazenetatik hasita, poliki poliki, mailaka bezala, konposatuenean ezagutzara igoz eta ordena dagoela suposatuz, baita berez bata bestearen aurretik ez doazen gaien artean ere.

Eta azkena zen alde guztietatik hain zenbaketa osoak eta hain berrikuspen orokorrak egingo nituela non seguru egongo nintzatekeen ezer ez ahazteaz". Descartes, R., *Metodoari Buruzko diskurtsoa*, op. cit., 50. or.a.

33."Eta ohartu nintzen honako egia: *nik pentsatzen dut, beraz, banaiz* hain sendoa eta segurua zela, non eszeptikoen aieru bitxieneke ere ezingo zuketen ahuldu, eta hau kontuan izanik bilatzen niharduen filosofiaren lehen hastapentzat jo nezakeela kezkarik gabe iritzi nion". Descartes, R., *ibid.*, 64. or.a.

34.*Mor.*, 179. Or.a.

35.Ez da ahaztu behar Descarteseke natura ikuspegi ontologiko batetik Ni razionalaren menpe jarri duela: "Niregandik at zeuden beste zenbait gauzari buruz nituen pentsamenduei dagokienez (esate baterako zerua, lurra, argia, beroa eta beste hamaika gauzei buruzkoak) ez ninduen asko kezkatzen eurak nondik ote zetozen jakiteak, ez bainuen horietan ezer somatzen ni baino gehiago bihurtuko zituen, eta hori zela-eta pentsa nezakeen eurak egiazkoak izatez gerotan nire naturaren menpekoak zirela (honek perfekzioaren bat duen neurrian) eta egiazkoak ez izatez gerotan nik ezerezetik nituela, hau da, nik akatsen bat nuelako zeudela niregan". René Descartes, *ibid.*, 65. or.a.

36.Porfirio, *Vida de Plotino*, 2, Madril, 1982, 131. or.a.

37.F. H. Heinemann, "The philosopher of enthusiasm. With material hitherto unpublished". *Revue Internationale de Philosophie*, VI, 1952, 294-322.

38."la naturaleza del mundo se ha arrogado el privilegio de no ser obligada por ninguna causa externa a generar nada que a sí misma perjudique. Precisamente, teniendo esto presente, a saber, que soy parte de un conjunto universal de tales características, acogeré gustoso todo suceso". Ik. Marco Aurelio, *Meditaciones*, op. cit. 123 eta 179 or.ak.

39.*Mor.*, 133. or.a.

40."But as to this doubt, you wou'd have soon resolv'd your self: and it cou'd only serve to bring a-cross you a reflection which you have often made, on many occasions besides; that truth is the most powerful thing in the world, since even fiction it self must be govern'd by it and can only please by its resemblance. The appearence of reality is necessary to make any passion agreeably represented". Shaftebury, A., *A Letter Concerning enthusiasm, Standard Edition, Complete works, Selected Letters and Posthumous Writings in English*, Stuttgart-Bad Cannstadt, 1981, 310. or.a.

41.Zeinuen elkar lotura eta eurek adierazten dituzten gauzen lotura elkar egoki daitezela da Lockerentzat egiaren aurrebaldintza, zeinuen artean hitzak eta ideiak bereiziko dituelarik. "Truth then seems to me, in the proper import of the word, to signify nothing but the joining or separating of signs, as the things signified by them, do agree or disagree one with another. The joining or separating of signs here meant is what by another name, we call proposition. So that truth properly belongs only to propositions: whereof there are two sorts, viz. mental and verbal; as there are two sorts of signs commonly made use of, viz. ideas and words". John Locke, op. cit. 574. or.a.

42.Zerbait dioenak derrigorrean zerbait zehatza esaten duela aitortuko digu Teetetok (Platon, *Sofista*, 237d7-8) atzerritarrarekin duen elkarriketan, eta honek balio du baita izatearentzat ere. Sofista elkarriketaren hasieran argituko digu Platonek solaskdeek burutu behar duten azterketaren helburua zera izango dela: zerbaiti buruz hitz egitean izenaren inguruan ematen den adostasuna gainditu eta izenarekin adierazten dena arrazoiaren bidez bilatzea (op. cit., 218c1-7). Adostasuna ez da bakarrik zerbaiti ematen zaion izenean aurkitu behar, baizik eta baita izen horrekin adierazten den errealitatean ere. Honek aurrerago eramango du baieztatzeraz arrazoimeneko hizkuntzan hitz batek gauza bat adieraziko duela eta gauza bat adierazteko hitz bat baino ez dela egon behar (op. cit., 244b6-d10).

43.Aristoteles, *Kategoriak*, 14b, 15-20.

44.*Mor.*, 138. or.a.

45.*Mor.*, 164. or.a.

46.*Mor.*, 220. or.a.

47.Cassirer, E., *Platonic Renaissance in England*, op. cit. 167. or.a. "He not only holds that "all beauty is truth", but for him the converse of this maxim is also true: truth must also possess beauty of form".

48.Stephen, L., *English Thought in the Eighteenth Century*, 2, Bristol 1991, 30. or.a. "The moral sense is merely a particular application of the faculty by which we apprehend that harmony. The harmony, as revealed to our imagination, produces the sense of the beautiful; as partially understood by reason, it generates philosophy; as shown in the workings of human nature it gives

rise to the moral sense. The aesthetic and the moral perceptions are in fact the same, the only difference lying in the objects to which they are applied. 'beauty and good with you, Theocles, he says, 'I perceive, are still one and the same'".

49. Piselli, F., Shaftesbury, Estetica e Cosmologia, op. cit., 444. or.a. "Gli autori esteticamente dotati, perciò, non imitano in particolare un oggetto di natura, bensì induttivamente astraggono, da molti oggetti, qualcosa di universale; ... si ammette che le opere dei buoni artisti ripetono esattamente le regole naturali di proporzione e verità, che le loro creature sono proprio simili a quelle di formazione naturale".

50. Mor., 171. or.a.

51. "The harmony of which he spoke had an objective reality." Leslie Stephen, *History of the English Thought in the Eighteenth Century*. 2. alea, op. cit., 32. or.a.

52. Mor., 5. or.a.

53. Badu honek, asmoan behintzat, Kanten Arrazoi Hutsaren kritikarekin zerikusirik, bertan zientziaren egiari mugak jartzen dizkio eta. Horrela gogoratzen digu H. G. Gadamerrek Kantez diharduenean "Reflexionen über das verhältnis von Religion und Wissenschaft" artikuluan: "Su *Crítica de la Razón Pura* significó, sin duda, la limitación crítica de la pretensión de verdad de la ciencia". Espainerako argitarapenetik jasota; Gadamer, H. G., *Mito y Razón*, Barcelona, 1997, 56. or.a.

54. Mor., 132. or.a.

55. Mor., loc. cit.

56. Mor., 170. or.a.

57. F. Piselli, "Shaftesbury: Estetica e Cosmologia", op. cit., 427. or.a.

58. Platonek Sofistan argitzen digun legez hau izango litzateke filosofoaren eginkizuna, zehaztea arrazonamenduetan zein mota nahas daitekeen zein beste motarekin, zein zati daitekeen eta zein den elkarrezina zeinekin. *Sofista* 253b9-c4.

59. "La bellezza è "in things" -gogoraraziko du F. Pisellik-, ogni oggetto ha un autentico valore estetico che la critica svela; legione di bellezze particolari che dal bagliore dell'unità totale... Il mondo è pieno di beauties... sicché l'intima bellezza dell'ente risulta la sua simmetria interna che ne fa la nature, il senso metafisico.

La bellezza, ..., assorbe dunque la sua logicità e la sua struttura, sicché (de modo que) è possibile descrivere uno statuto cosmologico del bello". Piselli, F., "Shaftesbury estetica e cosmologia" op. cit., 436. or.a.

- 60.Mor., 81. or.a.
- 61.Mor., 217. or.a.
- 62.Mor., 180. or.a.
- 63.Mor., 209. or.a.
- 64.Mor., loc. cit.
- 65.Mor., 213. or.a.
- 66.Mor., 218. or.a.
- 67.Mor., 213. or.a.
- 68.Brett, R. L. *The Third Earl of Shaftesbury*, London, 1951, 167. or.a.
- 69.Mor., 214. Or.a.
- 70.Mor., 214. or.a.
- 71.Grean, S., op. cit., 285. or.a: "The third order of beauty is that which forms both the "dead" forms and the forming forms".
- 72.Ez da hau, ordea, Heinemannen postura, sailkapen honi Shaftesburyren estetikaren aldetik -Cassirerek ez bezala- alderdirik interesgarriena baiteritzo: "The most interesting point -dio- seems to be his Platonic-Neoplatonic distinction of three degrees or orders o beauty ...". . H. Heinemann "The Philosopher of Enthusiasm", op. cit., 320. or.a.
- 73.Honela bereizten du Heinemannek hirugarren era honetaz diharduean: "the form, which does not only form forms, but has the power of creating these formed forms". Heinemann, Ibid 320. Or.a.
- 74.Mor., loc. cit.
- 75."Bisogna dunque che la fruizione avvenga per via spirituale... Sulla base dei conseguimenti cosmologici si premette che la Nature è bella, e che questa bellezza è divina e spirituale. ...l'uomo dovrà scrutare non fuori di sé, ma dentro, nella propria spiritualità, sicchè la fruizione sensibile è messa fuori questione". Piselli, "Shaftesbury estetica e cosmologia", op. cit., 441. or.a.
- 76.Mor., 215. or.a.
- 77.Honela mintzatuko da Kant zentzu honetan *Idee zu einer allgemeinen Geschichte in weltbürgerlicher absicht* (1784) lanean: "las acciones humanas se hallan determinadas conforme a leyes universales de la naturaleza, al igual que cualquier otro

acontecimiento natural." Giza ekintza oro, beraz, naturala izango da eta ez da ez gizakiaren, ez Jainkoaren, borondatearen araberako izango, eta filosofoak ekintza horien arrazoi eman nahi badu naturaren asmoa bilatu beharko du. "En este orden de cosas, al filósofo no le queda otro recurso (...) que intentar descubrir en este absurdo decurso de las cosas humanas una intención de la naturaleza, a partir de la cual sea posible una historia de criaturas tales que, sin conducirse con arreglo a un plan propio, sí lo hagan conforme a un determinado plan de la naturaleza". Kant, I., *Ideas para una historia universal en clave cosmopolita y otros escritos sobre filosofía de la historia*. Madrid 1987, 3. eta 5. or.ak.

78.R. Scrutonek Shaftesburyrengan jarriko du naturalismoaren jatorria bera honela definituko duelarik: "Naturalism is the doctrine that the ideal of the good life is to be derived not from divine precept but from a description of human nature. Such a doctrine aims to show that evil is against nature, while god fulfils it". Ikuspegi honek eragin handia izango zuen 18. mendeko pentsamenduan, Kantengan barne esan dugun bezala, eta Scrutonek gogoraraziko du Herder ere eraman zuela zera esatera: "This virtuoso of humanity has had a marked influence on the best minds of our century". Scruton, R., *From Descartes to Wittgenstein: a Short History of Modern Philosophy*, London, 1981, 108. or.a.

79.Mor., 219. or.a.

80.Mor., 175. or.a.

81."Y el punto de partida para todos los argumentos de esta clase no es exigir que le adversario reconozca que algo es o que no es(...), sino que significa algo para él mismo y para otro; esto en efecto, necesariamente ha de reconocerlo si realmente quiere decir algo; pues, si no, este tal no podría razonar ni consigo mismo ni con otro ...; pues al destruir el razonamiento se somete al razonamiento". Aristoteles, *Metafisika*, libro IV 1006a 18-28.

82."They [Hobbesekek eta Lockekek] threaten to undermine moral concern because they deny the objectivity of morals. For, says Shaftesbury, if virtue is not real, if there are not between acts objective moral differences, then no one need be concerned with moral quality of his acts". Norton, D. F. *David Hume: Common Sense moralist, Sceptical metaphysician*. Princeton, New Jersey, 1982, 22. or.a.

83.Uribarri, I., *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*, Jakin, 1997, Donostia, 50. or.a.

84.Descartes, R., *Meditazio Metafisikoak*, Bilbo, 1997, 148. or.a.

85.Descartes *ibid.* 169. or.a.

III ATALA

NATURA, SORTZEKO AHALMENA ETA BEHARIZAN ETIKOA

Ikasketa moralen gainbehera ikusmiran

Moralistak testuaren lehen orrialdeei begiratzen badiegu ohartuko gara berehala bere garaiko moral ikasketek panoramika etsigarria erakusten diotela Shaftesburyri. Morala, filosofiaren legez, honen zatia baita, egoera tamalgarri batean aurkituko zen, bere xarmadura eta entzute guztia galdua, jarduntsuen entretenigarri eta bere lehen eginkizuna litzatekeen gizarte eraginerako aukera guztiak galdua. Hau azaltzeko bi zergati aipatuko digu Shaftesburyk, lehena, jakina, beraren gainean filosofia eskolastikoak erabili duen monopolioa:

"Eskolastikoak -beste inor ez- egin direnez kezka hauen jaun eta jabe euren kutsu eta taxua ezarri diote gaiari"¹.

Moralitateak, era honetara, antzinatu antza ematen du, garaiko gizarte errealitatetik urrundua egongo bailitzan. Solasaldi neketsu eta aspergarrien iturri, eta famili onekoen giza-taldeek erakusten duen arinkeriarako traba bat bezala.

Baina, gainera, eskolastikak ezarri duen etikaren monopolio honekin batera erlijioaren ikuskera jakin bat ezarri da, azkenean bera eta moralitatea elkarren kontrako egoeran jarri dituen. Erlijioak bere gain ona eta gaitzari buruz hitzegiteko eta ebazteko eskusiba hartu nahi izan du, baina ardura hori berea

egin ahal izateko derrigorrezkoa izan zaio giza jokaerari legokiokeen bertutearen azken zentzua gizabanakoaren barrentasunetik, bere adimenetik, ateratzea; era honetara gizakiak ez luke bere baitan aurkitu ahal izango ona eta gaitzaren artean bereizteko irizpidea, eta berarengandik kanpo legokeen instantzia batera jo beharko luke, zigorren eta sarien banatzaile litzatekeen instantzia goren batera hain zuzen, Jainko bezala agertuko litzatekeena.

Shaftesburyk garbi utziko du liburu osoan zehar ez dela hau berak defendatzen duen erlijioari buruzko ikuspegia, moralitatea eta erlijioaren artean hesia jartzen dutenena baino. Honela deskribitzen du hauen postura:

"Baina gogoratuko zineten bertutea horrela tratatzen dutela giza bihotzaren ustelkeria handitzat jotzen dutenek, eta giza bertutearen faltsutasuna nabarmentzean erlijioa goraipatzen dutela uste dutenek. Zenbait autore erlijiosok, zenbait hizlari sakratuk, euren labainak honuntz zuzentzen dituzte eta bertute moralari erasotzen diote, erlijioaren amordea edo lehiakidea izango bailitzan! Moralitatea ezin da aipatu; naturak ez du eskubiderik; arrazoia etsaia da; zuzentasun orokorra erokeria da eta bertutea miseria besterik ez" ².

Berak, berriz, diziplina moral razional eta autonomoa proposatu nahiko du, naturan eta arrazoian funtsatutako moralitatea alegia, bertutea gizakiaren autonomia eta ardura oso eta askean oinarrituko duena. Alabaina, bide hau aipatutako era

horretara definitutako erlijioaren aurkakotzat jo daitekeen arren, ez du erlijioaren ahalbidea ukatuko, moralitate askearen bidea ez da jainkogabetasunaren sasietan sastrakatuko, haatik, ikusiko dugun bezala, erlijio naturalaren oinarriak funtsatuz bera izango da jainkogabetasunaren aurkako argudiorik sendoena.

Baina ez da aipaturiko eskolastizismoa bakarrik izango moralitasunaren egoera problematiko horren jatorria, argudio ezberdinak badarabiltza ere, filosofiaren esparrutik ere badira ikuspegiak moralitatearen ahalbidea ahuldu edo itxi ere egin dutenak:

*"Beste batzuk moral kontuetan moralistak besterik ez direla esan daiteke, eta bertutea ez da berez ezer izango euren ustez, bakarrik nahiaren sorkaria edo modan dagoen izen hutsa"*³.

Izan ere, Ingalaterran, bai Hobbesen, bai Lockeren pentsamenduen eraginagatik, eszeptizismo moralak indarra hartuko du eta horregatik ezinbestean eman beharreko urratsa izango zaio joera hauei eraso borobil bat jaurtitzea egia morala oinarri sendo eta egiazko batzuen gainean eraiki ahal izateko.

Hobbesez gizakia, eta natura bera ere, maltzurtu egin badu, ez legokeelako baliorik berarengan nagusizaletasun berekoia baino, Lockek urrats bat gehiago emango du eszeptizismo morala sendotzeko. Hobbesentzat gizakiak berez boterea irrikatuko du, baina, aldi berean, Estatua sortzen laguntzen duen neurrian, botere horren neurri bateko galera bat onartuko egingo du, hain zuzen Estatuak biziraupena eta neurri bateko bakea bermatzen dion

neurriraino. Baina Estatu bera, hala ere, botere bezala konfiguratuko da bere tresna nagusiena zigorra izango delarik, honela erlijio katolikoaren Jainkoaren leku bera hartuz.

Hobbesen ikuspegiok testu osoan zehar jasoko dute Shaftesburyren kritika, baina ez da ausardia handiegia izango esatea aipatu berri dugun pasartean gogora ekarri nahi den jarrerara bere maixu izan zen Lockerena dela: "Bertutea eta hobena izenak dira -esango du Lockek-, eta alde guztietako nahia eta suposapena da berez zuzenak edo okerrak diren ekintzak ordezkatzan dituztela"⁴. Enpirismoaren ikuspegitik, ba, edertasuna ez da ezer izango, bertutea ez da ezer izango hitz bat baino, nahierarako konbentzioa alegia. Izan ere, garbi utzi du dagoeneko Lockek ez dela jaiotzetiko hastapenik, ez espekulatiborik, ezta praktikorik ere; horregatik bertutearen kontzeptua bera ere giza jokaeraren arau fidakaitza iruditzen zaio bere ezabatasuna dela medio. Izan ere, bere iritzian, balio unibertsaleko jaiotzetiko hastapen baten ahalbidea badagoela onartzeak edozein kulturatan sor daitekeen hastapen partikular bati balio unibertsala emateko aukera irekiko luke⁵. Hemendik naturarekin eteten duen antropologia bat eratorriko da, arima eta naturaren arteko harremana hautsita geratuko litzatekeelarik. Gai naturalak gizakiaren menpeko eginaz eta gizakia Jainkoaren menpeko, morala, eta ezagutza bera, gehiago izango da adostasun eta menpekotasun kontua, egia eta askatasun kontua baino.

Honela ba, ulertzen da filosofiaren kritikaren ikuspegitik moralitatearen egoera dohakabea. Aspergarria eta berriketarako aitzakia ez ezik, irtenbide ezineko asmazioak dira moral kontuan aurkeztan diren auziak, bertutea ez da ezer benetakoa izango, ez

legoke objektibotasunik, eta, azken batean, garaiak zehaztuko luke une bakoitzean zer den moralki zuzena eta zer ez, moralitatea, hontara, erlatibismoaren zihurgabetasunera eroriko litzatekeelarik.

Shaftesburyk Hobbesengandik eta Lockerengandik datorren eszeptizismo honi erdeinuz ez bada, bai, behintzat, mesfidantzaz begiratuko dio, era guztietako hausnarketa moralak kolokan jartzen dituelako. Izan ere, bertutea ez bada erreala, giza ekintzen artean ez bada ezberdintasun objektiborik, ez dago zertan kezkatu norberaren egintzen nolakotasun moralarekin, eta edozein gauza egiten dugula edozein egoeratan, ez dugu inongo balio eskalarik izango egintza horren duintasun moralari buruz epaitzeko.

Shaftesburyk bi erromarek (erlijioarena eta filosofiarena) itxitako bide honi irteera bat bilatu nahiko dio, horretarako, noski, bai erlijioaren aginduak, bai bi pentsalari hauen buruerak, auzitan jarriko dituelarik. Hala ere, bere azken postura honek, neurri batean behintzat, bere herrian bertan ahamantzia izatea eragingo dio denborarekin, bai Hobbesi, bai Lockeri aurre egitean Ingalaterrako tradizio filosofikoarekin kontrajartzen baita. Izan ere, Hobbesek burutu zuen gizakiaren gaiztoketaren aurrean gizakiaren berezko ontasuna eta bihotzberatasuna defenda zezala begi onez ikusi zitekeen arren, ez zen, osteraz, inolaz ere onargarria izango Lockeren enpirismoa kirtenkeriatzat jotzea, hau gehiegizkoa zen irakurle ingelesarentzat.

Orain artekoa laburbilduz, ba, alde batetik zigorraren beldurra eta bestetik garaiko gizarteak sortzen dituen ohiturak

izango lirateke garaian nagusitzen diren irizpide moralaren iturriak, ukatuko litzatekeelarik horrela moralitasunaren objektibotasunaren edozein aukera. Lehen kasuaren aurrean Shaftesburyk gizakiaren eta arrazoimenaren askatasunari eraso konjuratu nahi du, bigarrenean, ordea, erlatibismoaren arriskua saihestu. Ikusiko dugu, hala ere, lehenengo puntuari erantzuna garbiagoa den arren, bigarrenari dagokionean gauza korapilatsuagoa izango dela.

Aukera horiek biek azaltzen duten traba gainditzeko Shaftesburyk irtenbide errealista baten alde egingo du apustu garbia eta zalantza gabea eta horretarako zera frogatu nahiko du:

*"... bertutea benetan zerbait dela bere baitan eta gauzen izanean; ez dela nahikeriazkoa edo artifiziala (horrela hitz egin badezaket); ez dela sortzen bertuterik ez dagoen lekutik; ez dela ohituren, asmamenaren edo nahiaren menpeko, eta ezta nahi gorenarena ere, haatik, halabeharrez ona izanik onaren gobernupean dago eta beti eraberekoak dira biak"*⁶.

Horrela ba definituko nahiko du Shaftesburyk errerealismo moralaren hastapena, ia era tautologikoan, hemen ere bere filosofiaren hastapen orokor baten aplikapena gauzatuko duelarik: ezerezetik ezin dela ezer sortu dioena, alegia. Aplikapen honetatik ondorioztatuko du berak bertutea bertutetik sortuko dela, ezingo dela sortu bertute ezetik, eta bertutea ona denez ona eta bertutea bat izango direla. Egon beharko du, orduan, lehen bertute bat, lehen ontasuna, ontasun konkretu guztien

arrazoi izango dena, ez konbentzional hutsa, baina ezta naturatik kanpoko ere -hau da, ez jainkozkoa, Jainkoa ulertzen badugu, behintzat, naturatik zerbait banandua bezala-, barnekoa, naturarekin bat izango dena baino.

Bertutearen ezagutzara heltzeko, orduan, bere buruari begiratu beharko dio Toklesek Filokles eszeptikoaren erasoan aurrean, eta horrela bakarrik aurkitu ahal izango du moral eszeptikoak oker zeudela frogatzeko aukera. Berezko izaera morala, ona hastapen bezala, bere baitan duela ohartuz eta ahalmen horren bidez moralki ona eta txarraren artean bereiz dezakeela konturatuz, egin ahal izango die aurre eszeptizismoak aurrean jartzen dizkion erronkei, ahalmen horren baitan aurkitu ahal izango duelako bertutea ukatzen dutenen argudioen oinarririk eza. Azken batean, Hobbesen nahiz Lockeren akatsa -neurri batean eskolastikarena bezala- izango zen bertutea naturaz kanpoko bihurtzea eta gure adimenean oinarritu gabe taxutzea, Shaftesburyk bertute hori gure barne kontzientzia moduko batean bildu nahiko duen artean.

Alabaina eginkizun hau burutzeko bilatuko duen abiapuntua ez da balio unibertsaleko jaiotzetiko hastapen baten definizioa izango, ez dio Lockeek errefusatu duen bideari berrekingo, eta ez du bere moralaren hastapenak irizpen unibertsal baten forma hartuko, ez da diskurtsoan definituko Kantek nahiko zuen bezala. Shaftesburyk bere irtenbidea kontzeptu berri bat sortuz bilatuko du, gerorantzean presentzia zabala izango duena, bai filosofiaren esparruan, eta baita hizkuntza arruntean ere: sen morala ("moral sense") alegia; honekin ahalmen bat adierazi nahiko duelarik, giza naturari ezinbestez eta unibertsalki lotuta egongo zaiona⁷.

Bertan aurkituko du gizakiak egia moralaren erreferentzia, egia moral iraunkor eta unibertsala, baina barrukoa ere eta sentigarritasunari lotua, ez Platonek bururatuko zuen ideien munduaren pareko.

Banakoak bere bizitzako eginkizun ezberdinetan hobenaren edo bekatuaren irudipena jasan dezake eta horrek egonezina sor diezaioke. Baina, erlijioaren ikuspegitik egonezin edo kontzientzia txar hori jokaera okerrak -bekatuak- ekarriko lukeen artean Shaftesburyrengan, berriz, alderantziz gertatuko litzateke, kontzientzia edo sen morala izango baita lehena eta berak jarriko gaitu erne jokaera oker baten aurrean, beti ere sen moral hori -guregan onaren zentzua eta ez gaitzaren ondoriozko erruaren sentipena iratzarriko duena- izango delarik moralitatearen objektibotasunaren frogagarri.

Sen morala ahalmen baten gisa agertuko zaigu, adimenezko sen bat izango da, edo gehiago zehaztuz zabalagoa den beste ahalmen baten erabilpen berezia, unibertsuaren harmonia atzematea bideratzen digun intuizioarena alegia. Beraren bidez aurkituko dugu gure baitan gidaritza gure ekintzetarako, eta bertan aurkituko dugu gure gaitzarekiko gorrotoa sen primitibo bat bezala.

L. Stephenek gogoratzen digu "Sensus Communis: an Essay on the Freedom of Wit an Humour" testuko pasartetxo bat, non sen primitibo horren beharra frogatzeko saio bat egiten duen: "Galdegin diezadake batek zer arrazoi izan dezakedan zikin higuingarria ez izateko inor ez badago aldamenean. "Sudurra daukadalako" litzateke erantzuna. "Baina usaimenik izango ez bazenu?" jarrai dezake berak, eta erantzuna "nire burua

higuigarri ikusiko nukeelako". "Eta ilunpean egongo bazina zer?". "Inongo sentipenik izango ez banu nire zentzua beti berdina izango litzateke, nire izaeratik sortuko litzateke lizunkeriarekiko nazka". Biziozarekiko gorrotoa, beraz, jaiotzetiko sen bat bezala kontsideratuko du Shaftesburyk sentimenen aurrekoa eta, beraz, gure arrazoimenean errotzen dena.⁸

Honekin argi geratuko da sen morala gizakiari berezkoa zaiola, hau da, gizakia dagoen edozein egoeratan edo lekutan berezkoa izango zaion moralitasuna egongo dela. Izan ere, ustezko naturazko egoerari buruzko eztabaidan ikusi dugu moralitasun hori giza nortasunetik ezabatua geratuko litzatekeela, bai Hobbesen bai Roussearen pentsamenduan. Hobbesen arabera kanpotik ezarritako zerbait bezala ulertuko litzateke, eta ezarpen hau legeen edo ohituren bidez emango litzateke, elkarbizitza bermatzeko beharrezkoak izango liratekeenak; Rousseauk, berriz, esango digu gizakiak berezko egoeran ez lukeela izango inolako harreman moralik eta ez lukeela burutuko bat ere ekintza onik edo gaiztorik, hain zuzen ezagutzen ez duelako ona zer den⁹.

Badago, egia esan, hiru egileak bat egiten dituen zerbait, hots moralitatea gizakiaren gizarte izaeraren ezinbesteko baldintza dela onartzen dutela, baina Shaftesburyrentzat, esan dugu, gizarte izaera hori ezinbestean lotuta dagokio gizakiari, ez dago gizakirik gizarterik gabe eta ezta moralitasunik gabe, bai Hobbes eta baita Roussearentzat ere, berriz, bururagarria izango da gizakiaren bakarkako egoera bat.

Alabaina, etikaren oinarri errealista horrek badu halaber beste helburu bat, berak dioen legez, moralitatea ohituren,

legeen, nahiaren edo asmamenaren eraginetik urrunduta ezartzea alegia, horrela urrunduko delarik Descartesen kontserbadurismo moraletik, zeinak bultzatzen zuen Descartes onartzera bere herriko legeak eta ohiturak moral irizpide nagusi bezala. Etikatik atera daitezkeen ondorioak bizitzeko era zehatz honetatik, ohitura hauetatik edo erakunde honek edo hark ebazten dituen legeetatik, bananduta egon beharko du, honetan bat dator Lockerekin. Eta honek, jakina, moralitatearen burujabetasunaren ideian gehiago sakontzera bultzatuko du. Erlijioaz aske ez ezik lege partikular batzuk ebazten dituztenen nahi arbitrariotik aske, epaile ikuskeratik aske ere, eraiki nahi du moralitatea Shaftesburyk, moral subjektibista erortzeko arriskua sahistuz eta gai objektibo bat bilatuz.

Honek, jakina, etika unibertsal baten altzora eraman beharko luke baina, dirudienez, arazoa ez zaio hain erabakieraza agertzen, ondoko pasartean ikusiko dugun legez.

"Erkidetasunak, adiskidetasunak, harremanak eta eginbeharrak behatuko ditu eta aztertuko du nola osatuko den harmonia orokorra adimen banakoen harmonian oinarrituz eta nola ezarriko den denon ontasuna.

"Baina gizarte bateko herriaren ontasunarekin ez ase, bere burua helburu soutilago bateruntz zuzenduko du, eta grina handiagoarekin bilatuko du gizadi osoaren ontasuna. Elkartasun eder honetan eta ontasunarekiko joera funtsatuko duten arrazoimen eta ordenan gustura aurkituko du bere burua. Legeak, konstituzioak, errito erlijioso eta zibilak, gizadi zakarra jendatu eta leunduko duen guztia, zientzia

eta arteak, filosofia, moralak, bertuteak, giza eginbeharren egoera loratsua eta giza izaeraren perfekzioa: hauek guztiak dira bere ikusmira gozagarriak, bera erakarriko duen edertasunaren lilura.

"Ahalegin honetan badirau ere (hain handia baita bere ordenarekiko eta perfekzioarekiko joera) ez da horretan gelditzen, eta ez da asetzen zati baten edertasunarekin, baizik eta bere esku zabal emankorra luzatuz, denaren ontasuna bilatuko du eta, halaber, osotasunaren interesa eta aurrerakuntza. Bere jatorrizko herriari eta aberri nagusienari leial izanik, bertan ordena eta perfekzioa bilatuko du, onena irrikatuko du, eta gobernu zuzen eta jakintsua espero"¹⁰.

Tartetxoa luze xamarra eta nahikoa nahasia egia esan, baina aipatu dugun nahasketa eta arazo bera argi eta garbi islatzen duena; azken batean, gogoeta moralak bere ardatz sakonenaren zeharbidetik sartzen du: banakotasuna, kultura eta unibertsaltasuna elkarregokitzearenetik alegia.

Testuan agertzen den hari-mataza hori askatzeko hiru tarte bereiziko ditugu. Abiapuntuan ona bilatzen duen arima baten behaketaren gaia zein litzatekeen da itauna, eta bera gizakiarengan topatuko du, beti ere bera bere gizarte harremanetan, adiskidetasunean, erkidetasunean gogartzen den neurrian.

Hemen, azkenean, egite moralaren protagonistari buruzko galderaren aurrean geundeke. Badakigu jakin Shaftesburyren moralitatearen oinarria maitasunean funtsatu behar dela, eta

badakigu, gainera, maitasun horren eredua eskaintzeko artzain bakartiari begiratu diola, bere ontasun moralak bere aihergatasunean eta bere bakardadean zuelarik iturria. Beraz, Hobbes eta Lockeren kritikek ereiten duten eszeptizismoa, eta ikuspegi erlijiosoek ereiten duten dogmatismoa eta askatasun eza, gainditzeko egite moralaren objektibotasuna ez ezik, erabaki beharko da bere ardura taldean ala banakoaren baitan datzan, hauxe izango litzatekeelarik, gainera, moral askeak definitu beharko lukeen lehen arazoetako bat. Izan ere, artzaina behaketa hutsean ari denean ez dago arazo larriegirik, baina ekiten duenean, eta ekin ekin beharko du, bere ekintzen ardura hartu beharko du nola edo hala.

Hemen datza, orduan, Shaftesburyren moralitatearen gakoa. Bere abiapuntuan banakoa jarriko du protagonista, banakoaren kontzientzia izango delarik moralitatearen lehen zutabea. Baina kontuan izan behar da banakotasun horren jokaera moralean egongo dela funtsezko elementu bat erabakiorra izango dena moralitatea definitzean, hots maitasuna, eta garbi dago maitasun horrek, beti hurkoa onestea exijitzen duela, eta honekin batera bestearekiko adiskidetasun eta elkartasun balioak goestea ere. Berarentzat, orduan, ardura morala ez da ardura kolektiboa izango, banakoarena baino, baina eginkizun moralaren eragilea maitasuna izango denez -eta ez norberekeria, besteak menperatzeko grina edo errukia- bere helburua denon zoriontasuna aurkitzean funtsatuko da, erkideena ez ezik mundukide guztiena ere. Eta, azken batean, banakoaren ekintzaren moralitasunaren irizpidea gizabanako guztien ontasuna bilatzean etzango da (ez norberarena bakarrik) nolabait esateagatik, gizaki bakar baten ontasuna ahazteak gure jokaera

moralaren akatsa suposatuko lukeelarik.

*"Baina gizarte bateko herriaren ontasunarekin ez ase, bere burua helburu sotilago bateruntz zuzenduko du, eta grina handiagoarekin bilatuko du gizadi osoaren ontasuna"*¹¹.

Bere moralitatearen helburua, beraz, gizaki guztien zoriontasuna izango da (ez norberarena), hau da, gaitza eta zorigaitza uxatzea gizadiaren baitatik. Honegatik guztiagatik, ezinbestekoa gertatuko zaio gizadi osoaren ontasuna bilatze horretan artzainaren bakardadea gainditu eta berehala orokortasunaren behaketara jotzea, eta zehaztu beharko ditu zein izango diren gizatasun unibertsalaren bereizgarriak nagusienak. Eta hauek bilatzeko bere behaketaren gaia ez du kokatuko inongo ezaugarri fisikotan, edo metodologia enpiristak onartuko lukeen beste edozein egite multzo sentigarri batean, ezta arima traszendental batean ere, haatik jarrera esentzialistei ihes eginaz, eta naturazko egoerari buruz garatu duen argudioaz koherentziari eutsiz, bera gizakiaren kultur ekoizketan ezarriko du.

*"Legeak, konstituzioak, errito erlijioso eta zibilak, gizadi zakarra jendatu eta leunduko duen guztia, zientzia eta arteak, filosofia, moralak, bertuteak, giza eginbeharren egoera loratsua eta giza izaeraren perfekzioa: hauek guztiak dira bere ikusmira gozagarriak, bera erakarriko duen edertasunaren lilura"*¹².

Gizabanakoa gizatasunaren eta era berean gizadiaren eta naturaren partaide bihurtuko duena izaki kulturala izatea izango da, eta ez, ordea, elikatzeko, mina sufritzeko edo farre egiteko ahalmen biologiko hutsak. Hemen gakoa litzateke zera erabakitzea: gizartean garatzen den moralitate hori oinarritzko premia biologikoetatik eratortzen den ala ingurune izpiritual edo kultural batean duen funtsapena.

Ikuspegi honen arabera kultur ekoizpena bereizketaren eta ezberdintasunaren izenkide litzateke eta unibertsaltasun fisiologikoaren eta moralitatearen ondoko beti, eta neurri batean berari kontrajarria, baina horrela aniztasun kulturala naturatik kanpo jaurtitzeko arriskuan gaude geure burua dualismoaren atarian jarritz. Izan ere, jarrera honekin fisiologiari lehentasuna ematearen antza eman eta abstrakzioaren lehentasunean eroriko gara.

Shaftesburyk honen aurrean errozko jarrera monistarekin bateginik kultura bere osotasunean, eta aniztasunean beraz, naturan bertan eta gizakiaren esentziaren muinean sartuko du. Eta hau beharrezkoa zaio gizabanakoa bere kokretutasunean eta partikularitasunean aztertzeke, hau da esperientzian ematen den gizakia aztertzeke, eta bera beti gizarte eta kultura batean murgildurik agertuko da zalantzarik gabe. Horregatik bihurtzen du bere azterketaren gai morala, artea, filosofia, biziera ezberdinetan horiek ere bereiziko direla bereganatuz.

Kultura eta natura bateginik, beraz, banakoa bere gizataldean bizi den heinean gauzatuko da bere baitan harmonia unibertsala, ontasun unibertsalaren konkrezioa. Izan ere, perfekzioaren bilakuntza hori beti hutsa izango da, baldin eta

ez bada bere gauzaketa banakoaren herriari aplikaturik ematen:

*"Bere jatorrizko herriari eta aberri nagusienari leial izanik, bertan ordena eta perfekzioa bilatuko du, onena irrikatuko du, eta gobernu zuzen eta jakintsua espero"*¹³.

Era honetara Gizabanakoaren unibertsu emozionala, eraspenekoa, berreskuratu nahi du, baina ez gizakiaren berezko izaeratik zerbait banandua bailitzan, unibertsu hori gizakiaren izaeraren ezaugarriarik naturalena den neurrian baino. Moralitatea eraikitzean, beraz, zirrarekin, sentimenduekin, lotzen du bete betean, eta zirrara horiek, oso neurri handi batean behintzat, osorik ez bada, gizakiaren gizarte izaerarekin batzen dira, eta askotan bereziki banakoak berak ezagutzen duen ala bizi izan duen gizarte konkretuarekin, berau izango delarik *gizadi osoaren ontasuna* bilatzeko abiapuntua. Taldearekiko atxikimendu hau izango da, testuan iradokintzen denez, unibertsuaren osotasunarekiko atxikimendua elikatze bidea. Gizabanakoak talde hurbilari begira ikasiko du berekoitasuna edo bere plazer hutsa baztertzen bere jokaeren gidatzaile bezala, bestea onetsiko du eta onespen honekin beste hori naturaren osotasunean ikusten ikasiko du, naturako izaki guztiengan. Taldea onestea eta auzolana baliostatzea izango dira *gizadi osoa onartzeko aurrebaldintza*.

Edozein kasutan aurrean agertzen zaion arazoa gaitza da konpontzen. Izan ere, sentimenduetan oinarritutako moral aske eta unibertsal hori eraikitzeke ez zaio hain erraza izango berak baztertu nahi duen erlatibismoa gainditzea. Eta hori botako dio

aurpegira S. Greanek: "He seeks to give recognition, on the one hand to the existence of objectively conceived rules of art and, on the other, to the emotional and intuitives bases of personal taste. (...) It also explains why Shaftesbury, who considered himself an enemy of relativism, could paradoxically contribute to its growth."¹⁴

Ezberdintasun kulturalak irizpide etikoen iturri jartzea eta moral unibertsal baten premia defenditzea, ez dago zalantzarik, paradoxaz beterik gerta dakigukeen bide bati ekitea da, eta alderdi horretatik nahikoa onargarria da Greanen komentaketa, izan ere, partikularitasun kulturalaren erreibindikapenak oso erraz bultza gaitzake eta erlatibismoaren esparrura. Dena dela hori da, azken batean, Shaftesburyk ekingo dion ahalegina, kulturen eta nortasunen ezberdintasuna gizatasunaren funtsean ezarritz, balio unibertsaleko etika eraikitzea.

Gizatasuna, bere osotasunean, naturara murriztu duela kontuan izanik, eta ikusi dugu honela ohituren, legeen, nahiz artearen eta filosofia beraren jatorria giza izaeran edo naturan ezartzen dela, arazoa izango da nola integratu moralitate unibertsala, lege ezberdinen moraltasunarekin, azken hau, esaterako, legezkotasunarekiko morroitzatik aske utziz. Kontuan izanda zenbait lege sistemaren, nola zenbait ohituren, perbertsioa nabarmena dela, utzi beharko ote dugu moraltasunak har dezala bere eredua lege partikular batetik edo ohitura sistema batetik?

Edozein modutan, beste aukerak, bereizitasun guztiez abstrakzioa egiten duena, alegia, unibertsalismo totalitarioaren eskuetan erortzeko arriskuan jarriko gintuzke aniztasunaren

ederra eta askatasuna suntsituko lukeelako, eta, honetan Lockerekin bat etorri beharko du, hauek ere Shaftesburyrentzat jokaera moralaren ezinbesteko baldintzak izango dira eta.

Erljio kristauaren kritika

Kristautasunaren nagusitasunaren ondorioz, ezagupenarekin zerikusia izan zezaketen arazo guztiek, baina kezka morala bereziki hasieran aipatu bezala, erlijioaren manupean uztarpetuta geratu ziren, eta horrela iraun zuten erdi aro osoan zehar, moralitatea eta erlijioa nahastuta edota bateginik agertu ziren artean. Baina natur zientzien erlijioarekiko bananketa zaila eta, zenbait kasutan, ondorio tragikoduna sortatu bazen, zer esanik ez moralitatearen kasuan. Ez da gainera erokeria izango esatea zientziaren eta agindu erlijiosoaren arteko muga dagoeneko ondo marraztuta egon arren, moralitateari dagokionean, oraindik gaur bertan, bereizketa ezabatua dela zenbait unetan, eta bera eta zientziaren esparruak eta eskumenak nahasten direla.

Izan ere, zuhurragoa bada hierarkia erlijiosoa zientziaren aurkikuntzei buruz hitz egitean, noiznahi ikusiko dugu zientziari darraizkion aplikapen moralei buruzko kontuez aginduak emateko gertu. Eta ez zaigu zaila izango moral laikoan bertan, antiklerikalismo sutsuenean barne, moralitasun kristau horren aztarnak baino zerbait gehiago aurkitzea, zenbait kasutan bere iradokizunaren erreibindikapen nabarmena ere egingo delarik. Ez da izango honen guztiaren eredurik eskasena Descartesen jarrera, bere eginahala guztiak ezagutza teorikoaren erroak astintzera eta

berreraizera zuzendu baitziren, ezagutza praktikoari buruzko bere proposamenak zuhurrak baino gehiago beldurtiak eta kontserbatzaileak izango zirelarik.

Shaftesburyk, berriz, esana dugu, moralitasunaren autonomiaren eta lehentasunaren baiespena izango du bere lanaren helburu nagusia, eta arrazoi honegatik bera eta erlijioaren arteko harremanari oinarri berria eskaini beharko dio edo, hobe esanda, moralitasunaren lehentasuna ezarriarik, erlijiotasunaren lekua mugatzera joko du. Honetarako Shaftesburyk bere lanean erabaki beharko duen auzietako bat, eta ez makalena, zera izango da: ebaztea ea guztiz baztertu beharko den erlijioa moralitasunari buruz esan dezakeen guztia garrantzi gabekotzat joz, jainkogabeek egiten zuten legez, ala bere lekua berdefinitu beharko duen, bere eginkizuna, bere aginte moralak, mugatuz.

Shaftesburyren helburu nagusia moralitatea era autonomoan funtsatzea izango da, honek gizabanakoaren gizarte jokaera zuzenduko duen neurrian, eta honetarako alde aurretik beharrezkoa bazaio bere garaiko joeren zergatiak aztertzea, erlijioaren azterketara jo beharko du, eta, zer esanik ez, bide horretatik kristautasunaren korrante ezberdinekin egingo du aurre, honen gabeziak nabarmen agertuko zaizkiolarik. Gabezia hauen artean behinena izango da erlijioaren talaia bertatik bertute moralaren ezintasuna eratorriko dela, hura modu jakin batean ulertuz gero, bertuteari kontrajarriko zaion etsai krudela bihur daiteke eta.

Erlijioaren errozkotako kritika bihurtuko den jorraketa honen bidez azaleratuko dira bere ostean ezkutatzen diren elementu irrazionalak, hauek izango direlarik bertutearen eta erlijioaren

arteko kontrakotasunaren iturri. Ondoan ikusiko dugun legea Shaftesburyren garaiko erlijioaren irrazionaltasun hori bi akatsetan oinarrituko da: giza izaeraren eta erru moralaren ikuspegi ezkor, estu eta fidakaitzean, alde batetik, eta, bestetik, ardura moralari buruz mintzatzeko jardunean, erlijioa, askatasunaren jardunaz -hau da, jardun filosofikoaz- baliatu ordez epailearen jardunaz baliatzen dela.

Argi dezagun hau guztia Shaftesburyren hitzetatik abiatuz:

"Nekez jabetzen zineten bertuteari kontrajarritako etsai krudela erlijioa bera izango zela! Baina gogoratuko zineten bertutea horrela tratatzen dutela giza bihotzaren ustelkeria handitzat jotzen dutenek, eta giza bertutearen faltsutasuna nabarmentzean erlijioa goraipatzen dutela uste dutenek. Zenbait autore erlijiosok, zenbait hizlari sakratuk, euren labainak honuntz zuzentzen dituzte eta bertute moralari erasotzen diote, erlijioaren amordea edo lehiakidea izango bailitzan!"¹⁵

Bertutearen etsairik handiena, beraz, ez da jainkogabetasuna izango, azken baten hau zalantzazko egoera baten isla edo arrazoimenezko galdera bati erantzuna izango bailitzateke, eta arrazoimenezko jarrera denez arrazoia erabiliz erraz errefusa daiteke, izan ere, Jainkoaren ukazioak gizartearen eta naturaren ukazioa lekarke eta. Ostera, erlijioan bertan aurkitu ahal izango dugu bertutearen etsai nagusi hori: bertutearen izenean bertutea suntsitzen baitu, bertuteari lehen erasoak gizakiaren berezko gaiztotasunaren onarpenean aurkituko delarik. Honetan Hobbesekin

berdintzen dira giza bihotzaren ustelkeria handitzat jotzen dutenek.

Shaftesburyren pentsaeraren eta praktikan nagusi den moral kristauaren arteko kontrakotasuna, beraz, zalantzatik kanpo dago, bere filosofiaren hastapenetan jotzen dute elkar eta. Moral kristaua negatiboa da eta pairakortasuna bultzatzen du, egin behar ez dena agintzen du; "ez hau egin", "ez bestea egin". "Ez egin beste inori zuk jasatea nahiko ez zenukeena" ikurritzean bilduko litzateke bere moralitasunaren arau eta orientabide nagusiena. Hurkoari, beraz, bihurrikeriarik (gure iritziz bihurrikeria dena) ez egitea, ezta desiratzea ere, litzateke bertute kristauaren arabera taxutzen den moralitatearen eginkizuna. Hau, noski, ulergarria da kontuan badugu ikuspegi kristauaren arabera, azken batean, gizakiaren halabeharra norberak bere burua salbatzea baino ez dela, nolabaiteko "irten dezala onik ahal duenak". Alderdi positibotik, bestalde, karitatea eta gupida izango lirateke kristautasunetik bultzatuko liratekeen jarrera nagusienak, abiapuntuan gizabanako batzuen gutxiagotasunean eta erruan oinarrituko liratekeenak. Honek ikuspegi ezkor eta, esan bezala, jokaera pairakorra eta utzikeria besterik ez luke elikatuko, Shaftesburyk eskatzen duen jardunaren eta munduaren ikuskera baikorretik oso urrun geratzen dena.

Honela deskribatuko du Shaftesburyk zenbait pentsalari erlijiozalek moralitasunaren aurka erakusten duten etsaitasuna:

"Zenbait autore erlijiosok, zenbait hizlari sakratuk, euren labainak honuntz zuzentzen dituzte eta bertute moralari erasotzen diote, erlijioaren amordea edo lehiakidea izango

bailitzan! Moralitatea ezin da aipatu; naturak ez du eskubiderik; arrazoa etsala da; zuzentasun orokorra erokeria da eta bertutea miseria besterik ez. Zein ez litzateke izango biziotsua aukera izango balu? Zeinek ekidingo lieke behartua ez balitz? Zeinek izango lituzke kontuan bertuteak beste bizitza bat egongo ez balitz?"¹⁶

Hitz hauekin agertzen digu Shaftesburyk naturan erroaturiko moralitasun laikoaren aurrean zenbait autore erlijiosok erakusten duten etsai-jarrera. Moralitasun naturala erlijioaren etsai bezala agertuko zaie, hauentzat ezinezkoa izango delarik naturazgaindiko oinarrietan eraikiko ez den moralitasuna eraikitzea, ontasuna eta gaiztotasuna naturazgaindiko esparru batean erabakiko diren kontzeptuak izango direlako, errealitate traszendental batetik, eta ez prozesu razional batean, gizakiaren adimenetik eratorritakoak. Beste bizitza bat, sari edo zigor bezala jasoko dena, izango litzateke honela moralitasunaren oinarria erlijioaren ikuspegitik, honela gizakiaren autonomia eta askatasuna erabat gutxietsiak geratuko direlarik.

Baina autore erlijioso horien posturaren ondoriorik larriena ez da izango, Shaftesburyren ustez, moralitasun razional eta naturalaren ukazio hutsa, baizik eta erlijio beretik eratorriko dela, paradoxikoki, ustezko moralitasun autonomoari atxiki dioten ondorioa, hau da, erlijioaren ahalezkotasun baldintza ororen ukazioa. Izan ere, ateismoak jainkoaren ukazioarekin naturaren ukazioa ere ekarriko luke, halaxe da, baina erlijioak, Shaftesburyk erasotzen duen erlijioak, bere arrazoigabetasunean, jainkotasunari eutsi nahian, natura ez ezik jainkoa bera eta

bertutea ere ukatuko lituzke.

"Helburu horrekin nagusiki bertutea hastapen batzuetan oinarritzen du, horien bidez oraindik Jainkoa eta Geroko Bizitza onartzera makurtu ez diren horiek konbentzitu ahal izango dituelarik. Nola izango zaie, bestela, ulergarria Ontasun Gorena Ontasuna berez zer den ez dakitenei? Nola ulertu ahal izango dute bertuteak saria merezi duela ez badute ezagutzen bertute horien meritua eta gorentasuna? Mutur okerretik abiatuko ginateke, seguruena, meritua graziaren bidez eta ordena Jainkoaren bidez frogatuko bagenitu. Hau gure lagunak zuzendu egingo luke. Zeren, bertuteari dagokionez, arestian errealista deitu duzuna bada, frogatzen saiatuko da ezen: bertutea benetan zerbait dela bere baitan eta gauzen izanean; ez dela nahikeriazkoa edo artifiziala (horrela hitz egin badezaket); ez dela sortzen bertuterik ez dagoen lekutik;"¹⁷

Kristautasunarentzat bertute moralaren arrazoia, azken batean, naturazgaindiko ustezko errealtate batean aurkituko genuke, errealtate arrotz eta irudimenezko batean. Era honetara ez legoke benetako berezko moraltasunik, ez legoke ontasunik zigorraren eta sariaren beldurretik edo irrikatik sortuko litzatekeena baino. Hemen ez dago hastapena bere baitan duen moraltasunik, ordainezko morala baizik, balioen iturria norberarengandik kanpo eta, beraz, arrazoimenetik kanpo kokatzen duena. Banakoaren jokaeraren irizpidea ekintza bat burutu ondoren jasoko duen saria ala zigorra izango da. Honela asetasuna, ustez

onegilearena litzatekeen asetasuna, sarituaren asetasuna bihurtuko da eta hutsune bat egongo da ekintza eta asetasun horren artean, eta, azken baten, naturaren munduaren eta bertutearen munduaren artean.

Gaineratu behar zaio honi honek guztiak askatasun oro suntsitu ez ezik jainkoaren ulermen razionalaren ahalbide oro ere deusestuko lukeela, eta, beraz, ustezko ontasun horren hastapenaren ezintasunera ekarriko gintuzkeela: *Mutur okerretik abiatuko ginateke, seguruena, meritua graziaren bidez eta ordena Jainkoaren bidez frogatuko bagenitu*. Naturaren ordenaz jabetzea izango da, hontara, jainkoaren existentziaz jabetzeko bidea eta ez alderantziz -hau da, jainkoaz jabetzea munduaren ordenaz jabetzeko bidea-.

Argi geratuko da, hala ere, Shaftesburyk ez duela ordainezko moralaren balioa erabat deusestuko. Berak moralaren funtzionamendu bikoitza onartuko du, era honetan ordainezko moralari ere lekua egingo diolarik. Gizaki askea moral askearen arabera jokatzeko duena izango da, pertsona hezia izango da bera, baina badago baita zigorra eta sariaren arabera jokatzeko duen jendea ere. Ikuspegi elitista hau hasieratik agertzen da islatua eta nabarmena egiten da *Moralistak* lanean famili oneko jendea eta jende jantzia egiten dituenen bere elkarrizketaren partaide eta hartzaile, nolabait hauek izan beharko luketelarik bere irakaspenen jasotzaile, baina, halaber, horrela erakusten du garbiro bere pentsamendua azaltzen duenean ere. Esaterako bere moralaren eta erlijio naturalaren balio unibertsalaz zalantzarik agertzen ez badu ere, badirudi ordainezko morala, eta horretan oinarritzen den erlijioa, premiazkoa dakusala gizadiaren

garapenaren maila batean eta, era berean, gizartearen partaideetako batzuentzat, hain zuzen, ezjakinago direnentzat alegia. Eta hemen ez zaigu zaila egingo Platonen pentsamenduaren oihartzuna somatzea gizartea era hierarkizatu batean sailkatzen zuenean, filosofoa aske eta arrazoimendun eginaz eta artisauak, berriz, sentipenen morroi bihurtuz.

"Ez al da jarraitu behar gizadiaren eta munduaren onerako zuzenbidearen araua, modurik onenean ez bada bai behintzat era imperfektu honetan? Ez al da azaldu behar beldurrari zerbitzatzea behea eta zitala izan arren (erlijioa diziplina eta arimaren perfekziorako aurrerabidea izanik) saria eta zigorra motibapen oinarritzakoak eta handiak direla; baina, heziketa gorenago bat jasotzeko gauza garenean, morroi egoera horretatik eraspenaren eta maitasunaren zerbitzura iragaiten garela?"

"Honek izan behar du, gure lagunaren iritziz, denon helburua, eta ahalegindu behar dugu helburuaren bikaintasuna izan dadin mugituko gaituena eta ez saria; alabaina, baliteke, gure izaeraren ustelkeria dela eta, lehena ez izatea nahikoa motibu gu bertutera bultzatzeko; bigarrena izan daiteke, orduan, lagungarri, eta ezin da inolaz ere bera gutxietsi edo baztertu"¹⁸.

Honela Shaftesburyk Platonen heziketaren balioa berretsiko du, heziketan eta hortik etorriko litzatekeen gizakien arteko hierarkizazioan oinarrituko litzatekeena. Heziketaren azken helburua gizakia moralki librea sortzea izango da, naturan eta

gizartean era harmoniatsuan integraturiko gizakia, baina baliteke hau ahalezko ez izatea gizakiaren izaeragatik; kasu horretan hobetsiko du jokaera bertutetsua sorraraztea horretarako bitarteko ezegokiak erabiliz besterik ez bada, baliabide horietako bat etika retributiboa izan litekeelarik. Nolabait esateagatik honelako etika bat gaitzerdi bezala onartuko du.

Dena dela, Shaftesburyk moral retributiboari jaurtitzen dion erasoa ez doa zuzenduta kristautasunaren adar bakar bati, neurri handi batean kristautasunaren muinari erasoa baita berarena, bekatuen mundua ez baita kristautasunaren korrante bakar baten bereizgarri. Jatorrizko hobenaren auzia bai katolikoek, bai protestanteen teologian funtsezko arazoa zen, Ingalaterrako puritanismoa nola Alemaniako pietistak dogma honen inguruko gorabeheretan mugitzen baitziren¹⁹. Azken baten, gizakiaren errozko gaiztotasuna zen hauen guztien teologiaren muina eta Shaftesburyk ontasun moralaren, moraltasun autonomoaren ahalbidea defendatzen du, baina, ez geroago Rousseauk egingo duen bezala banakoaren berezko ontasuna aldarrikatuz, ideal komunitarioetatik abiatuz baino.

Naturan errotutako erlijioa

Alabaina, bere egitasmoaren helburuan ez dago erlijioaren ukazioa edo errefusapen borobila garatzea. Izan ere, berarentzat erlijioaren jardunak ez du berez zertan askatasunaren jardunarekin, jardun filosofikoarekin, kontrajarrita joan. Bere helburua izango da, Cassirerek gogorarazten digun bezala²⁰,

puritanismoari eta dogamtismoari eraso egitea, eta mesfidantzaren eta gure mundu honi uko edo ihes egiten dion erlijio baten aurrean, baikortasunaren, askatasunaren, konfiantzaren eta munduaren gozamen estetikoaren erlijioa proposatzea. Calvinismoaren eta puritanismoaren hertsikeria eta samintasunaren aurrean berak erlijio aske eta alaia eskaini nahiko du, munduari inozotasunez eta gozatzeko gogoz begiratuko diona.²¹

Helburu horrekin erlijioari buruzko eztabaida liskar partikularretatik ateratzeari derrigorrezkoa deritzo Shaftesburyk. Arazoa ez da zein den erlijio edo korrante zuzenena, zein den garaile erlijio ezberdinen artean, auzia erroetara ekarri behar da eta galdera erlijio guztien oinarriari buruz izango da, eta berak, azken batean, erlijioa naturan eta gizakiaren berezko nortasunean errotu nahi duenez, arazoa giza izaerari buruzko galdera bihurtuko du. Axolagabetasunez, era desinteresatuan, begiratu behar baitzaizkie erlijio ezberdinei eta guztien hastapenak aztertu, guztiak bat, osotasun bat, egiten dituen ezaugarria bilatzeko.

*"Erlijioaren defentsan diharduten idazle ugarietatik gehiengoa ahalegiten da, nire ustez, hala kristau fedearen egia oinarritzen bere orokortasunean, nola eliza kristauak berrikuntzat jotzen dituen doktrina jakin batzuk gezurtatzen. Pentsatzen da, oster, ez dagoela jende asko munduan erlijioaren oinarri hutsen eta hastapenen bila, eta egundaino, egia esan, ez dugu idazle askorik aurkitzen horretaz arduratzen direnak"*²².

Eta honela lehenxeago aipatu dugun irrazionaltasunaren bigarren errura gatoz orain, lehenak banakoa morroi bihurtzen du, bigarrenak, morroitza horrekin lotura handia hautsi gabe berari buruzko idatzizko adierazpenekin du zerikusia, bai bere zutabe diren argudioekin, bai gainditzen lagunduko dutenekin; hain zuzen idazleak aipatzen dituenean era batera edo bestera mendeetan zehar inguru horretan argudiatu dutenek dakartza gogora. Eta argudioak bi eratakoak bereiziko ditu: erlijioa itsu-itsuan defendatu nahi dutenena -euren argudioen oinarria, azken baten, agintea, saria eta zigorra izango direlarik- eta, filosofiak eskaintzen dituen tresneria kritikoaz baliatuz erlijioaren erroei buruzko gogoeta kritikoari ekingo diona, azken hau ordura arte ia existitu ez den bidea, baina, erlijioaren bidea zabaltzeko nahi izanez gero, hartu beharrekoa dena.

Eta honekin hurbiltzen gara erlijioaz hitz egiteko berak bereizten dituen bi bideen zehazpenera: epailearena eta filosofoarena.

"Mehatxu hutsak alde batera utziz filosofoaren lana epailearenaz bereizi beharko zenuke, segurutzat hartuz bakarrik filosofiaren luma xedatsu eta bareagoak hunki ditzakeela sinesgabeen artetik urguri eta neurtuak diren horiek (zeintzuk epailearen luma erabakiorraren eragipean sartzen ez diren). Bada, aitortu behar dut, epaileen hizkerak ezer gutxi daukala zerikusirik filosofiarenarekin. Ez baitago ezer desegokiagorik epaigizonaren aginbiderako idazkera filosofikoa baino, eta ez da ezer filosofiatik urrunduko epai-idazkera baino²³.

Ez dute zerikusi handirik bi hizkuntzek, bi erreferentzia inguru mugatzen dute askatasunarena bata eta menpekotasunarena eta agintearena bestea. Ezingo dira ez bi hizkuntzok elkarrekin bat etorri: batari lotzen zaiona solaskidearen mailan jartzen da -honela esan dezakegu filosofoak askatasunaren bidea hartzean, agintearena eta indarkeriarena ukatuz, hurkoaren askatasuna ere aitortuko duela-. Beste hizkuntzak, epailearenak, ez du solaskiderik, ez dio besteari aitortzen bere jardun propioa izateko eskubidea, haatik, norberaren egia, edo norberaren gainean dagoen egia, ezarri nahi dio. Eta hemendik erlijioa bizitzeko bi era ezberdinak azaltzen zaizkigu: menperatua edo mistikoa eta askea. Lehena ez da arrazoimenezko hizkuntzaz baliatzen epailearenaz baino, arrazoimenezko moralitate librea ukatzen du eta naturazko eta gizarte ordenamendua gaiztotzat jotzen du, bertutearen justifikazioa beste mundu batean eta gizakitik kanpo ezarriz. Honen arabera ez da bertute aske edo neurturik egongo, ez gara gizateriaren lagun izango, naturarekin dugun lotura eta harmonia gertakari ez beharrezkoa izango da, ez da bera xede izango, morroi izango da, bere maitasuna zigorra eta sariaren arabera higituko da. Bigarrenak, oster, bere eraspenen betetasuna bilatuko luke naturarekin harmonia bilatuz eta moral aske bati jarraituz berez maitagarria denari begiratuko dio, benetako maitasunean bizi da eta bere eraspenentzat gai gorena aurkitu du.

Ateismoaren kritika

Baina puritanismoari eta erlijio kristauaren praktikari kritika horretaz gain ateismoari ere jaurtikiko dio bere kritika. Izan ere, moraltasunaren lehentasunak ez ditu erlijiotasunaren ateak itxiko, erlijiotasunaren modu berri bat eskatuko du, besterik ez. Zama izango ez den erlijioa, erlijio arina, naturan eta banakoan bilduta egongo dena eta ez balio iturri arrotz baten gisa jokatu duena, azken batean, arrazoimenezko hastapenetan errotutako erlijioa.

Horregatik ateismoari eraso ez da etzango ustezko irrazionaltasunean, ez du gutxietsiko bera arrazoimenezkoa ez izateagatik, haatik, erlijioak, edo erlijiotasunaren zenbait agerpenek, ez duen razionaltasuna onartuko dio, nahiz eta onartuko duen badela bere agerpen irrazionala ere. Berak, hain zuzen, jainkogabe deitzen direnen artean bi jende mota bereiziko du:

*"Jainkoa erabat ukatzen duenarena eta Jainkoaz zalantza baino egiten ez duenarena. Zalantzatan dagoenak deitoratzen du, seguruenik, bere zorigaitza eta desiratuko luke bere burua konbentzitzea. Ukatzen duena, aldiz, handiuste ausartia da eta gizadiaren eta gizartearen aurkako iritzi bati eusten dio"*²⁴.

Honela egongo da jainkogabetasunean ere irrazionaltasun maila bat, eta honi erantzuteko onartuko du nahikoa izango dela, hain zuzen, batzuek jainkogabetasunaren mota guztietarako

aldarrikatzen duten epailearen hizkuntza, gaitzespenaren hizkuntza alegia. Alabaina ez da hori izango jainkogabetasunaren agerpen bakarra ezta nabarmengarriena ere. Izango da, izan, jainkogabetasunera zuzenduko duen bide razionalik, jainkoaren existentziaz zalantzatzea bideratuko duena. Nola ez da izango ba, onartzen badugu existentzia hori oinarri razionaletan finkatu behar dela, eta, azken batean, razionaltasun ororen erroa zalantzan eta autoritatezko argudioaren errefusapenean badatza. Eta ateismo razional honi aurre egiteko, abiabidea ez da izango erlijio dogmatikoa, baizik eta bere zutabeak arrazoimenaren alorrean sustraitzen dituen erlijioa, edo, hobe esanda, giza izaera unibertsaletik sortzen den zentzu moral razionala, teismoan gorpuztuko dena eta erlijiotasuna ondorio bezala kontsideratzera eramango gaituena.

Nabarmentzekoa da ateismoaren agerpen honek jasaten duen tratamendu leuna, samurra, Shaftesburyren testuan. Izan ere, berak ez dio inongo higuinik erakutsiko erlijiotasunaren joera grinatsuen aurrean beraren razionaltasuna hobesteari. Hauek fedearen lehentasuna edo, gutxienez, arrazoiarekiko parekotasuna eta, azken batean, honen morroitzia defendatzen dute, kasu honetan arrazoiaren helburua fedea irmotzea izango litzatekeelarik besterik ez. Shaftesburyk, berriz, fedea baztertu eta razionaltasunari lehentasun osoa emango dio, fedea lehena, aurreko edo razionaltasunaren pareko izatetik, baliagabea izatera pasatuko delarik horrela. Fedeak, autoritateak bezala, ez du lekurik izango hemen, ez bada saihetseko ekoizpen gisara, era honetara fedea erabat baztertuta geratuko delarik arrazoiaren esparrutik.

Dena dela, jainkogabetasunari razionaltasunaren abantaila onartzen zaion arren, honek ez du bere erabateko nagusitasuna sendotuko, erlijioaren agerpen jakin baten aurrean duen gailentasuna erakutsiko du, besterik ez. Eta bere nagusitasun hori bere hutsalkeriarekin bat egiten da, jainkogabetasuna negatiboa ez izateak ez baitakar bere positibotasuna. Izan ere, jainkogabetasunak ez du inongo ekarpenik eskainiko, ez onerako ez txarrerako, antzua izango da. Honela gogorarazten digu L. Stephenek Shaftesburyren *An Inquiry Concerning Virtue*-tik hartutako hitz batzuen bidez: "religion... is capable of doing great good or great harm, and atheism nothing positive in either way"²⁵. Kaltegarria ez baina antzua izango da, hortara, jainkogabetasuna, eta antzutasun horrek bai ezagupenaren arloan, bai arlo moralean izango du bere isla.

Jainkogabetasunak harmonia hausten du eta harmoniaren hausketak nahasketa eta errealtatearen ezagutezina dakar. Shaftesburyrentzat errealtatearen, eta, beraz, esperientziaren, osotasuna ezagungarria da eta, are gehiago, nahitanahiezkoa da esperientziaren osotasuna eman dadila subjektu ezagule baten baitan, ez gizakiarengan, baina bai probidentzia batengan edo jainkoarengan -ez, jakina, jainko pertsonalizatu batengan, baizik eta naturarekin identifikatzen den jainkoarengan- eta ateismoak ukatu egingo luke ezagutza unibertsal hori probidentzia ukatuz. Hau, noski, Kantek geroago eskainiko duen argudiotik urrun dago, honentzat esperientziaren osotasuna ezagutezinaren esparruan sartzen delako, baina egia da, halaber, bien jainkotasuna fedearekiko morroitzatik eta irrazionaltasunetik ateratzeko eta razionaltasunera sartzeko ahaleginaren kemena parekoa dela.

Baina hau guztia ez ezik, eta ezagupen teorikoari nola arlo moralari dagokionez ateismoaren hutsa, edo, hobe esanda, huts horien zergatia, bere helbururik ezean aurkituko dugu. Ateismoa, azken batean, galdera hutsean geratuko litzateke, arazoak auzitan jartze hutsean, nolabait Descartesek eszeptzismoari arbuiatzen dion jarreran alegia, baina ez luke xede positiborik eskainiko, ez du asmo eraikitzailearik eskaintzen, ez luke ekintzarako hastapenik bilduko pairamenerako baino, eta Shaftesburyrentzat, ekintza ororen noblezia bere helburuan etzango da, jainkoa, edo natura, helburu gorena izango delarik. Honela, ondoriozta dezakegu arlo moralean jainkogabetasunak pairakortasunera bultzatuko lukeela xederik gabea delako, eta, garbi dago, hau ekintzaren filosofiaren bigarren erasorik latzena izango litzateke, lehena, jakina, askatasunik gabeko ekintza litzatekeelarik.

Honen ondoren hurrengo arazoa izango da zehaztea non aurkituko den lejitimotasuna jainkogabetasunari erantzuna emateko, eta doi-doi seinalatuko du non egongo den lan horren arduraduna.

*"Teismoa bakarrik kontrajarri ahal baitzaio politeismoari eta ateismoari"*²⁶.

Beharrezkoa izango da, beraz, ateismoari erasotzea baina hau teismoaren eginkizuna izango da -bakarrik honek erabiltzen duelako tresna egokia, arrazoa alegia-, zeregin hori burutzeko bera izango delako harmonia eta egokitasuna aurkitzeko bidea, ateismoari darraion nahasketaren aurrean. Izan ere, biak

(ateismoa nahiz teismoa) arrazoiaren bidetik abiatzen diren arren kotrajartzen dira bata desordenerantz eta bestea ordenerantz abiatzen diren neurrian. Horrela, L. Stephenen hitzak hartuz, esan dezakegu teismoaren diskurtsoa naturari buruzko adierazpen zuzena, harmoniatsua, izango litzatekeela, gauzen orden orokorrarekin bat etorriko litzatekeena, ateismoa, berriz, naturarekin bat ez datorren naturari buruzko diskurtso okerra izango litzatekeen artean²⁷.

Ordenaren aurkikuntzan etzango da, ba, teistaren lehia, baina ez orden totalitarioa, erlijioaren aldeko idazle gehienek bilatu duten legez, arrazoigabeko bidetik abiatuz, baizik eta askatasunaren ordena, arrazoiarena.

*"Ordenaren alde lehiatu behar dugu, bereziki bertuteari dagokionean. Ez dugu dena heriotzondoari begira egin behar. Zeren egoera nahasi batean gauzekiko ardura baztertzen denean, hobena ez denean kontrolatzen eta bertuteaz arduragabetzen garenean, anabasa hutsa besterik ez baitago, eta jainkogabeen bihotzeko atomo, halabehar eta nahasketara murriztuak gara"*²⁸.

Ateismoaren jomugarik ezak errealitatearekiko etena eta bertutearekiko axolagabetasuna ekarriko du, jainkogabearen ingurunearekiko hausturara bultzatuz. Hau gainditzeko bere ikuspegi monistarekin bat datorren planteamenduari lotuko zaio Shaftesbury eta Jainkotasunaren, moralitasunaren eta naturaren arteko batasuna ezarri beharra ikusiko du. Eta bi urratsetan erakustiko digu, gainera, elkarlotura hori: alde batetik,

Coodworthen aierupena dakarrenean bere moralista izate hutsagatik teologo dela eratorri beharra defendatuko du:

*"Eta bertutea bere gairik nagusiena bihurtu badu ere, eta neurri batean erlijiotik banandu duen arren, bururatzen zait azken batean moralista den adinako teologo bikaina bilakatuko zaigula seguruenik"*²⁹.

Ez da, dena dela, kasu partikular huts honetan geratuko eta berehala baieztatuko du parekotasun horren balio orokorra. Ez baita moralitasunaren eta jainkotasunaren arteko lotura hori ematen Coodworthengan bakarrik, baizik eta benetako bertutea defendatzeak benetako teologiara eramango baitu:

*"baina ausartuko naiz, aldiz, zera baieztatzen: bertutea zinez defendatzen duen eta moral kontuan errealista den edonork teologian ere derrigorrez errealista izan behar duela neurriren batean, arrazoitzeko era berdinari jarraituz"*³⁰.

Moralitasuna, onaren zentzua, definitzailea izango da gizakiari dagokionez eta bere lehentasuna zalantza guztietatik alde batera utzi beharra dago. Gizakiak onaren sena errozkoa du eta horrek eramango du zuzen edo oker jokatzera³¹, baina sen horri, eta berari dagokion unibertsaltasunari, lehentasuna emanda -sen horrek bere gaia harmonian bilatuko duelarik-jainkoarenaganako urratsa arinagoa eta axolakabeagoa izango da.

Baina moralitasunaren eta jainkotasunaren arteko loturaz

gain, aipatu dugun bezala, moralitasunaren eta naturaren artekoa ezartzea ere beharrezkoa da eta horrela egingo du gure egileak:

*"Baina gu gehiago izango bagina (ikerketa honek lagunduko digun bezala) edertasuna eta txukuntasuna ikusiko genuke hemen -naturan beste edozein lekutan bezala- eta mundu moralaren ordena naturazkoaren parekoa izango litzateke. Bertutearen edertasuna azalduko litzateke, eta horrekin batera (erakutsi den legez) edertasun gorena eta nagusiena, guztien jatorria, ona eta maitagarria"*³².

Eta jainkotasunaren, moralitasunaren eta naturaren arteko lotura hau, gainera, ateismoaren errefusapenerako tresna ez ezik jainkotasunaren existentziaren frogapenaren ezinbesteko aurrebaldintza eta aitzinapen bezala agertuko da. Izan ere, Shaftesburyk uste du, Descartesek eta Lockek³³ bezala, Jainkoaren existentzia arrazoimenaren bidez frogatu daitekeela, baina beraren argudioa ez da argudio ontologikoan edo kausalitatean oinarrituko, haatik, beraren frogapenaren indarra argudio teleologikoan finkatuko da bereziki³⁴, nahiz eta horren ondoan naturaren ordenean errotzen den argudio kosmologikoari ere bere garrantzia aitortzen dion.

Horrela dakusagu 3. zatia lehena atalean -Filoklesen eraso guztiei erantzun eta gero- berrekingo diola Teokles jainkoaren existentziaren frogapenari, bere azken urratsa emateko asmoz. Honetarako bi oinarri hartuko ditu: lehena izango da bere azalpenean errealitatea bere osotasunean, hastapen bakar batean oinarriturik, azaldu beharra:

*"Baina orain ohartzen naiz dena batera azaldu behar dudala, eta gauzak kristal magiko baten bidez bezala begiraturik, gaitzik okerrena on bihurtuta ikusi behar dudala, eta miretsi, era berean, esku perfektua eta berak sortzen duen edozein gauza"*³⁵.

Eta bigarrenik eta horrekin batera, garbi agertzen den legez testu horretan bertan, gaitz oro naturatik bazterturik azaldu beharra. Hemen, jakina, bere errozko baikortasunaren adierazpen garbia dugu, Leibnizena baino areago joango dena. Leibnizen baikortasunak³⁶, azken batean, bere mugapena zeukan ahalezko munduen artean. Shaftesburyren kasuan, ordea, ahalezko mundurik onenaz gain ahalezko mundu bakarraz jardun egingo du; berarentzat den guztia ona da, ez da egongo benetako gaitzik, denak hartuko du zentzu positiboa. Eta gaitzaren bizipenaren iturria munduaren mugimendu unibertsaletik bananduta behatzen dugulako izango da, ez orden unibertsalerako lana egiten duen elementu bat bezala, eta ideia hau oinarritzko izango da jainkoaren existentziaren frogapenerako.

Frogapenaren abiapunturako Filoklesengandik onespen bat galdetuko du, hain zuzen unibertsuaren batasunarena, eta honek, han hemenka onespen horri amore eman nahi izan ez badio ere, hemen, banakoaren batasunetik eta harmoniatik osotasunaren batasun eta harmoniara doan argudioa onartuz bere argudioaren bidea irekiko dio Teoklesi. Onespen hau, eta, batasun eta orden unibertsalaren hastapena finkaturik, Jainkoaren existentziaren frogapenaren urrats erabakiorra emango du, batasun eta orden hori adimentsu bihurtuz. Beharrezko zaio ordenaren eta batasunaren

frogapen hori bera adimenaren eta naturaren arteko batasunaren bermea izan dadin, eta honela "adimen perfektuaren gobernua ezartzen duen argudiapena"³⁷ deritzona aurkeztuko digu.

*"Zeren osotasunerako posible dena, osotasunaren izaerak edo adimenak gauzatu egingo du osotasunaren onerako: eta gaitza baztertu ahal bada baztertu egingo du. Horregatik, itxurak itxura, posible bada gaitza benetan baztertzea, egin kontua benetan baztertua izan dela. Zeren pairakorra den ezerk ezin dio aurre egin unibertsalki eraginkorra den hastapen honi. Eraginkorra den zerbaitek egiten badio aurre, bera ere hastapen izango da"*³⁸.

Nabarmengarria da argudiapen hau, berehala (hasieratik?), etikarekin lotzen den parametro batzuetan ezartzen dela, hau da, ez da ezagupen teorikoaren esparruan finkatuko ezagupen praktikoarenean baino. Horregatik frogapenaren elementuen artean aurkituko ditugu: 1) gaitzaren arazoa eta bera naturatik uxatu beharra, bere irrazionaltasuna kontuan izanik; 2) pairakortasunaren gaineko ekintzaren nagusitasuna; 3) helburu unibertsal baten premia.

Baina argudiapenaren giltzarria gaitasunetik egitera iragaiten utziko lukeen urratsa litzateke, hau da, "zerbait existi badaiteke, orduan existitzen da" tankerako baieztapen bat litzateke, lehenago aipatu dugun argudioa, alegia. Honekin Shaftesburyk ekimenaren lehentasuna gogora ekarri nahi du berak balio positibo ia absolutua hartuko duelarik. Bera da askatasunaren eta arrazoimenaren iturri, eta, azken batean,

onaren eta gaitzaren arteko bereizketaren irizpidea. Eginkizun honetarako ekimena ontasunarekin bat egiten da, existitzen dena, hau da, gaitasunetik izatera iragiten dena, ona baita beti eta gaitasunetik errealitaterako iragaiketa ukatua zaiolako gaitzari. Honela, gaitza pairakortasunarekin bateginaz, eta bera izaditik kanpo jaurtikiz edo naturaz kontrako bultzada bihurtuz, ontasun falta bezala baino ezin izango genuke definitu, era negatibo batean, alegia.

Honela heldu da helburu duen orden unibertsalaren frogapenaren lehen urratsa ematera. Hemen, noski, dualismoaren ertz zorrotzetik mugitzen da Shaftesbury oreka gaitza mantentzeko eginahala setatian, ez baita zaila Descartesen jeinu maltzuraren argudioaren zantzua aurkitzea; nahikoa da argudio hori gogoratzea ohartzeko han ere gaitza perfekzioarekin eta funtsezko izatearekin, han jainkoarena hemen naturarena, bateraezina dela. Baina Descartesek irtenbide bezala defendatzen duen pitzaduraren onarpenari, kutsu kristaukoa bera, muzin eginaz bereari eutsiko dio Shaftesburyk horretarako giza eginkizuna ere gaitza onartzen ez duen marku bakar batera murriztuz, naturarenera alegia. Marku hau beti ikuspegi dinamiko batean gogartuko da, eta orden jariakor horrek beraren hastapena bertan emango diren aldaketa guztiak gidatuko dituen helburu bateratuan izango du euren izatearen zentzua.

Ezartzen da, ba, hemen orden teleologikoaren premia bere pisu guztiarekin. Honek guztiak balio du aurretik, Coodworthen ideiak aztertzean, azaleratu dituen galdera eta arazoei erantzun borobila, erabakiorra eta baiezkkoa emateko.

"... naturan adimen edo jainkotasun goren bat baldin badago, badaukagu orduan gai bat ona eta bikaina dena, gauza guztiak bildu etaosatzen dituenena. Eta gai hau izango da ezinbestez maitagarriena, erakarleena, eta asetasun eta atsegintasun handiena emango duena. Munduan horrelako gai nagusirik dagoen ala ez, bakarrik munduak (horrela esan badezaket) ager dezake bere ordena jakintsu eta perfektuaren bidez. Ordena honek, benetan perfektua bada, gaitz oro baztertuko du"³⁹.

Ordena frogatuko dugu lehena. Naturaren ordena ezin da jainko baten existentziaren frogapenaren ondorio izan, haatik jainkoaren existentziaren frogapena naturaren ordenaren ondorio beharrezko izango da. Ordena eta adimen arautzailea atzeman eta onartzen dugunean, beraz, aurkituko dugu benetako jainkoa. Munduaren ordenetik eratorriko da, ba, jainkoaren existentziaren frogapena eta ez alderantziz, Descartesek zegien bezala, jainkoaren existentzia frogatu beharra baitzuen honek, gero munduarena eta naturarena frogatu nahi izango bazen. Era honetara ere Shaftesburyrengan beharrezkoa bihurtzen da gaitz guztien ukapena, zentzugabea izango baitzen Jainkoa, perfekzioa, gaitzaren ondorio izatea. Gainera testuan dioen bezala Ordena honek, benetan perfektua bada, gaitz oro baztertuko du.⁴⁰ Izan ere, gaitza, beti interees partikularrei makurtuta dagokienez, partikularitasunak biltzen duen interes aniztasun eta kontrakotasunean eman beharko da, unibertsaltasun oro ukatuz. Horrela adierazten du, gainera, Entusiasmoari buruzko Eskutitzean:

*"Ezin da gaiztotasunik egon interes kontrajarriak daudenean baino. Adimen unibertsal batek ez du interes kontrajarrik. Adimen orokorra badago ezin du berak interes partikularrik izan"*⁴¹.

Jainkoak honela osotasuna ordezkatzeko du, osotasun razional, on eta ederra, azken gai morala baina baita estetikoa ere. Osotasunarekin bateginik, L. Stephenen hitzak hartuz, Jainkoa ez da izango aurrerantzean mundutik kanpoko aginteduna, baizik eta munduaren azpian datzan indarra⁴², natura arautuko duen adimena; naturan bertan aurkituko duguna, ez kanpoko mundu batean, ez ondoko bizitza batean, ez bananduta, naturaren eta gizartearen baitan baino.

Erraz ateratzen da, noski, batasun honetatik panteismoaren tradizio luzearekin lotura, Bruno, Spinoza eta beste zenbaitekin lotzen duena; baina hauek ezingo dute bera bururatu modu inbertsonal eta inmanentean, Shaftesburyren testuan, berriz, nekez lortuko da modua baieztatzeke Jainkoa era pertsonalean eta trazeendentean bururatzeko duela.

Jainkoa munduratu egingo du Shaftesburyk, horrela orden unibertsalaren subjektu bezala bururatuko delarik; naturarekin bat eginda ekintza guztien helmuga bihurtuko da hala nola ezagupenaren iturri edo munduaren euskarri; bera izango da xede bakarra, beraren buruaren aurkakorik onartzen ez duena, bai ezagupenari dagokionean, bai giza jokaerari dagokionean ere.

Bere izaeraren funtsezko ezaugarria ez da zigor edo sari emaile izatea izango, maitasun axolagabearekin kontraizanean jarriko litzatekeelako, haatik, jainkoa gure ekintzen eragilea

eta hastapena, izango da, eta gure ekintza naturan berak ezarriko duen orden unibertsalaren arabera garatuko da.

*"Zeren gauzok ulertzen direnean, eta benetako teologia ezagutzen denean, bere jakintza ez baita lehorra eta antzua; alderantziz, beretik ezinbestez ateratzen diren ondorioek gu ekinbidean jarriko gaituzte eta gure eraspen sendoenei norabidea emango die"*⁴³.

Honela gure eraspen sendoenek, gure baitango maitasun osoak, euren helburua, zentzua, eta, azkenean, ontasuna, orden horren barruan aurkituko dute. Dena, ekintza oro, beraz, ona da dena naturala delako, ez dago ezer artifiziuala, gure gizartean zenbaiten ikuspegitik gaitzaren gauzaketa maltzurrena dena

Jainkoaren ezagupena, beraz, ekintzaren hastapen izango da, baina ez arrotza zaigun zerbaitek agintzen digunaren betebeharra bezala. Ekintza morala, ez da esperientzia mistiko baten gisara ulertuko, banakoak beste mundu bateko errealitate bati begira garatzen duen eginkizuna; ekintza morala gizakiak naturan, eta naturaren, hau da, jainkoaren, ezagupenean burutzen duen ekintza izango da.

Gaitza

Ikusi dugu gizadi osoaren ontasuna, eta ez norberarena edo bakar batzuena, bilatu beharko duela gizakiak, eta ontasun horren jasotzailea banakoak izan behar badu ere, ez da jarrera berekoia

izango horretara bultzatuko duena, baizik eta azken helburu bezala bere kideen ontasuna bilatuko du. Ideia hau nahikoa ondo egokitzen da L. Stephenek aipatzen duen Shaftesburyren gehiegizko baikortasunerako joerarekin⁴⁴, eta harmonia unibertsalaren⁴⁵ teoriekin ere, honen arabera den guztia zuzena izatea beharrezkoa bailitzateke. Era honetara gaitza eta sufrimendua ere naturarekiko harroztzat joko du nola edo hala harmonia horren pitzadura lekarketelako.

Bere panteismoaren arabera jainkozko iradokizuna -baina ez naturatik bereizitako Jainko batena- egongo litzateke, bai unibertsu osoaren gertaeretan, bai gure jokaeren osotasunean. Kontua era horretara planteatuta ez zaio zaila egingo gaitza errealitate naturaletik, nahiz moraletik, kanpo egozteko helburua betetzea, baina, hala ere, ez da oso aztia izan behar esateko naturaren zenbait alderdi ilun ahazten dituela eta gauza beretsua gerta daitekeela moral arazoekin. Ukaezina da harmonia unibertsalaz gain, edo bere barne, badela gizakiari edo, gehiago esanda, bizidunei dagokionez gaitzaren eta sufrimenduaren presentzia munduan -berdin da bera ulertzen dugun naturala den zerbaiten gisara edo jainko batek ezarritako zigorra bezala- eta gaitz horrek gauzaketa fisikoa nola gauzaketa morala erakusten duela, eta agerpen horren aurrean ukazio hutsa baino arrazoi mardulagoa eman beharko dela.

Arazoa, alabaina, ez da berdin erabakiko errealitate fisikoari dagokionez eta gizakiari dagokionez. Balio moralak eta gizakiaren presentzia bera alde batera utziz gero, ez du zailtasun handirik aurkituko Shaftesburyk errealitate fisikoaren batasuna baieztatzeke eta lurrean ordenaren, gozotasunaren, eta

maitagarritasunaren nagusitasuna behatzeko, alabaina gauza aldatuko zaio gizakia antzoki harmoniatsu horretan sartzen ahalegintzean, errealitate moral batasun fisiko horrekin bat egin nahi dugunean alegia.

Gaiari heltzeko, dena dela, berak gaitzaren lehen pertzepzio nahasi bat aurkeztuko digu. Ez da izaera banandu baten gisa agertuko, osotasunean nahastuta baino.

*"Plazerra eta oinazea, edertasuna eta itxuragabezia, ona eta gaitza alde guztietan elkarrekin lotuta agertzen zitzazkidan; eta denak elkarrekin, nire ustez, nahasmen eder bat eratzen zuten, oro har nahikoa atsegina. Gauza bera gertatzen zen -horrela bururatzen zitzaidan- oihal aberats batzuetan; loreak eta barrena era xeblebrean nahasten dira eta araugabeko lan horrekin eta kolore ezarmoniatsuekin ereduak zakarra ematen duenak oso naturala eta egokia ematen du behin moldatua"*⁴⁶.

Palemonekin solasean diharduela, ba, Filoklesek azaltzen duen gaitzaren pertzeptzioa naturaren osotasunarekin nahastuta agertuko da, dena kutsatuz, naturaren zati guztiek izango direlarik beraren partaide, perfekzio eta inperfekzio guztien partaide diren bezala. Nahasketa honetan bereizketa ezartzea izango da, beraz, ekin beharko dion lehen eginkizuna. Izan ere, natura eta moralitatea erabat nahasturik agertzen diren pertzepzio horretan Shaftesburyren monismoak zutik eta irmo iraun dezake, baina naturatik gaitza uxatzeko bere ahalegina ezerezean geratzeko arriskutan dago.

Pentsatu behar dugu, beraz, nahasketa honi irtenbidea emateko lehen urratsa izango dela gaitza ehun ñabar eta eskerga horretatik baztertzea eta isolatzea, eta horretarako bi aukera baino ez zaizkio agertuko Shaftesburyri, bata ea gaitza bera hastapen bezala muga daitekeen ala ez zehaztea, honek gaitzari berezko sendotasun ontologiko bat eskainiko liokeelarik. Baina gaitza, nola edo hala, osotasunetik banantze honek bere ikuspegi monistari dardara eragingo lioke. Bestea gaitza uxatzea itxuraren, irudien, esparrura murriztuz.

Baina oharrarazai behar da, halaber, hasierako solas honetan agertzen zaigun honako beste kezka ere: ea gaitzak edertasunaren osagarri izan behar ote duen alegia.

"Eta baita ere eskatu nizun esateko ez ote genuen beharrezkoa izango fede filosofiko oso sendoa, sinesteko zuk agertzen zenituen gune goibel horiek koadro bikain baten ezinbesteko itzalak zirela, kreazioaren edertasunerako beharrezkoak gainera;"⁴⁷.

Izango ote du lekurik gaitzak unibertsuaren edertasunean, hau da, honen harmonia osoa mugatzen duten osagarri ezberdinen artean? Sarrera honek gaitzaren estatus ontologikoa zehaztu beharraren aurrean ez ezik, arazo etiko eta estetikoaren artean zeinek duen lehentasuna argitu beharrean ere jartzen gaitu, hain zuzen, erdiguneko kezkak izango direnak Shaftesburyrentzat.

Eta aipaturiko sasiarte horretan egingo duen lehen arazketa ez da begiramen handikoa izango. Unibertsua den baretasun eta harmonia itsaso horretan gizakia izango delako desoreka

sorraraziko duen osagaia, bere jokaera handigura, berekoi eta, azken batean, antropozentrikotik, gaitza aterarazten duenean. Gizakiaren errua dena bere interesei makurtuta ulertzea da; naturarekin harmonian bizitzea eta giza eginkizunaren helburua ezagutzea izan beharrean, bere burua jarriko du xede, osotasunak bere zentzua zati txiki horri begira hartuko balu bezala.

*"Dena da atsegingarria, lagunkoia, pozgarria, gizakiari eta bere gorabeherei dagokienean ezik, hor desberdin ematen du. Ezbeharra eta gaitza sortzen da eta berarekin inguru onberaren hondamena. Dena ahitzen da arlo honetan eta unibertsuaren ordena, beste lekuetan hain irmoa, osoa eta mugiezina zena, hemen amildu eta galdu egiten da, gauzak geure buruari egokitzen dizkiogunean, osotasunaren interesa hain zati txikiaren interesari eta onari menperatzen diogunean"*⁴⁸.

Testuzati honetan agertzen digu, gordintasun osoz, aipaturiko giza izaera moralaren eta naturaren legeen arteko haustura eta gatazka, azken batean bere pentsamenduaren zutabe den monismorako erasorik larrientzat joko duena, bere errozko baikortasun bera ere kolokan jarritz. Izan ere, gaitza gizakiaren baitan ematen dela onartuz gero bi aukera gera daitezke: gaitza -eta berarekin gizakia bera- naturatik zokoratu eta honekin mundurako bigarren hastapen bat badagoela onartu, ala naturan bertan badela gaitzik onartu, zati batera -gizakiarengana- murriztuta besterik ez bada. Baina aukera biok bere ontologiaren oinarritzko hastapenak hautsiko lituzkete ontasunaren eta, azken

batean, edertasunaren presentzia ukatuz; eta horregatik gaitza bere osotasunean naturatik baztertzea baimenduko duen frogapenari ekingo dio.

Bere argudiapenaren abiapuntua osotasunaren harmonian eta batasunean datza, ikusi dugu hau dela bere oinarrizko ideia eta bera gogoraraziko digu hasteko.

*"Gauza banakoetan ikusten dugun adostasunaz eta elkartasunaz konbentziturik, arrazoigabea iruditu zitzaidan ez onartzea gauza bera osotasunean"*⁴⁹.

Hots, banakotasunean elementuen arteko lotura, batasuna eta adostasuna aurki badaiteke, zer esanik ez, arrazoi gehiagorekin, aurkitu beharko ditugu ezaugarri horiek unibertsuaren osotasunean, bururaezina baita banako hori osotasun horretatik bananduta. Baina hastapen hau gogora ekartzea ez da nahikoa izango; aldeaz aurretik frogatutzat jo badu ere, gaitzari buruzko gogoetak hastapen bera auzitan jar ditzakeelako. Izan ere, aipatu berri ditugun aukera horiek gizakia naturatik kanpo edo naturan bi hastapen onartzera behartuko bailukete eta ez dago Shaftesbury aukera hauek onartzeko prest. Eta honetarako Coodworthengandik jasoko duen beste hastapen batera joko du.

*"Ordena honek, benetan perfektua bada, gaitz oro baztertuko du. Eta hain zuzen horrela gertatzen dela mantentzen du gure egileak hisituki..."*⁵⁰.

Lehen hastapen horren ondorio zuzentzat jotzen duen

baieztapen honek argudiapen ontologikoarekin uztartze zuzena dauka, bereziki Desacartesek formulatzen duen eran. Honen arabera onartzen da ahalezkoa den guztia egia dela, baina hau ez dagokio gizabanakoaren haitemaketaren maila mugatuari naturaren osotasuna adierazi nahi duten kontzeptu idealei baino. Jakina gizakiarentzat ahalezko denak ez du zertan egia izan, baina bai ordea natura amaigabeari legozkiokeen, eta nahitaniezko harmoniatik ondorioztatuko genituzkeen, mugapen razionalak. Honela, perfekzioaren ideari, behin onartuta, "a priori" bezala darraio gaitza naturan izateko ezintasuna, perfekzio bera ukatuko lukeelako eta bere lehentasuna finkatua dagoelako.

Azpimarratu, dena dela, hastapen honen aplikapen honetan berak menpeko papera betetzen duela, ez dela bera unibertsuaren osotasunaren harmoniaren, edo Jainkoaren existentziaren frogapenaren oinarria izango, haatik harmonia unibertsaletik sortzen den beharkizuna dela.

Hastapen bi hauek kontuan izanik aipaturiko gaitzaren agerpena onartu eta bere justifikazio egoki bat emateari ekin beharko dio frogapenaren lehen urrats, bezala. Badakigu Shaftesburyk egiteak, atzematen den errealtatea, hartzen dituela bere ezagupenaren abiapuntu eta errealtatearen esparru horretan badagoela zerbait gaitza hitzarekin adierazi ohi dena. Hontara, lehenik, bide platonikoari lotuz, erakutsi beharko duena zera izango da: naturaren osotasunean barreiaturik dagoen gaitz hori ez dela errealtatearen itxura edo irudi baino, eta, are gehiago, ez direla ustezko benetako gaitzaren irudi, gaitza ez den errealtateari atxikitzen diogun irudia baino.

"Zuk diozunez gaitzaren itxuran agertzen zaigunak ez du zertan benetako gaitza izan."

"Onartzen dut."

"Horregatik eurek berraurkezten digutena ona izan liteke"⁵¹.

Gaitzak ez luke, beraz, gaitza adieraziko, izan ere, zerbaiten irudi izatekotan onarena izango litzatekeelako eta, itzala egiarako bidea den bezala, gaitza onerakoa izango litzateke. Eta gizakiarengan gorpuzten bada, izango da bera bere mugez jabetzen ez delako, unibertsuaren osotasunaren zentzuaz jabetzen ez delako eta zentzu hori irudi horren bide hutsez azaldu nahi duelako. Gaitza ez da errealitateari dagokion zerbait giza portaerari dagokiona baino, gizakiarengan du bere jatorria eta amaiera eta ez naturan.

Itxurak kontuan izate hau ulertzeko darion kutsu platonikoa ez ezik, Shaftesburyk bere gizarteaz duen irudipena ere izan behar da kontuan, ez baitio iritziko jokaera moralaren eredu zuzena bere garaiko gizarteari, edo ez behintzat bere inguruko famili onekoek daramaten bizimoduari eta euren artean nagusi diren balioei. Izan ere, gizarte honi buruz egiten duen azterketa kritikoa, guztiz negatiboa baita. Bere garaiko gizakia azalekoa eta naturatik urrundua bizi da, eta bizitzaren eginbehar ximpleak eta ederrak erdeinatzen ditu. Euren mundua erabat pairakortzat eta endakatutakotzat joko du, gizakiaren eraspen hutsalen arabera mugituko dena.

Ikuspegi honetatik, ba, eztabaidagarria izan daiteke puntu honetan bere jarrera kontserbatzailetzat jotzea⁵². Egia da ez

duela proposatuko gizartearen aldaketa orokorrik edo funtsezkorik, eta aldaketa gizabanakoaren ardurapean geratzen dela eta honegatik jarrera kontserbatzaile baten ordezkartzat jo daitekeela, baina nabarmena da, halaber, bere garaiko gizartearekiko kritika, eta gortegizakiekiko urrunketa. Bere eredu moralala ez du inondik ere gorteko gizaki batengan ipiniko aipaturiko artzainarengan baino, bere naturarekiko hurbilketa fisikoa ez ezik moralala ere badelako.

Dena dela, gaitza gizakiarengan eta ez naturan sortzen dela badiogu nola segurtatu ahal izango dugu ez dela bigarren errealitate modu bat bezala jezarriko gizakiaren baitan besterik ez bada? Ez al dugu horrela bikoiztasun platonikoa berrezarriko, baina bera naturatik urrunduz? Gaitza ez errealtzat jotze horrek ez al zuen giza jokaera edozein balioztapen moralen esparrutik kanpo uzten? Edo beste era batera esanda, eska lekioke erantzukizunik gizabanakoari azken batean errealitatean bildu ezin den zerbaiti buruz?

Baina gaitza portaera hutsera murriztuko da, hau da, ez da norbaiten baitan betirako habia egin duen hegaztia izango, ez da etorriko norbaitek bere baitan maltzurkeriaren izatasuna biltzen duelako, ez da giza izaeraren ezaugarri bereizlea izango. Bera substantzialtasun orotik kanpo utziz, zerbait koiunturala bihurtuko du, gaingarria, batik bat, gizabanakoak bere izaera, bere naturarekiko lotura, ahazten duenean sortzen dena. Gaitza, beraz, nolabait esateagatik, ez-izatearen esparruan kokatuko da, gizabanakoarengan emango litzatekeen xede unibertsalaren galera bezala ulertu behar baita; giza banakoak bere jokaera zuzenean harmonia unibertsal horren partaide dela ahaztu eta bere kabuz,

bere burua xede hutsa duela, finalitate unibertsal hori alde batera utzita, burutzen duen eginkizuna esan ahal izango da gaiztoa. Baina horrek ez du biltzen gizabanako horren gaiztotasuna, atera daitekeen gauza bakarra izango da bere gizatasunaren mugatzaile den gizarte eraspenak alde batera utzita jokatzeko duela.

Gaiztotzat joko diren portaerak egoteak, beraz, ez du esanahi jokaera hori burutzen duen subjektuari datxekionik berezko gaiztotasuna, jokaera gaiztoak ez baitu biltzen errelebantzia ontologikorik. Gizakia ez da ezer naturaren gainetik jartzen duenean bere burua, naturarekin bat egin behar du eta berarekin harmonian garatu bere jokaera, ideia hori argi eta garbi finkatuta geratu da, eta gaitza, gaundiezineko egoera bezala, natura horretatik kanpo geratzen da. Beraz, gaitza gizakiak bere izaeraren (izaera sozialaren) ahazketaren ondorioz sartzen duen elementu distortsionatzailea denez, uxatu beharreko zerbait izango da, irudizko edo ametsezko ekoizpen. Eta uxaketa horretarako, gaundiketa horretarako, baldintzak naturara itzultzean aurkituko ditugu, naturak berak eskainiko dizkigu baldintza horiek, eta gizakiaren kasuan, hain zuzen, gizarteak.⁵³

Horrela gaitza giza jokaerara murrizte honek gaitzaren arbuiapenaren bigarren oinarritara garamatza, ekintzari lehentasun ontologikoa ematen diona pairakortasunaren aurrean, eta hau argi eta garbi formulatua agertzen da zenbait lekutan eta era ezberdinetan Shaftesburyren testuan:

"horrela izan ahal denean ondorioztatzen da horrela izan behar duela (batasun handi horren arabera, eta osotasunari

*atxiki diozun nortasun hastapen honen arabera). Zeren osotasunerako posible dena, osotasunaren izaerak edo adimenak gauzatu egingo du osotasunaren onerako: eta gaitza baztertu ahal badu baztertu egingo du"*⁵⁴.

Ikusten dugu hemen bete-betean bereganatzen duela lehenxeago aipatu dugun Coodworthengandik harturiko ideia, frogapen ontologikoarekin parekatu duguna, eta hastapen horren beste aplikapen bat garatzen du. Ideia "Zerbait ahalezko bada orduan erreala da" tankerako baieztapen batera itzuliz hastapen hori ekintza ororen hastapen bihurtuko du, natura beraren jatorria ere bertan jarriko duelarik.

Baina ohar hastapena ez dela horretara mugatzen baizik eta aldeztu aurretik auresuposatzen duela ahalezkotasun horretan bakarrik ona sartzen dela, ez ordea gaitza; gaitzari dagokionez ahalezkotasuna ez litzateke nahikoa izango izateko, baina izan ez da ezta ahalezkoa ere. Honen arabera giza jokaera ere ekimenaren indar horri makurtu beharko zaio eta giza ekintza eta ekintza unibertsal horren ontasunaren arteko baliokidetasuna ezarriko du, eta honen ondorioz gaitza zerbait pairakorra bezala agertuko da, berez ezer ez dena. Izan ere, gaitza ez da izatearen ahalezkotasun baldintzen artean sartuko ona sartzen den bezala, eta berez akzidentala dela kontsideratu beharko dugu.

Baina giza jokaerak bi abiabidetik joango dira: pairakorra, berekoia, bakarzalea, bata eta ekintzailea eta onbera bestea, pairatzaileak indibidualismoaren menpekotasunera eta, azken batean, ekintza beraren ukaziora eramango lukeelarik eta ekintzaileak unibertsalzaletasunaren askatasunera. Bi aukera

hauen gainean bi balio nagusik eta kontraizankorrek eragingo dute, lehenean plazerraren bilaketak eta norberakeriak, bigarrenean adiskidetasunaren eta elkartasunaren balio gorenak.

Beraz, atera dezakegu hemendik beste ondoriorik ere gaitzari dagokionez, hain zuzen, itxura izateaz gain, edo izatearekin batera, pairakorra dela:

*"Zeren pairakorra den ezerk ezin dio aurre egin unibertsalki eraginkorra den hastapen honi. Eraginkorra den zerbaitek egiten badio aurre, bera ere hastapen izango da"*⁵⁵.

Pairakorra dena izango litzateke gaitzaren hastapena eta gizakia gizartekoitasunetik urruntzen denean, bere helburua plazerra lortzea denean, orduan pairakortasun horretan murgiltzen da; benetako ekintza zuzena, berriz, taldeari eta, ondorioz, naturari begira ematen dena da.

Horrela gaitza gizakiak sartuko du naturan bere gizartekoitasunari uko egiten dionean, hau da, bere izateari uko egiten dionean. Aipatu badugu, beraz, gaitza naturan ez tarte zehatz batean baizik eta bere osotasunean dagoela⁵⁶, orain errefusatu beharko dugu hori eta baieztatu beharko dugu ez dela naturaren zati, baizik eta gizakiarekin sartzen dela bertara gaitza, naturaren osotasunaren ezaugarria ekintza baita, helburu unibertsal bati zuzendutako ekintza eta naturak ez du onartuko pairakortasunik bigarren hastapen bat sartzea izango litzatekeelako:

"Eta horregatik baliteke ez izatea benetako gaitza gauzetan, baizik eta dena interes bati zuzendua egongo litzateke erabat: batasun unibertsal horren interesari."

"Baliteke horrela izatea."

"Orduan, horrela izan ahal denean ondorioztatzen da horrela izan behar duela (batasun handi horren arauera, eta osotasunari atxeki diozun nortasun hastapen honen arabera)"⁵⁷.

Orain arazoa ez da izango naturaren baitan adimena idorotzea, baizik eta gaitzaren jatorria den giza jokaera handigura eta antropozentrikoak sortzen duen desoreka batasun harmoniatsu horretan bilatzea. Gizakiaren errua dena bere interesei makurtuta ulertzea da; giza eginkizunaren helburu naturarekin harmonian bizitzea eta bera ezagutzea izan beharrean, bere burua jarriko du xede, osotasunak bere zentzua zati txiki horri begira hartuko balu bezala.

"Dena da atsegingarria, lagunkoia, pozgarria, gizakiari eta bere gorabeherei dagokienean ezik, hor desberdin ematen du. Ezbeharra eta gaitza sortzen da eta berarekin inguru onberaren hondamena. Dena ahitzen da arlo honetan eta unibertsuaren ordena, beste lekuetan hain irmoa, osoa eta mugiezina zena, hemen amildu eta galdu egiten da, gauzak geure buruari egokitzen dizkiogunean, osotasunaren interesa hain zati txikiaren interesari eta onari menperatzen diogunean"⁵⁸.

Gaitzaren jatorri den pairakortasun hori bi iturriri darie, plazerra giza jokaeraren helburu jartzen duen hedonismoari eta naturarekin hautsi duen eta giza jokaeren irizpidea zigorrean eta sarian jartzen duen erlijioari. Bi ikuspegiok kritikatu beharko ditu, orduan, Teoklese, bere etika azaldu aurretik.

Ontasuna, plazerra eta askatasuna

Ontasun morala eta askatasuna ezinbestez loturik agertuko dira Shaftesburyren pentsaeran eta ez da zalantzarik egongo, eta horrela idatzita geratu da dagoeneko lan honetan, bai askatasun horrek, bai ontasun horrek banakoarengan izango duela protagonista eta arduraduna, baina arazoa sortuko da banakoak askatasun hori aitzakiatzat hartuz bere jokaeraren helburu bakarra -edo nagusia- behintzat- bere buruan finkatzen duenean, hau da, kontsideratzen duenean askatasuna banakotasunari dagokiola bakarrik eta ontasuna banako horren askatasunean definitzen dela. Shaftesburyrentzat, berriz, planteamendu horietan oinarritutako jokaera, okerra izan ez ezik banakoa bera askatasun ezera bultzatuko luke.

Shaftesburyk defendatuko du argi eta garbi banako bakoitzak bere ona bilatzen duela, kanpoko ezerk eragozten ez dion artean, baina honek ez du norberekeria eta indibidualismoa justifikatuko, norberaren ona ezingo zaiolako besteen onari kontrajarri, haatik berarekin batera joan beharko du. Ikusiko dugu, honela, azalduko digun askatasunaren eta moralitasunaren ikuspegia urrunduko dela korrente indibidualista muturrekoenek babestuko dutenetik,

esaterako Stuart Millek, geroago, defendatuko duenetik. Honentzat banako hurkoari kalterik ez egitea izango da askatasunaren muga, berdin diolarik bestearen ona, hain zuzen hurkoaren ona hurkoaren esku egongo litzateke eta; Shaftesburyrentzat, berriz, ez da norberaren onik egongo bestearena ez dagoen artean, horregatik beharrezkoa izango zaio banakoari bere herrikideen ona bilatzea.

Eta hau izango da gainera ez ikuspegi konbentzionalista batetik onargarria delako, naturaren determinismoaren ezarpenagatik baino:

"Mugitzen dituzu ekidin ezineko eta ahitzen ez den indar batekin, lege sakratu eta ukiezinekoen bidez, izaki partikular bakoitzaren ona bilatuz, osotasunaren perfekzioari, bizitzari eta kemenari ahalbait eta ongien egoki dakizkien"⁵⁹.

Naturaren indarra izango da, hain zuzen, bultzatuko duena gizakia bere ona bilatzera, baina on hori, beti ere, osotasunaren perfekzioarekin egokitzen zuzenduta egongo da, bi joerak berdin izango direlarik beharrezkoak eta naturalak eta bi joera horietatik batari zein besteari eraso naturaren aurkako erasotzat hartuko delarik.

Hastapen hauetan oinarrituz zuzenduko dio Shaftesburyk bere eraso giza ekintza guztien helburua plazerraren lorpenean jartzen duen hedonismoari. Hedonismoa norberaren gizarte izaeraren, eta naturarekiko hitzarmenaren ahazketaren eredu nabarmenena irudituko zaio Shaftesburyri, ikuspegi haren arabera bakarrik plazerra izango litzatekeelako berez nahigarria,

atsekabea ez-nahigarria litzatekeen artean. Garai hartan ikuspegi honen defendatzailerik arduratsuena Hobbes zen eta hemen ere bera izango da Teoklesen erasoan jasotzailea.

Elkarrizketa bi alderdietatik fokatuko da, lehenik Hobbesek ordezkatzuko duen epikureismoaren kritika aurkeztuko digularik, baina nabarmenaraziz, hala ere, ez duela honek benetan ordezkatzuko Epikuroren pentsamendua eta bere izena hartuko duela inolako zentzurik gabe, eta, bigarrenik, honen aurrean Shaftesburyk defendatu nahi duen interesgabeko gozamina, hobeto egokituko dena gainera Epikurok berak defendatuko duen neurritasunarekin eta moderapenarekin, eta beraren asmo unibertsalista hobeto beteko duena, indibidualismotik urrunduz.

Hobbes eta Epikuroren jarraitzaile "taxugabekoen" iritziak harira ekarri Shaftesburyk zera gogoratuko digu:

*"Denek ikuspegi positiboa hartzen dute hor: gure benetako ontasuna plazerra da"*⁶⁰.

Era honetara giza portaeraren xedea norberarengan ipintzean, razionaltasunetik bereizten dira, aurkitu ahal izango litzatekeen helburu bakarra norberaren sentipenetan egongo litzatekeelarik. Giza jokaeraren helburua norberarengana murriztuz gero, azken batean, bakoizkeriarako lekua baino ez litzateke egongo, honela jokaera hori norberekeriara, bakoizkeriara, kondenatua egongo delarik, eta, jakina, aurreuste hauei makurtuz gero, onar liteke, bai, balio gorenena plazerra izatea.

Baina etikaren helburua ez da izango moral partikular bat definitzea, bakoitzarentzat balioko duena definituko duena hurkoa

kontuan izan gabe, baizik eta aplikapen orokorreko moralak definitu beharko da, gizabanakoa gizartean eta naturan hartuko duena kontuan eta gozamen edo oinaze hutsaren arabera izango ez dena. Ez da, beraz, norberaren plazerraren hastapen hau oinarri egokia izango moralitate sendo hori finkatzeko, ahul agertuko baita helburu hori betetzeko, eta ikuspegi honen ahulezia erakusten saiatzeko alde aurretik gogorarazi digun baldintza ekarriko du gogora:

*"ezin dela ezer izan ona iraunkorra dena baino"*⁶¹.

Iraunkorra egoeraren eta unearen menpe izan gabe alegia, eta hau onetsita ontasun iraunkorra ea plazerrean ala oinazean kokatu ahal den eztabaida sortuko da Teokles eta Filoklesen artean, baina berehala argituko da ez bata eta ez bestea ez direla oinarri egokia izango ontasuna sustraitzeko; izan ere, plazerak nahiz oinazeak pairatzen dituenaren arabera aldatzen badira, batarentzat oinazea dena bestearentzat plazerra bada eta alderantziz, ezingo dugu hor iraupenik aurkitu.

"Euren ustetan erlijioaren zenbait loturarekiko askatasuna lortu badute ere, suposatzen dute askatasun horretaz baliatzeko modurik beteena zera izango dela: euren nahiaren lehen bultzadari jarraitzea, eta onartzea gogoko duten edozein fantasia, agindu edo arau, hala nola ontasunari buruz aurrezarritako edozein iritzi edo auresuposapen. Horrela euren izango duten pribilegioa beti dibertiturik bizitzea izango da; eta euren askatasuna izango da

hautaketarik garrantzitsuenetan zerbaiten menpeko izatea"⁶².

Saiatzen bagara plazerra eta oinazearen bidez azaltzen ontasuna eta gaitza, banakoaren askatasuna sustraitu ordez, banakoaren askatasunaren suntsiketa aterako dugu, gizakia plazerra sorrarazten dion gaiaren menpean harrapatua geratuko baita, ez da bere buruaren jabe izango eta beti bere plazerraren iturri den gaiaren presentziaren menpean arituko da. Izan ere, beste lanetan Shaftesburyk "unnatural affections" deitu dituenen menpe biziko da, bere izaera propio, burujabe eta razionala ukatuz. Baina askatasun galera horrek norberaren buruaren ahazketa moduko bat ekarri ez ezik bizitza beraren zentzua kolokan jartzea ere behartuko du.

*"Hau dela eta, zalantza egin dezakegu arrazoiz ea bizitza bera ez ote den miseria hutsa izango, zeren garaile izan ezin bagara inoiz, galtzaile, berriz, gure bizitzaren edozein ordutan izan ahal gara eta"*⁶³.

Azken batean, murrizten badugu, Hobbesek bezala, bizitzearen asetasuna sentipeneko plazerrera eta hau hurkoa menperatzera -zenbat eta jende gehiago menperatu hobe- ez dugu denbora asko beharko jabetzeko oso gutxitan baino (ala inoiz ez) ez dugula hori betetzeko aukerarik izango, eta horrek, jakina, gure bizitzari buruzko ikuspegi erabat negatiboa, miseriazkoa -lehenago aipatutako Hobbes beraren hitzak erabiliz- gureganatzera behartuko gaitu. Izan ere, gai horren presentziaren ezean, kasu honetan menpekoaren ezean, umezurtz geratuko baita

aukera hori hartu duen banakoa, hau da, bizitzaren zentzua sentigarritasunaren asetasunean jarri duena, eta ez dio bizitzari inolako zentzurik aurkituko, berdin izango delarik jaioak izatea nola ez, bizitzen jarraitzea nola ez.

Alabaina, ontasuna plazerrera murriztea kritikarako arrazoi larria bada, gaiarekiko menpekotasuna eta askatasunaren eta bizitzaren zentzurik eza lekarkeelako, kritikarako arrazoi handiagoa aurkituko du plazerraren adieran bertan; izan ere, Shaftesburyren helburua ez da izango plazerra etikaren esparrutik baztertzea, baizik eta adigai hori atzera ezartzea, baina gaindituz hedonismoaren murriztasuna asetasun forma ezberdinak, are garrantzitsuenak, biltzeko, eta sentipenezko plazerra bide bihurtuz, eta ez helburu, asetasun modu garaiago eta razionalagoetara heltzeko.

"Adimenaren asetasunari -jarraitu zuen- eta arrazoimenaren eta irizmenaren gozamenari 'plazer' izena ematea nahasketa besterik ez da, eta, halaber, hitzaren zentzu arruntaren murrizketa. Horiek, filosofiari lotzen zaizkienean, ez dute garbi jokutzen gurekin, zeren plazerrari ematen dioten zentzuak ez baitu zerikusi handirik bizitza arruntean ematen zaionarekin⁶⁴.

Oharrarazteko lehen gauza izango da Shaftesburyren arabera plazerraren adiera hau ez dela bat etorriko bizitza arruntean ematen zaion adierarekin. Baina zer ulertzen du ikuskera arrunt horrekin? Badirudi bizitza arruntean badagoela joera bat plazerra sentipenezko asetasunarekin lotzeko, bat etorriko litzatekeena

kritikatu nahi duen ikuspegiarekin; alabaina, ez da ahaztu behar beraren lanari kutsu elitista nabarmena dariola eta beraren kritiken jasotzaileak goi mailakoak diren arren, eurak direla, halaber, lanaren ustezko hartzaileak ere; horregatik "adiera arrunt" deritzon horretan alde batera utziko du sentipenezko asetasunetik hurbilago izango litzatekeen adiera hori, Hobbese berea egin zuena, eta saiatuko da bilatzen ikuskizun eta ariketa intelektualekin, kulturaren munduarekin, zerikusia duena nagusiki -hau da, matematikariak, liburuzaleak edo artistak jasotzen duten asetasuna- hain zuzen Hobbese ahaztu duena.

Hemen dakusagu plazerrari buruzko bi adiera kontrajarriko direla, sentimenezkoa bata, adimenezkoa bestea, eta argitu beharko dena izango da ea badagoen bi alderdi horien artean loturarik edo jarraipenik ala bereizi beharko diren Platonek ideien munduaren eta mundu sentigarriaren artean bereizten zuen bezala, alderdi sentigarria gutxietsiz.

Maitasun razional desinterestua

Hau guztia argitzeko idazkera platoniko garrantzenaz baliatuko da gure idazlea eta argi utziko du benetako edertasunari dagokionean, bera sentigarritasunetik bereizita eta giza izaeraren agerpen kulturaletara lotuago bururatu behar dela, azken batean, sentigarritasunaren bidez gureganatzen dugun errealitatea benetako errealitatearen itzala izango delako.

"Ez harritu -ihardetsi zuen berak- nahasten bagara

substantziari ordeztutzei jarraitzen diegunean. Zeren arrazoimenak irakatsi digunaz fidatu behar badugu naturan ederra edo xarmagarria den edozein gauza lehen edertasunaren itzal ahula da. Horrela, benetako maitasun guztiak adimenaren menpeko dira, eta edertasunaren kontenplazioan datzate, bai bere baitan, bai sentipenezko gaitan inperfektuki agertzen den legez; nola geldituko da arrazoimenezko adimena hemen, edo asetuko da bakarrik sentipenetatik datorren gozamen zentzugabearekin?"⁶⁵.

Baina idazkera platoniko garrantzen hori erabili arren ez da honek ezarri zion mutur zorrotzetara helduko. Sentipenezko hautemaketa hori itzalaren hautemaketa izango litzateke, hau da ez benetako giza errealitatearena, halaxe da, baina, hala ere, ez dio Shaftesburyk sentigarritasunari ezezko borobila emango, ez du bera bururatuko arrazoimenari kontrajarrita bezala, ez moralaren ikuspegitik, eta, ezta ezagutzari dagokionean ere, izan ere, ez du inon Shaftesburyk maitasun sentsuala gaitzetsiko, ez dio erabat uko egingo, Platonek egin zuen legez:

*"Urrun dezagun gure burutik -esan zuen berak- naturazko gozamena kondenatzea"*⁶⁶.

Ez da ez aszetismoaren aldarrikatzailea izango Shaftesbury, eta gehiago joko du honetan Epikurorenera gozamen sentigarriaren balioari eutsiz. Hortara, ez dio uko borobila egingo sentipenezko plazerrari, are gehiago, sentimenetatik gureganatzen dugun bizipen horrek, arrazoiari erabat kontrajarria egon barik, bidea

irekiko dio banakoari, sentigarritasunaren azken zergatia den benetako adimenezko edertasunerantz abiatzeko. Izan ere, Shaftesburyk bereiziko du giza nortasuna moldatzen duten eraspen ezberdinen artean hierarkizazio bat dagoela, helburua niarengan dutenetatik hasita, gizarte irriketaraino, hau da, maitasuna oinarri duten irriketaraino, jainkoarenganako maitasun interesgabea izango delarik, lehenago gogoratu digun bezala, jarraipen hierarkizatu horren gailurra⁶⁷.

Orduan, sentipenezko plazerra ukatu gabe, ezingo gara geratu "sentipenetatik datorren gozamen zentzugabearekin", jarraipen hierarkizatu horren zeharkaketa izango baita arrazoimenaren, gozamenaren eta, azken batean, maitasunaren gailurrera heltzeko abiapuntua.

Ez da, beraz, etenik izango sentigarritasunaren eta arrazoiaren artean, ez parte hartzerik ez antzeratzerik, joan etorriko bidaia honetan, jarraipen bat egongo da sentigarritasunetik arrazoiaren erresumaraino aurreko testu honetan esan digun legez: *Horrela, benetako maitasun guztiak adimenaren menpeko dira, eta edertasunaren kontenplazioan datzate, bai bere baitan, bai sentipenezko gaietan inperfektuki agertzen den legez*. Arrazoimena, beraz, sentipenezko gaietan ere aurkituko dira, inperfektuki islatzen bada ere.

Orduan, egiaren bidetik sartzeko kontua ez da izango gai sentigarria, plazerra eskaintzen duen gaia, alde batera utzi eta beste gai bat bilatzea. Bidea izango da naturaren alderdi razionalari begiratzea, baina ez gai sentigarriari begiratzen zaien erara, beste modu batez baino, jarreraz aldatuz alegia.

"Baina (ene Filokles!) ontasuna, eta beraz gozamina, ez dugu hemen kokatu behar; arrazoimenezkoak garenez, eta adimena dugunez, nire ustez adimenotan jarri behar dugu. Adimenok gaizki erabiltzen dira eta engainatuak izaten dira benetako ontasunari dagokionean, bere gozamina sentipenezko gaietan bilatzera bultzatzen direnean, eta ez berezkotzat har daitezkeen gaietan, azken hauen artean, gogoratzen dudanagatik, benetan zuzena, eskuzabala eta ona den guztia bildu baitugu guk"⁶⁸.

Honela, plazerraren bi adiera haien artean (sentigarria eta adimenezkoa) ageriko den auzian berak kritika zuzenduko dio bera asetasuna sentimenezko plazer hutsera murrizten duen ikuspegi hobbesianoari, honek biltzen duen mugapena dela eta; eta hau gaingaitzeko beharrezkoa ikusiko du asetasunaren beste maila bat bereiztea alderdi razionala bilduko duena eta ez sentigarritasun hutsari lotua, honela bereizketa kontzeptual bat ezarri.

Honela justifikatuko da, beraz, gozamen ("enjoyment") intelektual interesgabearen adigaita, adigaita honen lehen helburua ontasunaren eta edertasunaren eredu finko bat ezartzea izango delarik, gaiaren aldakortasunaren morroi izango ez dena, baizik eta gizakiaren barnekotasuneko jarreratik definituko dena.

Adigaita honen erro aristoteliarra garbia da gogoratzen badugu honek baieztatu zuela filosofiaren sorrera jakingura desinteresatutik sortuko dela; baina Aristotele ez ezik Platon eta Tomas Moro ere izango ditu gogoan beraren proposapen honetan, hain zuzen, haiengan ere aurki daitekeelako ezarrita ederraren eta plazerraren arteko bereizketa hori. Iturri hauetatik, ba,

eratorriko du Shaftesburyk gozamen intelektual interesgabearen adigaia, Cassirerek baietsiko duelarik kontzeptu honen garrantzia estetikaren teoriarako, zera esanaz: ederra eta plazerraren arteko bereizketak bere "gozamen desinteresatuaren" teoriaren muina osatuko duela, berau izango delarik "Shaftesburyk estetikari eskainiko dion ekarpenik handiena"⁶⁹.

Esan da arteak artelana sortzen duenean formari eta ez materialtasunari begiratu behar diola, baina eginkizun horretarako baldintza aihergatasun horretan aurkituko dugu, ekintza estetiko libre ororen baldintza baita jarrera hori. Desinteresarekin naturaren hautemaketa estetikoa, eta artista beraren lana, azken batean, ordura arte ezarri zaion morrontza utilitaristatik askatuko da. Arteari eta natura berari bitarteko izatea eskatu zaio aurreko mendeetan, hau da, bata nahiz bestea bitartekotzat jo dira euren baitatik kanpoko zerbait lortzeko, bai artea eta bai natura izatasunen menpeko maila ontologiko batean jartzen zirelarik -eta agian honegatik geratzen ziren arrazoimenetik kanpo, interesatuak ziren, izatearen aldetik menpeko ziren, gustuaren araberakoa artea, higikorra natura-. Shaftesburyrekin, jadanik, artelanari ez zaio eskatuko mezu arrotz baten eramaile izatea edo interes jakin batzuen menpe egotea; natura, eta berarekin artea, euren baitan ahituko dira, ez dira beste ezertarako urrats izango eta eurei dagokien edozein gertaera euren mugetara murriztuko da, honela artelanak berezko balioa hartuko duelarik, bere izpiritualtasunak definituko duena.

Dena dela, J. Stolnitzen arabera ere estetika tradizionala eta modernoaren artean aldea indar handiagoz markatuko duen adigai honen⁷⁰ pisua ez da mugatuko estetikaren esparru hutsera

bakarrik, bere eginkizuna giza jardute orora zabaldu beharko baita aldiz, eta hau azpimarratu nahi da hemen. Izan ere, ez baita kontzeptu estetiko hutsa izango bera, etikoa ere baino (nagusiki etikoa agian), estetikaren oinarria ez ezik aipatu dugun sen onaren oinarriko elementua ere izango dena. Ez da ahaztu behar Shaftesburyren azken helburua *benetako ontasuna* zein den erakustea izango dela, edertasuna arte lanean bai, baina, modu gorenean, ekintza adimentsu eta zuzen batean aurkituko delako, eta benetako gozamen interesgabea ekintza on baten gauzaketan aurkituko genukeelako.

Izan ere, berarentzat giza ekintza ororen azpian arazo etikoa eta arazo estetikoa lotuta baitatoz. Azken batean zer egin behar dut? nola jokatu behar dut? galderetan badatza arazo etikoaren muina Shaftesburyk definituriko estetikan ere arazo beretsuarekin egingo dugu topo.

*"Horrela -esan nuen nik- jabetzen naiz, Teokles, zuretzako edertasuna eta ontasuna gauza bat eta bera direla"*⁷¹.

Edertasuna, moralitasuna eta natura uztartzera zuzenduta joango da, beraz, Shaftesburyren ahalegina, giza jokaerari oinarri razionala eskaintzeko eta razionaltasunean irizmen estetiko-moralak sartu ahal izateko. Beraz, edertasunaren eredua naturan aurkituko dugun moduan naturan ere aurkituko beharko dugu moralitasunaren eredu bakarra, eta naturak banakoaren interesak alde batera utzi eta osotasunaren harmoniari begiratzen dionez subjektu moralak ere bakoizkeria eta berekoikeria baztertuz osotasunari begiratu beharko dio, baina honek ez du zertan ekarri

banakoarentzat sufrimendua, haatik, hor aurkituko du berak
betetasuna.

HIRUGARREN ATALAREN OHARRAK

1. *Mor.*, 63. or.a.
2. *Mor.*, 112. or.a.
3. *Mor.*, 113. or.a.
4. Locke, J., *An essay Concerning Human Understanding*, op. cit., 353. or.a.
5. Locke, J., *ibid.*, 78. or.a.
6. *Mor.*, 120. or.a.
7. R. Scrutonek honetan aristotelismoarekin lotuko du Shaftesburyren pentsamendua: "In Aristotle the project of deriving an account of the good life from a description of human nature had found its finest ancient expression. At first sight it may seem that Shaftesbury was by no means original in his attempt to revie the outlook (if not all the doctrines) of Aristotle..." eta aurreraxeago Scruton bera behartua izango da onartzera giza natura hori, moral kontuan, azken batean benetan balio duena, sen moral horretan datzala: "But what does virtue consist in? Again Shaftesbury's account is Aristotelian: virtue consist in a certain disposition of character in which reason has governance over the passions (the affections)." Scruton, R., *From Descartes to Wittgenstein: a Short History of Modern Philosophy*, op. cit. 109. or.a.
8. Stephen, L., *English Thought in the Eigteenth Century*, op. cit., 2. alea 30. or.a.
9. "de sorte qu'on pourrait dire que les sauvages ne sont pas méchants précisément, parce qu'ils ne savent pas ce que c'est qu'être bons." Rousseau, J. J., *Discours sur l'origine et les fondaments de l'inégalité parmi les hommes* op. cit. 211. or.a.
10. *Mor.*, 82. or.a.
11. *Mor.*, 81. Or.a.
12. *Mor.*, loc. cit.
13. *Mor.*, 82. Or.a.
14. Grean, S., *Shaftesbury's Philosophy of Religion and Morals: a Study in Enthusiasm*, op. cit. 283. or.a.
15. *Mor.*, 112. or.a.
16. Loc. cit.
17. *Mor.*, 120. or.a.

18.Mor., 124. or.a.

19.Horrela gogorazten digu P. Gayk E. Cassireren The Question of Jean-Jacques Rousseau lana harira ekarri. *The Enlightenment. The Science of Freedom*, op. cit., 172. or.a.

20. "... he attacks... the puritans. ... To this dogmatic narrow mindedness he opposes a religion of freedom, to the religion of mistrust he opposes a religion of trust, to the religion of the scape from, and contempt for, the things of this world, he opposes a religion of aesthetic enjoyment of the world." Cassirer, E., *Platonic Renaissance in England*, op. cit. 162. or.a.

21.Cassirer, E., Ibid., 169.

22.Mor., 118. or.a.

23.Mor., 116. or.a.

24.Loc cit.

25.Stephen, L., *English Thought in the Eighteenth Century*, op. cit., 2. alea, 25. or.a.

26.Mor., 79. or.a.

27.Stephen L., loc. cit.: "Atheism is the discordant, and theism the harmonious, utterance drawn from our nature, according as it is, or is not, in tune with the general order of the things."

28.Mor., 127. or.a.

29.Mor., 120. or.a.

30.Mor., loc. cit.

31.Voitleren hitzetan "... if the man has a well enough developed sense of right and wrong he will drawn to the good or repelled emotionally by the bad". Voitle, R., *The third earl of Shaftesbury (1671-1713)*, Louisiana, 1984, 125. or.a.

32.Mor., 138. or.a.

33.Descartese behin eta berriz adieraziko digu, bai Diskurtsoan, bai Meditazioetan, Jainkoaren existentzia arrazoimenaren bidez frogatu daitekeela gure baitan aurkitzen dugun Jainkoaren existentzian oinarrituta, baina Lockek ere, nahiz eta baieztatuko duen Jainkoak ez duela guregan bere ideiarik ezarri, defendatuko du frogatu daitekeela arrazoiaren bidez existentzia hori. "Though God has given us no innate ideas of himself ... But though this be the most obvious Truth that Reason discovers; and though its evidence be (if I mistake not) equal to mathematical Certainty: yet it requires Thought and Attention. Locke, J., *An Essay Concerning Human Understanding*, op. cit., 619. or.a.

34.Honela gogoraraziko digu S. Greanek ere: "Shaftesbury believed, as did Locke, that the existence of god could be demonstrated by reason, but instead of stressing a proof based on causation, he rested his case entirely on the teleological argument." S. Grean, *Shaftesbury's Philosophy of Religion and Morals: a Study in Enthusiasm*, op. cit., 60. or.a.

35.Mor., 182. or.a.

36.Ahalezko gauza bakoitza existituko da berak biltzen duen perefekzioaren neurrian, esango du Leibnizek, "Et c'est ce qui est la cause de l'existence du meilleur, que la sagesse fait connaître à Dieu, que sa bonté le fait choisir, et que sa puissance le fait produire". Leibniz, G. W., *La Monadologie*, Paris, 1978, 173. or.a. Honela agertzen zaigu Monadologian adierazia Lebnizen baikortasunaren teoria ezaguna; honen arabera gure mundua ahalezkoen artetik onena izango litzateke.

37.Mor. 134. or.a

38.Mor., 185. or.a.

39.Mor., 125. or.a.

40.Mor., loc. cit.

41.A Letter Concerning Enthusiasm, op. cit. 356. or.a.

42."God is to be no longer a ruler, external to the world, but an immanent all-pervading force". Stephen, L., *English Thought in the Eighteenth Century*, op. cit., 2, 27. or.a.

43.Mor., 65. or.a.

44. "There is generally a provoking tendency to an easy optimism" dio L. Stephenek. L. Stephen, *English Thought in the Eighteenth Century*, op. cit., 2, 16. or.a.

45. "Il ne manque presque que mon harmonie préétablie ..." dio Leibnizek *Moralistak* lana komentatzean. Leibniz, G. W., *Die Philosophischen Schriften*, Hildesheim, 1978, III. al., 430. or.a. Dena dela, Leibnizengan bezala formulatuta ez badago ere, onartu behar da, lan honetako beste leku batzuetan erakusten den legez, Shaftesburyren funtsezko ideia dela hori.

46.Mor., 73. or.a.

47.Mor., 76. or.a.

48.Mor., 136. or.a.

49.Mor., 134. or.a.

50.Mor., 183. or.a.

51.Mor., 184. or.a.

52.Grean, S., *Shaftesbury's Philosophy of Religion and Morals: a Study in Enthusiasm*, op. cit., 116. or.a.

53."When something goes wrong in a healthy body, nature will provide the cure". dio Greanek; Grean, S., Ibid. 112. or.a.

54.Mor., 184. or.a

55.Mor., 185. or.a.

56.Eta S. Grean horretan geratzen dela ematen du: Evil does not lie in any one part of nature, but everything has a share of it. 'Pleasure and pain, beauty and deformity, good and ill, seemed to me everywhere interwoven, ..." like a tapestry made of many contrasting colors but producing a harmonious overall effect. Grean, S., Ibid. 106. or.a.

57.Mor., 184. or.a.

58.Mor., 84. or.a.

59.Mor., 186. or.a.

60.Mor., 92. or.a.

61.Mor., 91. or.a.

62.Mor., 95. or.a.

63.Mor., 98. or.a.

64.Mor., 95. or.a.

65.Mor., 204. Or.a

66.Mor., 206. or.a.

67.Horrela baieztatuko du S. Greanek ere: "Yet that higher love has its roots and foundations in lesser loves. As other idealists, Shaftesbury distinguishes between the various levels in the hierarchy of love, extending from self-love to familial love, to friendship, to love of country, to love of mankind -- each level indicating higher and wider spheres of affection. The lower are often a drag to the higher, but the higher in every case must supercede the lower. Grean, S., op. cit. 152. or.a.

68.Mor., 207. or.a.

69."Shaftesbury's most important contribution to aesthetics" Cassirer, E., *The Philosophy of the Enlightenment*, op. cit. 326. or.a.

70."For he sets into motion the idea which, more than any other, marks off modern from traditional aesthetics ..., the concept of aesthetic disinterestedness" esango du J. Stolnitzek (Ibid. 98. or.a.) Cassirerek ere aldeztuko duen ideari eutsiz: "The concept

of 'disinterested pleasure', which was taken up by eighteenth-century German aesthetics, further developed by Mendelssohn, and systemtically propounded by Kant, derives from Shaftesbury" Cassirer, E., *The Platonic Renaissance in England*, op., cit., 186. or.a.

71.Mor., 207. or.a.

IV ATALA

ENTUSIASMOA, ARRAZOIA ETA ERREBELAZIOA

Maitasun morroia eta entusiasmoa

Ez dirudi entusiasmoaren kontzeptua oso presentzia filosofiko handikoa denik, eta ezta zehaztasun handiegikoa ere baliagarria izateko munduaren ikuskera zientifikorako. Alabaina bada tradizio zabal bat, Greziatik abiatzen dena, Platonekin, kontzeptu hori gogoetarako gai hartu duena berari eduki bat eman nahian. Presentzia hori, dena dela, zabalagoa izan da XVII-XVIII. mendeetan eta leku berezia bete du zenbait pentsalariren lanean, bai Hobbesenean, nola Locke, Leibniz eta Kantenean ere. Hala ere, Shaftesbury dugu entusiasmoari arreta berezia eta zabala eskaini dion gizona, bere filosofia entusiasmoaren filosofiatzat ere joa izan delarik.

Historikoki XVII. mendean jardun erlijiosoan nahikoa erabilpen handiko hitza izan zen, bai kutsu positiboarekin, bai negatiboarekin ere, eta XVIII. mendearen etorrerarekin gehiago zabaldu zen filosofia, arte eta poesia lanetan oso aipatua izan zelarik. Dena dela, hitz honek Shaftesburyren garairako *fanatikoren* sinonimo izatera jo zuen, eta hots negatiboa ateratzen zuen, bai uneko filosofian, bai erlijioan. Kutsu hori bereganatuz Shaftesburyk berak ere bere *Letter Concerning Enthusiasm* lana idatziko du, nahikoa ezaguna izan zena bere garaian entusiasmoari egiten zion kritikagatik.

Baina zertzelada semantikoez edo historikoez gain,

Shaftesburyk berak jartzen gaitu bere kezkaen sorrerazle hurbilenean pistan; hain zuzen, Frantziatik herbesteratutako sekta protestante bat aipatuko digu entusiasmoari buruzko eskutitzean, "French Protestants" direlakoak, jokaera entusiastikoa dutenen adibide bezala¹. "Frantses Profeten" talde hau hugonoteen arteko sekta erradikaldu bat zen, Ingalaterrara joan behar izan zuena Frantziatik ihesi. Eurek jainkoarenganako harreman zuzenaren garrantzia aldarrikatzen zuten, horretarako otoitza eginez harrapatuak izatea lortuko zutela uste zutelarik. Nahikoa arrakasta izan zuten Ingalaterran baina euren profezien hutsak zirela eta, euren sona pittinka pittinka itzaltzen joan zen alienatu ziren arte. Entusiasmo mota hau izango da, hain zuzen, Shaftesburyk errefusatu nahiko zuena fanatismoan eta siniskerian oinarritzen zelako.

Baina Shaftesburyk aipatzen duen aurreko honetaz gain filosofiara ere jo beharko dugu aurkitzeko eztabaidaren solaskide garrantzitsuak, eta hauen artean, zer esanik ez, Locke nabarmenduko zaigu kontu honi dagokionean ere. Lockek bere *An Essay Concerning Human Understanding* lanean tartetxo bat eman zion gai honi, gero, jakina, Leibnizen erantzuna izango zuena. Lockek² bere garaian nagusi den ikuspegi negatibotik aztertuko du entusiasmoa. Berarentzat bereizi egin behar da jakituriarekiko maitasuna alde batetik eta, bestetik, malenkonia eta debozioaren nahasketatik sortzen den entusiasmoa, baina Jakituriarekiko maitasun hori ez du murriztuko arrazoimenezko ezagutzara edo naturaren ezagutza hutsera, baizik eta jainkozko errebelazioa ere ezagutzaren alderdi garrantzitsutzat joko du. Lockerentzat arrazoiaren lana egia errebelatuei dagokienez ez da izango

erabakitzea ea egia hauek hastapen naturaletan oinarriturik uler daitezkeen ala ez, baizik eta benetan Jainkoaren errebelazio diren ala ez³. Izan ere, Lockek ez zuen errebelazioa eta arrazoiaren artean etenik onartzen eta ez zion uko egingo ezagupenaren osagai errebelatuari. Errebelazioa benetan errebelazio den erabakitzea izango da arazoa eta honetarako arrazoiaren erabilpena beharrezkoa izango da, baina behin hori zehaztua, errebelazioa naturazgaindiko jakintza mota bereizi eta goren bat bezala agertuko zaigu.

Entusiasmoa, berriz, bai arrazoitik, bai errebelaziotik, bereiziko du Lockek. Entusiasmoaren eraginez jokatzen duenak ez luke arrazoiaren edo jainkozko errebelazioaren eragipean ekingo, baizik eta bere buruaren harrokeriak bultzatuta, eta irudimenari egingo lioke kasu bere ekintzez eta ideiez erabat konbentzitura egoteko; eta konbentzitura egon, gainera, haiek (arrazoiak eta jainkozko errebelazioak) ematen dutena baino segurtasun handiagoz egongo da, jainkoarekin harreman zuzena duelakoan baitago bera; arrazoa euren gainetik dago, argitasuna euren buruaren baitan dakusate eta ezin dute, euren ustez, oker egon, euren sinesmenaz segurtasun osoa baitute.

Leibnizek jasoko ditu Lockeren iritziak, baina, hala ere, honek egiten duen errebelazioaren onespenera eraso egingo dio bera beti arrazoiaren menpe jarritz. Ezagupenerako bi bide onartzeak, Locke puritanoak egin zuen erara, Leibnizentzat teleskopioaren bidez ikusteko begiak erauztea bezala izango litzateke⁴. Errebelaziotik letorkeen ezaguera onartzen duen arren, arrazoa beti errebelazioaren aurrebaldintzat joko du eta ez benetako errebelazioa eta gezurrezkoaren artean bereizteko

tresnatzat Lockek egin zuen erara.

Entusiasmoa arrazoimenean oinarrituko ez litzatekeen errebelazioa bezala ezaugarrituko du Leibnizek, fantasiaren eta irudikeriaren bideari jarraitzen diona eta berak harrapatzen duenari erosotasuna eta segurtasuna eskaintzen diona, arrazoiak, berriz, askotan bide neketsu baten ondoren atsekabea eskaintzen duen artean⁵.

Dena dela, une batean Leibnizek gogoraraziko du entusiasmo hitzaren jatorri platonikoa eta onartuko du kutsu positiboa izango zuela hasiera batean. "Irrikitasuna [enthousiasme] hitz egokia zen hasieran (...). Sokratesek uste zuen jainko ala demonio batek barne-oharpideak ematen zizkiola, halako moldez non irrikitasuna [enthousiasme] jainkozko sena izango baitzen"⁶. Entusiasmoa jainkozko sena izango zen, jakituriarako maitasunarekin eta, azken baten, arrazoiarekin lotua, baina denborarekin gizakien ametsak, haserreak, grinak eta irudikeriak jainkotasunaren indar batekin lotuak izan zirenez, bateratu egin ziren bizipen hauek entusiasmoaren adigaiarekin.

Shaftesburyk bereizketa hau onartu ez ezik berea egingo du, baina areago joango da eta filosofiaren eta entusiasmoaren artean suetena aldarrikatzeaz gain, azken hau arrazoimenaren esparrura murriztu eta arrazoimenaren sustraietaraino sartzen saiatuko da, horrela bereiziz fedeari eta errebelazioari menperaturiko entusiasmoaren ondoan arrazoimenari loturikoa, ezagutzarako bide bakarra dagoela aitortuz, hots, arrazoiarena, honek guztiak itxuran eta Lockeren ikuspegitik bururaezina emango lukeelarik. Bera izango da, orduan, ilustrazioko pentsalarien artean lehena, eta bakarrenetakoa, entusiasmo onartuko duena gure izaeraren

berezko agerpen bezala, gure indar naturalaren azaleraketa modura, eta, azken baten, arrazoiaren eta filosofiaren benetako adierazpen gisara. Shaftesburyrentzat entusiasmoa, ezagutzeko gaitza den arren, indar boteretsua eta oso hedatua izango da. Gainera, ez da gizaki berezi batzuen ezaugarri ia patologikoa izango, arrazoa guztiongan eta neurri berdinean ematen den gisara denok somatuko baitugu era horretako bizipena:

*"non ia guztiok badakigun zerbait hastapen honi buruz"*⁷.

Honela ikusiko dugu kontzeptu hau muinezkoa bihurtuko dela Shaftesburyrengan, eta bereziki bere bi lanen giltzarria izango dela, *Entusiasmoari buruzko eskutitzarena* eta *Moralistak* lanarena, hain zuzen.

Errebelazioaren eta naturaren arteko etena

Shaftesburyk, entusiasmoaren alderdi negatiboari eraso egitean ez dio begiratuko berak hartzen duen forma zehatz bati. Izan ere, Moralistak lana gehiago dago pentsatuta entusiasmoaren kontzeptuaren adiera ezberdinen bereizketa eta kritika orokor bat egiteko eta ez entusiasmoan murgilduta daudenen talde batari edo besteari bereziki erasotzeko.

Ez dira izango talde horien sinesmen jakin eta zehatzak erasoa jasoko dutenak entusiasmoaren kritika honetan, hauen artean askotan aldeak nabarmenak baitira, baizik eta talde horiek guztiek sinesmen horiek bizitzeko ezartzen duten modua. Hau da,

judutarraren eta jainkogabearen sinesmenak ezberdinak ez ezik aurkakoak izan arren, ideia horiekiko atxikimendu modu bat eta berbera izango da bi kasuetan eta atxikimendu hori izango da, hain zuzen, arbuia garria Shaftesburyrentzat.

Shaftesburyren helburua, azken baten, ezagutzaren, jokaera moralaren eta erlijioaren hastapenak modu razional batean errotzea izango da, ezagutza hori guztia askatasunean oinarrituz eta gizabanakoak jasan dezakeen edozein determinismori uko eginez. Helburu hori lortzeko ezinbestekoa izango zaio sineskeria, itsukeria eta ezagutza modu ez razional guztiek biltzen duten nagusigo batekiko menperaketa moral eta epistemologiko orori eta iritzi bakartasunaren ezarpenari aurre egitea eta eginkizun honetarako entusiasmo itsua bihurtuko da areriorik larriena. Era honetako entusiastentzat ezagutza teorikoaren eta praktikoaren jatorria naturazgaindiko errealitate batean, jainko batengan, egongo litzateke, eta, gainera, euren burua aukeratutzat joko lukete Jainkoarengandik ezagutza hori jasotzeko. Euren sinesmenak egiaren gauzaketarik gorenena izango lirateke eta ez litzateke lekurik egongo, ez beste sinesmen batzuetarako, ezta sinesmen horiek zalantzan jartzeko ere. Era honetara, naturaren ikuspegi bakarra, unibertsuaren bertsio bakarra, norberaren sinesmenei ondoen egokitzen zaiona, ezarriko da taldeko kideen artean, ukatuz horrela natura eta gizartea bera arautuko lukeen ezberdintasunaren hastapena; eta ideia hauek besarkatuko ez lituzkeen guztiak gutxietsiz eta taldekidea bakarrik onartuz, unibertsua, gizakiak eta natura bera ere bere ideiei menperatzea izango du helburu.

Leibnizen hitzotan islatuko dira argi eta garbi ideiak:

"Beti izan dira gizaki batzuk, malenkoniaz nahasitako debozioz eta euren buruez zuten aburu onez, sinestera iritsi direnak gainontzeko pertsonak baino adiskidetasun hurbilagoa zutela beraiek Jainkoarekin"⁸ eta euren ustezko hurbiltasun horrek eraman ditu pentsatzera euren buruan mami zitekeen edozein bizipen egiaren gorpuzketa izango zela. Horrelaxe ikusiko du Filokles eszeptikoak ere bere solasean:

*"Bada jendea, badakit, euren buruaz duten estima hain handiagatik euren ametsak ere sinesten dituztenak"*⁹.

Era honetakoa izango da judutarren jarrera, euren burua jainkoak aukeratutako herritzat jotzen zutenean, baina antzerakoa ere, izango zen aipatzen dituen gainerako sinesle sutsuena, bai jentilena, bai mahomatarrena eta baita jainkogabeena ere; izan ere, ez dira azken hauek libratuko, euren sinesmenen gorentasunaz duten konbentzimendua dela eta, beste fedeetako kideen artean martiriak ekoiztetik.

Dena dela, bizipen hau judutarrez gain jarreraitsu horretan bizi diren guztien ezaugarri denez, Shaftesburyk kritikatu nahi dituen entusiasmoaren okerrik larrienen berri emateko ez du jarriko Filoklesen solaskide bezala erlijio jakin bateko kidea. Esanda geratu da Shaftesburyren lanean ez zaiola kritika erlijio jakin eta bakar bati zuzenduko, honek ezabatuko zuelako bere asmo orokortzailea. Honegatik, eta itxuran ere sahiesteko inork lepora diezaiola honi edo besteari kritika jaurtiki nahi diola, bi solaskide bisitari aukeratuko ditu elkarriketan entusiasta itsuarena egin dezaten, erlijioaren izenean baino, filosofia mota

berri baten izenena jarriko dituelarik hizketan. Hauen ahotan jarriko ditu horien guztien ezaugarri amankomunak bilduko duten jokaeraren ezaugarriak eta ironia handiz ekingo dio itsukeriaren arazo nagusien kritikari.

Bi bisitariak aipaturiko jarrera sendo eta sinestedunarekin agertuko dira eta gogotsu ekingo diote, euren fedeari eutsiz, jakina, era guztietako mirarien, munstrokerien, arrazoigabekerien eta aldrebeskerien berri emateari:

*"Laburtuz, arrazoizkoa, nabarmena eta erraza zena ez zuten gogoko, eta ez zegoen inongo eragozpenik naturaren kontra zihoana, arau eta ordenarik gabea eta beste gauzekin neurririk edo harmoniarik ez zuenarentzako. Gure olgeta nagusia ume itxuragabekoak, xarmaketak, harritzekoak, eta elementuen arteko gudu eta ikarak izan ziren. Bazirudien probidentzia eta naturaren arteko lehian azken andereño hau ahal zen itsusia agertzen zela; bere itsusikeriagatik probidentziaren edertasunak hobetsi eta nabarraraziko zirelarik"*¹⁰.

Bisitari hauentzat ezagutzaren esparruan -bai praktikoan, bai teorikoan- lehena izango da euren jainkotasun pribatutik jaso duten egia errebelatuari eustea, eta horregatik naturatik, euren kanpokotasunetik, atera daitekeen guztiak balio beharko luke errebelaziotik eta probidentziatik eratortzen diren irakaspen praktikoak eta teorikoak indartzeko, baina, hau horrela, berehala agertuko zaie oinarrizko kontrakotasun bat, hain zuzen, naturak eta arrazoiak erakusten dutenaren eta eurek jasotako

errebelazioaren egia nagusien arteko elkarrezintasuna. Izan ere, beretzat dituzten erabateko eta zalantzaezineko egiak ez dira bat etorriko naturak eta arrazoiak eskaintzen dituzten nabarmentasun erraz eta bakunekin. Honek ezinbestekoa egingo du solaskideentzat natura eta errebelazioaren munduaren arteko haustura bat ezar dadin, aurrez lehentasun osoa emango diotelarik -bai ontologiaren aldetik, bai epistemologiarenetik- naturazgaindiko bihurtuko den errealitate errebelatuari.

Naturaren adiera menperatu hau dela eta, eta egiaren oinarria naturazgaindiko errealitatea horren arabera izango denez, naturaren ezagutzan arrazoiaren eta sentipenen bidea baztertu egingo dute:

*"Zeren egia asmoan edo helburuan datzanez, ez da zalantzarik egiten edo erreparorik izaten baliabideak aukeratzerakoan. Hau egia den ala ez ikusteko azken garaiotako esperientziara deitzen dut; hemen ez da zaila izango aurkitzea adibide nabarmenak, non bat egiten diren, izaera batean, gezurketa eta sugarra, itsukeria eta toleskeria"*¹¹.

Honen arabera, ez litzateke arau finkorik, ez legerik, egongo naturan, araua zerbait ezkutukoa izango litzateke, Jainkoaren adimenean gordea izango dena eta berak jakinaraziko diena aukeratutako batzuei. Natura hauentzat bitarteko bat izango da Jainkoak erabiliko duena bere mezuak eurei transmititzeko eta euren eginbeharra mezu horiek interpretatzea eta ulertzea izango da. Naturara hurbiltzeko, arrazoiaren eta sentipenen bideari uko

egingo zaio eta irudimenari bidea ireki -Leibnizek huts egiteko biderik egokientzat jotzen duenetik abiatuta¹²- norberaren asmamenari mugarik jarri gabe naturaren mundua errealtate bitxiz eta harrigarritz ornitzeko orduan. Natura mirariz munstrokeriaz eta aztikeriaz betetako errealtatetzat hartuko dute, dena izango da izua, Jainkozko hitza ez dena baino.

Dena dela, aukeratua izatearen irudipen horretatik eratorriko da, hain zuzen, euren burua gehiagotzat duten horien paradoxa. Euren buruaren nagusitasunaz eta askatasunaz seguru direnean benetan horren aurkako egoera batean biziko dira, menpekotasun egoera batean, pentsamenduaren esparruan morroi, zalantzarako eta kritikarako ate guztiak itxita eta burura etor dakiekeen edozein inpresioaren menpeko, euren sinesmenen menpeko eta beti, paradoxikoki, herexian erortzeko arriskuan:

"Zeren ezin badugu gure sinesmena menperatu, zelan defendituko dugu gure burua profeta faltsuen eta euren sasimirarien aurrean, hauetaz hain arreta handia hartu dugun arren? Zelan salbatuko gara herexiatik eta erlijio faltsutik?"¹³.

Aukeratuok ezaugarritzen dituen entusiasmo harro, hutsal eta ameslaria, orduan -mezuak jasotzen dituen bere banakotasunean, eta kanpokotasunaren eta barnekotasunaren arteko sintesia egiteari uko egiten diona- erlijioaren adiera jakin baten zordun izango da, hain zuzen, aukeratua izatearen harrotasun horri beldurra gehituko diona eta harrotasun eta beldur horiek ardatz duten erlijoak -ezagunak diren gehienak, alegia- kontzientziak

menperatzeko sistemak bihurtuko dira¹⁴ eta horien artean ustez nagusitasuna zena morroitzat bihurtuko da, probidentziak eskaintzen duen egia horrek menpeko egiten du nagusi izan nahi duena, naturari burla egiten diona, ez naturaren determinismoaren morroi, baina bai bere sinesmenen, bere jainkoaren morroi.

Entusiasmo mota honetan murgilduta bizi den gizabanakoa determinismo bikoitzean harrapatua geratuko da (bereziki Shaftesburyri hurbilenak zaizkion erlijioei dagokienean, hala nola kristaua, mahomatarra eta judutarra); alderdi biologikotik, errebelazioaren goraipatze horrek biltzen duen naturaren guxiespenaz gain, gizakiak ezingo ditu bere izaeraren mugak gainditu, bere natura pekatariaren menpeko da, ez askea, beraz, baina, bestalde, kontuan izan behar dugu errebelazioa naturazko mugapenaren pareko kategoria bezala jaso zuela tradizio kristauak, baina alderdi moralaren determinismoaren oinarri bezala, horrela gizabanakoa jainkoaren hitzak, edo jainkoaren hitza entzun nahi dutenen asmazioek, menperatuko dutelarik.

Errebelazioaren determinismoaren eta naturaren determinismoaren gaindiketa

Edozein determinismoren aurrean Shaftesburyk arrazoiaren dimentsio askatzailea aldarrikatuko du eta, gainera, kontuan izanda errebelazioak duen egiaren osotasunaren azalpena emateko nahia, osotasun honen auresuposapenen arrazoi ematea izango du helburu, ez bakarrik ezagutza praktikoarena baizik eta teorikoarena ere. Horregatik esango du:

*"Errebelazioa berez, badakigunez, jainkozko existentzia baten aitorpenean datza, eta filosofiaren lan bakarra da frogatzea zeintzuk diren errebelazioaren auresuposapenak"*¹⁵.

Leibnizek ere onartuko duen bezala esango duenean: «Arrazoiak garamatza, beraz, errebelazioaren egia ezagutzera»¹⁶, Shaftesburyrentzat ezingo da egon benetako funtsapen ontologikorik ezta epistemologikorik ere errebelazioan; izan ere, errebelazioaren aurrekoak, eta ez errebelazioa bera, izango dira lehenak bi alderdi horietatik eta, azken baten, errebelazioa ere bere aurrekoa den testuinguru natural eta moral batean oinarritu beharko da eta ez alderantziz natura eta morala errebelazioan. Hemen ere Descartesen ikuspegiekiko urrunketa igarriko dugu. Descartesentzat Jainkoaren existentziaren ezagutzara barne gogoeta baten bidez iritsiko ginateke, honetan, antza, razionaltasunari lehentasuna emango diolarik, baina honek ez du esan nahi berarentzat ez arrazoiak, ezta natura ere, izango direnik Jainkoaren aurreko; izan ere, Jainkoaren ezagutzara heltzeko bide hau prozesu razional huts bat bezala ulertuko du eta ez da hortik pasako, eta, gainera, naturari dagokionez, bai alderdi epistemologikotik, bai ontologikotik, lehena izaten jarraituko du Jainkoak.

Badakigu Shaftesburyk honen aurrean Niaren, Jainkoaren eta naturaren -Descartesen hiru substantzien- bategitea aldarrikatuko duela, ezagutzaren osotasuna prozesu razional bakar batera murriztuz, ez Jainkoaren ezagupenetik, baizik eta naturaren legeen ezagupenetik eratorriko dena.

*"Beraz, nori agertzen zaizkion zuzen eta erakide unibertso honen legeak eta bere gobernua, hari hitz egiten dio berak zuzentasunaz, hari errebelatzen dio Jainkoa; eta lehen fede honen oinarria ezarriz, beste fede baterako gertatzen du"*¹⁷.

Ez da, beraz, Jainkoa izango naturaren izatearen oinarria, ez da Jainkoaren ezagutza izango gero naturarenera hurbiltzeko aurrebaldintza, baizik eta, alderantziz, naturaren, bere lege harmoniatsuen, ezagutza, izango da edozein motatako errebelazioaren auresuposapena eta jainkoaren ezagutzara heltzeko bidea, eta Jainkoak naturan aurkituko du bere izatearen bermea eta zentzua. Hontara, ez dira Niaren eta Jainkoaren ideia argi eta bereiziak arrazoimenean edo errebelazioan agertuko horietatik naturaren ezagutzara heltzeko, haatik, naturaren legeen ezagutzak izango du Jainkoaren eta Niaren ezagutzara heltzeko bidea.

Alabaina, onartuta badirela arau batzuk naturan ezagutza prozesu razional baten gaia izango direnak, eta errealitatearen osotasuna naturara murrizturik, arazoa izango da erakustea natura horren legeek ez dutela ekarriko beste determinismo batekiko menpekotasuna eta hau da, hain zuzen, bisitariak berehala somatuko duena eta galdegingo du ea errebelazioaren determinismoa sahiesteko ez ote garen sartuko beste determinismo arriskutsuago batean:

*"Zer beste izango da, ostera, zuentzat, naturalistentzat, mundua makina hutsa baino?"*¹⁸.

Hau, jakina, kontuan izanda Shaftesburyren helburu

nagusienetakoa razionaltasuna eta borondate askea naturan barneratzea dela, aurrean izan dezakeen erasorik larrienetakoa izan daiteke. Horregatik arin erantzun beharko dio nabarmenduz bere naturalismoaren eta bisitariak aipatzen duen mekanizismoaren arteko aldea eta argituz beraren naturak bere baitan adimena eta askatasunerako giltza biltzen duela:

"Ezer ez -ihardetsi nuen nik- makinari adimena ematen badiozu. Zeren honela ez baita makina burugobernatua Jainkogobernatua baino.

(...)

*Pareka itzazu geure makinak beste handi horrekin eta begira haien ordena, erabilpen eta higidurek ea adierazten duten halako bizitza perfektua, edo halako adimen betea. Bata arauduna, irmoa eta iraunkorra da; besteak araugabeak, aldakorrak eta iraupegabeak dira. Batarengan jakituria eta zehaztasunaren ikurrak daude; besteengan apeta eta harrokeria. Batarengan zuzentasuna azaltzen da; besteengan fantasia bakarrik"*¹⁹.

Egian esan, ezin da baieztatu erantzuna oso argigarria denik, izan ere, argudio zehatza eskaini ordean, naturaren ordena naturaren ordenaren bidez frogatu nahi duela ematen du eta horretarako ondo zehaztu gabeko burugobernatua eta Jainkogobernatuaren artean bereizketa eskainiko du. Burugobernatu horretan tradizioan mugimendua euren baitan duten automatismoak sartuko lirateke, eta, honen arabera, era honetako izaki bati ukatuko litzaioke izaki libreari legokiokkeen arauzkotasuna

iraupena eta irmotasuna eta honek ez du bermatuko arrazoiarentzat funtsezkoa den askatasuna. Beharrezkoa izango da, orduan, naturan razionaltasuna sartzeko adimen arauduna, iraunkorra, zehatza eta zuzena badela onartzea.

Baina determinismoa sahiesteko bidea izango den arrazoiaren izaera askatzailea bermatzeko ez da aski izango bera ezagutzaren osotasunaren oinarri bezala finkatzea eta baieztatzea badaudela arauak osotasun horretan, naturatik eratortzen direnak eta ezagutu daitezkeenak. Ez dugu gauza handirik aurreratuko arauak eta lege razionalak badaudela onartuz, gero hauek ezartzen bazaizkigu naturazgaindiko Jainkoaren nahia ezartzen zaigun bezala edo arau natural horien indarra errealitate fisikora mugatzen badugu morala naturazgaindikoaren esku utziz. Honegatik guztiagatik aipatu dugun determinismoaren aginduari aurre egiteko, arauzkotasuna baino gehiago benetan arrazoiaren eta adimenaren bereizgarri bihurtuko dena boterearekiko elkarrezintasuna izango da, oso neurri handi batean une honetan Shaftesburyren pentsamendua boterearen eta nagusikeriaren aurkako alegatu garbia eta bizia bihurtuko delarik.

Badakigu errebelazioaren ezaugarri izango dela bere baieztapenek ez dutela zalantzarako eta eztabaidarako aukerarik ematen. Fedezko egiak eztabaídaezinak, aldaezinak, betierekoak, izango dira fededunarentzat. Horrela Shaftesburyk nabarmenduko du errebelazioaren indarra ez dela aurkituko ez bere ontasunean, ez limurtzeko gaitasunean, beldurrean eta izuan oinarritzen den ezarpenean baino, eta hemen dakusa hain zuzen errebelazioaren ahultasuna:

*"Gizakiak isilaraziko lituzkete beharbada, baina ez konbentzitu: boterea ezin da sekula izan ontasunaren froga, eta ontasuna da egiaren bermatzaile bakarra"*²⁰.

Botereari menperaketa Shaftesburyk eskaini digun egiari buruzko ikuspegiaren kontra joango litzateke, izan ere, berak, apustu monistari loturik, identitatea ezarri baitu egia edertasuna eta ontasunaren artean eta, azken baten, errealitate bakarra onartuz gero, beharrezkoa izango da natura eta moralia batera bururatzea, botere baten onarpenak, berriz, dualismoa berrezartzea beharrezkoa egingo zuelarik. Boterea, beraz, ez bakarrik lege fisikoari, baizik eta baita hauen azken oinarri den ontasunari kontrajarrita ere agertuko da; ez da onik egongo, eta ezta naturaren legerik ere, beraz, boterearen indarra nagusi denean.

Honegatik guztiagatik, onaren indarra berrezartzeko, bai naturaren mekanizismoaren, bai naturazgaindiko botere baten nagusitasunetik askatuko gaituen azken giltzarria ematen ahaleginduko da. Eta honetarako arrazoiarena dela esan digun ezaugarri batera joko du, hain zuzen, eztabaidari eta zalantzari, ateak irekiko dizkiona, onartuz naturarekin bat den Jainkoa, edo botere gorenak, ezingo direla azaldu eta sinesgarriak izan, ezin badira ez aztertu ezta kritikatu ere:

"Ontasunagatik sortu zen fidagarritasuna. Ontasunagatik lor dezakete sinesgarritasuna botere gorenek. Euren lana aztertua izatea eta ekintzak kritikatuak izatea zilegi behar dute. Eta horrela, bakarrik horrela, fida daiteke

horietaz: euren ongura errepikatutako seinaleekin frogatuz eta euren izaera, zintasuna eta egiazkotasuna ezarriz"²¹.

Hau koherentea da Shaftesburyren munduaren ulerkeran garrantzizkoak diren bi ideiekin, eragozten dutenak natura era estatiko batean ulertzea: garapena eta sormena. Lehenak natura era dinamiko batean ulertzera behartuko du eta, bigarrenak, aldaketa ez aurremugatutako era batean, baizik eta aske batean eman dadin eskatzen du; eta nekez izango da elkargarria hau dena Jainkotasunaren, *botere goren*en, adiera itxi eta bukatu batekin. Azken batean, mundua hobekuntza batean murgilduta gogartu behar badugu, ona eta arrazoia ere, eta, zer esanik ez, baita Jainkoa ere, era dinamiko batean izan behar ditugu kontuan eta Jainkoa akatsgabeko izaki perfektua edo borondate traszendental bat baino, beti hobekuntzarako gertu egongo den izaki bezala agertuko da.

Baina mekanizismoren arriskua baztertzeke ez da hori aski izango; ez bakarrik botere gorenak edo Jainkotasuna, natura ere ezingo da izan osotasun burutu eta borobil bat, legedi itxi eta galdaezinetara mugatua, eta era dinamiko horretan bururatu beharko da:

"Desadostasun betiraunkorrek, dardarek, indarkeriek, legehausketek, ordenaren aldaketa eta egongaiztasunek, erakusten dute naturan ez dela kontrolik, edo badirela menpekotasunik eta kontrolik gabeko botereak"²².

Naturan askatasuna dago; naturak mugatzen gaitu, baina

askatasuna emanaz mugatzen gaitu. Errealitatea bat da, natura, ez bi, eta askatasunak errealitate horrekin bat egin beharko du eta eragingo dio, bai esparru moralari, baina baita fisikoari ere.

Eta hemen askatzeko zaila den korapila batekin aurkituko gara, ematen duenagatik behartua izango delako naturaren ordenaren hastapenaren ondoan desordenaren hastapena ere onartzera. Ematen du ezin duela sahiestu, bere ahaleaginean, esparru bat geratzea arauzkotasun horretara murrizteari uko egiten diona, ezin duela sentimenduen osotasuna berak nahi duen razionalismora murriztu. Azken baten, shaftesburyk, bai naturari dagokionez, bai botere gorenei, zihurgabetasun neurri bat onartu beharko du, araugabearen esparru bat, determinismoaren itzalari ihes egiteko, arlo teorikora eta praktikora luzatuko dena. Hau izango da bere paradoxa; araua eta legea beharrezkoa izango du errebelazioaren menpekotasunari ihes egiteko, baina arau faltaren maila bat onartu beharko du askatasunari lekua egiteko, araugabetasunari ihes egin behar izan dion bezala arauari ere egin beharko dio ihes adimena galtzen den esparru bat onartuz.

Arrazoa, boterea eta malenkonía

Honetan guztian, dena dela, ez da ikusi behar bakarrik "kontzientziak menperatzeko tresna" liratekeen erlijioen errebelazioari eta botereari buruzko ikuspegiari kritika, baizik eta, halaber, zenbait ikuskera filosofikori ere. Alde batetik, jakina, auzitan egongo da Hobbesen pentsaera, zeinarentzat

boterea naturaren lehen indar mugatzaile bezala agertuko den, bai esparru fisikoan eta baita moralean ere. Ikuspegi honetatik gizabanakoarentzat araubide eta jomuga nagusia beste gizabanakoen gainean gailentzea izango litzateke eta batzuen menpekotasunaren ondoan besteen nagusitasuna ekarriko luke. Shaftesburyren ikuspegi komunitarioak ezingo du onartu ezein motatako boterea izan daitekeela naturaren lege nagusia, beti norberaren interesei begira, eta ez naturaren edo gizartearen osotasunarenari, jarriko lukeelako gizabanakoen jokaera guztia, maitasunaren eta joera gizartekoien indarra erabat zapuztuz eta, azken batean, erlijiotasun sutsua bezain totalitarioa bihurtuko litzatekeelako.

Baina bestetik, ez da geratuko errebelazioaren edo naturaren indar fisikoaren boterearen kritikan eta erlijioaren aurrean arrazoiaren indarra eraitsu eta totalitario batez ezarri nahi dutenei ere egingo die eraso:

*"Eta orain gaitz honen aurkako irtenbide bakarra iritzi erabakartasunean ikusten da (hori bai itxaropen handiko egitasmoa!). Arimak salbatzea da gaur egun izpiritu sutsuen grina heroikoa; eta, neurri batean, epaileen eginbehar nagusia bihurtu da eta gobernuaren beraren xedea ere"*²³.

Kexu da hemen Shaftesbury bere ustez fanatismoaren aurrean, ateismoaren aurrean bezala, benetako arrazoimenak eta ez gaitzespenak, jazarketak edo ezarpenak izan behar duelako bidea eta ikusten duelako sektakide horiena baino arriskutsuagoa bihurtu den fanatismo bat sendotu dela gizartearen zenbait

mailatan, hain zuzen, arrazoimenaren era itxi, absolutu eta totaltzaile batean oinarritzen dena, eta naturan inolako araurik dagoela ukatzen duen entusiasmoaren ondoan, beste bat besarkatzen duena, natura legezkotasun fisiko-matematikora murrizten duena eta ukatzen duena legezkotasun horretatik kanpo inolako razionaltasunik egon daitekeela, gutxietsiz honela legezkotasun horretatik kanpo legokeen guztia eta, azken baten, giza nortasunean funtsezkoa den sentzibilitate estetiko-morala.

Honela, arrazoiaren jarraitzaile sutsuak, erlijioaren jarraitzailearen jokaera berberak antzeratuko ditu, arrazoi hori botere absolutu, ahalguztidun eta unibertsal bezala ulertuz, arrazoimenean ezberdintasuna eta aniztasuna onartu gabe, honela arrazoiaren fundamentalismo gisako bat sortuko litzatekeelarik. Bai batzuen, bai besteen kezka eginbeharra eta grina, euren munduaren ikuskera erabakarrean, "bidetik galdutako arimak" salbatzea izango litzateke, hauentzat, haientzat bezala, munduaren ikuspegi hori ezartzea izango litzatekeelarik egoera nahigarriena: norberaren erlijioarena batzuen kasuan eta arrazoi totaltzaile eta erabakarrarena besteenean.

Bi kasuetan naturari errezeluz begiratuko zaio, egitasmo totaltzaile biak deusesteko arriskurik handiena bertatik etorriko delako, eurek ukatzen duten ezberdintasun hastapena baita bera arautzen duena. Bi ikuspegi horiek exijitzen duten iritzi bakartasunaren aurrean natura bihurria aurkituko da, askotarikoa, bere aniztasunean eta ezberdintasunean berritzailea, berdintzailea eta sortzailea, gazi eta gozoa era batera.

Gure egilearentzat, berriz, ez da izango naturaren aniztasun hori inolako egitasmo razionalen etsaia, haatik, iritzi

bakarraren ezarpenean, sentsibilitate estetikoaren ukazioan eta zigorrera eta sarira murriztutako moral batean aurkituko litzateke arrazoiaren aurkako erasorik handiena. Gizakiak ez luke horrela jardun aske bat sortuko, jardun finko bati menperatuko litzaioke ordea, eta sektakidea, edo iritzi bakarra, munduaren ikuspegi bakarra (eta azken batean sentsibilitate bakarra) onartzen duen arrazoimen absolutu horri edo errebelazio horri begira jokatzera behartuta egongo litzateke, kasu honetan arrazoiaren jarduna askatasun eraikuntza bat izan ordez gizakiaren eta gizartearen menperatzaile bihurtuko litzatekeelarik.

Shaftesburyrentzat, ordea, ez da lehen helburua ideia batzuen nagusitasuna frogatzea eta besteak gaitzestea. Honetan Descartesekin bat egingo du honek adierazten zuenean sinesmen ezberdinekiko errespetua eta arrazoizkotasuna bereak apaltasunez azaltzen zituenean esanaz ez zituela ezarri nahi eta bere nahia zela erakustea berak arrazoimenaz baliatuz egindako bidea, besteen arrazoimenaren garapenari mugarik ezarri gabe.

Horregatik fanatismoaren era ezberdinen aurrean ez du jarrerara erasokor hutsa aldarrikatuko, ez du filosofia edo arrazoia ezarri nahi izango era totalitario batez; izan ere, beraren ustez fanatismoari mesede egitea izango bailitzateke fanatismoan erori diren sekta horientzat sektakideak kartzelaratzeta edo urkatzea²⁴ eta, gainera, arrazoiaren erabilpenarekin kontraesalea izango litzateke. Azken baten, entusiasmoari beste entusiasmo mota batekin erantzutea izango bailitzateke horrelako zerbait egitea, arrazoiaren aldeko itsukeriarekin, alegia.

Bertuteari eta moralari berezko balioa eman nahi bazaio eta ez zigorraren beldurraren ondorio egin, ezingo du aldarrikatu beste inoren jokaeraren zigorra, ezta arrazoimenean oinarrituta ere, limurketa baino; "hobenaren zigorra da berezko hobena"²⁵ gogoratuko du J. P. Larthomasek. Horrela Shaftesburyk entusiasmoari aurre egiteko antzinakoen arteko giroa erreibindikatu du bere *Entusiasmoari buruzko eskutitzean*:

*"Badaki berorrek antzinakoek era guztietako entusiasta eta aztibegiak toleratzen zituztela, baina, era berean, filosofiak horiek adinako bide irekia zuela, horrela sineskeria balantzatzeko. Eta zenbait sekta -pitagoratarrak edo beranduko platonzaleak esaterako- garaiko sineskeria eta entusiasmoari lotzen zitzaizkion artean, epikurearrak, akademikoak, eta beste batzuk, umoreaz eta isekaz balia zitezkeen horren aurka. Eta zorionez gauzak horrela balantzatzen ziren; arrazoiak libre joka zezakeen eta jakituria eta zientzia loratu ziren"*²⁶.

Kontua ez da, orduan, izango era bateko edo besteko entusiasten jazarpena aldarrikatzea eta bultzatzea, honek ekar dezakeelako euren akats berean erortzea, baizik eta horien jarrerari arrazoiak kontrajartzea. Fanatismoaren eta filosofiaren arteko elkarbizitza aldarrikatuko du ez biak maila berdinean jarritz, baizik eta bereiziz, hain zuzen, pentsamenduaren aniztasunaren eta elkarrizketa kritikoaren onarpenean. Fanatikoaren aurrean, orduan, Shaftesburyren jarrera ez da izango bera gutxiestea edo iruzurtzailatzat jotzea. Berak gehiago

ikusiko du entusiasta (*entusiamo* hitza *fanatikoren* zentzuan ulertuta) engainatu bezala, urrunduz horrela hemezortzigarren mendeko zenbait pentsalarirengandik, zeintzuk pentsatuko zuten erlijiozale fanatiko oro, eta are erlijiozale guztiak, iruzurtzaile hutsak zirela eta eurekin arrazonatzeak ez zuela merezi.

Bestalde, Shaftesburyk, arrazoimenaren edukia adieraztean ez digu nahikoa hitz egin ideia zehatz eta definituez, unibertsalki giza izatasunean aurkitu behar diren edukiez. Arrazoimenaren ezarpen autoritarioa desegokia iruditu zaion legez, arrazoiaren eduki batzuk ezartzea ere desegoki irudituko litzaioke. Arrazoiaren oinarrian sentimenduen presentzia somatuko baitu, hor egongo da lehentasuna, eta ez ideien jerarkian, bera izango baita edertasunaren irizpide, gutariko bakoitzaren jeinuan arakatuz aurkituko duguna eta gure maitasuna eta gu geu ederreztatuko gaituena. Gure sentimenduak gure zentzu estetikoaren iturri izango dira eta, azken baten, gure zentzu moralaren eta, beraz, razionaltasunarenak.

Honegatik guztiagatik, arrazoimenaren unibertsaltasunaren onarpenetik, ez da ondorioztatuko bera erabakarra izango dela gizakiarengan. Azken baten, giza barnekotasuna, non banakoak aurkituko duen arrazoi unibertsalaren mezua, ez da izango zerbait egonkorra, estatikoa, ezta kontraesan gabea ere; aurkakoek elkarbizi beharko dute barne esperientzia horretan: "Il faut que l'enthousiasme véridique sache accepter, par un sorte d'expérience intérieure de la 'coincidence des contraires', le paradoxe de cette insaisissable présence"²⁷, dio Larthomasek. Unibertsaltasuna, beraz, arrazoiaren indarrez ezarri nahiko

litzatekeen edozein biziera edo pentsaerari kontrajarriko zaio eta hurbilago izango da komunitate ezberdinen esperientzia aniztasuna onartu eta bera era antiautoritario batez bizitzeko moduarekin. Arrazoimenak, beraz, mundu ezberdinetan eta era ezberdinetan garatua izateko askatasuna beharrezkoa izango du, askatasun eta aniztasun natural eta kultural hori gabe ez bailitzateke benetan arrazoia izango.

Umorearen baliabidea

Arrazoimenaren edo erlijioaren erabakartasunaren morroia den entusiasta, bere izaera menperatu horretan, ez da gauza izango, orduan, jabetzeko naturaren munduaren lege razionalak, eta, jakina, giza kulturaren munduarenak ere, aniztasunean izango duela oinarria, sentigarritasunaren modu ezberdinetatik eratortzen dena. Dena dela, honek ez du eragotziko ohar dadila errealtateari buruzko bere ikuskera erabakarrak beti talka egiten duela naturaren aniztasun egosgogorrarekin eta honek malenkonia egoera batera bultzatuko du, bere ideiez duen segurtasunaren ondoan agertzen den naturaren eta kulturen aniztasun horrek munduaren ikuskera goibel, garraztu eta ezkorra piztuko duelako berarengan.

Munduaren ikuspegi bakarrak antsia eta etsipena ekarriko dio; beti bere "arrazoimen" fanatizatuari edo bere erlijioari atxikita bezala biziko da, urrundu ezinik, eta horretara murriztu beharko da berarentzat munduaren osotasuna, eta ezingo du, beraz, unibertsuaren eta naturaren aberastasuna bere amaiezintasunean

behatu. Bere boterearen eta nagusitasunaren ahuleziaren jabeketak malenkonía eta tristura iratzarriko du berarengan, bere botere ahalguztiduna, ahultzen dakusanaren malenkonía, bere maitasunaren gaia -bere ustez guztiontzat desiragarria- galtzen dela ohartzen denaren tristura.

*"Malenkoniak laguntzen dio entusiasmo orori. Maitasuna dela, erlijioa dela (entusiasmoa baitago bietan), ezerk ezin du eragotzi biek jasotzen duten kalte gero eta handiagoa malenkonía baztertzen ez den artean, eta hau eginez gero, adimena askea izango da entzuteko bataren eta bestearen gehiegikeria barregarrien aurka esan daitekeena"*²⁸.

Malenkonía hori berezkoa izango zaio botere absolutuen argudioan oinarritzen denari, berdín da erlijio baten defentsa egiten duela edo arrazoa duela iturri, azken baten, ezin da horien adimenean inolako pentsamendu askerik egon, boteredun baino boterearen zerbitzari bihurtu direlako. Besteen sentsibilitatea ukatzen dute norberarena ezarri nahi dutenean. Sentsibilitatearekiko esklabutza gainditzearen harrotasunaz bere sentsibilitatearen aurrean jausten da eta entusiasmo mota morroi eta menperatzaile baten biktima izango da.

Hau guztia kontuan izanda ez da harritzekoa izango totalitarismoen arriskutik ihes egiteko, nagusikeriari aurre egiteko eta entusiasmo itsuari erasotzeko bide egokientzat -entusiasmoaren jazarpena aldarrikatzen zutenen aurka- berak humorea eta ironiaren bidea edo adarjotzea aldarrika ditzala:

*"Seguru nago gizakien sena salbatzeko edo munduan gogoa iraunarazteko bide bakarra gogoari askatasun osoa ematea dela. Gogoak ezin du askatasunik izan txantzetarako askatasuna kentzen denean"*²⁹.

Humorea boterearekiko menpekotasunaren ondorio zuzena eta ezinbestekoa den malenkonia hori gainditzeko eta askatasunezko bizitza bati ekiteko bidea eta aurrebaldintza ez ezik arrazoimenaren eta askatasunaren aurrebaldintza ere izango da. Ez algara eta iseka hutsa, baina bai bizitzaren arazo larrienetan urruntasun zuhur bat mantentzea baimenduko duen irria, kezka horietara hurbilketa barea eta neurtua, eta ez amorratua, egin ahal izateko. Hau, neurri baten, sokratesen metodoaren ironiaren pareko urratsa bezala uler daiteke, eta esan ezin dugun arren beharbesteko humore honek metodo bat definitzen duenik, bai esan dezakegu, gehiegikeria ez badirudi, humorearen defentsa arau metodologiko baten pareko izan daitekeela, Descartesen zalantza metodikoaren parekoa, alegia. Descartesen zalantza egiaren bilakuntzaren alderdi propedeutikoa da, bidea prestatzen duena edozein prozesu razional ekiteko, baina eztabaidagarria da zenbait momentutan bere zalantzaren erabilpena; badirudi gehiago balio diola aurrez pentsatua daukan ideia bati justifikazioa emateko, benetan bide berri bat irekitzeko baino.

Ez da ahaztu behar Descartesen helburua zalantzaren bidea hartzean Shaftesburyren helburu bera dela, nagusigo hastapenari aurre egitea, baina gure egilea Descartes baino areago joango da: humorearen errezetari erabilpen zabala eman nahi dio eta arrazoiak ere irrigarritasunaren froga pasa beharko du. Alabaina,

Shaftesburyren helburua arrazoimena humorearen bahetik pasatzean ez da izango egia aurkitzeko bide berri bat erakustea, baizik eta Descartes heldu ez zen muturrera heltzea eta, azken baten, arrazoimen formal huts eta antzuaren ahultasunak erakustea. Honela erlijioa eta entusiasmoa (maitasuna) nagusikeriak eta malenkoniak ezartzen duten itsutasun horretaz aske geratuko dira eta moralaren oinarri askatzaile bat eskaini ahal izango dugu.

*"Umore ona entusiasmoaren aurkako segurtasun handiena izateaz gain, errukiaren eta benetako erlijioaren oinarririk onena da..."*³⁰

Berak onartu egingo du Lockek eta Leibnizek erasotzen duten kontzeptuaren adiera "negatibo" hura kritika razional baten menpera ekarri behar dela eta erakutsi behar dela iradokitzen duen fanatismoa arrazoiaren kontrakoa ez ezik, giza ekintza zuzenerako eta egiaren ezagutzarako ere eragozpen baino zerbait gehiago dela. Honegatik menpekotasun eta botere grina oro baztertu egingo du bere benetako entusiasmoaren (eta filosofiaren) adieran eta bera oinarri maitakorretan, atseginetan eta alaietan finkatuko du.

"Aitortu behar dut -esan nuen- entusiasta atseginago honek ez duela izaera arruntekoaren kutsu basatia. Dena zen harengan leuna eta harmoniatsua. Bere egikerak gehiago du antza askotan liluratu zaituen antzinako poeten goialdiarekin, egungo fanatikoek jokabide zaputz eta piztiarekin baino. (...) Baina zera zen berarengan berezia:

*bete-bete*an entusiasta bazen ere, ez zen inolaz ere fanatikoa. Dena entzuten zuen goxoki eta atseginez, eta jasaten ninduen bere pentsamendu guztiak ametsezkotzat jotzen nituenean eta, eszeptikoa nintzenez, bere sistema guztiak zirpiltzen nituenean"³¹.

Honela berak defenditzen duen entusiasta deskribitzean entzule goxoa, atsegina, jasailea eta naturarekin harmoniatsua izango dira berari atxikiko dizkion bereizgarriak. Menperaketa orori uko egingo dio eta benetako maitasuna izango du gidari eta naturaren oinarri den maitasuna bilatuko du hau izango baita, Cassirerek gogorarazten digun legez, entusiasmo ororen jatorria: "They [the platonists] do not seek dominion, they seek a knowledge of that which holds together at its core. And they find this substantial bond not in power, but in love, in the platonic eros: Out of this attitude develops that enthusiasm which Shaftesbury calls the source of all genuine philosophy"³²

Leibniz zurrunaren kezkak

Egia esan, honek guztiak ez dio grazia handiegirik egingo Leibnizi bera ere jabetuko delako Shaftesburyren proposamen errozkoak arrazoia bera ere jartzen duela barrearen auzipean: "Egileak uste du zorrotzak eta serioak kalte egiten diola arrazonaketari"³³. *Entusiasmoari buruzko eskutitza*, eta Shaftesburyren beste zenbait lan, komentatzen duen bere eskutitz batzuetan Leibnizek oso harrera ona eman zion "mila pentsamendu

oso ederrak"³⁴ biltzen dituen idazkiari, baina, hala ere, ohar batzuk jarriko zizkion. Leibnizek egoki deritzo humorearen erabilpen honi baina era berean burura datorkio ez ote duen Shaftesburyk askatasun larregi bilatzen, kritikatzeko askatasun ia unibertsala eskatzen duenean. Ez zaio egoki iruditzen Leibniz azken agintea gorpuzten duten zenbait pertsona humore eta kritikaren aho zorrotzaren mehatsuaren aurrean bilutsik uztea, hain zuzen, egia diren zenbait dogmarekin lotuta baitaude eta, dogma horien egia eta baliagarritasuna eztaba daezina iruditzen zaio. Honela dio Leibnizek: "... il lui semble pourtant que l'autorité met trop de bornes à la liberté de critiquer; ... Je veux croire qu'il ne parle que des dogmes, et qu'il ne niera pas qu'on doit respecter certaines personnes; mais souvent les dogmes sont liés avec ces personnes: et quand ces dogmes sont véritables et contiennent des vérités très utiles et très importantes, je ne vois point à quoi puisse servir la liberté de critiquer ces vérités et les rendre douteuses"³⁵

Ez du, ba, onartuko berak nagusitasuna aitortzen dien zenbait agintarien jokaera aztertzean humorea erabiltzea, azken baten zalantzaren bideari muturreraino jarraitzea bailitzateke eta Leibnizek, garbi dago hemen, ez du asmo handiegirik oso harantza joateko bide horretatik eta elizaren zutabe diren dogma eta funtsezko egiturari heltzen dio horietaz auzitan sartu gabe. Bere pragmatismoaren arabera ahalezko munduetatik onenean bizi garenez, ez du premia ikusten mundu horren funtsapen diren zenbait gauza mugitzeko arriskuan jartzeko, eta horiei buruzko barreari arriskutsua deritzo, ahulduko bailitzateke sinismen horiekiko atxikimendu sendoa. Badirudi hemen Descartesen

pragamatismo moral beretsua jasotzen duela Lebnizek eta berak bezala arazo horiek, euren hastapenetan behintzat, edozein eztabaidatik at utzi nahi dituela.

Ez da ahaztu behar hemen Shaftesburyren eta Leibnizen errebelazioari buruzko ikuspegian dagoen oinarrizko aldea, honek arrazoiaren kritikatik pasa eta gero balioa onartzen dionean, lehenak balio historikoa besterik ez dio onartuko.

Innatismoa

Shaftesburyren helburua entusiasmoaren alderdi positiboa nabarmentzea baino areago joango da eta adigai hori birbalioztatzen eta sakoneko zentzuaz hornitzen ahaleginduko da, entusiasmo filosofikoa entusiasmo mistikoari kontrajarritz, lehena ezagutzaren osotasunaren prozesuaren muineko indarra bihurtzeko; honela, Aristotelek filosofiaren eta zientziaren jatorria axolagabetasunean eta harriduran jartzen bazuen Shaftesburyk abiapuntu honetarako axolagabetasun estetikoaz gain entusiasmoa ere ezarriko du.

Berak aldarrikatuko duen ezagutza, jakina, ez da naturarekin hausten duena izango. Honegatik, Shaftesburyk ukatu egingo du ezagutzaren jatorria egon daitekeela, bai naturazgaindiko errealitate batean, bai naturatik bereizitako ni pentsatzaile batean, bai banakoaren baitan ematen den esperientzia enpiriko batean, hiru kasutan naturarekin hausketa bera ematen delako eta gainera ezagutza banako hutsaren esparrura murrizten delako. Berak esperientzia, sentimendua eta arrazoia naturarekin bat

egingo duen ezagutza joko du bakarrik benetako ezagutzatzat eta hori guztia bilduko duen hastapena ezarriko du entusiasmoaren baitan.

Helburu horrekin entusiasmoari buruzko jatorrizko adiera platonikora hurbilduz eta hitzaren zentzu etimologikoari helduz (*the word itself signifies divine presence*³⁶), onartu egingo du badela jainkotasunaren presentzia bat gizakiaren baitan, gizaki guztien baitan, edozein motatako jakintzaren iturritzat jo daitekeena. Mendeetan zehar jainkotasunaren presentziaren ideia horrek «argitasun naturalaren» adigaiarekin hartu zuen bere adierazpenik nabarmenena eta Descartesengan eta Leibnizengan bere lekua aurkituko zuen, erdi aroko eztabaidetatik jasota, fedeari kontrajarrita eta arrazoiaren sinonimo bezala. Descartesek, arrazoiaren berdina eginez, egia eta faltsuaren artean bereizteko ahalmentzat joko du, Ni pentsatzailearen ezagutza zihurrera eramango duena³⁷, naturak irakatsitakoa, berriz, sinesmenaren arlora murriztuz. Leibnizek³⁸, bestalde, naturaren argitasunaren eta argitasun errebelatuaren artean bereizketa egiten duelarik. Testuinguru honetan Shaftesbury izango da lehena argitasun natural hau entusiasmoaren adigaiarekin lotuko duena³⁹, errebelazioa ezagutza historiko batera murriztuz, naturak irakatsitakoa berreskuratuz arrazoiaren esparrurako eta honekin batera, eta argitasun honen sustraletan, errealtate afektiboa kokatuz.

Entusiasmoa argitasun naturalaren pareko eginda ezagutzari buruzko ikuspegi innatista bat mamituko du bere pentsamenduan, sentimendua, eta berak biltzen duen malgutasun eta askotarikotasuna, arrazonaketaren prozesuan biltzea zilegiko

diona eta ezagutzaren osotasuna prozesu bakar eta batu batean bilduko duena. Entusiasmoa -argitasun natural hori izango litzatekeen legez- edozein ezagutza ekintzatan beharrezkoa izango da eta ezagutza prozesua bere osotasunean zeharkatuko du, eta, alde batera utzita errebelatutako hitza, subjektu ezagulearen eta naturaren arteko etena gainditzen eta benetako ezagutza finkatzen lagunduko du.

Dena dela, ezagutzaren transmititzailearena baino ezagutzaren prozesuaren isiotzailearena izango da entusiasmoaren papera. Ideia baten sorreran, arrazonamenduaren garapenean, entusiasmo neurri bat ezinbestekoa izango da maitasunezko edozein ekintzatan beharrezkoa izango den moduan eta entusiasmo hau erroan bereiziko da ideia bati edo errebelazioari menperaturik bizi gareneko entusiasmoaz. Bi kasuetan eraspen, sentimendu, bizi batek jotzen du, baina lehenean ideia bat sortzeko ahaleginarekin isiotzen da entusiasmo hori, bigarrenean ideia bat besarkatuz eta gure burua bere menpe jarritz.

Entusiasmoaren gakoa, beraz, zeran etzango da: onartzean giza izatasunean badela "a priori" afektibo bat ezagutzaren eta ekintza ororen hastapena izango dena eta gizaki guztiengan aurkituko dena ezinbestean maitasunaren oinarritzko forma unibertsal bezala eta naturaren barne bizipen lejitimo batekin lotzen dena. Gizakia ez da ni pentsatzaile hutsa izango ni sentitzailea baino, eta sentitzen duen neurrian izango da pentsatzaile eta, era berean, naturaren ezagule razionala.

Honela, erro bera izan arren entusiasmoaren bi agerpenak argi eta garbi bereizita agertuko dira Shaftesburyren lanen leku ezberdinetan, nahasketarako aitzakiarik eskaini gabe; izan ere,

entusiasmo bi moten arteko aldeak funtsezkoak izango dira eta oinarri-oinarrian bereiziko dira bi motatako entusiastak, irudimenari, aginteari, sakralizazioari, ideia sistema itxi eta, ustez, unibertsal bati... garrantzia emango diona bata eta etorrian, arrazoian, sentimenduan, naturan eta bera bizitzeko era ezberdinetan, sormenean eta askatasunean, aurkitzen duena bere irrikaren gaia bestea.

Lehenak aginte hori indartzeko bereziki sortutako eraikuntzetan edo ipuin edo kontaeretan, irudimenezko mundu batean, hartuko du gaia, naturaren ordezkotako bihurtuko duen gaia alegia, eta «a priori» horrek errebelazio edo ideia sistema itxi baten forma hartuko du.

Monumentu eta elizinguruak ez ziren niretzako mendiak, lautadak, baso arranditsuak eta arboladiak adinako paraje erakargarriak; nahiago dut azken leku hauetako biztanleen berri izan beste haietakoena baino. Eta gertuago nengoen egia aurkitzeko Teoklesekin erabiltzen zituen fikzio poetikoetan, bere lagunaren edozein ipuin ikaragarritan baino (hain handikiro azalduak, ohiko eran, autoritatezko tonu goratian eta ustezko egi itxura emanaz).⁴⁰

Bigarrenarentzat, berriz, eredia ez da aurkituko elizetan edo arte lanetan, ez sinetsi beharreko ipuin edo kontaeretan -agintearen sinbolo izateko sortuak baitira horiek guztiak- baizik eta naturan edo naturaren indar askatzailearen adierazpen gorena izango den olerkariaren fikzioan, sormen lanean, bere etorrian izango duena indar isiotzaile eta bultzatzaile

nagusiena.

Idea sistema itxi eta autoritarioen aurrean etorria, sen poetikoa, sortzailea (ποιητικός) , natura bizitzeko era ezberdinetan aterako da eta gizaki pribilejiatu batzuen eta ideia eta naturaren bizipen mota jakin baten eskumena izan baino, natura bizitzeko modu ezberdinetan aurkituko da eta naturarekin harremanean bizitzeko era ezberdinak berrerosiko ditu. Honegatik, entusiasmo hau beharrezkoa izango da, ez bakarrik olerkariak buru ditzakeen gauza handietan, baizik eta gizakiak oro har buru dezakeen edozein motatako ekintza razionaletan.

*Bitxikeri antza badago ikuspegi horretan, nire burua lasaitu behar dut ahal dudan ondoen, eta pentsatu behar dut benetako maitasuna eta mirespena entusiasmo direla beti: poeten pozaldia, hizlarien goientasun, musikagileen lilura, musikajole trebeen doinu gorenak; guztiak entusiasmo hutsa, besterik ez! Ikastea ere, artea eta gauza bitxiak maitatzea, bidaiarien eta abenturazaleen izpiritua, adeitasuna, gerla, heroismoa; den-dena entusiasmo! Aski da: poza ematen dit ni entusiasta berri hau izateak, orain arte ezagutzen ez nuen eran."*⁴¹

Ez da olerkaria, beraz, bakarra izango naturaren argitasunaz baliatuko dena bere zereginerako. Olerkaria eta artzaia, gizonezkoa eta emakumezkoa, jende xehea eta handikia ... guztiak izango dira naturaren mezuaren jasotzaile, guztiak maitale (boteredun izan ez arren), guztiak entusiasmo askatzaile, alai eta atseginerako gai. Erlijioak, filosofiak, musikak, hizketak,

bidaiatzeak... hau da, giza jeinuaren zeregin gorenenen adierazpen izango den guztiak, argitasun naturalaren, jainkotasunaren, presentzia hori ezinbesteko baldintza izango du. Etorri hau, orduan, ez da izango bakarrik pribilejiatu batzuen eskumena, gizabanako guztiena baino, eta natuarekin batasunean bizitzeko modu ezberdin guztiena ere.

Honek guztiak eragingo du Shaftesburyren filosofia herrikoia izan dadila, jakintza eta ezagutza ez gutxi batzuen, ez bizitzaren ikuskera jakin baten, eskumen, baizik eta natura bere ezberdintasunean eta era ezberdinetan bizi duten gizaki guztien egingo duelarik.

LAUGARREN ATALAREN OHARRAK

1. Shaftesbury, *Letter Concerning Enthusiasm*, op. cit., 338. or.a.
2. Locke, J., *An essay concerning Human Understanding*, op. cit., 697-706 or.ak.
3. "Reason must be our last judge and guide in every thing. I do not mean, that we must consult Reason, and examine whether a proposition revealed from god can be made out by natural principles, and if it cannot, that we may reject it: But consult it we must, and by it examine, whether it be a Revelation from God or not". Locke, J., op. cit., 704. Or.a.
4. Leibniz, G. w., *Giza Adimenari Buruzko Entseiu Berriak*, Bilbo, 1996, 453. Or.a.
5. "Irrikitasunaren iturri da bat-bateko errebelazioa erosoagoa gertatzen dela eta laburragoa, arrazoimendu luze eta neketsua baino, eta honi, gainera, ez zaiola beti etekin zorienttsua ateratzen". Leibniz, G. W., *Giza Adimenari Buruzko Entseiu Berriak*, op. cit., 454. Or.a.
6. Leibniz, *Giza Adimenari Buruzko Entseiu Berriak*, op. cit., 455. or.a.
7. "so that almost all of us know something about this principle". *Letter Concerning Enthusiasm*, op. cit., 372. Or.a.
8. Leibniz, *Giza Adimenari Buruzko Entseiu Berriak*, op. cit., 454 or.a.
9. *Mor.*, 157. or.a.
10. *Mor.*, 156. or.a.
11. *Mor.*, 158. or.a.
12. "Ba al dago errakuntzara bide zuzenagorik, gidaritzat irudimena hartzea baino?" Leibniz, *Giza Adimenari Buruzko Entseiu Berriak*, op. cit., 454 or.a.
13. *Mor.*, 159. or.a.
14. "Toutes les religions historiques sont suspectes en tant que systèmes de domination des consciences". Larthomas, J. P., *De Shaftesbury a kant*, op. cit., 53. Or.a.
15. *Mor.*, 67. or.a.

16. Leibniz, *Giza Adimenari Buruzko Entseiu Berriak*, op. cit., 454. or.a.
17. *Mor.*, 164. or.a.
18. *Mor.*, 166. or.a.
19. *Mor.*, 125. or.a.
20. *Mor.*, 164. or.a.
21. *Mor.*, loc. cit.
22. *Mor.*, 165. or.a.
23. "And now uniformity in opinion (a hopeful project!) is look'd on as the only expedient against this evil. The saving of souls is now the heroick passion of exalted spirits; and is become in a manner the chief care of the magistrate, and the very end of government itself". *Letter Concerning Enthusiasm*, op. cit., 328. or.a.
24. *A Letter Concerning Enthusiasm*, op. cit., 338. or.a.
25. Larthomas, J. P., *De Shaftesbury a Kant*, op. cit., 489. or.a.
26. *A Letter Concerning Enthusiasm*, op. cit., 328. Or.a.
27. Larthomas, J. P., *De Shaftesbury a Kant*, 188. or.a.
28. "There is a melancholy which accompanys all enthusiasm. Be it love or religion (for there are enthusiasms in both) nothing can put a stop to the growing mischief of either, till the melancholy be remov'd, and then the mind at liberty to hear what can be said against the ridiculousness of an extreme in either way". *A Letter Concerning Enthusiasm*, op. cit., 322. or.a.
29. "I am sure the only way to save mens sense, or preserve wit at all in the world is to give liberty to wit. Now wit can never have its liberty, where the freedom of raillery is taken away". *A Letter Concerning Enthusiasm*, op. cit., 330. or.a.
30. "Good humour is not only the best security against enthusiasm, but the best foundation of piety and true religion". *A Letter Concerning Enthusiasm*, op. cit., 334. or.a.
31. *Mor.*, 86. or.a.
32. Cassirer, E., *Platonic Renaissance in England*, op. cit., 192. or.a.
33. "Mais l'auteur se figure que le grave ou le serieux fait du tort au raisonnement." Leibniz, G. W., *Giza Adimenari Buruzko Entseiu Berriak*, op. cit., 409. or.a.

34. Leibniz, G. W., *Die Philosophischen Schriften*, op. cit., III. alea, 423. or.a.

35. Leibniz, G. W., *Die Philosophischen Schriften*, op. cit., III. alea, 408. or.a.

36. *A Letter Concerning Enthusiasm*, op. cit., 372. or.a.

37. "Zerbait naturak irakatsi didala diodanean - esango du Descartesez Meditazio Metafisikoetan - natura hitzaz zera ulertzen dut: nik gauza hori sinesteko dudan joera, eta ez ordea gauza hori egia dela erakusten didan naturaren argitasuna; eta gauza bion artean alde handia dago. Zeren ezingo dut nik zalantzan jarri naturaren argitasunak egia dela erakutsi didana, esaterako erakusten didanean nik zalantza egiten dudala eta hortik ateratzen dela ni banaizela. Eta ez dut nire baitan egiaren eta faltsuaren artean bereizteko beste ahalmenik, edo gaitasunik, zeinak irakatsi ahal izango didan ez dela egia naturazko argiak egia bezala erakusten didana eta naturazko argi hori bezain fidagarria izango dena". Descartes, R., *Meditazio Metafisikoak*, Bilbo, 1997, 143, or.a.

38. Leibniz, G. W., *Essais de Théodicée*, *Die Philosophischen Schriften*, op. cit., VI. Alea 102. Or.a.

39. "Shaftesbury occupies, however, a unique position among the enlightened men, in that he accepts enthusiasm as a genuine expression of the natural light, whereas it is usually rejected, e.g. by Locke and Leibniz. This enthusiasm, though derived from Plato, and influenced by Bruno's *eroico furore*, characterizes Shaft's thought". Heinemann, F. H., "The Philosophy of Enthusiasm", op. cit., 297. or.a.

40. *Mor.*, 156. or.a.

41. *Mor.*, 207. or.a.

ONDORIOAK

Lan honen hasieran esan badugu helburua zela Shaftesbury bere aurreko eta garaikideekin solasean jartzea ulertzeko bere kezken genesisia eta garapena eta zeintzuk erantzun nahi dituen galderak, eta, oro har besterik ez bada, apuntatzeko geroan bere ideiek izango duten proiektzioa, heldu da dagoeneko ondorio batzuk eskaintzeko unea.

Bere garaian nagusi ziren, bai erlijioaren esparruan, bai filosofiarenean, era batera edo bestera sentsibiltate estetiko-moralaren eta naturaren artean eten ontologikoa ezartzen zuten ikuspegiak -dela naturari izpiritualtasunaren arrastorik txikiena ukatuz eta naturazgaindikoaren determinismoaren edo mekanizismoaren morroi bihurtuz eta morala Jainkoaren esku utziz edo konbentzio hutsera murriztuz, dela, Hobbesek defendatuko zuen erara, natura maltzurutasun eta miserien kokagune behinentzat joz eta gozamen hutsa aldarrikatuz-.

Honek guztiak, Hobbesen antzera postura materialistak besarkatu zutenak salbu, era bateko edo besteko dualismoa onartzea eta, azken batean, nagusigo bati menperatu beharra, bereziki moral eta estetika kontuetan, zekarkien bai erlijioan nagusi zen ikuskera besarkatzen zutenei eta baita gogoeta filosofikoaren bidea jorratzen zutenei ere. Nola edo hala honetan eroriko ziren Descartes eta Locke, lehenak dualismo garbia defendatu zuelarik naturaren razionaltasuna (maila ontologikoan behintzat) Jainkoaren borondatearen menpe utziz eta moral kontuan konbentzionalismotik oso urrun egongo ez ziren arauak aldarrikatuz, eta bigarrenak moral eta estetika kontuekin

zerikusia izan zezaketen adigaiak konbentziotzat joz eta zenbait kontutan errebelazioaren nagusigoa onartuz.

Egoera honetaz jabeturik Shaftesburyren xede nagusia izango da dualismo hori gainditzea eta erakustea errealitatearen osotasunak batasun harmoniatsu bat osatzen duela eta harmonia horretan bat egin behar dutela bai fisikaren, bai matematikaren eta bai moral eta estetikaren esparruek, honela munduaren jatorrian hastapen bakarra egongo litzatekeelarik, bilduko lukeena bere baitan arrazoa, sentimenak eta sentsibilitatea.

Honek eskatuko du, alde batetik, naturari buruzko ikuspegiaren aldaketa sakona, errebelazioak, arrazoi matematikoak edo zientzia fisikoak irakatsiko duenaren mugetatik areago joango dena eta ikuspegi horren sustraian dimentsio moral-estetikoa barneratuko duena jakintzaren esparruetan lehena bezala, eta naturazgaindikoaren edo mekanizismoaren determinismotik aske geratuko dena, baina baita gizakiak naturarekin ezartzen duen harremanerako fokatzeko berria ere, ez nagusitasun irizpideetan oinarritua eta helburua natura menperatzea izango duena, berarekin kideen arteko kidetasun harremana bilatuko duena baino, nagusitasunaren kontzeptu utilitaristari muzin egin eta harmoniaren kontzeptu estetikotik abiatuko dena, naturaren aniztasun osoa onartuz, naturaren zati den guztiari berezko duintasuna aitortuz eta, lege fisikoek bilatzen duten erregularitasunaz gaindi, naturaren indarren espontaneitateari lekua eginaz eta goraipatuz. Naturan bertan aurkituko baitira ez bakarrik indar fisikoak, baizik eta jokaera moralaren iturri den izpiritualtasuna eta baita Jainkoa bera ere, eta horregatik guztiagatik gizabanakoak materialtasunetik aterako duen etekinari

baino naturaren izpiritualtasunari behatu beharko dio, izpiritualtasun horretan egingo dira eta bat arrazoia eta sentimendua, natura eta Jainkoa.

Shaftesburyrentzat dualismoaren arazoari aurre egiteko eta naturaren eta arrazoiaren benetako berrerospena eta osotasunaren batasun harmoniatsua atzemateko giltzarria ez da ez fisikaren ez matematikaren jardunean egongo, beraz. Euren balioa gutxietsi barik -haatik, aitortuz naturaren harmoniaren isla zuzenak eta nabarmenak direla- bi jakintza horiek mugatuak agertuko zaizkio giza jokaeraren edo naturaren edertasunaren eta ontasunaren arrazoi emateko, edo, beste era batera esanda, arrazoiaren edukia izan behar duen natura arrazoi horretan biltzeko. Izan ere, Shaftesburyren ustez Descartesen eta Lockeren hutsa jakintza praktikoa oinarritzeko orduan emango da, alegia zehaztasuna dela edo sentimenetatik datorren informazioa dela, ezagutza arrazoimen teorikoara murriztu dutela (matematika edo fisika hartuta eredu) eta, horren indarrez sentsibilitatea, eta berarekin jakintza praktikoa, bigarren maila batean geratu zaiela.

Shaftesburyk natura ikuspegi estetiko-moral batetik behatuko du eta beraren helburu hutsa naturaren ikuspegi razional bateratua eskaintzea izango da, gizakiaren dimentsio estetiko-morala naturaren ikuskera orokor batean bilduko duena. Honen batasun harmoniatsuaren mamia hizkuntza poetikoan azaleratuko da, sentsibilitate estetiko-moralean sustraiturik, eta bere adierazpenik gorenena arrazoimen formal hutsean baino maitasunean, eta honen forma gorenena den entusiasmoan, aurkituko du.

Helburu bateratzaile honekin, eta hizketa poetiko bikainaz

baliatuz, lehen urratsa ordura arteko pentsalariek eraikitako sistema metafisikoen oinarritzko kontzeptuak, nola jakintza erlijiosoaren iturri guztiak, naturan lekua hartzera gonbidatzea izango da. Hontara, zenbait argudiapen metafisikorako oinarritzko adigaiak izan diren perfekzioa eta amaigabea naturara murriztuko ditu, ulertuko duelako bera izango dela perfekzio guztien iturri. Naturak, ba, bereganatuko ditu orain arte naturazgaindikoarenak, jainkoarenak, edo arrazoiarenak izan diren ezaugarriak eta ahalmenak. Bera izango da hilezkorra, beraren baitan datzalako perfekzioa eta hilezkortasuna eta ez Jainko arrotz batengan; bera izango da ezagupen gorenaren gaia, berarengan ahituko da esperientziaren osotasuna, berarenak izango dira, azken batean, bere baitango gauzarenak liratekeen ezaugarriak.

Honela natura ez da ideia argi eta bereizi bat bezala agertuko, ezta errealtate fisiko huts eta menpekodun esparrua bezala ere. Bereko izatea izango duen arren ez du bizitza razional banandua izango, Platonen ideien gisara, eta, bestalde, ez da mundu sentigarrian aurkitzen diren izakien osotasuna izango ezta giza a prioriek mugatutako esperientziaren osotasuna ere. Natura ideia eta objektuaren arteko batasuna izango da, nahia eta errealtatearen artekoa, formaren eta ekaiaren artekoa, formaren aniztasun amaigabea ekaian gauzatuko delarik.

Baina naturarentzat berreskuratuko dituen ahalmenetatik nagusienak eta lehenak ez dira izango aipaturiko perfekzioa edo hilezkortasuna, naturaren iraupena horietan islatuko litzatekeen arren, ez baitute balio adierazteko naturaren oinarritzko izaera dinamikoaren indarra; izan ere, naturaren harmonia, batasuna eta iraupena ez da izango hilezkortasun edo perfekzio horren ondorio,

haatik, eurak etzango dira naturaren izaera dinamiko horretan eta hau definituko dutenak sortzeko gaitasuna eta maitasuna izango dira, eurak izango dira eta unibertsuaren formaren eta ordenaren jatorria. Ikuspegi dualistek Jainkoari edo errealtate traszendentalari atxiki dizkiote ahalmen horiek ere. Baina eurak izango dira, higiduren artean, adimenari dagozkion lehenak Horregatik Shaftesburyk ezinbestekoa deritzo sormena eta maitasuna naturarenganatzeari eta ez uztea ahalmen hori natura honetatik kanpo egongo den izaki baten esku, Jainkoaren esku, bestela naturaren izateko baldintzak eurak ezinezkoak bihurtuko lirateke eta.

Natura, beraz, ez da espezie aldaezinen eta hilezkorren joan etorrien antzezlekua izango, baizik eta sormenaren eta maitasunaren indarrez eraiki eta garatuko da, baina ez eraikuntza lan desordenatu batean, baizik eta bertan sortzen diren izaki guztiei duintasuna eskainiz eta harmonia eder eta on bat mamitzeko ezinbesteko xedearekin.

Harmonia horretan substantzialtasuna naturari dagokio, naturaren osotasunari: *Ez al da natura hau oraindik baita bat*, hutsala izango delarik bizitzatik eta naturatik banandutako substantzialtasun bereizia bilatzeko ahalegina. Berak natura baita oso bat bezala bururatzen du, eta bere zatiak ezingo lirateke ezer izan baita horretatik bananduta, bururaezina egingo zaio osotasunetik banandutako zatia, arrazoiaren aurkako burutapena, errealtatearen ukazioa bailitzateke.

Naturari buruzko ikuspegiaren sakoneko aldaketa honek egiari buruzko adiera berria ere bilatzera behartuko du. Aurrerantzean egia ezingo da ulertu naturazgaindiko errealtatetik datorkigun

errebelazio bezala, baina ezta sentimenen eta errealtatearen arteko egokitze soilak bezala ere, edo, Descartesek defendatu zuen erara, prozesu razional matematiko huts baten gisara bururatutako ideia argi eta bereizien jabeak bezala. Ez Jainkoaren hitza, baina ezta matematika edo fisika ere izango dira bidea azken egia hartzeko, zientziaok mugatuak izango direlako errealtate dinamiko hori atzemateko eta ekiteko ahalmena egia horretatik kanpo uzten dutelako, aldaezineko izatasunak bilatuz edota naturaren higadura mekanizismoaren legeetara murriztuz.

Matematikaren eta fisikaren akatsa izango litzateke ez daudela zuzenduta naturaren harmonia bere osotasunean adieraztera. Eredu matematiko hutsari jarraituz gero, arrazoiaketa abstraktu batekin topo egingo genuke, edukirik gabekia, naturaren neurri bateko araugabetasunari eta espontaneitateari begiak itxiko litzekiokiena eta onarekin eta ederrarekin zerikusia duena ahaztuko lukeena. Baina, bestalde, enpirismoak aldarrikatzen duen sentimenezko ezagutza fisikoa ez da hobeto aterako, bere mugak antzekoak izango lirateke eta; alde batetik arrazoimen enpirikoak errealtatearen zatikako ezagutza eskainiko luke eta ezingo genuke hauteman gai horrek unibertsaltasunetik jasotzen duena, bere baitan biltzen den unibertsuaren osotasunaren harmonia alegia, eta, bestalde, gizabanakoak sentimenen bidez bere gorputzarekin harremanean dagoen arloa izango du eskuragarri, baina amaigabeak izango dira unibertsuan materialki helezinak zaizkion errealtate sentigarriak, eta ezingo du, beraz, amaigabe horren baitan dagoen puntu bakoitzaren ezagupen sentigarria izan.

Shaftesburyk errealtate dinamikoa era razionalean

bururatuko du eta berarentzat arrazoimenak errealitatearen osotasun harmonikoa hartu beharko duenez gai bezala eta ezagutzaren abiapuntu eta helmuga bezala ere, ez zaizkio baliagarriak izango arrazoi kartesiarraren eta enpirismoaren bideak. Berak errealitatean, era batera edo bestera, pitzadura ezartzen duen ebidentziaren arau metodologikoaren aurrean beste hastapen metodologiko bati helduko dio, eta horren arabera partikularitasuna osotasunaren partaide den neurrian izan beharko da kontuan, arrazoimena, horrela, osotasunetik zatietara abiatuko delarik eta ez zatitik osotasunera.

Shaftesburyk, Descartesen gisara, onartuko du autokontzientzia bat badela, eta autokontzientzia hori egiarako bidean ezinbesteko aurrebaldintza dela, baina autokontzientziatik ateratzen den egiazkotasunak ez du Descartesengan duen zentzu bera izango, inondik inora. Shaftesburyrentzat burujabeketa ez da banakotasunaren, Ni isolatu eta bereiziaren jabeketa izango, guregan ematen den naturaren osotasunaren jabeketa baino, eta horrela ebidente agertzen zaiguna ez da izango izaki banandu bat, bere baitan berezko izatea bilduko duena, baizik eta, errealitate zabalagoaren zati izanik, zentzua eta izatea errealitate oso horretatik hartzen duen natura harmoniatsua.

Bai Descartesen bai Lockeren akatsa, azken batean, izango da sentimenduaren bideari uko egiten diotela bera arrazoiaren ukazio bezala ulertuz, Shaftesburyrentzat, berriz, ulertezinekoa izango delarik bai sentsibilitatea arrazoimenetik banantzea, bai arrazoimena sentsibilitatetik banantzea -ez da egongo ez sentsibilitaterik gabeko arrazoimenik ez arrazoimenik gabeko sentsibilitaterik-, horregatik autokontzientzia horren oinarrian

sentimendua aurkituko du bera izango delako izatearen osotasuna bere aniztasunean atzemateko bidea, bertan oinarrituko delarik moralitatearekin eta bizitza praktikoarekin zerukisia duen razionaltasuna.

Honela Descartesen argudioari buelta emango dio autokontzientzia horren muina naturaren osotasunaren intuizioa biltzen duen sentimenduan jarritz eta Descartesen arrazonaketa "Sentio ergo sum" delako bat bihurtuz. Sentimendua zerbait partikularra bezala bururatu arren barnekotasuna kanpokotasunarekin elkarjokoan agerraraziko digu eta ez barnekotasuna eta kanpokotasuna bi errealitate substantzial banandu bezala. Eta sentsibilitate horrek, bere egia bakarra bada ere, bi esparruri emango dio gorputza, sormenean oinarrituta estetikarenari eta maitasunarenean oinarrituta etikarenari, ezagutza razionalaren oinarritzakoak izango direnak.

Honela, huts egiteko beldur izan gabe, esan dezakegu Shaftesburyk jakintza estetiko-morala lehen filosofiaren mailara jasotzen duela eta, beraz, ezinezkoa irudituko zaiola benetako ezagutzara heltzea ez bada onaren eta ederraren hautemaketarako bidea den sentsibilitateaz baliatuz.

Egiaren ulerkera, bestalde, edozein eratako asmo utilitaristatik urrundu beharko da Shaftesburyrentzat. Alde batetik, enpirismoak ezartzen dionetik. Honen naturari buruzko adiera partziala izateaz gain interesatua izango da, etekin partikularra ateratzea izango du helburu. Baina, beste aldetik, urrunduko da naturarekiko harremana plazerrera murriztu nahi dutenengandik ere eta, bereziki, Hobbesen materialismo hedonistatik, natura beste gizakiak menperatuz nork bere plazerra

lortzeko baliabidetzat jotzen zuena. Ikuspegi hauek gaingiditzeko Shaftesburyk aipaturiko autokontzientzia horren mugapen eta eduki izango diren bi adigai eskainiko dizkigu estetika eta morala ahalezkoak egingo dutenak eta bere ekarpen nagusitzat joko direnak: desinteres estetikoa eta sen morala, biak egiaren berme eta aurrebaldintza izango direnak.

Gozamen estetikoa, plazerraren aurrean, ezingo da definitu gizakiaren premia materialak asetzen dituzten gaietan oinarrituta, hau da, ederraren era unibertsal batean definitu nahi badugu ezin diogu begiratu asetasuna edo gozamen materiala ematen digunari. Gozamen estetikoaren, desinteresatuaren, helburua ez da izango boterea -ez naturaren ez gizakien gaineko nagusitasuna- baizik eta natura nahiz gizartea ariketa intelektual baten bidez atzematea euren harmonian, euren edertasunean, euren egian alegia; hor izango da gure askatasuna, hori gure sormena erabiltzeko modu librekoa.

Egiara heltzeko, beraz, jarrera intelektual desinteresatu bat hartzea izango da nahitaezkoa, berak baimenduko digulako naturaren atzemaketa zuzen bat eta honetarako eredia landa giroko adibideetan aurkituko du eta gogora ekarriko du artzainaren baretasuna bere inguruako naturari so dagoenean. Bere baretasunean artzainak naturaren hautemaketa egia izango du, bere burua natura horrekin bategina perzibituko duelarik bat egingo delarik bere buruaz duen jabetasuna eta naturaz duena. Dena dela, artzainaren bizipen hori intuzio hutsa izango da eta gorpuzkera eta taxuera razionala eskatuko duena, hau da ihardun, diskurtso bihurtu beharko dena eta hau poetaren eginkizuna izango da. Izan ere, berarentzat poeta izango da egia horretara heltzeko

gaitua egongo dena, bera izango delako gai artzainaren naturarekiko behaketa bare eta desinteresatu hori ihardun razionalaren mailara igotzeko.

Poetak, egia atzemateko bere eginbeharrean, ez du ezer menperatzea izango helburu -besteak beste menperatzeko ahalegin horrek bi izaeraren arteko bereizketa sortzen duenez, ustez bata bestea baino baliotsuagoa gainera, naturaren batasuna hausten duelako- eta ezta botere baten mezuaren transmititzailea izatea ere, haatik, naturaren behaketa errespetotsu batean ederra, ona eta egia (hirurak gauza bera direla) atzematea izango da bere eginbeharra.

Gorago esan legez, egia horren hautemaketarako natura ezingo da gogartu era egonkor batean edo autoritate batek definitua edo sentimenen eta errealitatearen arteko egokitze bezala. Egia errealitate natural berriak sortzeko ahalmenean eta ekintzan etzango da, natura bera artelan baten gisara eta ontasunaren esparru modura ulertu beharko delarik, eta horien iturri eta izatasun diren sortzeko ahalmena eta maitasunaren indarra izango dira poetak beraganatu beharko dituenak bilatzen duen egiara heltzeko. Horretarako poetak bere baitan aurkitu eta garatuko ditu indar horiek eta egia indar horien erabilera eta garapen razionalean egongo da. Ez da egia izango ontasunean eta edertasunean oinarrituta ez bada, edo beste era batera esanda, eta bere baikortasun apartarekin bat eginik, esan dezakegu berarentzat ez dela egia gaiztorik edo itsusirik egongo. Baina, benetako egia, bestalde, bakarrik sormenezko ekintzan zertu ahal izango da.

Ez da zaila honetan guztian ilustrazioko zenbait pentsalarik

berea egingo duten zenbait ideiarene aitzinapena aurkitzea argi eta garbi formulatua. Izan ere, planteamendu traszentalak alde batera utzi beharrak eta naturarako hurbilketa prozesuak gizakiari buruzko ikuspegiaren eraldaketa ekarriko du eta eramango ditu zirrarek giza bizitzan duten garrantzia goraiatzera. Shaftesburyren pentsamenduan, ba, sentimentalismoaren eta erromantizismoaren haziak bilduta egongo dira, Shaftesburyrengandik Schillerenganainoko ardatzetik abiatuko dena XVIII. mendean zehar, eta bere eragina igarriko dugu garai horietan emango diren eztabiadetan eta baita bere ondokoen zenbait zenbait planteamendutan, besteak beste Rousseauarenean, honek gizakiaren berezko izaera zirraretan eta bizitza naturalean kokatzen duenean, izan ere, Shaftesburyk bere eredua bilatzean baserri girora joko du eta hor aurkituko du bere ideialen gauzaketarik gorenena.

Etikaren esparrura pasatuz oharrarazi behar da hasteko giza askatasun eta espontaneitate (naturaltasun) moralaren arerio izango diren bai erlijioaren bai filosofiaren garaiko joera nagusien aurka egingo duela. Alde batetik, erlijioak proposatzen duen ordainezko moralak gaingintu beharrean egongo da, besteak beste era horretako moralak erlijioaren ahalezkotasun baldintzak eurak ere deusestuko lituzkeelako -etika ez ezik erlijioa ere ezinezkoa bihurtuz-; eta, bestetik, filosofia jarriko du jomugan, izan ere, kristautasunaren ordainezko moral horrek erantzun bezala eszeptizismora edo konbentzionalismora bultzatuko baitu garaiko pentsamendua, bai Britainia Handikoa, bai europako beste lurralde batzuetakoa. Alde honetatik Hobbesek gizakia, eta natura bera ere, maltzurto egin badu, ez legokeelako

baliorik euren baitan nagusizaletasun berekoia baino, Lockeek urrats bat gehiago emango du eszeptizismo moral hori sendotzeko. Berarentzat bertutea, nola edertasuna, ez da ezer izango, hitz bat edo nahierarako konbentzioa baino, objektibotasun gabea, eta Descartesez ere, erosotasunagatik edo, konbentzionalismoaren bide beretsutik joko du, neurri batean behintzat.

Shafteburyren erronka, orduan, ordainezko moralak gainditzeaz beste, bai Descartesen bai Lockeren era bateko edo besteko konbentzionalismoa gaindituko duen proposamena eskaintzea izango da, eta honetan bere irtenbidea errozkia izango da, ez du moralak bururatuko ezagutza teorikotik banandutako zerbait bezala, haatik, pentsatuko du, aipatu den bezala, egia moralak -eta ez arrazoimen formalaren egia edo orokorketa inductiboarena- izango dela egia unibertsalera heltzeko benetako abiapuntua. Horregatik, naturaren amaigabearainoko aniztasun hautemanezinaren ezagutzara heltzeko beharrezko izango du moralak eta erlijioa ahalezko egingo dituen objektibotasuna bermatzea. Eta objektibotasun hori bermatzeko norberaren buruaren jabetetatik (edo apertzepziotik, Leibnizek esango zuen bezala) eratortzen zen senaz baliatuko da, bere funtsezko forman sen moralak bezala ulertu beharko dena. Sen moral hori gizakiak onaren eta gaitzaren artean bereizteko duen berezko gaitasuna izango da, unibertsala, razionaltasuna eta sentimendua bilduko duena eta arrazonaketa prozesu ororen abiapuntua izango dena eta bere izaeraren oinarria maitasunean aurkituko duena. Giza izaeraren oinarritzko den ezaugarri horrek beti hurkoa onestea exijitzen du eta honekin batera bestearekiko adiskidetasun eta elkartasun balioak gorestea ere, hemendik eratorriko diren balioak izango direlarik nagusi sentimenduen,

naturaren eta arrazoiaren batasuna sendotu nahi duen moral honetan. Berarentzat ardura morala ez da ardura kolektiboa izango, banakoarena baino, baina eginkizun moralaren eragilea maitasuna izango denez -eta ez norberekeria, besteak menperatzeko grina edo errukia- bere helburua denon zoriontasuna aurkitzean funtsatuko da, erkideena ez ezik mundukide guztiena ere.

Era honetako etika batean gaitzaren lekua portaera hutsera murriztuko da, hau da, ez da norbaiten baitan betirako habia egin duen hegaztia izango, ez da etorriko norbaitek bere barruan maltzurkeriaren izatasuna biltzen duelako, ez da giza izaeraren berezko ezaugarri bereizlea izango eta ez da, ezta ere, ideietan edo munduaren ikuskera ezberdinetan etzango, izan ere, ez dira izatasunak ez ideiak gaiztoak izango, jokaerak baino. Gaitza substantzialtasun orotik kanpo utziz, zerbait koiunturala bihurtuko du, gaingigarria, gizabanakoak bere izaera, bere naturarekiko lotura, ahazten duenean sortzen dena. Gaitza, beraz, nolabait esateagatik, ez-izatearen esparruan kokatuko da, naturaren ukazioan, gizabanakoarengan emango litzatekeen xede unibertsalaren galera bezala ulertu behar baita. Giza banakoak bere jokaera zuzenean harmonia unibertsal horren partaide dela ahaztu eta bere kabuz, bere burua xede hutsa duela, finalitate unibertsal hori alde batera utzita, burutzen duen eginkizuna esan ahal izango da gaiztoa.

Garbi utzita Shaftesburyren helburu nagusia moralitatea era autonomoan funtsatzea izango dela, honek ez du eramango erlijioaren ahalezkotasuna baztertzeraz, haatik, bera oinarri berrietan eraikitzen ahaleginduko da eta, moralitasunaren autonomia eta lehentasuna bermatuta, bien arteko uztarketa

naturan errotutako balio unibertsala izango duen erlijioan finkatzen ahaleginduko da.

Bere nahia arlo honetan puritanismoari eta dogmatismoari erantzutea izango da eta mesfidantzaren eta gure mundu honi uko edo ihes egiten dioten erlijioen aurrean, baikortasunaren, askatasunaren, konfiantzaren eta munduaren gozamen estetikoaren erlijioa proposatuko du. Erlijiotasun laikoa, arrazoizkoa eta naturala, nagusigo argudioak baztertzen dituen eta maitasunaren indar gorenetik eratortzen diren balioak bereak egiten dituen.

Helburu hau betetzeko auzia bere erroetara ekarri behar da eta galdera erlijio guztien oinarria den Jainkotasunaren adieran kokatu beharko da, bera laikotasun eta naturaltasun horrekin konpatibilizatuko duen moduan bururatuz. Honela Shaftesburyk osotasun razional, on eta ederrarekin bat egingo duen jainkoa izango du gogoan. Jainkoa ez da izango aurrerantzean mundutik kanpoko aginteduna, baizik eta munduaren azpian datzan indarra, natura arautuko duen adimena, onaren eta ederraren iturria, naturan bertan aurkituko duguna, ez kanpoko mundu batean, ez ondoko bizitza batean, naturaren eta gizartearen baitan baino.

Erraz atera daiteke naturaren eta Jainkoaren arteko batasun honetatik panteismoaren tradizio luzearekin lotura, Bruno, Spinoza eta beste zenbaitengana garamatzana, baina hauek euren jainkoa, oraindik, modu pertsonal eta traszendente batean bururatzen zuten, Shaftesburyren testuetatik, berriz, nekez lortuko da modurik baieztatzeke Jainkoa era pertsonalean eta traszendentean bururatzen duela. Shaftesburyk, berriz, Jainkoa naturarekin eta bere ekintzaren hastapenarekin bat egingo du eta jainkoaren ezagutza gure baitan jokatzeko duten naturaren

indarretaz jabeketa baten modura ulertuko du,

Leporatu ahal izango zaio ateismoan erortzeko arriskua eta horregatik ahalegin berezia egin beharko du erakusteko naturarekin bat egingo duen Jainko honek ez duela zertan jainkogabetasunean erortzeko arriskua ekarri, haatik, erlijio naturalaren oinarriak funtsatuz defendituko du bera izango dela jainkogabetasunaren aurkako argudiorik sendoena. Onartuko du badela ateismora daraman bide irrazional bat, berez errefusatuko dena, baina horren ondoan aitortuko du razionaltasunaren bidetik ere heldu daitekeela jainkoaren existentziaz zalantzatzea eta, azken batean, jainkogabetasunera. Alabaina ateismo razional honi aurre egiteko, abiabidea ez da izango erlijio dogmatikoa, baizik eta bere zutabeak arrazoimenean sustraitzen dituen erlijioa, edo, hobe esanda, giza izaera unibertsaletik sortzen den sen moral razionala, teismoan gorpuztuko dena eta erlijiotasuna sen horretatik eratortzen den nahitaezko ondorio bezala kontsideratzera eramango gaituena.

Esan dugu Shaftesburyren pentsamenduan maitasunak muinezko lekua beteko duela, bere mailarik gorenena (arrazoizkoa) kontzeptualizatzeko entusiasmoaren adigaia hartuko duelarik. Baina nozio honek bere garaian adiera nahasia zuen, gehiago balioko zuelarik adierazteko erlijioarekiko atxikimendu itsua, fanatikoa, eta eztabaida ugari sortu ziren beraren inguruan, besteak beste Lockeren atentzioa deitu zutenak eta eramango zutenak entusiasmoa gaitzestera fanatismoaren ideiarekin bat eginda bururatuko zuelako.

Shaftesbury, beraz, entusiasmoa berrerosketo eta filosofiaren eta arrazoiaren sustraietan txertatzeko jarrera

fanatiko horien azterketa egin beharrean aurkituko da eta errozko bereizketa bat egin beharko du maitasunaren forma arrazoigabe horien eta berak goraipatu nahi duen entusiasmoaren artean. Helburu horretarako geroago Leibnizek berea egingo duen bereizketa gogoraraziko du, itsukeriarekin lotuko litzatekeen entusiasmoaren ikuspegi arrazoigabearen eta jatorri platonikodun entusiasmoaren ikuspegi razionalaren artean. Bereizketa horretan oinarrituz filosofiaren eta entusiasmoaren artean suetena aldarrikatuko du, bigarren adiera hori bere filosofiaren muina eginaz bera bihurtuko delarik horrela ilustrazioko pentsalarien artean lehena, eta bakarrenetakoa, entusiasmoa onartuko duena gure izaeraren berezko agerpen bezala, gure indar naturalaren azaleraketa modura, eta, azken batean, arrazoiaren eta filosofiaren benetako adierazpen gisara.

Honela ba, entusiasmoaren berrerospen honek fanatismoaren forma ezberdinen taxuzko kritika eskatuko dio, argi eta garbi gera dadin hauen eta entusiasmoaren arteko errozko aldea. Eta oharturik maitasunaren edo ideial batzuekiko atxikimenduaren bi forma horien artean aldea markatuko duena, azken batean, boterearekiko jarrera izango dela, eta itsutasunak beti botere bati men egitea eta norberaren borondatea eta arrazoimena beraren menpe ipintzea biltzen duenez, maitasun aske eta razionalak beti gizabanako burujabea eskatzen duen artean, Shaftesburyren maitasunaren eta entusiasmoaren berrerospenaren aurrebaldintza botereari eta edozein motatako determinismori aurre egin beharrean eta eurak moraltasunetik guztiz baztertu beharrean etzango da. Bere kritika, dena dela, ondoan ikusiko dugun bezala, ez da mugatuko erlijioaren adiera batzuetara bakarrik eta erne

jarriko gaitu, halaber, arrazoirantzako hurbilketa bera biltzen duten filosofien aurrean.

Erlijioaren era itsu hori besarkatzen dutenen jokaera ondo islatua geratuko da Leibnizen hitzotan: «Beti izan dira gizaki batzuk, malenkoniaz nahasitako debozioz eta euren buruez zuten aburu onez, sinestera iritsi direnak gainontzeko pertsonak baino adiskidetasun hurbilagoa zutela beraiek Jainkoarekin.» Alabaina, euren burua gehiagotzat duten horiek paradoxa nabarmenean harrapatuak geratuko dira Shaftesburyren ustez, euren nagusitasunaz eta askatasunaz seguru direnean menpekotasun egoera batean biziko direlako, determinismo bikoitzean harrapaturik. Alde batetik, gizakiak ezingo ditu bere naturaren mugak gainditu, bere natura pekatariaren menpeko izango da, ez askea, beraz, baina, bestalde, errebelazioa ere natura adinako mugatzaile agertuko zaio, gizabanakoa jainkoaren hitzak, edo jainkoaren hitza entzun nahi dutenen asmazioek, menperatuko dutelarik, horrela gizakia moral morroi baten menpean geratuko delarik.

Hala ere, ez da erlijioarena berak ezagutuko duen fanatismoaren era bakarra eta erne jarriko gaitu berarentzat arriskutsuagoa bihurtu den beste itsutasun baten aurrean, hain zuzen, arrazoimenaren adiera itxi, absolutu eta totaltzaile batean oinarritzen dena, natura legezkotasun fisiko-matematikora murrizten duena eta ukatzen duena legezkotasun horretatik kanpo inolako razionaltasunik egon daitekeenik, gutxietsiz honela horretara murrizten ez den guztia eta, azken batean, giza nortasunean funtsezkoa den sentsibilitate estetiko-morala. Azken batean, hemen arriskua da errebelazioaren determinismoa saihesteko ahaleaginean beste determinismo arriskutsuago batean

eror gaitezkeela. Izan ere, ez dugu gauza handirik aurreratuko naturan arauak eta lege razionalak badaudela onartuz, gero hauek ezartzen bazaizkigu naturazgaindiko Jainkoaren nahia ezartzen zaigun bezala, etika edo estetika hortik kanpo, naturazgaindikoaren esku, utziz edo arau natural horien indarra errealitate fisikora mugatzen badugu.

Honegatik guztiagatik aipatu dugun determinismoaren mugaketari aurre egiteko, arauzkotasun jakin bat baino gehiago, benetan arrazoiaren eta adimenaren bereizgarri bihurtuko dena boterearekiko elkarrezintasuna izango da.

Boterea, beraz, ez bakarrik lege fisikoari, baizik eta baita hauen azken oinarri den moralitasunari kontrajarrita ere agertuko da; ez da onik egongo, eta ezta naturaren legerik ere, boterearen indarra nagusi denean. Honegatik guztiagatik, onaren indarra berrezartzeko, bai naturaren mekanizismoaren, bai naturazgaindiko botere baten nagusitasunetik askatuko gaituen azken giltzarria ematen ahaleginduko da. Eta honetarako arrazoiarena dela esan digun ezaugarri batera joko du, hain zuzen, eztabaidari eta zalantzari, ateak irekiko dizkiona, onartuz naturarekin bat den Jainkoa, edo botere gorenak, ezingo direla azaldu eta sinesgarriak izan, ezin badira ez aztertu ezta kritikatu ere.

Dena dela, mekanizismoari eta determinismoari kritikarekin batera orden razionala onartzeak Shaftesbury askatzeko zaila den korapila baten aurrean jarriko du, ematen duenagatik behartua izango delako naturaren ordenaren hastapenaren ondoan desordenaren hastapena ere onartzera. Ematen du ezin duela saihestu, bere ahaleginean, esparru bat geratzeara arauzkotasun horretara murrizteari uko egiten diona, ezin duela sentimenduen

osotasuna berak nahi duen razionalismora murriztu. Azken baten, shaftesburyk, bai naturari, bai botere gorenei, dagokienez, zihurgabetasun neurri bat onartu beharko du, araugabearen esparru bat, determinismoaren itzalari ihes egiteko, arlo teorikora eta praktikora luzatuko dena. Hau izango da bere paradoxa; araua eta legea beharrezkoa izango du errebelazioaren menpekotasunari ihes egiteko, baina arau faltaren maila bat onartu beharko du askatasunari lekua egiteko.

BIBLIOGRAFIA

SHAFTESBURYREN LANEN LEHEN ARGITARAPENEN ZEHAZPEN KRONOLOGIKOA

- 1698 *The Danger of Mercenary Parliaments*, Londres, John Tolanden lankidetzarekin.
- 1698 *Select Sermons of Dr. Whichcot, in two parts, with preface*, Londres. Hitzaurrea Shaftesburyrena da.
- 1699 *An Inquiry Concerning Virtue, in two Discourses.*
I Of Virtue and the belief of a Deity.
II Of the Obligations to Virtue. Londres.
- 1702 *Paradoxes of State, Relating to the Present Juncture of Affairs in England and the Rest of Europe; Chiefly grounded on his Majesty's Princely, pious and most Gracious Speech*, Londres. John Tolanden lankidetzarekin.
- 1704 *The Sociable Enthusiast, A Philosophical Adventure Written to Palemon.*
- 1708 *A Letter Concerning Enthusiasm, To My Lord ******, Londres.
- 1709 *The Moralists, a Philosophical Rhapsody. Being a recital of certain conversations upon natural and moral subjects* Londres.
- 1709 *Sensus Communis: An Essay on the Freedom of Wit and Humour*, Londres.
- 1710 *Soliloquy: or Advice to an Author*, Londres.
- 1711 *Characteristicks of Men, Manners, Opinions, Times. In Three Volumes*¹, Londres.
Vol. I *A Letter Concerning Enthusiasm; Sensus Communis: An Essay on the Freedom of Wit and Humour; Soliloquy: or Advice to an Author.*
Vol. II *An Inquiry Concerning Virtue; The Moralists.*
Vol. III *Miscellaneous Reflections on the said Treatises, and other critical Subjects.*
- 1714 *A Notion of the Historical Draught or tablature of the Judgement of Hercules.* Lehenik 1712. urtean argitaratu zen frantsesez eta ingelesez Characteristicksen 1714. urteko argitarapeneko kopia batzuetan agertu zen.
- 1714 *A Letter Concerning the Art or Science of Design. Characteristicks-en*, 1714. urteko argitarapeneko kopia batzuetan agertu zen.
- 1716 *Several Letters Written By a Noble Lord to a Young Man at the University*, Londres.
- 1721 *Letters from the Right Honourable the late Earl of Shaftesbury, to Robert Molesworth*, Londres. John Tolanden hitzaurre batekin.

¹Bilduma honek izan zuen eragin handia nabarmentzeko aipa daitezke XVIII. mendean izan zituen berrargitarapen ugariak: 1714, 1723, 1727, 1732, 1733, 1737, 1743-45, 1749, 1758, 1773...

GAUR EGUNGO OINARRIZKO ARGITARAPENAK

- 1900 *The Life, Unpublished letters and Philosophical Regimen of Anthony Earl of Shaftesbury, Author of the Characteristicks*,
1914 *Shaftesbury's Second Characters, or the Language of Forms*,
New York, Benjamin Randen edizioa.
1981-93 *Standard Edition, Complete Works*, selected Letters and
posthumous Writings in English with German Translation
edited, translated and with a commentary by Wolfram Benda,
Gerd Hemmerich, Wolfgang Lottes and Erwin Wolff. Advising
coeditors: A Owen Aldrige and Karl-Josef Höltgen, Stuttgart.
1994 *Moralistak*, Bilbo.

LIBURUAK, MONOGRAFIAK ETA ARTIKULUAK

- Alderman, W. E., "The Style of Shaftesbury", in *Publications of the Modern Language Association*, XXVIII (1923) 209-215.
- "Shaftesbury and the Doctrine of Moral Sense in the Eighteenth Century", in *Publication of the Modern Language Association*, XLVI (1931), 1087-1094.
- "Shaftesbury and the Doctrine of Optimism", in *Transactions of the Wisconsin Academy of Sciences, Arts and Letters*, XXVIII (1933), 297-305.
- Aldrige, A. O., "Shaftesbury and the Test of Truth" in *Publication of the Modern Language Association*, LX (1945), 129-156.
- "Two Versions of Shaftesbury's Inquiry concerning Virtue", in *The Huntington Library Quarterly*, XIII (1950), 207-214.
- "Shaftesbury and the Deist Manifesto", in *Transactions of the American Philosophical Society*, XLI (1951), 297-385.
- Aristoteles, *Kategoriak*.
- *Metafisika*.
- Bandini, L., *Shaftesbury, Etica e Religione; la Morale del sentimento*, Bari, 1930.
- Bernstein, J. A., *Shaftesbury, Rousseau and Kant, an Introduction to the Conflict between Aesthetic and Moral Values in Modern Thought*, Toronto, 1980.
- "Shaftesbury's Identification of the God with the Beautiful" in *Eighteenth Century Studies*, 10/3 (1977), 304-325.
- Bonar. J., *Moral Sense*, New York, 1930.
- Brett, R. L., *The Third Earl of Shaftesbury, a study in eighteenth Century Literary History*, London, 1951.
- "The Third Earl of Shaftesbury as a Literary Critic", *Modern Language Review*, XXXVII (1942), 131-146.

- Casini, P., *Moralistak-en italierarako itzulpenaren hitzaurrea, I Moralisti, Rapsodia filosofica*, Bari, Laterza, 1971.
- Cassirer, E., *The Platonic Renaissance in England*. New York, 1970
-*The Philosophy of Enlightenment*, Princeton, 1979.
- Corcoran, C. M., "Do We have a Shaftesburean Self in the Treatise" in *The Philosophical Quarterly*, 23 (1944), 33-54.
- Croce, B., "Shaftesbury in Italia", in *Uomini e cose della vecchia Italia*, Bari, Laterza, 1927.
- Cudworth, R., *The True Intellectual System of the Universe*, Londres, 1678.
- De las Casas, B., *Brevisima relación de la destrucción de las Indias*, Madrid, 1992.
- Descartes, R., *Metodoari buruzko diskurtsoa*, Bilbo, 1997.
-*Meditazio Metafisikoak*, Bilbo, 1997.
- Dickie, G., "Taste and Attitude: the Origin of the Aesthetic", in *Art and the Aesthetic. An Institutional Analysis*, Londres (1974), 519-523.
- Elson, E., *Wieland and Shaftesbury*, New York, 1913.
- Fowler, T., *Shaftesbury and Hutcheson*, New York, 1883
- Fabro, C., "Teismo, deismo e ateismo in Shaftesbury", in *Introduzione all' ateismo moderno*, Roma (1967) 1. alea, 273-296.
- Gadamer, H. G., *Mito y Razón*, Barcelona, 1997.
- Garin, E., *L'illuminismo inglese. I Moralisti*, Milan, 1942.
- Gay, P. *The Enlightenment: an Interpretation*, 2 ale, New York, 1977.
- Georg, S., *Der Naturbegriff bei Shaftesbury*, Frankfurt, 1962.
- Green, S., "Self Interest and Public Interest in Shaftesbury's Philosophy", *Journal of the History of Philosophy*, II (1964), 37-45.
-*Shaftesbury's Philosophy of Religion and Morals: a Study in Enthusiasm*, Columbia University Press, 1961.
- Guzzo, A., "Il senso morale", in *Filosofia*, 33 (1982), 143-180.
- Hayman, J. G., "The Evolution of the Moralists" in *Modern Language Review*, 64 (1969), 728-733.
- Heinemann, F. H., "The philosopher of enthusiasm. With material hitherto unpublished", in *Revue Internationale de Philosophie*, VI, 1952, 294-322.

- "John Toland and the Age of Enlightenment"*, *Review of English Studies*, XX (1944), 125-46.
- Hobbes, *Leviathan*, Bilbo 1994.
- Hutchenson, F., *An Inquiry into the Original of our Ideas of Beauty and Virtue in two treatises*, 1720.
-*System of Moral Philosophy*, 1755.
- Kant, I., *Ideas para una historia universal en clave cosmopolita y otros escritos sobre filosofía de la historia*, Madrid 1987.
- Klein, L. E., "Liberty, Manners, and Politeness in early Eighteenth Century", in *The Historical Journal*, 32 (1989), 583-605.
-*"Shaftesbury and the Culture of Politeness"*, Cambridge, 1994.
- Larthomas, J. P., *De Shaftesbury á Kant*, Lille, 1985.
-*"Humour et Enthousiasm Chez Lord Shaftesbury"*, in *Archives de Philosophie* (1986).
- Leibniz, G. W., *La Monadologie*, Paris, 1978.
-*Die Philosophischen Schriften*, Hildesheim, 1978.
-*Giza Adimenari Buruzko Entseiu Berriak*, Bilbo, 1996.
- Leroy, A., "The Third Earl of Shaftesbury", *Revue Philosophique*, CXLIII (1953) 270-271.
- Levy, A., "Le 'virtuoso' de Shaftesbury", *Deuxieme Congrès Intern. D'esthétique et des Sciences de l'Art*, Paris (1937) II, 26-28.
- Lipking, L., *The Ordering of the Arts in Eighteenth Century England*, Princeton, 1970.
- Lovejoy, A. O., "Optimism and Romanticism" in *Publications of the Modern Language Asociation*, XLII (1927), 921-945.
- Locke, J., *An Essay Concerning Human Understanding*, Oxford, 1982.
- Marco Aurelio, *Meditaciones*, Madril, 1990.
- Markley, R., "Sentimentality as Performance: Shaftesbury, Sterne and the Theatrick of Virtue" in *The New Eighteenth Century* Nussbaum F. y Brown, L. (ed.).
- Marsh, R., "Shaftesbury's Theory of Poetry: The Importance of the Inward Coloquy", *English Literary History*, 28 (1961), 54-69.
- Meyer, H., *Limae Labor, Untersuchungen zur Textgenese und Druckgeschichte von Shaftesburys 'The Moralists'*, Frankfurt, 1978.

- Mijuskovic, B., "Hume and Shaftesbury on the Self" in *The Philosophical Quarterly*, 21 (1971), 324-336.
- Mitchell, E. T., *A System of Ethics*, New York, 1950.
- Moore, C. A., "Shaftesbury and the Ethical Poets in England, 1700-1760" in *Publications of Modern Languages Association in America*, XXXI, (1916), 264-325.
- Morstein, P., "Shaftesbury and the Morality of Art Appreciation" in *The Journal of the History of Ideas*, 55/4 (1994), 631-650.
- Newton, I., *Philosophiae Naturalis Principia Mathematica*, A. Madrid, 1982.
- Nicol, F., *Le Choix Moral chez Shaftesbury*, Thèse de 3ème cycle, Paris, 1983.
- Nicolson, M., *Mountain Gloom and Mountain Glory: The Development of the Aesthetics of the Infinite*, Ithaca, N. Y., 1959.
- Norton, D. F. *David Hume: Common Sense moralist, Sceptical metaphysician*, Princeton, New Jersey, 1982.
- Pagden, A., *Señores de todo el mundo: ideologías del imperio en España, Inglaterra y Francia*, Barcelona, 1997.
- Peach, B., "Shaftesbury" in *Enciclopedia of Morals*, New York, (1956), 107-114.
- Piselli, F., "Shaftesbury: estetica e cosmologia", *Rivista filosofia neo-scolastica*, 61 (1969), 425-460. or.ak.
 -"Shaftesbury's Moral Arithmeticks" in *The Personalist*, XXXIX (1958), 19-27.
- Platon, *Sofista*.
- Porfirio, *Vida de Plotino*.
- Primer, I., "Mandeville and Shaftesbury: some Facts and Problems" in *Mandeville Studies*, La Haye, 1975.
- Raphael, D. D., *The Moral Sense*, Londres, 1947.
- Rousseau, J. J., *Discours sur l'origine et les fondements de l'inégalité parmi les hommes*, Paris 1992.
 -Gizarte Hitzarmena, Bilbo, 1993.
- Schings, H. J., *Melancholie und Aufklärung*, Stuttgart, 1977.
- Schlegel, D. D., "Shaftesbury and the French Deists" in *Studies in Comparative Literature*, 15, 1956.
- Schönfeld, V., *Die Ethik Shaftesburys*, Budapest, 1920.

- Scruton, R., *From Descartes to Wittgenstein: a Short History of Modern Philosophy*, London, 1981.
- Seneka, *Quaestiones Naturales*, III, *Les Stoïciens, Textes Choisis*, Paris, 1990.
- Siegfrid, G., *Der Naturbegriff bei Shaftesbury*, Frankfurt, 1962.
- Sprute, J., "Der Begriff des Moral Sense bei Shaftesbury und Hutcheson" in *Kant Studien* 71 (1980), 221-37.
- Stephen, L., *English Thought in the Eighteenth Century*, 2, Bristol 1991.
- Stolnitz, J. A., "'Beauty': Some Stages in the History of an Idea" in *The Journal of the History of Ideas*, 22, (1961), 185-204.
 -"On the Origins of Aesthetic Disinterestedness" in *The Journal of Aesthetics and Art Criticism*, (1961), 131-142.
 -"Lord Shaftesbury and modern aesthetic theory", *The Philosophical Quarterly*, april (1961), 97-113.
- Sweetman, J. A., "Shaftesbury's Last Commision" in *Journal of the Warburg and Courtauld Institutes*, XIX, 1956, 110-116.
 -*Shaftesbury et la critique d'art*, Londres, 1955.
- Tiffany, E., "Shaftesbury as Stoic" in *Publications of Modern Languages Association of America*, XXXVIII, 1923, 642-684.
- Todorov, T., *La conquista de America, la cuestión del otro, Mexiko*, 1991.
 -*La vida en comun*, Madril, 1995.
- Toole, R., "Shaftesbury on God" in *International Studies in Philosophy* (1976), 81-100.
 -"The Concepts of Freedom and Necessity in Shaftesbury's Philosophy" in *Studia Leibniziana* 9 (1977), 190-211.
- Townsend, D., "From Shaftesbury to Kant. The Development of the Concept of Aesthetic Experience" in *The Journal of the History of Ideas*, 49 (1987), 287-305.
 -"Shaftesbury's Aesthetic Theory" in *The Journal of Aesthetics and Criticism*, 41 (1982), 205-213.
- Tuveson, E., "The Origin of the Moral Sense" in *Huntington Library Quarterly*, XI, (1947-48), 241-259.
 -"The Importance of Shaftesbury" in *Journal of English Literary History*, XX (1953), 267-279.
- Uribarri, I., *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*, 1997, Donostia.
- Voitle, R., "Shaftesbury's Moral Sense", in *Studies in Philology*, 1955, 17-38.

-*The Third Earl of Shaftesbury, 1671-1713*, London, 1984.

Weiser, F., *Shaftesbury und das Deutsche Geistesleben*, Leipzig, 1916, 2. arg. Stuttgart, 1969.

Whitaker, S. F., "Pierre Coste et Shaftesbury", *Revue de Litterature comparée*, XXV (1951), 241-253.

- "The First Edition of Shaftesburys 'The Moralists'" in *The Library*, 7 (1952), 235-242.

White, D. A., "The Metaphysics of Disinterestedness: Shaftesbury and Kant" in *The Journal of Aesthetics and Art Criticism*, 32 (1973-74), 239-248.

Willey, B., "The Third Earl of Shaftesbury" in *The British Moralists*, (1964), 216-232.

Wind, E., "Shaftesbury as a Patron of Art, with a Letter by Closterman and two Designs by Guidi" in *Journal of the Warburg and Courtauld Institutes*, 2 (1938-39).

Woodfield, R., "The Freedom of Shaftesbury's Classicism" in *The British Journal of Aesthetics*, 15 (1975), 254-266.

- "On the Emergence of Aesthetics", in *The British Journal of Aesthetics*, 18 (1978), 217-227.

Wolf, E., *Shaftesbury und Seine Bedeutung für die Englische literatur des 18 JHS. Der Moralist und die literarische Form*, Tübingen, 1960.

Zani, L., *L'Etica di Lord Shaftesbury*, Milan, 1954.